



NAFARROAKO EKONOMIA

2014ko TXOSTENA



LABORAL
kutxa

Ikerketa Departamentua
Zuzendaria: Joseba Madariaga
Lan taldea: **IKEI** research & consultancy SA

© Laboral Kutxa.

ISBN: 978-84-941393-5-2

| | |
|--|------------|
| 1. ESPARRU OROKORRA..... | 10 |
| 1. EKONOMIA INGURUNEA (NAZIOARTEAN ETA ESTATUAN)..... | 11 |
| 1.1 NAZIOARTEKO EKONOMIA..... | 11 |
| 1.2 ESPAINIAKO EKONOMIA | 21 |
| 2. NAFARROAKO EGITURA EKONOMIKOA | 31 |
| 3. IKUSPEGI OROKORRA | 37 |
| 3.1 PRODUKZIOA..... | 40 |
| 3.2 ESKARIA..... | 42 |
| 3.3 PREZIOAK ETA SOLDATAK..... | 44 |
| 3.4 LAN-MERKATUA ETA DEMOGRAFIA | 46 |
| 3.5 FINANTZA-SEKTOREA..... | 54 |
| 4. NAFARROAKO ENPRESEN AZTERKETA EKONOMIKO-FINANTZARIOA | 71 |
| 4.1 JARDUERA: DIRU-SARRERAK, KOSTUAK ETA EMAITZAK | 71 |
| 4.2 INBERTSIOA-FINANTZAKETA..... | 72 |
| 4.3 ERRENTAGARRITASUNA ETA LOTUTAKO MAGNITUDEAK..... | 74 |
| 4.4 ENPLEGUAREN PRODUKTIBITATEA..... | 75 |
| 4.5 NAFARROAKO ENPRESEN DIAGNOSTIKO EKONOMIKO-FINANTZARIOA. SINTESIA..... | 76 |
| 4.6 ESPAINIAKO ENPRESA EZ-FINANTZARIOEN ENPRESA-EMAITZAK..... | 77 |
| 2. LEHEN SEKTOREA..... | 79 |
| 1. IKUSPEGI OROKORRA | 80 |
| 1.1 BILAKAERA ESTATU MAILAN | 80 |
| 1.2 BILAKAERA NAFARROAN..... | 82 |
| 2. NEKAZARITZA AZPISEKTOREA..... | 86 |
| 2.1 EKOIZPENAK ETA AZALERAK | 86 |
| 2.2 NEKAZARITZAKO PREZIOAK ETA EKOIZPENAREN BALIOA..... | 93 |
| 2.3 NEKAZARITZA MAKINETAKO INBERTSIOA..... | 94 |
| 3. ABELTZAINZAREN AZPISEKTOREA..... | 95 |
| 3.1 AZIENDA ERROLDA..... | 95 |
| 3.2 ABELTZAINZAKO EKOIZPENA ETA EMAITZA EKONOMIKOAK | 96 |
| 3.3 ABELTZAINZAKO PRODUKTUEN PREZIOAK | 101 |
| 3. INDUSTRIA | 103 |
| 1. IKUSPEGI OROKORRA | 104 |
| 1.1 JARDUERAREN BILAKAERA | 104 |
| 1.2 ENPRESAK ETA ENPLEGUA..... | 106 |
| 2. INDUSTRIA-EGITURA | 107 |
| 2.1 JARDUERA-AZPISEKTORE GARRANTZITSUENAK IDENTIFIKATZEA..... | 107 |
| 2.2 ENPRESEN TAMAINA, AZPISEKTOREAREN ARABERA..... | 111 |
| 2.3 ENPRESA GARRANTZITSUENAK ETA ATZERRIKO KAPITALAREN PARTE-HARTZEA..... | 113 |
| 3. SIDERURGIA..... | 116 |
| 3.1 IKUSPEGI OROKORRA..... | 116 |
| 3.2 SIDERURGIA ESPAINIAN | 118 |
| 4. NEKAZARITZAKO ELIKAGAIEN INDUSTRIA..... | 122 |
| 4.1 NAZIOARTEKO EGOERA..... | 122 |



| | | |
|------------|---|------------|
| 4.2 | SEKTOREA ESPAINIAN | 123 |
| 4.3 | SEKTOREA NAFARROAN | 124 |
| 5. | AUTOMOZIOA..... | 130 |
| 5.1 | NAZIOARTEKO EGOERA..... | 130 |
| 5.2 | SEKTOREA ESPAINIAN | 134 |
| 5.3 | SEKTOREA NAFARROAN | 140 |
| 6. | PAPERA | 145 |
| 6.1 | NAZIOARTEKO EGOERA..... | 145 |
| 6.2 | SEKTOREA ESPAINIAN | 147 |
| 6.3 | SEKTOREA NAFARROAN | 150 |
| 7. | ERAIKUNTZA | 153 |
| 8. | NAFARROAKO ENPRESA-SAREAREN AZTERKETA..... | 158 |
| 8.1 | SARRERA..... | 158 |
| 8.2 | BILAKAERA OROKORRA..... | 158 |
| 8.3 | SEKTORE EKONOMIKOAK..... | 160 |
| 8.4 | SOLDATAKOEN GERUZAK..... | 163 |
| 4. | ZERBITZUAK..... | 166 |
| 1. | IKUSPEGI OROKORRA | 167 |
| 2. | HEZKUNTZA | 168 |
| 2.1 | UNIBERTSITATEAZ KANPOKO IKASLE KOPURUAREN BILAKAERA | 168 |
| 2.2 | UNIBERTSITATEKO IKASLE KOPURUAREN BILAKAERA | 173 |
| 3. | GARRAIOA..... | 176 |
| 3.1 | ERREPIDE BIDEZKO GARRAIOA | 176 |
| 3.2 | AIRE BIDEZKO GARRAIOA | 179 |

Taula aurkibidea

| | | |
|-----------|--|----|
| 1. taula | Barne Produktu Gordinaren bilakaera | 11 |
| 2. taula | Barne-eskari osoaren bilakaera..... | 12 |
| 3. taula | Ondasunen eta zerbitzuen trukeen bolumenaren gorabeherak | 12 |
| 4. taula | Eragiketa korronteen saldoa (ondasunak, zerbitzuak eta transferentziak)..... | 13 |
| 5. taula | Kontsumo pribatuaren deflatorearen bilakera | 13 |
| 6. taula | Lan-kostu unitario nominalen bilakaera..... | 14 |
| 7. taula | Enpleguaren bilakaera..... | 15 |
| 8. taula | Langabezia-tasa | 15 |
| 9. taula | Administrazio Publikoen finantzaketa-beharrak (finantzaketa-gaitasuna (+) edo -beharra (-), BPG nominalaren ehunekotan)..... | 16 |
| 10. taula | Adierazle nagusiak (EB-28)..... | 17 |
| 11. taula | Barne Produktu Gordinaren (BPGa) hazkundera (Europar Batasuna)..... | 18 |
| 12. taula | Europar Batasuneko per capita BPGa, 2014an..... | 19 |
| 13. taula | Aurreikuspen ekonomikoak (herrialde industrializatuak)..... | 20 |
| 14. taula | Barne-produktu gordina eta haren osagaiak (eskaera eta eskaintza)..... | 23 |
| 15. taula | Barne Produktu Gordinaren banaketa (errenta) | 23 |
| 16. taula | Kontsumo Prezioen Indizea (KPI) eta Industriako Prezioen Indizea (IPI)..... | 25 |
| 17. taula | Errenta-adierazleak eta soldata-kostuak..... | 26 |
| 18. taula | Lan-magnitude nagusien bilakaera Urteko batez bestekoak | 27 |
| 19. taula | Enplegua, egoera profesionalaren eta kontratu motaren arabera. Urteko batez bestekoak..... | 27 |
| 20. taula | Defizit publikoa..... | 28 |
| 21. taula | Espainiako ekonomiaren aurreikuspenak (2015) | 30 |
| 22. taula | Produktzio Egitura (Balio Erantsi Gordinaren sektore-osaera), 1960-2014..... | 31 |
| 23. taula | Okupazio Egitura (enpleguaren sektore-osaera), 1960-2014..... | 31 |
| 24. taula | Nafarroaren partaidetza Espainia osoan, 2014..... | 32 |
| 25. taula | Balio erantsi gordina Nafarroako biztanle bakoitzeko | 33 |
| 26. taula | Bilakaera orokorra | 37 |
| 27. taula | Zenbait jarduera-adierazleren bilakaera..... | 39 |
| 28. taula | Barne Produktu Gordinaren bilakaera | 40 |
| 29. taula | Industria-sektorearen adierazleak..... | 41 |
| 30. taula | Eraikuntza-sektorearen adierazleak..... | 41 |
| 31. taula | Zerbitzu-sektorearen adierazleak..... | 42 |
| 32. taula | Kontsumo- eta inbertsio-adierazleak..... | 43 |
| 33. taula | Kanpo-merkataritzaren bilakaera Nafarroan..... | 43 |
| 34. taula | Nafarroako esportazioak eta inportazioak, herrien eta sektoreen arabera | 44 |
| 35. taula | Prezioen bilakaera Nafarroan..... | 45 |
| 36. taula | Soldata-adierazleak | 46 |
| 37. taula | 2014an Estatuan onartutako arau soziolaboral garrantzitsuenak..... | 47 |
| 38. taula | Biztanleria aktiboa, enplegua eta langabezia..... | 49 |
| 39. taula | Langabezia-tasa adin-estratuen arabera. Urteko batez bestekoak | 50 |
| 40. taula | Enpleguaren bilakaera sektore ekonomikoen arabera. Urteko batezbestekoak..... | 50 |
| 41. taula | SPEEren bulegoetan erregistratutako kontratuak | 51 |
| 42. taula | Hitzarmen kolektiboak eta grebak..... | 52 |
| 43. taula | Biztanleriaren mugimendu naturala..... | 53 |
| 44. taula | Migrazio-saldoak Nafarroan, adinen arabera..... | 53 |
| 45. taula | Kreditu-erakundearen aktiboaren osaera | 57 |
| 46. taula | Kreditu-erakundeak. Kreditua agenteen arabera..... | 57 |
| 47. taula | Kreditu-erakundeak. Kreditua motaren arabera. Beste sektore egoiliar batzuk..... | 58 |



| | | |
|-----------|--|-----|
| 48. taula | Gordailu-erakundeak. Kreditua helburuaren arabera. Beste sektore egoiliar batzuk | 59 |
| 49. taula | Gordailu-erakundeak. Kreditua agenteen eta eremuaren arabera..... | 61 |
| 50. taula | Etxebizitzen gaineko hipoteka berriak eratzea | 62 |
| 51. taula | Ibilgailuen matrikulazioaren bilakaera | 63 |
| 52. taula | Gordailu-erakundeak. Dudazkoen edo berankortasunaren guztizko tasaren bilakaera. Beste sektore egoiliar batzuk..... | 63 |
| 53. taula | Gordailu-erakundeak. Dudazkoen edo berankortasunaren tasaren bilakaera, kredituaren helburuen arabera. Beste sektore egoiliar batzuk..... | 64 |
| 54. taula | Gordailu-erakundeak. Dudazko kredituaren bilakaera helburuen arabera. Beste sektore egoiliar batzuk..... | 65 |
| 55. taula | Kreditu-erakundeak. Gordailuak kreditu-erakundeetan, agenteen arabera | 66 |
| 56. taula | Gordailu-erakundeak. Gordailu motak. Beste sektore egoiliar batzuk..... | 66 |
| 57. taula | Gordailu-erakundeak. Beste sektore egoiliar batzuen eta AAPPen gordailuak..... | 68 |
| 58. taula | Errenta gordin erabilgarria, BEG eta aurrezki gordina..... | 68 |
| 59. taula | Kreditu-erakundeak. Etxekoen unitateetarako ⁽²⁾ eta sozietate ez-finantzarioetarako eragiketa berrietan aplikatutako interes-tasak (TEDR) | 70 |
| 60. taula | Nafarroako enpresen emaitzen kontu erantsia..... | 71 |
| 61. taula | Nafarroako enpresen balantze erantsia..... | 74 |
| 62. taula | Nafarroako enpresen errentagarritasuna..... | 74 |
| 63. taula | Enpleguaren produktibitatea..... | 75 |
| 64. taula | Emaitzen kontua. Urte arteko bilakaera (Enpresa berei dagozkien hazkunde-tasak, aurreko urteko aldi berarekiko)..... | 77 |
| 65. taula | Espainiako nekazaritzako sektoreko makromagnitudeak..... | 81 |
| 66. taula | Nekazaritzako elikagaien kanpo-merkataritza. Nafarroa..... | 84 |
| 67. taula | Enplegua lehen sektorean Urteko batez bestekoak*..... | 85 |
| 68. taula | Lur landuen erabilera..... | 87 |
| 69. taula | Nafarroako nekazaritzako ekoizpen nagusiak | 87 |
| 70. taula | Zereal-aleen azalera eta ekoizpena..... | 89 |
| 71. taula | Lekaleen azalera eta ekoizpena..... | 89 |
| 72. taula | Tuberkuluen azalera eta ekoizpena | 90 |
| 73. taula | Industria-laboreen azalera eta ekoizpena..... | 90 |
| 74. taula | Bazka-laboreen azalera eta ekoizpena..... | 91 |
| 75. taula | Barazkien azalera eta ekoizpena..... | 92 |
| 76. taula | Zur-laborantzen azalera eta ekoizpena..... | 93 |
| 77. taula | Nekazaritza-produktu nagusien prezio eta balioak, guztira | 94 |
| 78. taula | Nafarroan inskribatutako nekazaritzako makinaren balioespena | 94 |
| 79. taula | Azienda-errola (urte bakoitzeko azaroa)..... | 95 |
| 80. taula | Esne-ekoizpena | 97 |
| 81. taula | INTIA-ITGk kudeatutako esne-behi eta -ardien ustiatzearen batez besteko emaitza ekonomikoak | 98 |
| 82. taula | Nafarroan hildako abereen pisua, kanalean | 99 |
| 83. taula | ITGk kudeatutako haragi-behi eta -ardien ustiatzearen batez besteko emaitza ekonomikoak..... | 100 |
| 84. taula | ITGren kudeaketa tekniko-ekonomikoaren kontrolaren mende dauden txerri-ustiatzearen emaitzak..... | 101 |
| 85. taula | Animalia-produktuen prezioak. Urteko batez bestekoak | 102 |
| 86. taula | Industriaren produkzio-jardueraren bilakaera | 104 |
| 87. taula | Nafarroako Industria Produktzioaren Indizearen (IPI) bilakaera, ondasunen jomuga ekonomikoaren arabera..... | 105 |
| 88. taula | Industria Produktzioaren Indizearen bilakaera Nafarroan, jarduera-adarraren arabera..... | 105 |
| 89. taula | Industria-sektoreko langile eta enpresen kopuruaren bilakaera..... | 106 |
| 90. taula | Enplegua eta sortutako Balio Erantsia Nafarroako industrian, jarduera-azpisektorearen arabera, 2013..... | 108 |

| | | |
|------------|--|-----|
| 91. taula | Jarduera-adarrek industriaren balio erantsiaren eta enpleguaren guztizkoan duten parte-hartzea, 2013..... | 109 |
| 92. taula | Industria-enpresen kopurua tamainaren eta jarduera-sektorearen arabera, 2014..... | 111 |
| 93. taula | Industriako langileen kopurua, enpresaren tamainaren eta jarduera-sektorearen arabera, 2014..... | 113 |
| 94. taula | Nafarroako industria-enpresa nagusiak, 2014..... | 115 |
| 95. taula | Altzairu-ekoizpen gordina..... | 117 |
| 96. taula | Siderurgia-produktuen kontsumoa..... | 118 |
| 97. taula | Espainiako siderurgia-sektorearen magnitude nagusiak*..... | 119 |
| 98. taula | Inportatutako lehengaiak..... | 120 |
| 99. taula | Europar Batasuneko nekazaritzako elikagaien industriak izan duen produkzioaren bilakaera..... | 122 |
| 100. taula | Industria Produkzioaren Indizearen (IPI) bilakaera..... | 123 |
| 101. taula | Nafarroako nekazaritzako elikagaien industriaren egitura, 2014..... | 125 |
| 102. taula | Nafarroako nekazaritzako elikagaien industriako enpresa nagusiak, 2014..... | 126 |
| 103. taula | Nafarroako nekazaritzako elikagaien industriako enpresa eta langile kopuruaren bilakaera..... | 127 |
| 104. taula | Industria Produkzioaren Indizearen (IPI) bilakaera..... | 127 |
| 105. taula | Nafarroako nekazaritzako elikagaien kanpoko merkataritzaren bilakaera..... | 128 |
| 106. taula | Nafarroako nekazaritzako elikagaien industriako 17 enpresako lagin baten emaitzen kontu erantsia..... | 128 |
| 107. taula | Nafarroako nekazaritzako elikagaien industriako 17 enpresako laginaren errentagarritasuna..... | 129 |
| 108. taula | Ibilgailuen ekoizpena eta matrikulazioa..... | 133 |
| 109. taula | Espainiako automobil-industriaren ekoizpena, matrikulazioa eta kanpo-merkataritza..... | 135 |
| 110. taula | Turismoen matrikulazioa marken arabera..... | 136 |
| 111. taula | Ibilgailuen esportazio nazionalen jomugako herrialde nagusiak..... | 137 |
| 112. taula | Automozio-sektorearen esportazioak eta inportazioak..... | 138 |
| 113. taula | Espainiako automoziorako ekipo eta osagaien industriaren kopuru nagusiak..... | 139 |
| 114. taula | Enpleguaren eta enpresa kopuruaren bilakaera ^(*) | 140 |
| 115. taula | Ibilgailu automobilen eta haien ordezkoko piezen eraikuntza: enpresen egitura eta enpresa kopurua ⁽¹⁾ | 141 |
| 116. taula | Automozioaren sektoreko Nafarroako enpresa nagusiak, 2014an..... | 142 |
| 117. taula | Kanpo-merkataritzaren bilakaera. Ibilgailu automobilak, osagaiak eta osagarriak*..... | 142 |
| 118. taula | Volkswagen Nafarroa, S.A. enpresaren jarduera-magnitude nagusiak..... | 143 |
| 119. taula | Paper- eta kartoi-ekoizpena (CEPIkokideak)..... | 145 |
| 120. taula | Paper- eta kartoi-ekoizpena, herrialdeka..... | 146 |
| 121. taula | Ore-ekoizpena, herrialdeka..... | 147 |
| 122. taula | Paperaren eta kartoiaren ekoizpena eta kontsumoa.Espainia, guztira..... | 148 |
| 123. taula | Ekoizpena eta kontsumoa, paper motaren arabera..... | 149 |
| 124. taula | Ekoizpena eta kontsumoa ore motaren arabera..... | 150 |
| 125. taula | Paper- eta ore-ekoizpena Nafarroan..... | 151 |
| 126. taula | Nafarroako paperaren eta orearen kanpo-merkataritzaren bilakaera..... | 151 |
| 127. taula | Paper-sektoreko enpresa nagusiak Nafarroan..... | 152 |
| 128. taula | Eraikuntza-sektorearen adierazle batzuen bilakaera..... | 153 |
| 129. taula | Administrazio zentralaren, autonomikoaren eta tokikoaren arteko lizitazio ofizialaren banaketa..... | 155 |
| 130. taula | Lizitazio ofiziala obra motaren arabera (2014)..... | 156 |
| 131. taula | Hasitako eta amaitutako etxebizitzak..... | 157 |
| 132. taula | Eraikuntzan lanean ari diren herritarrak..... | 157 |
| 133. taula | Enpresak ekonomia-sekzioaren arabera. 2008-2014 konparazioa..... | 162 |
| 134. taula | Enpresak soldatuen geruzen arabera. 2008-2014 konparazioa..... | 165 |



| | | |
|------------|---|-----|
| 135. taula | Zerbitzuen sektorearen bilakaera | 167 |
| 136. taula | Ikasle kopuruaren bilakaera, ikastetxe motaren arabera. Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta DBH..... | 169 |
| 137. taula | Euskalduntze-maila. Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta DBH..... | 170 |
| 138. taula | Ikasle kopuruaren bilakaera, ikastetxe motaren arabera. Heziketa Zikloak eta LOGSE Batxilergoa | 172 |
| 139. taula | Euskalduntze-maila. Heziketa Zikloak eta LOGSE Batxilergoa..... | 172 |
| 140. taula | Nafarroako Unibertsitateko ikasleen banaketa..... | 173 |
| 141. taula | Nafarroako Unibertsitate Publikoko (NUP) ikasleen banaketa ⁽¹⁾ | 174 |
| 142. taula | Nafarroako automobil-parkea | 176 |
| 143. taula | Kamioi, industria-traktore eta autobusen matrikulazio garbia..... | 177 |
| 144. taula | Motorizazio-indizeak..... | 178 |
| 145. taula | Autobideko ibilgailuen trafikoa, Nafarroan* | 178 |
| 146. taula | Garraiatutako salgaiak.Jatorriko eta/edo helmugako eskualde barruko eta eskualde arteko garraioa* | 179 |
| 147. taula | Iruñeko aireportuko aire bidezko garraioa..... | 180 |
| 148. taula | Iruñeko aireportuko aire bidezko garraioa, jatorriaren arabera | 181 |

Grafiko aurkibidea

| | | |
|--------------|---|-----|
| 1. grafikoa | Interes-tasen aldakuntzak..... | 16 |
| 2. grafikoa | Interes-tasa ofizialen bilakaera: Europako Banku Zentrala eta Erreserba Federala..... | 29 |
| 3. grafikoa | BPGaren bilakaera | 38 |
| 4. grafikoa | Kanbio-tasa: Euroa versus Dolarra*..... | 54 |
| 5. grafikoa | Ibex-35 indizearen bilakaera Hileko itxiera-balioaren gaineko urtearteko aldakuntza-tasa | 55 |
| 6. grafikoa | Kreditu-erakundeak. Kreditua motaren arabera. Beste sektore egoiliar batzuk (OSR)..... | 59 |
| 7. grafikoa | Kreditu-erakundeak. Kreditua helburuaren arabera. Beste sektore egoiliar batzuk..... | 60 |
| 8. grafikoa | Gordailu-erakundeak. Beste sektore egoiliar batzuentzako kredituaren bilakaera..... | 61 |
| 9. grafikoa | Gordailu-erakundeak. Beste sektore egoiliar batzuen gordailuen bilakaera..... | 67 |
| 10. grafikoa | Nafarroako enpresen errentagarritasuna..... | 75 |
| 11. grafikoa | Nekazaritzako ekoizleek jasotako prezioak..... | 83 |
| 12. grafikoa | Nekazaritza-ekoizpen nagusien bolumenaren banaketa,ehunekotan, 2014 | 88 |
| 13. grafikoa | Nafarroako azizien portzentaje-zko banaketaren bilakaera..... | 96 |
| 14. grafikoa | Nafarroako abeltzaintza-ekoizpena | 99 |
| 15. grafikoa | Jarduera-azpisektoreek Nafarroako industriaren enpleguaren eta balio erantsiaren gutzizkoan duten parte-hartzea, 2013 | 110 |
| 16. grafikoa | Munduko altzairu-ekoizpena..... | 117 |
| 17. grafikoa | Espainiako siderurgia-sektorearen magnitude nagusiak | 119 |
| 18. grafikoa | Paperaren sektoreko aldagai nagusien bilakaera Espainian | 148 |
| 19. grafikoa | Enpresa kopuruaren bilakaera..... | 159 |
| 20. grafikoa | Enpresa kopuruaren urte arteko aldakuntza | 160 |
| 21. grafikoa | Garrantziaren bilakaera estatuko gutzizkoaren gain (Estatua=100) | 160 |
| 22. grafikoa | Enpresen bilakaera sektore ekonomikoaren arabera (2008ko indize-kopuruak=100)..... | 161 |
| 23. grafikoa | Enpresen bilakaera soldatuen tartearen arabera (2008ko indize-kopuruak=100)..... | 164 |
| 24. grafikoa | Unibertsitateaz kanpoko ikasleen matrikulazioen bilakaera Nafarroan ⁽¹⁾ | 171 |

2014

The image features the year '2014' in a large, light purple, sans-serif font. The digit '1' is uniquely styled as a 3D cube with a white-to-purple gradient, appearing to float above the baseline. A smaller, solid light purple cube is positioned directly below the dot of the '1', serving as a period. The entire graphic is set against a dark purple background.

1. ESPARRU OROKORRA

1. EKONOMIA INGURUNEA (NAZIOARTEAN ETA ESTATUAN)

1.1 NAZIOARTEKO EKONOMIA

Ezaugarri orokorrak: produkzio-jarduera

2014an, munduko ekonomiak aurreko bi ekitaldietako hedapenari eutsi dio, ekonomia aurreratuetan izandako hazkundearen areagotze txikiaren eta garapen bidean dauden merkatuetan izandako moteltearen aurrean; dena den, haien ekonomia moteldu den arren, garapen bidean dauden merkatuak izan dira mundu mailan erregistratutako dinamismoaren hiru laurdenen erantzule. Horiek horrela, ELGAren ekaineko aurreikuspenei jarraituz, 2014an herrialde industrializatuek haien hazkunde-erritmoa sendotu dute, % 1,8ra iritsi arte (aurreko ekitaldian hazkundera % 1,4 izan zen).

| 1. taula | | Barne Produktu Gordinaren bilakaera | | |
|----------------------|-------------|-------------------------------------|------------|--|
| Herrialdea | (% Δ) | | | |
| | 2012 | 2013 | 2014 | |
| Estatu Batuak | 2,3 | 2,2 | 2,4 | |
| Japonia | 1,7 | 1,6 | -0,1 | |
| Alemania | 0,6 | 0,2 | 1,6 | |
| Frantzia | 0,2 | 0,7 | 0,2 | |
| Italia | -2,8 | -1,7 | -0,4 | |
| Erresuma Batua | 0,7 | 1,7 | 2,8 | |
| Kanada | 1,9 | 2,0 | 2,4 | |
| Eurogunea | -0,8 | -0,3 | 0,9 | |
| ELGA, guztira | 1,3 | 1,4 | 1,8 | |

Iturria: ELGA. Perspektiba ekonomikoak (2015eko ekaina).

Azter dezagun lehenik Estatu Batuetako ekonomia: 2014an, % 2,4 hazi da, aurreko ekitaldian baino ehuneko bi hamarren gehiago (% 2,2 2013an). Hazkundearen motor nagusia kontsumoa izan da.

Indarra hartzen ari diren eta garapen bidean dauden merkatuei dagokienez, haien ekonomia aurreko ekitaldian baino motelago aritu da, eta, oro har, bilakaera heterogeneoa izan dute. Hala, Txinako ekonomia lau hamarren moteldu da (% 7,4 aurten, % 7,8 2013an) eta Indiakoa, berriz, suspertu egin da (% 7,2 aurten, % 6,9 2013an). Latinoamerikan, Brasileko ekonomia ia ez da hazi (% 0,1 baino ez).

| 2. taula | | Barne-eskari osoaren bilakaera | | |
|----------------------|-------------|--------------------------------|------------|--|
| Herrialdea | (% Δ) | | | |
| | 2012 | 2013 | 2014 | |
| Estatu Batuak | 2,2 | 1,9 | 2,5 | |
| Japonia | 2,6 | 1,9 | -0,1 | |
| Alemania | -0,8 | 0,8 | 1,3 | |
| Frantzia | -0,3 | 0,8 | 0,7 | |
| Italia | -5,7 | -2,5 | -0,6 | |
| Erresuma Batua | 1,5 | 1,8 | 3,4 | |
| Kanada | 2,2 | 1,9 | 1,4 | |
| Eurogunea | -2,3 | -0,7 | 0,9 | |
| ELGA, guztira | 0,8 | 1,2 | 1,8 | |

Iturria: ELGA. Perspektiba ekonomikoak (2015eko ekaina).

Europari begira, Euroguneak berriro ere hazkundearen bidea hartu du 2014an (% 0,9); hala, azken urteotan bizitako beheranzko joera eten du (-% 0,8 2012an; -% 0,3 2013an). Susperraldi horren arduradun nagusiak oztopo fiskalak gutxitzea eta kontsumoa hobetzea izan dira, baita esportazio garbiak hobetzea ere.

Kanpo-merkataritza

Munduko ekonomia suspertzen ari da. Testuinguru horretan, herrialde garatuen kanpo-merkataritza indartzen ari da; hala, ELGA osoan, esportazioak 2013an % 2,7 hazi ziren, eta 2014an, berriz, % 3,7 hazi dira. Inportazioak, berriz, 2013an % 1,9 hazi ziren, eta 2014an, berriz, % 3,5. Hala inportazioen nola esportazioen bizkortze hori herrialde garatu gehienek ekonomian antzeman daiteke.

| 3. taula | | Ondasunen eta zerbitzuen trukeen bolumenaren gorabeherak | | | | | |
|----------------------|--------------|--|------------|--------------|------------|------------|--|
| Herrialdea | Inportazioak | | | Esportazioak | | | |
| | (% Δ) | | | | | | |
| | 2012 | 2013 | 2014 | 2012 | 2013 | 2014 | |
| Estatu Batuak | 2,3 | 1,1 | 4,0 | 3,3 | 3,0 | 3,2 | |
| Japonia | 5,3 | 3,1 | 7,4 | -0,2 | 1,2 | 8,4 | |
| Alemania | 0,4 | 3,2 | 3,4 | 3,5 | 1,7 | 3,7 | |
| Frantzia | 0,8 | 1,8 | 3,9 | 2,6 | 1,8 | 2,4 | |
| Italia | -8,3 | -2,2 | 1,6 | 2,0 | 0,7 | 2,4 | |
| Erresuma Batua | 3,1 | 1,4 | 2,2 | 0,7 | 1,5 | 0,6 | |
| Kanada | 3,7 | 1,3 | 1,7 | 2,6 | 2,0 | 5,4 | |
| ELGA, guztira | 1,3 | 1,9 | 3,5 | 2,8 | 2,7 | 3,7 | |

Iturria: ELGA. Perspektiba ekonomikoak (2015eko ekaina).

Eragiketa korronteen balantza ondasunen eta zerbitzuen merkataritza-jardueraren bilakaerak zein transferentzia korronteez zehazten dute. 2014an, balantzaren saldo defizitarioak orekatzen jarraitu du (2013an - 54,8 mila milioi dolarrekoa zen; 2014an, berriz, - 17,7 mila milioi dolarrekoa), besteak beste Eurogunearen saldo positiboaren hobekuntzari

esker (2013an 361,8 mila milioi dolarrekoa izan zen, eta 2014an, berriz, 445 mila milioi dolarrekoa).

| 4. taula Eragiketa korronteen saldoa (ondasunak, zerbitzuak eta transferentziak) | | | |
|---|---------------|--------------|--------------|
| <i>(mM \$)</i> | | | |
| Herraldea | 2012 | 2013 | 2014 |
| Estatu Batuak | -460,8 | -400,3 | -410,6 |
| Japonia | 61,9 | 39,6 | 22,9 |
| Alemania | 243,1 | 248,1 | 300,9 |
| Frantzia | -41,5 | -40,3 | -28,7 |
| Italia | -9,0 | 20,6 | 38,9 |
| Erresuma Batua | -98,2 | -120,2 | -161,5 |
| Kanada | -60,0 | -54,6 | -39,2 |
| Eurogunea | 274,0 | 361,8 | 445,0 |
| ELGA, guztira | -213,2 | -54,8 | -17,7 |

Iturria: ELGA. Perspektiba ekonomikoak (2015eko ekaina).

Prezioak eta soldatak

Petrolioaren prezioa merkatu egin da, batez ere ekitaldiaren azken zatian (Brent barrilak 109,6 dolar balio zuen 2013an; 2014an, berriz, 99,4 dolar) eta prezioek ere gorako joera moteldu edo gelditu egin dute aurreko ekitaldiaren aldean.

Ildo horretatik, ELGaren esanetan, Euroguneko inflazioa aurreko ekitaldikoa baino txikiagoa izan da (2014an, % 0,5 ; 2013an, berriz, % 1,1); Estatu Batuetan, berriz, inflazioa ia berdin mantendu da, hamarren bat baino ez baita igo (% 1,3 2014an; % 1,2 2013an). Ondorioz, inflazioa oso gutxi igo da, oro har, herrialde industrializatuetan (% 1,5 2014an; % 1,3 2013an).

| 5. taula Kontsumo pribatuaren deflatorearen bilakera | | | |
|---|-------------|-------------|-------------|
| <i>(% Δ)</i> | | | |
| Herraldea | 2012 | 2013 | 2014 |
| Estatu Batuak | 1,8 | 1,2 | 1,3 |
| Japonia | -0,9 | -0,3 | 2,0 |
| Alemania | 1,5 | 1,2 | 0,9 |
| Frantzia | 1,4 | 0,8 | 0,0 |
| Italia | 2,7 | 1,1 | 0,2 |
| Erresuma Batua | 2,1 | 1,9 | 1,6 |
| Kanada | 1,3 | 1,3 | 1,9 |
| Eurogunea | 1,9 | 1,1 | 0,5 |
| ELGA, guztira | 1,9 | 1,3 | 1,5 |

Iturria: ELGA. Perspektiba ekonomikoak (2015eko ekaina).

Testuinguru horretan, banku zentral nagusien ohiko eta ezohiko politika monetarioak espantsiboak izan dira, eta interes-tasak oso baxu mantentzeko balio izan dute. Hala, Estatu Batuetako Erreserba Federalak beste urte batez mantendu du haren erreferentzia-tasa mailarik baxuenean, 2008an finkatu zen mailan, hain zuzen ere (% 0,25). Bitartean, Europako Banku Zentralak asko murriztu du erreferentzia-tasa: % 0,25 izatetik % 0,15 izatera igaro da, eta % 0,15 izatetik % 0,05 izatera.

Lan-kostu unitario nominalen dagokienez, 2014an, sendotu egin dute haien hazkundera, oro har (Estatu Batuen kasuan, 2013an % 0,5 izatetik, 2014an % 1,8 izatera igaro ziren; Eurogunean, aldiz, % 1 izatetik % 1,2 izatera). Alderantziz, beherakadarik handiena Erresuma Batuan izan dute (% 0,4 2014an; 2013an, aldiz, % 1,4).

| 6. taula | | Lan-kostu unitario nominalen bilakaera | | |
|------------------|------------|--|------------|--|
| Herrialdea | 2012 | 2013 | (% Δ) | |
| | | | 2014 | |
| Estatu Batuak | 1,7 | 0,5 | 1,8 | |
| Japonia | -1,4 | -0,8 | 1,6 | |
| Alemania | 3,2 | 2,6 | 2,1 | |
| Frantzia | 2,0 | 0,6 | 1,5 | |
| Italia | 1,6 | 0,6 | 1,3 | |
| Erresuma Batua | 1,9 | 1,4 | 0,4 | |
| Kanada | 2,7 | 1,6 | 1,1 | |
| Eurogunea | 1,3 | 1,0 | 1,2 | |

Iturria: ELGA. Perspektiba ekonomikoak (2015eko ekaina).

Lan-merkatua

Suspertze ekonomikoaren bide beretik, lan-merkatuen egoera ere zertxobait hobetu da 2014an; izan ere, langabezia-tasa, oro har, jaitsi egin da.

Estatu Batuen kasuan, okupazioaren hazkunde-erritmoa sendotu egin da (% 1,8 2014an; % 1,4, berriz, 2013an). Eurogunean, berriz, hainbat urtez beheranzko joera izan ondoren, berriro hasi da suspertzen (% 0,6 2014an; -% 0,6, aldiz, 2012an eta 2013an). Hala, aztertutako kasu guztietan hobera egin du okupazioak.

| 7. taula | | Enpleguaren bilakaera | | |
|------------------|-------------|-----------------------|------------|-------|
| Herrialdea | 2012 | 2013 | 2014 | (% Δ) |
| Estatu Batuak | 1,6 | 1,4 | 1,8 | |
| Japonia | -0,3 | 0,7 | 0,6 | |
| Alemania | 1,0 | 0,9 | 0,9 | |
| Frantzia | 0,0 | 0,0 | 0,1 | |
| Italia | -0,3 | -1,8 | 0,1 | |
| Erresuma Batua | 1,1 | 1,2 | 2,3 | |
| Kanada | 1,3 | 1,4 | 0,6 | |
| Eurogunea | -0,6 | -0,6 | 0,6 | |

Iturria: ELGA. Perspektiba ekonomikoak (2015eko ekaina).

Langabezia-tasari dagokionez, aztertutako herrialdeen artean, Italian bakarrik egin du gora, nahiz eta gorakada txikia izan den (2013an % 12,2 izan zen, eta 2014an, % 12,7). Estatu Batuetan, langabezia-tasa % 6,2raino jaitsi da (2013an % 7,4 zen), Japonian, % 3,6raino (2013an: % 4); Eurogunean % 11,5raino (2013an: % 11,9); bukatzeko, ELGAko kide diren herrialdeetan, % 7,3raino jaitsi zen (2013an: % 7,9).

| 8. taula | | Langabezia-tasa | | |
|----------------------|-------------|-----------------|-------------|-----------------------------------|
| Herrialdea | 2012 | 2013 | 2014 | (biztanleria aktiboaren % zenbat) |
| Estatu Batuak | 8,1 | 7,4 | 6,2 | |
| Japonia | 4,3 | 4,0 | 3,6 | |
| Alemania | 5,4 | 5,2 | 5,0 | |
| Frantzia | 9,4 | 9,9 | 9,8 | |
| Italia | 10,6 | 12,2 | 12,7 | |
| Erresuma Batua | 8,0 | 7,6 | 6,2 | |
| Kanada | 7,3 | 7,1 | 6,9 | |
| Eurogunea | 11,3 | 11,9 | 11,5 | |
| ELGA, guztira | 7,9 | 7,9 | 7,3 | |

Iturria: ELGA. Perspektiba ekonomikoak (2015eko ekaina).

Politika monetarioa eta aurrekontuen politika

Gehiegizko defizit mailak murrizteko hartutako neurri gogorrei esker, 2014an ekonomia nagusien kontu publikoak gai izan dira desoreka nabarmenak kontrolpean izateko. Bi salbuespen baino ez dira egon (aztertutako herrialdeen artean): Alemania eta Italia. Estatu Batuen kasuan, defizita BPGaren -% 5koa izan da (2013an -% 5,7 izan zen); Eurogunean, berriz, -% 2,4koa (2013an, -% 2,9koa); bukatzeko, ELGAko herrialdeen multzoan, -% 3,7 izan da (2013an, % 4,2).


9. taula Administrazio Publikoen finantzaketa-beharrak (finantzaketa-gaitasuna (+) edo -beharra (-), BPG nominalaren ehunekotan)

| Herrialdea | (BPGaren % zenbat) | | |
|----------------------|--------------------|-------------|-------------|
| | 2012 | 2013 | 2014 |
| Estatu Batuak | -9,0 | -5,7 | -5,0 |
| Japonia | -8,7 | -8,5 | -7,7 |
| Alemania | 0,1 | 0,1 | 0,6 |
| Frantzia | -4,8 | -4,1 | -4,0 |
| Italia | -3,0 | -2,9 | -3,0 |
| Erresuma Batua | -8,3 | -5,5 | -5,3 |
| Kanada | -3,1 | -2,7 | -1,6 |
| Eurogunea | -3,6 | -2,9 | -2,4 |
| ELGA, guztira | -5,8 | -4,2 | -3,7 |

Iturria: ELGA. Perspektiba ekonomikoak (2015eko ekaina).

Aurrerago ere esan dugunez, banku zentral nagusiek politika monetario moldakorrak aplikatu dituzte: Erreserba Federalak tasa % 0 -% 0,25 artean mantendu du; Europako Banku Zentralak, berriz, ekainean eta irailean murrizketa sendoak egin ondoren, % 0,05era jaitsi du.

1. grafikoa Interes-tasen aldakuntzak



Iturria: ELGA. Perspektiba ekonomikoak (2015eko ekaina).

Europar Batasuna

Europako Batzordearen udaberriko aurreikuspenen arabera, EB-28 herrialdeak, guztira % 1,4 hazi dira 2014an (Eurogunea % 0,9 hazi da ELGAREN esanetan). Horrek esan nahi du 2012ko atzerakadaren ondoren (-% 0,5) eta 2013ko hazkunderik ezaren ondoren (% 0) berriro ere hazteari ekin diola. Ildo horretatik, aipagarria da azken atzeralditik ateratzea ahalbidetu duen faktore nagusia barne-eskaria suspertzea izan dela (2014an % 1,5 hazi zen; 2013an, aldiz, -% 0,3 erori) honako hauei esker: kontsumo pribatuaren gorakada (2014an % 1,4 hazi zen, 2013an -% 0,1 murriztu ondoren), kontsumo publikoaren susperraldia (2014an, % 0,2; 2013an, aldiz, % 0,2) eta inbertsioen hazkundera (% 2,5 2014an; % 1,5 2013an). Era berean, Batasun barruko esportazioek zein inportazioek haien hazkunde-erritmoa bizkortu dute (2014an % 3,7 eta % 4,2 izan ziren, hurrenez hurren).

| 10. taula | | Adierazle nagusiak (EB-28) | | |
|--|------|-------------------------------------|------|--|
| | | <i>(Urtearteko aldakuntza-tasa)</i> | | |
| Kontzeptua | 2012 | 2013 | 2014 | |
| Jarduera | | | | |
| - Kontsumo pribatua | -0,7 | -0,1 | 1,4 | |
| - Kontsumo publikoa | 0,3 | 0,2 | 1,0 | |
| - Kapital finkoaren eraketa gordina (KFEG) | -2,8 | -1,5 | 2,5 | |
| - Barne-eskaria | -1,6 | -0,3 | 1,5 | |
| - Esportazioak | 2,2 | 2,2 | 3,7 | |
| - Inportazioak | -0,4 | 1,4 | 4,2 | |
| - BPGa | -0,5 | 0,0 | 1,4 | |
| Prezioak eta soldatak | | | | |
| - BPGaren deflatoea | 1,4 | 1,4 | 1,1 | |
| - Kontsumo pribatuaren deflatoea | 2,0 | 1,2 | 0,7 | |
| - LKU errealak | 0,4 | -0,1 | -0,3 | |

Iturria: European Economy. Europako Batzordea (2015eko udaberria).

Herrialdekako azterketa xehatuak adierazten duenez, Europar Batasuneko lau herrialdeetan baino ez du BPGak behera egin: Zipre (-% 2,3), Italia (-% 0,4), Kroazia (-% 0,4) eta Finlandia (-% 0,1), Gainerako 24 herrialdeetan, BPGak gora egin du, neurri handiagoan edo txikiagoan. Hazkunderik handiena Irlandak, Hungariak eta Maltak izan dute (% 4,8; % 3,6; eta % 3,5, hurrenez hurren). Alemania, motor ekonomiko nagusia, berriz, % 1,6 hazi da (2013an gutxi hazi zen, % 0,1 baino ez; 2014ko ekitaldian, berriz, hazkunde-erritmoa ehuneko 1,5 puntuan bizkortu du). Gainerako ekonomia europar handiak ere hazi egin dira 2014an, nahiz eta bilakaera bera izan ez den kasu guztietan: Erresuma Batuen susperraldia sendotu egin da (2014an % 2,8 hazi zen; 2013an, berriz, % 1,7); Espainiak gorako joera hartu du (% 1,4, aurreko ekitaldiko -% 1,2ren aldean) eta Frantziak ia-ia bere horretan jarraitu du (2014an % 0,4 hazi da; 2013an, berriz, % 0,3).

11. taula Barne Produktu Gordinaren (BPGa) hazkundera (Europar Batasuna)

(Urtearteko aldakuntza-tasaren % zenbat)

| Herrialdea | 2012 | 2013 | 2014 |
|---------------------|-------------|------------|------------|
| Irlanda | -0,3 | 0,2 | 4,8 |
| Hungaria | -1,5 | 1,5 | 3,6 |
| Malta | 2,5 | 2,7 | 3,5 |
| Polonia | 1,8 | 1,7 | 3,4 |
| Luxenburgo | -0,2 | 2,0 | 3,1 |
| Lituania | 3,8 | 3,3 | 2,9 |
| Errumania | 0,6 | 3,4 | 2,8 |
| Erresuma Batua | 0,7 | 1,7 | 2,8 |
| Eslovenia | -2,6 | -1,0 | 2,6 |
| Letonia | 4,8 | 4,2 | 2,4 |
| Eslovakia | 1,6 | 1,4 | 2,4 |
| Suedia | -0,3 | 1,3 | 2,1 |
| Estonia | 4,7 | 1,6 | 2,1 |
| Txekiar Errepublika | -0,8 | -0,7 | 2,0 |
| Bulgaria | 0,5 | 1,1 | 1,7 |
| Alemania | 0,4 | 0,1 | 1,6 |
| EB-28 | -0,5 | 0,0 | 1,4 |
| Espainia | -2,1 | -1,2 | 1,4 |
| Danimarka | -0,7 | -0,5 | 1,1 |
| Belgika | 0,1 | 0,3 | 1,0 |
| Herbehereak | -1,6 | -0,7 | 0,9 |
| Portugal | -4,0 | -1,6 | 0,9 |
| Grezia | -6,6 | -3,9 | 0,8 |
| Frantzia | 0,3 | 0,3 | 0,4 |
| Austria | 0,9 | 0,2 | 0,3 |
| Finlandia | -1,4 | -1,3 | -0,1 |
| Kroazia | -2,2 | -0,9 | -0,4 |
| Italia | -2,8 | -1,7 | -0,4 |
| Zipre | -2,4 | -5,4 | -2,3 |

Iturria: European Economy. Europako Batzordea (2015eko udaberria).

Per capita BPGa aztertzen badugu, erosteko ahalmenaren parekotasunari dagokionez, oraindik ere alde handiak daude Europar Batasuneko kide diren herrialdeen artean. Hala, kide zaharrenen artean, Greziak (% 67), Portugalek (% 77), Espainiak (% 86,9), Italiak (% 89,4) eta Frantziak (% 96,9) dute mailarik baxuena, EB-15eko herrialdeen batez bestekoaren azpitik (% 100). Mailarik altuena duena, berriz, Luxenburgo da (% 236,1). EB-28ko herrialdeei dagokienez, berriz, kide berriak sartu ahala Europako batez besteko per capita BPGak nabarmenki egin du behera.

| 12. taula Europar Batasuneko per capita BPGa, 2014an | | |
|--|--------------|--------------|
| Herrialdea | EB-15=100 | EB-28=100 |
| Luxenburgo | 236,1 | 256,6 |
| Irlanda | 123,2 | 133,9 |
| Herbehereak | 119,8 | 130,2 |
| Suedia | 116,6 | 126,7 |
| Austria | 116,0 | 126,1 |
| Danimarka | 113,8 | 123,7 |
| Alemania | 112,7 | 122,5 |
| Belgika | 108,7 | 118,2 |
| Finlandia | 102,4 | 111,3 |
| Erresuma Batua | 100,9 | 109,7 |
| EB-15 guztira | 100,0 | 108,7 |
| Frantzia | 96,9 | 105,3 |
| EB-28 guztira | 92,0 | 100,0 |
| Italia | 89,4 | 97,2 |
| Espainia | 86,9 | 94,5 |
| Malta | 80,5 | 87,5 |
| Zipre | 79,3 | 86,2 |
| Eslovenia | 76,4 | 83,0 |
| Txekiar Errepublika | 76,4 | 83,0 |
| Portugal | 72,1 | 78,4 |
| Eslovakia | 70,0 | 76,1 |
| Lituania | 69,0 | 75,0 |
| Estonia | 68,2 | 74,1 |
| Grezia | 67,0 | 72,8 |
| Polonia | 63,4 | 68,9 |
| Hungaria | 62,6 | 68,0 |
| Letonia | 60,0 | 65,2 |
| Kroazia | 55,2 | 60,0 |
| Errumania | 51,0 | 55,4 |
| Bulgaria | 41,5 | 45,1 |

Iturria: European Economy. Europako Batzordea (2015eko udaberria).

Aurreikuspenak

Nazioarteko erakunde nagusien esanetan, munduko jarduera ekonomikoak susper-tzen jarraituko du epe labur eta ertainera. Bestalde, ekonomia garatuak ez dira garapen bidean dauden herrialdeen ekonomiak bezain dinamikoak izango. Garapenari dagokio-nez, Nazioarteko Diru Funtsak (NDF) aurreikusi du munduko ekonomiaren batez besteko hazkundera % 3,5 izango dela 2015ean eta % 3,8 2016an.

Ekonomia garatuak % 2,4 haziko dira 2015ean zein 2016an. Estatu Batuen ekonomia Eurogunekoa edo Japoniakoa baino osasuntsuago egongo da. Zehazki, NDFren esanetan, ekonomia estatubatuarra % 3,1 haziko da 2015ean eta 2016an; Eurogunearen hazkundera aurreikuspenak, baina, horren erdia dira, gutxi gorabehera (% 1,5 2015ean eta % 1,6 2016an), eta Japoniaren ekonomiaren aurreikuspena, berriz, are baxuagoa (% 1 eta % 1,2 2015. eta 2016. urteetan, hurrenez hurren).

Garapen bidean dauden merkatuen ekonomiei dagokienez, aurreikuspenek diote hazkundeak jarraituko duela, nahiz eta ez den 2013ko % 5eko hazkundera iritsiko (% 4,3 2015ean eta % 4,7 2016an).

| 13. taula | | Aurreikuspen ekonomikoak (herrialde industrializatuak) | |
|---|-------------|---|--|
| | | (%) | |
| Kontzeptua | 2015 | 2016 | |
| – BPG erreala (% Δ) | | | |
| • Estatu Batuak | 2,0 | 2,8 | |
| • Japonia | 0,7 | 1,4 | |
| • Eurogunea | 1,4 | 2,1 | |
| • ELGA, guztira | 1,9 | 2,5 | |
| – Inflazioa (kontsumo pribatuaren deflatorea) (% Δ) | | | |
| • Estatu Batuak | 0,3 | 1,6 | |
| • Japonia | 0,2 | 1,1 | |
| • Eurogunea | 0,2 | 1,1 | |
| • ELGA, guztira | 0,7 | 1,7 | |
| – Langabezia-tasa (biztanleria aktiboaren % zenbat) | | | |
| • Estatu Batuak | 5,5 | 5,2 | |
| • Japonia | 3,5 | 3,3 | |
| • Eurogunea | 11,1 | 10,5 | |
| • ELGA, guztira | 6,9 | 6,6 | |
| – Defizit publikoa (BPGaren % zenbat) | | | |
| • Estatu Batuak | -4,0 | -3,6 | |
| • Japonia | -6,8 | -5,8 | |
| • Eurogunea | -2,1 | -1,4 | |
| • ELGA, guztira | -3,1 | -2,5 | |
| – Munduko merkataritza (% Δ) | 3,9 | 5,3 | |

Iturria: ELGA. Perspektiba ekonomikoak (2015eko ekaina).

1.2 ESPAINIAKO EKONOMIA

Ezaugarri orokorrak

2010ean, jarduera gelditu egin zen (BPGa ez zen hazi) eta 2011n, 2012an eta 2013an berriro ere behera egin zuen (-% 0,6, -% 2,1 eta -% 1,2, hurrenez hurren). Alabaina, Espainiaren BPGa suspertu egin da 2014an (% 1,4), eta jardueraren susperraldi horrek eragin positiboa izan du lan-arloan.

Horiek horrela, hainbat urtetan Espainiako ekonomia Europar Batasuneko baina ahulagoa izan denez, atzerakada egon da Batasuneko ekonomia nagusien mailara iristeko hazkunde-prozesuan.

Eskariari dagokionez, kanpoko sektoreak ehuneko 0,8 puntu kendu dizkio barneko eskariaren ekarpen positiboari (ehuneko 2,2 puntu 2014an, 2013ko ehuneko - 2,7 punturen aldean). Eskaintzari dagokionez, aldiz, 2014an eraikuntzaren sektoreak baina ez du behera egin (-% 1,2); dena den, atzerakada hori ez da aurreko ekitaldietakoa bezain nabarmena izan (-% 14,3 2012an; -% 8,1 2013an). Bestalde, hala lehen sektoreak nola zerbitzuak zein industriak gora egin dute (% 3,3, % 1,6 eta % 1,5, hurrenez hurren).

Lan-merkatuari begira, biztanle landun kopurua % 1,2 hazi da (2013an -% 2,8 jaitsi zen), hau da, 17.344.200 pertsona ari ziren lanean. Okupazio-bolumena zerbitzuetan (% 1,7) eta industrian (% 1) hazi da, baina eraikuntzan (-%3,5) eta lehen sektorean (-% 0,1) murriztu egin da. Biztanle langabeen kopurua, bestalde, -% 7, 3 jaitsi da (2013an % 4,1 igo zen), hau da, 5.610.400 langabe daude. Langabezia-tasa biztanleria aktiboaren % 24,4 da Espainian; ehuneko hori Greziak baina ez du gainditzen EB-28ko herrialdeetan (Europako Batzordearen esanetan, % 26,5koa da).

Inflazioari dagokionez (abendutik abendura), beheranzko bilakaera izan du; izan ere, 2013an % 0,3 izan zen, eta 2014an, berriz, -% 1. Prezioen urteko batez bestekoari begira, 2014an -% 0,2 jaitsi dira (2013an % 1,4 igo ziren) eta EB-28ko kontsumo pribatuaren deflatoea, berriz, % 0,7 da.

Bukatzeko, aipatu beharra dago 2014an aurrekontuaren exekuzioa BPGaren -% 5,8ren baliokidea den defizitarekin itxi dela (kreditu-erakundeei emandako laguntzak barne); beraz, ehuneko 0,99 puntuan hobetu da aurreko ekitaldian lortutako erregistroa (2013an, BPGaren -% 6,79 izan zen defizita).

Agregatu makroekonomiko nagusiak

Lehenago ere esan dugunez, Espainiako BPGak % 1,4ko gorakada izan du 2014an (2013an -% 1,2 jaitsi zen). Hiruhilekoko profilari dagokionez, ezaugarri nagusia urtez urteko hazkunde-erritmoa bizkortzea izan da ekitaldiko hiruhilekoek aurrera egin ahala (urte arteko gorabeherak % 0,6koak, % 1,2koa, % 1,6koak eta % 2koak izan dira, hurrenez hurren).

Puntu horretara iritsita, jarraian era xehatuan aztertuko dugu jardueraren bilakaera, hainbat ikuspuntutatik: eskaria (helmuga), eskaintza (jarduera) eta errenta (banaketa).

- 2014an, Espainiako BPGa 1.058.469 milioi eurokoa izan zen¹. Zenbateko horretatik 827.251 milioi azken kontsumoari dagozkio (613.788 milioi etxeetako azken kontsumoari, 10.765 milioi etheen zerbitzura dauden irabazi-asmorik gabeko gizarte-erakundeen azken kontsumoari eta 202.698 milioi herri-administrazioen azken kontsumoari); beste 199.828 milioi, berriz, inbertsioei (101.084 eraikuntzan, 69.045 ekipamendu-ondasunetan eta 29.699 jabetza intelektualaren produktuetan), eta 6.218 milioi izakinen gorabeherai. Era horretan, barne-eskaria, guztira, 1.033.297 milioi eurokoa izan da. Esportazioen (339.004 milioi euro) eta inportazioen (313.832 milioi euro) arteko aldea kanpo-eskaria da, eta biak kontuan hartuz eskaria guztira zenbatekoa izan den jakin dezakegu.
- Kanpo-eskariak ekarpen negatiboa egin dio BPGari (ehuneko -0,8 puntu), eta horrek zortzi hamarren kendu dizkio barne-eskariaren ekarpen positiboari (ehuneko 2,2 puntu); horri esker, BPGa % 1,4 igo da. Barne-eskariari dagokionez, hala kontsumo pribatua nola publikoa, baita inbertsioak ere, hazi egin dira 2014an (% 2,4, % 0,1 eta % 3,4, hurrenez hurren; 2013an -% 2,3, -% 2,9 eta -%3,8, hurrenez hurren). Arreta inbertsioan jartzen badugu, eraikuntzaren arloko inbertsioek behera egin dutela ikusiko dugu (-% 1,5), nahiz eta beherakada aurreko ekitaldikoa baino motelagoa izan den (-%9,2 2013an). Bitartean, ekipamendu-ondasunei loturiko inbertsioen hazkundera bizkortu egin da (% 12,2 2014an; % 5,6 2013an).
- Sektorekako banaketari dagokionez, 24.050 milioi euro lehen sektoreari dagozkio; 169.077 industriari (eta horietatik 127.377 manufakturen industriari), 53.672 eraikuntzari eta 718.311 milioi euro zerbitzuei. Partida horiei zergak gehitzen badizkiegu (93.359 milioi euro) ekoizpen osoa lortuko dugu.
- Eraikuntzan baino ez da atzerakadarik egon 2014an (-% 1,2), eta atzerakada hori aurreko ekitaldikoa baino nabarmen leunagoa izan da (-% 8,1 2013an); gainerako

¹ Uneko prezioak

sektore guztiak hazi egin dira. Hala zerbitzuak nola industria suspertu egin dira (% 1,6 2014an eta -% 1 2013an; % 1,5 2014an eta -% 1,8 2013an, hurrenez hurren); lehen sektoreak, berriz, murriztu egin du goranzko joera (% 3,3 2014an eta % 15,6 2013an).

14. taula Barne-produktu gordina eta haren osagaiak (eskaera eta eskaintza)

(urtez urteko tasaren % zenbat, bolumen kateatua)

| Eragiketak | | 2013 | 2014 |
|--|--|-------------|------------|
| ESKARIA | Azken kontsumoko gastuak | -2,4 | 1,8 |
| | – Etxeetan | -2,3 | 2,4 |
| | – EZIAGGEetan | -0,1 | 1,0 |
| | – APetan | -2,9 | 0,1 |
| | Kapital finkoaren eraketa gordina | -3,8 | 3,4 |
| | – Eraikuntza | -9,2 | -1,5 |
| | – Ekipamendu-ondasunak eta aktibo kultibatutak | 5,6 | 12,2 |
| | Izakinen gorabeherak* | 0,0 | 0,2 |
| | Barne-eskaria* | -2,7 | 2,2 |
| | Ondasunen eta zerbitzuen esportazioa | 4,3 | 4,2 |
| Ondasunen eta zerbitzuen inportazioa | -0,5 | 7,6 | |
| BPGa, merkatuaren prezioei dagokienez | | -1,2 | 1,4 |
| ESKAINZA | Nekazaritza, abeltzailtza, basogintza eta arrantza | 15,6 | 3,3 |
| | Industria | -1,8 | 1,5 |
| | Eraikuntza | -8,1 | -1,2 |
| | Zerbitzuak | -1,0 | 1,6 |
| | Produktuen gaineko zerga garbiak | -1,5 | 0,6 |

(*): mp BPGaren hazkundeari egindako ekarpena.
Iturria: EIN.

- Azterketa errentaren ikuspuntutik egiten badugu, ikusiko dugu langileen soldatek BPG osoaren % 46,9 hartzen dutela; ustiapenaren soberakin gordinak, berriz, % 43,3, eta ekoizpenaren eta inportazioaren gaineko zerga garbiak, aldiz, gainerako % 9,8.

15. taula Barne Produktu Gordinaren banaketa (errenta)

(% Δ nominala)

| Eragiketak | 2012 | 2013 | 2014 | 2014 (M euro) |
|--|------|------|------|------------------|
| Langileen soldatak ⁽¹⁾ | -5,6 | -2,3 | 1,3 | 496.870 |
| Ustiapenaren soberakin gordina ⁽²⁾ | 1,1 | 0,1 | -0,1 | 458.068 |
| Ekoizpenaren eta inportazioen gaineko zerga garbiak ⁽³⁾ | 5,6 | 5,7 | 3,2 | 103.531 |
| BPGa, merkatuaren prezioei dagokienez ⁽⁴⁾ | -1,9 | -0,6 | 0,9 | 1.058.469 |

(4) = (1)+(2)+(3).

Iturria: EIN.

Kanpo-merkataritza

Espainiako ekonomiaren susperraldiarekin bat eginez, inportazioek ere gora egin dute 2014an (% 7,6), aurreko ekitaldian -% 0,5 behera egin ondoren. Bestalde, esportazioek gutxi gorabehera aurreko ekitaldian lortutako hazkunde-erritmoari eutsi diote, nahiz eta hazkundera hamarren bat jaitsi den (% 4,2 2014an; 2013an, berriz, % 4,3), Estatuko bezero nagusiek dinamismo apala erakutsi baitute.

Horiek horrela, kanpo-eskariak hazkunde orokorrari egin dion ekarpena negatiboa izan da ekitaldi honetan (ehuneko - 0,8 puntu 2014an; ehuneko 1,5 puntu positibo, berriz, 2013an). Ekarpene negatibo hori bereziki nabarmena izan da urteko lehen bi hiruhilekoetan (ehuneko - 0,6 eta - 1,1 puntu, hurrenez hurren), eta urteko azken bi hiruhilekoetan moteldu egin da (ehuneko - 1 eta - 0,7 puntu, hurrenez hurren).

Prezioak eta lan-kostuak

Oro har, 2014ko prezioen bilakaeraren ezaugarri nagusia da ekitaldiko lehen sei hilekoan prezioen igoera moteldu egin dela (urtez urteko aldakortasun-tasak: % 0,2, % 0, -% 0,1, % 0,4, % 0,2 eta % 0,1, hurrenez hurren, urteko lehen sei hilabeteetan). Beste ezaugarri bereizgarri bat prezioek bigarren sei hilekoan izan duten beherakada da (urtez urteko aldakortasuna: -% 3, -% 0,5, -% 0,2, -% 0,1, -% 0,4 eta -% 1 hurrenez hurren, urteko azken sei hilabeteetan). Era horretan, 2014ko abenduko urtez urteko tasa negatiboa izan da (-% 1), 2013an izandako gorakada txikiaren (% 0,3) aldean. Urteko batez bestekoei begira, inflazioa ere negatiboa izan da (-% 0,2) 2014 osoa kontuan hartzen badugu; beraz, azpiko inflazioa % 0 izan da (aurreko ekitaldian % 1,4 izan zen).

Hala, gogoan izanda ELGAren esanetan, 2014an, Eurogunearen inflazio-tasa (tasa hori kontsumo pribatuaren deflatorearen bidez neurtzen da) % 0,5 izan dela (2013an, berriz, % 1,1lekoa), Espainiako ekonomiaren eta Eurogunekoaren artean dagoen aldea ehuneko zazpi hamarren negatibokoa da (2013an, alde hori ehuneko hiru hamarrenekoa izan zen).

Ondasunen taldeei begira, irakaskuntza, edari alkoholodunak, tabakoa eta etxebizitza izan dira inflaziorik handiena izan dutenak, % 1eko tasaren gainetik (% 1,8, % 1,4 eta % 1,3, hurrenez hurren). Jarraian honako hauek datoz: "besteak" izeneko taldea (% 1); hotelak, kafetegiak eta jatetxeak (% 0,5); medikuntza, jantziak eta zapatak (0,1 % azken hiru horietan). Gainerako taldeetan, berriz, prezioek behera egin dute: elikagaiak eta alkoholik gabeko edariak (-% 0,3), etxeko tresneria (-% 0,5), garraioak (-% 0,9), aisia eta kultura (-%1,4) eta komunikabideak (-% 6,1).

16. taula Kontsumo Prezioen Indizea (KPI) eta Industriako Prezioen Indizea (IPI)

(Urtearteko aldakuntza-tasa)

| Kontzeptua | 2012 | 2013 | 2014 |
|---|------|------|------|
| KPIa | | | |
| – Indize orokorra ⁽¹⁾ | 2,9 | 0,3 | -1,0 |
| – Indize orokorra ⁽²⁾ | 2,4 | 1,4 | -0,2 |
| Elikagaiak | 2,8 | 3,2 | -0,1 |
| Elikagaiak ez direnak | 2,3 | 0,9 | -0,2 |
| • Elikagaiak eta alkoholik gabeko edariak | 2,3 | 2,8 | -0,3 |
| • Edari alkoholdunak, tabakoa | 5,9 | 6,1 | 1,4 |
| • Jantziak eta oinetakoak | 0,3 | 0,0 | 0,1 |
| • Etxebizitza | 5,1 | 0,9 | 1,3 |
| • Etxeko tresneria | 0,9 | 0,9 | -0,5 |
| • Medikuntza | 3,5 | 6,9 | 0,1 |
| • Garraioak | 4,8 | 0,4 | -0,9 |
| • Komunikazioak | -3,4 | -4,2 | -6,1 |
| • Aisia eta Kultura | 0,7 | 0,7 | -1,4 |
| • Irakaskuntza | 4,8 | 8,1 | 1,8 |
| • Hotelak, kafetegiak eta jatetxeak | 0,9 | 0,5 | 0,5 |
| • Beste batzuk | 2,3 | 2,0 | 1,0 |
| Azpikoak | 1,6 | 1,4 | 0,0 |
| IPI | | | |
| – Indize orokorra | 3,8 | 0,6 | -1,3 |
| • Kontsumo-ondasunak | 2,5 | 2,2 | -0,5 |
| • Ekipamendu-ondasunak | 0,5 | -0,1 | 0,2 |
| • Bitarteko ondasunak | 1,4 | -0,5 | -1,5 |
| • Energia | 9,7 | 0,5 | -3,1 |

(1): Abendutik abendura.

(2): Urteko batez besteko aldakuntza.

Iturria: EIN.

Industriako prezioei dagokienez, indize orokorra ere balio negatiboetara iritsi da (2014an -% 1,3; 2013an, berriz, % 0,6). Industriako prezioak kasu bakar batean igo dira, ekipamendu-ondasunetan, hain zuzen ere (% 0,2), eta gainerako ondasun guztietan prezioek behera jo dute: -% 3,1 energiaren kasuan, -% 1,5 bitarteko ondasunen kasuan, eta -% 0,5 kontsumo-ondasunen kasuan.

Bestalde, 2014an produktibitatea % 0,2 hazi da (jarduera % 1,4 hazi baita eta enplegua, berriz, % 1,2, lanaldi osoko lanpostuak oinarri hartuta) eta langileen soldatak -% 0,3 jaitsi dira; ondorioz, lan-kostu unitarioak -% 0,5 egin du behera (2013an gertatu zen bezalaxe).

17. taula Errenta-adierazleak eta soldata-kostuak

| Kontzeptua | (% Δ) | | |
|-----------------------------|-------|------|------|
| | 2012 | 2013 | 2014 |
| BPG erreala | -2,1 | -1,2 | 1,4 |
| Enplegua guztira* | -4,4 | -3,3 | 1,2 |
| Produktibitatea | 2,3 | 2,1 | 0,2 |
| Langileen soldatak | -5,6 | -2,3 | 1,3 |
| Soldatadun enplegua* | -5,1 | -3,9 | 1,6 |
| Langile bakoitzaren soldata | -0,5 | 1,6 | -0,3 |
| Lan-kostu unitarioa | -2,8 | -0,5 | -0,5 |

(*): Kontabilitate Nazionaleko enplegua erabili da: Lanaldi osoaren baliokideak diren lanpostuak.

Iturria: Geure balioespena, EINen datuak oinarri hartuta.

Lan-merkatua

Oraingo testuinguruan, jarduera suspertu egin da (BPGa % 1,4 hazi zen 2014an; 2013an, berriz, -% 1,2 murriztu zen) eta, horren eraginez, Espainiako lan-merkatuak eten egin du azken urteotan izan duen beheranzko joera. Ildo horretatik, Estadistika Institutu Nazionalaren (EIN) Biztanleria Aktiboaren Inkestan (BAI) agerienez, 2014an biztanle landun kopuruak % 1,2 egin du gora (2012an -%4,3 jaitsi zen eta, 2013an, berriz -% 2,8). Aldi berean, biztanle langabeen kopuruak -% 7,3 egin du behera (2012an eta 2013an kopuru horrek gora egin zuen, % 15,9 eta % 4,1, hurrenez hurren), eta biztanle aktiboen kopuru osoa -% 1 jaitsi da, 22.954.600 izatera iritsi arte.

Jarduera-tasak zertxobait egin du behera (2014an % 59,6koa izan zen; 2013an, berriz, % 60koa). Egoera hau hala gizonezkoen tasan (2014an, % 65,8; 2013an, % 66,4) nola emakumezkoen tasan (2014an, % 53,7; 2013an, % 53,9) ikusten da.

Lehenago ere esanenez, enplegua % 1,2 hazi da eta, gaur egun, 17.344.200 pertsona landun dago. Okupazioa hazi egin da zerbitzuen sektorean (% 1,7 2014an, aurreko ekitaldiko -% 1,7ren aldean), baita industriaren sektorean ere (% 1 2014an, aurreko ekitaldiko -% 5,2ren aldean). Eraikuntzaren sektorean, berriz, beheranzko joera moteldu egin da (-% 3,3 2014an, aurreko ekitaldiko -% 11,3ren aldean), baita lehen sektorean ere (-% 0,1 2014an, aurreko ekitaldiko -% 0,9ren aldean).

**18. taula Lan-magnitude nagusien bilakaera
Urteko batez bestekoak**

(m pertsona eta % zenbat)

| Kontzeptua | 2014 | % Δ | | |
|---------------------------------------|----------|-------|-------|------|
| | | 2012 | 2013 | 2014 |
| Biztanleria aktiboa | 22.954,6 | 0,0 | -1,1 | -1,0 |
| Biztanleria landuna | 17.344,2 | -4,3 | -2,8 | 1,2 |
| – Nekazaritza, abeltzaintza, arrantza | 735,8 | -1,6 | -0,9 | -0,1 |
| – Industria | 2.379,9 | -4,6 | -5,2 | 1,0 |
| – Eraikuntza | 993,5 | -17,3 | -11,3 | -3,5 |
| – Zerbitzuak | 13.234,9 | -3,0 | -1,7 | 1,7 |
| Biztanleria langabea | 5.610,4 | 15,9 | 4,1 | -7,3 |
| Langabezia-tasa* | 24,4 | 15,9 | 5,2 | -6,3 |

(*): % biztanleria aktiboa oinarri hartuta.

Iturria: EIN (BAI biztanleei buruzko oinarria. 2011. 2015eko maiatzeko datuak). Geuk egina.

Era berean, soldatapeko enplegua ere suspertu egin da (% 1,5 2014an; -% 3,5, berriz, 2013an). Bitartean, soldatarik gabeko lana zertxobait murriztu da (-% 0,4), 2013ko % 0,3ren aldean. Kontratu motei dagokienez, hala aldi baterako kontratuen nola kontratu mugagabeen kopuruak gora egin du, nahiz eta gehien igo direnak aldi baterako kontratuak izan diren (% 5,3 eta % 0,4, hurrenez hurren).

Langabeziari dagokionez, 2014an jaitsi egin da, eta, guztira 5.610.400 pertsona zeuden lanik gabe. Horrek esan nahi du urtez urte -% 7,3ko jaitsi dela (aurreko ekitaldian % 4,1 hazi zen). Hala, langabezia-tasak eten egin du goranzko joera, eta, ondorioz, 2014an biztanleria aktiboaren % 24,4 zegoen lanik gabe, EB-28ko bigarren ehuneko handiena, Greziaren atzetik (Europako Batzordearen arabera, Greziako langabezia-tasa % 26,5 zen).

19. taula Enplegua, egoera profesionalaren eta kontratu motaren arabera. Urteko batez bestekoak

(m pertsona eta % zenbat)

| Kontzeptua | 2014 | % Δ | | |
|---------------------------------------|----------|-------|-------|-------|
| | | 2012 | 2013 | 2014 |
| Biztanleria landuna | 17.344,2 | -4,3 | -2,8 | 1,2 |
| Soldatapekoak | 14.285,8 | -5,3 | -3,5 | 1,5 |
| – Sektore pribatua | 11.360,0 | -5,4 | -2,9 | 2,0 |
| – Sektore publikoa | 2.925,8 | -5,0 | -5,6 | -0,4 |
| Soldatarik gabeak* | 3.058,4 | 1,1 | 0,3 | -0,4 |
| – Enplegu emaileak | 877,3 | -3,6 | -4,7 | 0,6 |
| – Autonomoak | 2.046,5 | 4,5 | 3,3 | -0,2 |
| – Kooperatibetako kideak | 24,5 | -13,8 | -16,8 | 5,2 |
| – Familiako laguntza | 102,8 | -10,8 | -6,8 | -10,3 |
| Soldatapekoa: kontratu mugagabea | 10.857,1 | -3,1 | -3,1 | 0,4 |
| Soldatapekoa: aldi baterako kontratua | 3.428,7 | -11,8 | -4,6 | 5,3 |
| Lanaldi osoa | 14.585,4 | -5,3 | -4,3 | 1,1 |
| Lanaldi erdia | 2.758,7 | 2,3 | 6,0 | 1,9 |

(*): Gehiketa ez dator bat zenbateko osoarekin, bertan klasifika ezinak ere sartuta daudelako.

Iturria: EIN (BAI biztanleei buruzko oinarria. 2011. 2015eko maiatzeko datuak). Geuk egina.

Sektore publikoa eta interes-tasak

Administrazio publikoek BPGaren -% 5,8ren baliokidea den defizitarekin itxi dute 2014ko ekitaldia. Kontuan hartu behar da, dena den, zenbateko horrek barne hartzen dituela kreditu-erakundeei emandako laguntzak.

Autonomia erkidegoka egindako azterketa xehatuan ikus daiteke erkidego guztiek izan dutela saldo defizitarioa 2014an. Eskualdeko BPGaren arabera defizitik txikiena izan duena Nafarroa da (-% 0,74); defizit handiena izan duena, berriz, Murtzia (-% 2,82). EAEren defizita -% 1 izan da, helburu zuen mailan, hain zuzen ere.


| 20. taula | | Defizit publikoa | |
|--|--------------------|------------------|--|
| Kontzeptua | (BPGaren % zenbat) | | |
| | 2013 | 2014 | |
| Administrazio zentrala* | -4,22 | -3,50 | |
| Autonomia-erkidegoak | -1,52 | -1,66 | |
| Tokiko erakundeak | 0,52 | 0,53 | |
| Gizarte Segurantza | -1,11 | -1,06 | |
| ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK, GUZTIRA* | -6,33 | -5,69 | |
| • Kreditu-erakundeei emandako laguntzak | 0,47 | 0,11 | |
| ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK, GUZTIRA | -6,79 | -5,80 | |

(*): Diru-laguntzarik gabe.

Iturria: Ogasun eta Administrazio Publikoetako Ministerioa (2015eko apirilaren 15a).

Bukatzeko, gogorazi behar da 2014ko ekitaldi amaieran Erreserba Federalaren erreferentzia-tasa % 0 eta % 0,25 artean mantendu dela; Europako Banku Zentralarena, berriz, % 0,05era jaitsi da, ekainean eta irailean murrizketa gogorak egin ondoren.

2. grafikoa Interes-tasa ofizialen bilakaera: Europako Banku Zentrala eta Erreserba Federala



Iturria: EBZ, Erreserba Federala.

Aurreikuspenak

Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioak 2015eko uztaila hasieran argitaratu zituen aurreikuspenen arabera, 2015ean Espainiako BPGa % 3,3 haziko da (% 3, berriz, 2016an), eta enplegua ere nabarmen haziko da, lanaldi osoaren baliokideak diren lanpostuak kontuan hartuz (% 3). Edonola ere, herrialdeko langabezia-tasak altuegia izaten jarraituko du; aurreikuspen ofizialen arabera, % 22 izango da.



21. taula Espainiako ekonomiaren aurreikuspenak (2015)

| Kontzeptua | Urtearteko aldakuntza-tasa |
|--|-------------------------------|
| BPGa eta ESKAERA AGREGATUAK | |
| • Azken kontsumo nazional pribatuaren gastua | 3,4 |
| • Administrazio publikoen azken kontsumoaren gastua | 0,1 |
| • Kapital finkoaren eraketa gordina | 6,4 |
| – Barne-eskaria (BPGaren hazkundeari egindako ekarpena) | 3,3 |
| – Ondasunen eta zerbitzuen esportazioa | 5,5 |
| – Ondasunen eta zerbitzuen inportazioa | 6,0 |
| – Kanpoko saldoa eskaria (BPGaren hazkundeari egindako ekarpena) | 0,0 |
| – BPGa | 3,3 |
| LAN MERKATUA | |
| – Enpleguaren aldakortasuna ehunekotan* | 3,0 |
| – Langabezia-tasa | 22,0 |

(*): Lanaldi osoaren baliokideak diren lanpostuak.

Iturria: Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioa (2015eko uztaila)

2. NAFARROAKO EGITURA EKONOMIKOA

Azken urte hauetan, Nafarroako egitura ekonomikoak garatutako ekonomien ohiko ezaugarriak ditu; izan ere, Nafarroako produkzioaren eta enpleguaren sektore-banaketaren ezaugarria da zerbitzu-sektorea nagusitzen dela, ondoren, nolabaiteko aldearekin, industria-sektorea dago, eta jarduera horrek Nafarroan duen garrantzi erlatiboa Nafarroaren ingurunekeo ekonomia bano zertxobait handiagoa da; aitzitik, eraikuntzaren eta lehen sektorearen garrantzi erlatiboa askoz ere txikiagoa da.

22. taula **Produkzio Egitura (Balio Erantsi Gordinaren sektore-osaera), 1960-2014**

| Sektorea | 1960 | | 1975 | | 1990 | | 2014 | |
|----------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|
| | Nafarroa | Espainia | Nafarroa | Espainia | Nafarroa | Espainia | Nafarroa | Espainia |
| Nekazaritza | 33,0 | 22,6 | 14,1 | 9,7 | 4,9 | 4,9 | 3,5 | 2,5 |
| Industria | 27,5 | 31,5 | 37,4 | 31,8 | 38,7 | 27,5 | 31,7 | 17,5 |
| Eraikuntza | 5,3 | 5,3 | 6,4 | 7,3 | 7,8 | 9,7 | 5,2 | 5,6 |
| Zerbitzuak | 34,2 | 40,6 | 42,1 | 51,2 | 48,6 | 57,9 | 59,6 | 74,4 |
| Guztira | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 |

Iturria: EIN, FUNCAS.

23. taula **Okupazio Egitura (enpleguaren sektore-osaera), 1960-2014**

| Sektorea | 1960 | | 1975 | | 1990 | | 2014 | |
|----------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|
| | Nafarroa | Espainia | Nafarroa | Espainia | Nafarroa | Espainia | Nafarroa | Espainia |
| Nekazaritza | 41,1 | 41,7 | 20,9 | 23,4 | 7,2 | 11,0 | 4,0 | 4,1 |
| Industria | 23,1 | 23,2 | 36,8 | 27,2 | 35,7 | 22,6 | 24,9 | 13,9 |
| Eraikuntza | 7,2 | 6,8 | 8,8 | 9,6 | 8,5 | 9,4 | 5,7 | 5,9 |
| Zerbitzuak | 28,6 | 28,3 | 33,5 | 39,8 | 48,6 | 57,0 | 65,4 | 76,1 |
| Guztira | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 |

Iturria: EIN, FUNCAS.

Nafarroako produkzioaren eta enpleguaren sektore-osaeraren bilakaerak Nafarroako produkzio-sarean azken hamarkada honetan izandako aldaketa nabarmenak erakusten ditu. Aldaketa horien artean honako hauek nagusitzen dira: zerbitzuen garrantzia zertxobait igo da eta lehen mailako sektorearen garrantzia nabarmen jaitsi da. Era berean, joan den mendeko hirurogeita hamarreko hamarkadan industria-jarduerak hasitako hazkuntza eragin zuen sektore horren garrantzia gero eta handiagoa izatea eskualdeko ekonomian; izan ere, hirurogeita hamarreko hamarkadaren erdialdean gehieneko maileraino iritsi zen, baina, ondoren, jaitsi egin zen, nahiz eta jaitsiera hori Nafarroaren ingurunekeo ekonomietakoa bano arinagoa izan zen. Bestalde, eraikuntza-sektoreak izandako partaidetzaren portaera aldakorragoa izan da denboran; hala eta guztiz ere, ikusi da sektore horren garrantzi erlatiboa zertxobait igo dela, bereziki mende honetako lehenengo urteetako goranzko azken zikloan, garai horretan Nafarroako ekonomiaren (eta Estatu

osoaren) hazkunderen eragile nagusietako bat izan zelako, baina joera hori eten egin da azken urte hauetan, jarduera hori pairatzen ari den krisi handiaren ildotik.

Aipatu ditugun produkzioaren eta enpleguaren sektore-osaeran izandako aldaketek Nafarroan, orokorrean, Espainia osoan ikusitako antzeko jarraibideei jarraitu dieten arren, aldaketa horiei buruzko azterketa zehatza egiten badugu, ikusiko dugu Nafarroako ekonomia-egituren osaeran islatzen diren alderdi desberdin batzuk daudela. Zehazki, aipatu behar dugu nekazaritza-produkzioak Nafarroan izan duen partaidetzaren murrizketa Estatu osoan izandako jaitsiera baino zertxobait txikiagoa izan dela; Nafarroan, gaur egun % 3,5 baita, eta Espainia osoan, 2014an, % 2,5 izan zen.

Era berean, ikusten da hirugarren sektoreko produkzioaren partaidetzaren hazkundera handiagoa izan dela Espainia osoan Nafarroako ekonomian baino (Nafarroaren partaidetza % 59,6 izan da 2014an; Espainian, aldiz, % 74,4 izan da); egoera horrelakoa da, batez ere, turismoari lotutako hirugarren sektoreko jarduerak garrantzi handia dutelako Espainian. Azkenik, industria-sektorearen garrantzi erlatiboa izugarri jaitsi da Espainiako ekonomian, baina partaidetza horren jaitsiera txikiagoa izan da Nafarroan (2014an % 31,7 izan da Nafarroan; Espainian, aldiz, % 17,5).

24. taula Nafarroaren partaidetza Espainia osoan, 2014

| Sektorea | % Nafarroa/Espainia | |
|----------------|---------------------|-------------|
| | BEG | Enplegua |
| Nekazaritza | 2,37 | 1,45 |
| Industria | 3,06 | 2,70 |
| Eraikuntza | 1,59 | 1,46 |
| Zerbitzuak | 1,35 | 1,29 |
| Guztira | 1,69 | 1,50 |

Iturria: EIN.

Azken batean, Nafarroak eta Espainiak nekazaritzaren eta eraikuntzaren ekonomietan izandako partaidetza-maila antzekoa denez, Nafarroaren ekonomia-egitura eta Espainia osoarena bereizten dituen alderdi nagusia industriaren eta zerbitzuen sektoreek duten partaidetzan ikusten da gaur egun. Ildo horretan, Nafarroako industria-produkzioaren garrantzi erlatiboa Espainian izandakoa baino portzentajezko 14,3 puntu handiagoa da 2014an (13,9 puntu 2013an); aitzitik, zerbitzu-sektorearen kasuan, garrantzi hori 14,9 puntu txikiagoa da Nafarroan (13,2 puntu 2013an). Aipatutako alderdi horiek berretsi egiten dira enpleguaren sektore-osaerak izandako bilakaera aztertzen denean; izan ere, arestian deskribatutako produkzio-sistemaren eraldaketa produkzio-sarearen eraldaketarekin lotuta dago.

25. taula Balio erantsi gordina Nafarroako biztanle bakoitzeko

(Espainiako batez besteko oinarriaren indizea=100)

| Urtea | BEG biztanle bakoitzeko |
|-------|-------------------------|
| 2005 | 125,2 |
| 2006 | 128,8 |
| 2007 | 128,7 |
| 2008 | 129,1 |
| 2009 | 128,7 |
| 2010 | 129,9 |
| 2011 | 125,4 |
| 2012 | 126,1 |
| 2013 | 125,5 |
| 2014 | 123,5 |

Iturria: EIN.

Testuinguru horretan, estatu-eremuan Nafarroako ekonomiak izandako industria-espezializazio nabarmenak ekarri du azken urte hauetan Nafarroako garapen- eta ongizate-maila Estatu osokoa baino handiagoa izatea. Gauzak horrela, Nafarroako ekonomiak azken urte hauetan dinamismo handiagoa izan duenez, biztanle bakoitzeko balio erantsi gordina estatuko batez bestekoa baino zertxobait handiagoa da gaur egun Nafarroan (% 23,5 handiagoa 2014an).

Kapitulu hau amaitzeko, jarraian Nafarroako produkzio-sistema osatzen duten jarduerasektoreen ezaugarri nagusiak zehaztuko ditugu labur-labur eta orokorrean.

Lehen sektorea

Nahiz eta sektore horrek enpleguari eta produkzioari egiten dien ekarpena nabarmen murriztu den azken hamarkada hauetan, nekazaritza-jarduera oinarritzko jarduera da eskualdeko ekonomiarako, bai sektore horrek duen garrantzi erlatiboarengatik (enpleguaren % 40 eta BEGaren % 3,5 da 2014an), baita sektore horrek lurraldean duen banaketarengatik ere (Nafarroako hainbat gunetako [Pirinioak eta Erriberagoitia] ekonomia-oinarria da), eta, batez ere nekazaritzako elikagaien industriari eusten diolako, industria horren garrantzia eta dinamismoa Nafarroako ekonomia hazteko eta Euskal Autonomia Erkidegoko eremu zabaletan biztanleria ezartzeko azpiko alderdietako bat delako.

Horrenbestez, Nafarroa iparraldetik hegoaldera zeharkatzen badugu, ikusiko dugu gradualki igaroko garela baso-aberastasun handia, zelai, artasoro eta erremolatxa-soro ugari dituzten, eta, beraz, nagusiki abere-hazkuntzari lotuta dauden lurralde menditsuetatik tarteko eremura, hau da, lekaleen soroak eta bazka-soroak, fruta-arbolak eta azkenaldi honetan industria-landaketak (ekilorea eta koltza) nagusitzen



diren eremura. Erriberan areagotu egiten da mahatsondoen hedapena, eta eskualdeko kontserba-industria tradizionala eta garrantzitsua hornitzen duten baratzeko produktuak (ospe handikoak) nagusitzen dira. Nekazaritza- eta abeltzaintza-produkzioak duen ospearen froga gisa, Idiazabal gaztaren (Urbasa eremuan), Erronkariko gaztaren, Nafarroako zainzurien, Lodosako pikillo piperren, Nafarroako ardoaren (ardo, beltza, gorria eta zuria) eta Nafarroako txahalaren jatorrizko izendapenak aipa daitezke.

Era berean, nabarmendu behar da espero dela Nafarroako nekazaritza-jarduerak etekin gehiago ateratzea eta indartzea Itoizko urtegiarekin eta Nafarroako Ubidearekin, horiei esker lur ureztatuak ezarri eta hobetuko baitira Ubideko eremu ureztagarrian (Nafarroan egin den obra hidrauliko garrantzitsuena da). Proiektu horri esker 220 biztanlegune baino gehiago urez hornitu ahal izango dira (besteak beste, Iruñerriko Mankomunitate osoa), baliabide natural honen egungo defizita arindu ahal izango da eta ahalbidetuko du lehorreko 59.160 hektarea lur ureztatu bihurtzea, nahiz eta hasiera batean 53.125 hektarea izango zirela aurreikusi; igoera hori gertatu da Ubidearen lehenengo fasea handitu delako eta bigarren fasean aldaketa batzuk egin direlako (bigarren fasean proiektuaren birdefinizioa aztertu behar izan baita; izan ere, proiektua idatzi zenean Bardeako egoera desberdina zen, oraindik ez zutelako biosferaren erreserba izendatu).

Ildo horretan, aurreikusten da 2012. urtetik 2021. urtera bitarteko aldian 264 milioi euroko inbertsioa egingo dela azpiegitura honetarako, eta hiru bide erabiliz finantzatzeko dela: Canasa sozietate publikoaren kapital sozialera egindako ekarpenak, banku-kredituak eta Canasaren diru-sarrerak (erabiltzaileek egindako ekarpenen bitartez). Kalkulatzen da Canasa sozietateak hemendik 20 urtera 723 milioi euroko inbertsioa egingo duela azpiegitura honetara.

Gaur egun, erabat bukatuta daude lehenengo faseko obrak; gaur egun 22.363 Ha lur ureztatu daude. Nafarroako Gobernuak, emakida-lehiaketa baten bitartez, arduratu da lehenengo fase honetako ureztatze ura banatzeko sarearen proiektuaz, sarea eraikitzeaz eta ustiatzeaz, eta lurzati jabeek laguntzak eman dizkie lurzati horiek hornitzeko gauzatu beharreko inbertsioak egiteko. Halaber, hornidura-urez hornitu dira Iruñerriko, Mairagako eta Urrozko Mankomunitateak, eta aurreikusitako bi zentral hidroelektrikoak bukatuz ziren eta dagoeneko abian jarrita daude.

2015eko urtarrilean ekin zitzaizkien Ubidearen lehenengo fasearen eremu ureztagarria hedatzeko obrei. Ubide horrek Ega eta Arga ibaien arroetan kokatuta dauden honako herrialde hauetako 15.275 hektareara eramango du ura: Andosilla, Azagra, Berbinzana, Cárcar, Falces, Funes, Larraga, Lerin, Lodosa, Mendigorria, Miranda Arga, Oteitza, Peralta, San Adrián eta Sesma.

Hedapena hogei eremu ureztagarritan zatitu da, eta lanak pixkanaka hasiko dira datozen hiru urteetan, eta espero da azken hektareak lur ureztatuak izatea 2018an. Obrak egin bitartean, kalkulatu da aldi berean 500 pertsonari emango zaiela zuzeneko lana jardura handieneko garaian, eta, ondoren, 600-1.300 enplegu bermatuko direla eremu horren etorkizuneko orientazioaren arabera.

Azkenik, kalkulatu da, obra egin ondoren, 15.275 hektareen lehen mailako sektorearen urteko produkzioaren balioa 45 milioi euro izatea jardura gauzatu aurretik (gaur egun 24 milioi da) eta nekazaritzako ustategietatik lortutako onura 7 milioi euro izatetik 16 milioi euro izatera igarotzea, eta guztizko BEGa 84,8 milioi izatera.

Industria

Gaur egun, Nafarroa Espainiako eskualde industrializatuenetako bat da, eta industria-sektorea funtsezko produkzio-jardura bihurtu da azken hamarkada hauetan (2014an enpleguaren % 24,9 da, eskualdeko BEGaren % 31,7), eta jardura horren portaerak baldintzatu egiten du neurri handi batean Nafarroako ekonomiaren hazkundera. Jardueraren azpisektore nagusiak honako hauek dira: ibilgailu motordunen fabrikazioa, janari-industria, produktu metalikoen fabrikazioa, beste inon sailkatu gabeko makineriaren eta ekipoen fabrikazioa. Jardura horiek, 2013an, Nafarroako industriaren guztizko enpleguaren % 54,1 eta industria horrek sortutako balio erantsiaren % 50,0 ziren orokorrean, Estatistika Institutu Nazionalak emandako informazioaren arabera.

Nafarroako eta Estatu osoko industria-sarearen ezaugarria da ETEak nagusitzen direla. Nolanahi ere, Nafarroan dauden atzerriko inbertsioak oso elementu garrantzitsuak dira sektorea dinamizatzeko eta modernizatzeko, nahiz eta horren ondorioz, Erkidegotik kanpoko erabaki-zentroek baino mendetasuna handiagoa izan. Ildo horretan, gaur egun, Nafarroan kokatutako ehun industria-enpresa baino gehiagok kapital multinazionala dute, batez ere tamaina erdiko edo handiko enpresek, eta esportaziorako joera handia dute. Enpresa horiek honako azpisektore hauetakoak dira: garraio-materiala eta nekazaritzako elikagaien industria, baita beste azpisektore hauetakoak ere: Kautxua eta plastikoa, Metalurgia eta produktu metalikoak, Makineria eta ekipamendu mekanikoa, Industria kimikoa, Papera eta arte grafikoak, Makineria eta ekipamendu elektrikoa, eta Produktu mineral ez-metalikoak.

Banaketa geografikoari dagokionez, industria-enpresak batez ere Iruñerrian, Iruñerria Altsasurekin eta Tuterarekin lotzen duten ardatzetan eta Lizarraraino doan Ebroen ibaialdean daude. Era berean, Bortzirriak eta Leizarango eskualdeen kasua nabarmendu

behar da; eskualde horretako industria-sektoreak enplegatzen baititu landun gehienak; enplegua enpresa handi kopuru txiki batek sortzen du batez ere.

Eraikuntza

Mende honen hasierako goranzko azken zikloan, sektore horrek garapen garrantzitsua izan zuen Nafarroan eta Estatu osoan orokorrean; bilakaera hori Nafarroan izan zen etxebizitzaren eskaera handiak eta etxebizitzaren eraikuntza nabarmenak bultzatu zuten; dinamika horri hainbat faktorek lagundu zioten, hala nola interes-tasak txikiak izateak edo egoera ekonomikoa egokia izateak; era berean, ikusi zen obra zibilaren bilakaera positiboa izan zela. Hala eta guztiz ere, guztiok dakigunez, bilakaera hori eten egin da azken urte hauetan, jarduera hori krisi handia igarotzen ari delako; 2014an guztizko enpleguaren % 5,7 da eta eskualdeko BEGaren % 5,2.

Zerbitzuak

Garatutako ekonomien sistema ekonomikoaren tertziarizaziorako joerari jarraiki (horri gehitu behar zaio sektore publikoaren presentzia areagotu egin dela, industria-enpresen jarduera jakin batzuk esternalizatu egin direla eta zerbitzuen eskaera igo egin dela), zerbitzu-sektoreak oso profil dinamikoa izan du azken urte hauetan (nabarmendu behar da sektore hori iraunkorra dela eta ziklo ekonomikoaren mendetasuna txikiagoa izateaz gain, hazkundera iraunkorra dela orokorrean), eta Nafarroako produkzio-sarean duen partaidetza etengabe areagotu dela (2014an enpleguaren % 65,4 eta eskualdeko BEGaren % 59,6 da).

Nafarroako zerbitzuak kontuan hartuta, honako hauek nabarmentzen dira beren kalitatea eta garrantzia direla medio: osasun-, hezkuntza- eta merkataritza-arlokoak, baita banku-, aholkularitza- eta kontsultoretza-arlokoak ere. Bilakaerari dagokionez, azken urte hauetan enpleguaren hazkundera batez bestekotik gora igo duten azpisektoreak honako hauek dira: enpresentzako Zerbitzuak, Zerbitzu publikoak eta Merkataritza eta Ostalaritza. Testuinguru horretan nabarmendu behar da Interneten eta teknologia berrien esparruan informatikan eta telekomunikazioetan (web-orriak eta enpresa-atariak egitea...) jarduten duten enpresa asko sortzen ari direla. Halaber, eta oso erakargarriak izan arren, turismoak Nafarroako ekonomian duen garrantzia mugatua da oraindik, nahiz eta eskualdeko ekonomian presentzia esanguratsua izatea lortzen ari den, eta espero da datozen urteetan ere bilakaera positibo horrekin jarraitzea.

Lurralde-banaketari dagokionez, adierazi behar dugu zerbitzu-sektoreko enpleguaren % 60 inguru Iruñean eta haren Eskualdean biltzen dela, goi-mailako gune tertziarioa delako tamaina txikiko Erkidego batentzat.

3. IKUSPEGI OROKORRA

Nazioarteko testuinguruan mundu osoko ekonomiak hedatze-erritmoari eusten dion bitartean, Nafarroako ekonomiak berriro ere hazkundearen bidea hartu du 2014an.

| Kontzeptua | 26. taula Bilakaera orokorra | | | | |
|-------------------------------------|------------------------------|------|------|------|------|
| | 2010 | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 |
| <i>(Urtearteko aldakuntza-tasa)</i> | | | | | |
| NAFARROA | | | | | |
| - BPGa | 1,2 | 1,5 | -1,5 | -1,3 | 1,5 |
| - Enplegua | -1,1 | -0,4 | -4,1 | -3,5 | 1,7 |
| - Langabezia-tasa(1) | 11,9 | 13,0 | 16,2 | 17,9 | 15,7 |
| - KPIa(2) | 2,8 | 2,6 | 2,7 | 0,0 | -1,2 |
| ESPAINIA | | | | | |
| - BPGa | 0,0 | -0,6 | -2,1 | -1,2 | 1,4 |
| - Enplegua | -2,0 | -1,6 | -4,3 | -2,8 | 1,2 |
| - Langabezia-tasa(1) | 19,9 | 21,4 | 24,8 | 26,1 | 24,4 |
| - KPIa(2) | 3,0 | 2,4 | 2,9 | 0,3 | -1,0 |

(1): % biztanleria aktiboa oinarri hartuta.

(2): aldakuntza-tasa abendutik abendura.

Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua, EIN (BAI, Biztanleei buruzko oinarria 2011).

lido horretan, Nafarroako BPGa % 1,5 hazi da 2014an, emaitza positiboa 2012ko eta 2013ko datuekin alderatuz (-% 1,5 eta -% 1,3 murriztu zen, hurrenez hurren). Era horretan, Nafarroak garapen hobea izan du Euroguneak baino (% 0,9 2014an, OCDEren arabera); horri esker, nolabaiteko aurrerapausoak egon dira Europako ekonomia nagusiekin benetako parekatzea lortzeko prozesuan.

Kontuan hartzen badugu EINren eskualdekako kontabilitatea, Espainiako autonomia-erkidego guztiak hazkundearen bidera itzuli dira 2014an (eskualde guztien BPGa murriztu egin zen 2013an). Gehien hazi den autonomia-erkidegoa Errioxa (% 2,5) izan da; gutxien hazi dena, berriz, Galizia (% 0,5). EINren datuen arabera, Nafarroa % 2 hazi da.


Arreta lan-merkatuan jartzen badugu, EINren Biztanleria Aktiboaren Inkestako datuen arabera, Nafarroako biztanle landunen kopurua % 1,7 igo da. Hazkunde hori estatuan bizitako gorakada (% 1,2) baino indartsuagoa izan da. Hala, bukatu egin da langabeziaren gorako joera: Nafarroaren kasuan, 2013an % 17,9ko langabezia-tasa izatetik 2014an % 15,7 izatera igaro da; Estatu mailan berriz, gehiegizko % 26,1eko langabezia-tasa izatetik % 24,4ra igaro da.

Prezioei dagokienez, portaera bereizgarriak izan dituzte 2014an hilez hil hala Nafarroan, nola estatu osoan ere; dena den, hazkunde motela, baita atzerakada ere, izan da joera

nagusia. Nafarroari dagokionez, prezioak 2014ko hil guztietan jaitsi dira; estatuan, berriz, martxoan jaitsi ziren eta, uztailetik aurrera, hileru. Hala, metatutako inflazio-tasa (abendutik abendura) 2013an % 0 izatetik 2014an -% 1,2 izatera igaro da Nafarroan, eta % 0,3tik -% 1era, berriz, estatuan.

Bukatzeko, aipagarria da 2015eko lehen hiruhilekoan Nafarroako ekonomiaren urtez urteko hazkundea % 2,3koa izan dela. Erritmo hori 2014ko laugarren hiruhilekoan lortutakoa (% 2,1) baino ehuneko bi hamarren hobea da. Hori kontuan hartuta, Foru Gobernuak aurreikusi du BPGa % 2,6 haziko dela oraingo ekitaldian.

3. grafikoa BPGaren bilakaera



Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua, EIN.

27. taula Zenbait jarduera-adierazleren bilakaera

| Kontzeptua | (aldakuntza tasa) | | | | | |
|---|-------------------|----------|----------|----------|----------|----------|
| | 2012 | | 2013 | | 2014 | |
| | Nafarroa | Espainia | Nafarroa | Espainia | Nafarroa | Espainia |
| A. EKOIZPENA ETA JARDUERA | | | | | | |
| A.1 Industria (ekoizpenak) | | | | | | |
| • Nekazaritzako elikagaien industria | -5,8 | -3,1 | -2,2 | -0,9 | 0,4 | 3,7 |
| • Automobilgintza (turismo kopurua) | -18,7 | -16,3 | 0,8 | 11,7 | 5,6 | 8,9 |
| • Papera (tona) | -5,9 | -0,4 | 0,0 | 0,1 | -1,8 | -2,4 |
| A.2 Eraikuntza | | | | | | |
| • Amaitutako etxebizitzak (kopurua) | -25,5 | -25,6 | -18,9 | -55,0 | -24,4 | -16,3 |
| • Hasitako etxebizitzak (kopurua) | -61,4 | -39,6 | -65,4 | -31,4 | 68,3 | -- |
| • Barneko zementu-salmentak (tona)** | -27,0 | -33,8 | -23,0 | -20,9 | 11,8 | 0,2 |
| • Lizitazio ofizialak (euro korronte) | -70,0 | -45,5 | -8,1 | 23,3 | 8,8 | 42,6 |
| A.3 Lehen sektorea (ekoizpenak) | | | | | | |
| • Nekazaritza (euro korronte) | -- | -0,5 | -- | 9,6 | -- | -7,4 |
| • Abeltzaintza (euro korronte) | -- | 7,2 | -- | -1,3 | -- | 0,5 |
| • Basogintza (euro korronte) | -- | -- | -- | -- | -- | -- |
| • Guztira (euro korronte) | 4,0 | 2,4 | 2,0 | 5,3 | 1,6 | -4,1 |
| A.4 Zerbitzuak | | | | | | |
| • Errepide bidezko garraioa (salgaiak) | -15,1 | -14,0 | -3,0 | -7,5 | -14,8 | 3,0 |
| • Aire bidezko garraioa (salgaiak) | -64,9 | -3,1 | -76,7 | -1,9 | 196,4 | 7,2 |
| • Aire bidezko garraioa (bidaiariak) | -20,3 | -5,0 | -16,2 | -3,5 | -12,7 | 4,6 |
| A.5 Finantza-sektorea | | | | | | |
| • Gordailu pribatuak (euro korronte) | -10,5 | -0,9 | 6,6 | 3,2 | -5,1 | 0,4 |
| • Sektore pribatuko kreditua (euro korronte) | -11,7 | -10,4 | -8,0 | -9,4 | -10,3 | -4,6 |
| B. BARNE ESKAERA | | | | | | |
| – Ibilgailuen matrikulazioa (kopurua) | -12,6 | -13,1 | 12,0 | 4,5 | 17,9 | 18,4 |
| – Ibilgailu industrialen matrikulazioa (kopurua) | -30,3 | -25,0 | 10,4 | 0,1 | 11,1 | 25,7 |
| – Ekipo-ondasunen inportazioa (euro korronte)* | -26,3 | -10,3 | -5,4 | 4,6 | 3,1 | 15,8 |
| – Energia elektrikoaren kontsumoa (Kw/h) | -6,0 | -1,3 | -- | -2,3 | -- | -1,6 |
| C. KANPO MERKATARITZA | | | | | | |
| – Esportazioak (euro korronte) | -12,8 | 5,1 | 2,9 | 5,2 | 8,7 | 2,5 |
| – Inportazioak (euro korronte) | -19,3 | -2,0 | -9,4 | -1,3 | 4,2 | 5,7 |
| D. PREZIOAK ETA SOLDATAK | | | | | | |
| – Kontsumo prezioen indizea (urteko batezbestekoa) | 2,6 | 2,4 | 1,2 | 1,4 | -0,5 | -0,2 |
| – Kontsumo prezioen indizea (abe/abe) | 2,7 | 2,9 | 0,0 | 0,3 | -1,2 | -1,0 |
| – Nekazariak jasotako prezioak | 9,7 | 9,9 | 7,9 | 2,8 | -2,6 | -7,1 |
| – Soldata-kostua langile eta hilabete bakoitzeko | -2,7 | -0,6 | -0,3 | 0,2 | 1,9 | -0,3 |
| E. LAN MERKATUA*** | | | | | | |
| – Biztanleria aktiboa | -0,5 | 0,0 | -1,4 | -1,1 | -1,0 | -1,0 |
| – Landun biztanleria | -4,1 | -4,3 | -3,5 | -2,8 | 1,7 | 1,2 |
| • Lehen sektorea | 20,3 | -1,6 | 58,9 | -0,9 | -16,6 | -0,1 |
| • Industria | -3,0 | -4,6 | -1,9 | -5,2 | -0,6 | 1,0 |
| • Eraikuntza | -18,5 | -17,3 | -21,0 | -11,3 | -2,1 | -3,5 |
| • Zerbitzuak | -3,8 | -3,0 | -5,9 | -1,7 | 4,8 | 1,7 |
| – Biztanleria langabea | 24,0 | 15,9 | 9,3 | 4,1 | -13,3 | -7,3 |
| – Langabezia tasa (% biztanleria aktiboa oinarri hartuta) | 16,2 | 24,8 | 17,9 | 26,1 | 15,7 | 24,4 |
| – Erregistratutako kontratuak | -2,6 | -1,3 | 18,8 | 3,9 | 14,9 | 13,1 |

(*): Nafarroan, material elektrikoa, makinaren eta gailuen inportazioa.

(**): Ipar Eremua: Aragoi, Nafarroa, EAE eta Errioxa.

(***): BAI, Biztanleei buruzko oinarria 2011.

--: Ez dago behin betiko datu ofizialik.

Iturria: Geuk egina, hainbat iturri estatistiko oinarri hartuta.

3.1 PRODUKZIOA

2014ko ekitaldian, euskal BPGa hazkunde-tasa positibora itzuli da, baita Nafarroakoa eta Estatukoa ere. Zehazki, Nafarroako ekonomia % 1,5 hazi da 2014an (-% 1,3ko uzkurdua aurreko ekitaldian), EAeko ekonomia % 1,2 (-% 1,7ko atzerakada aurreko ekitaldian), eta Estatukoa % 1,4 (-% 1,2ko beherakada 2013an). Hortaz, 2014. urtean, aintzat hartutako hiru eremu geografikoek (Nafarroa, EAE eta Estaturia) atzean utzi dute azkenean atzeraldi ekonomikoa.

Hiruhilekoen araberrako bilakaerari jarraiki, urte arteko hazkunde-erritmoa areagotu da pixkana-pixkana, ekitaldiak aurrera egin ahala. Foru Erkidegoan, urte arteko hazkundeak % 0,6, % 1,6, % 1,8 eta % 2,1 izan dira 2014ko ondoko ondoko hiruhilekoetan, hurrenez hurren.

Eskaintzaren ikuspegitik begiratuta, eraikuntzaren jarduerak bakarrik egin du atzera 2014an, gainerako sektoreetan aurrera egin baitu. Nafarroan, industriak % 3,1 egin du gora (-% 1,2 2013an), zerbitzuek % 1,5 (-% 0,7 2013an), eta lehen sektoreak % 1,3 (% 0,6ko gorakada txikia 2013an); eraikuntzak, aldiz, -% 3,6 egin du atzera (ehuneko 2,3 puntu gutxiago aurreko ekitaldian baino).

| 28. taula Barne Produktu Gordinaren bilakaera | | | |
|--|-------------|-------------|-------------|
| <i>(Urte arteko aldakuntza tasa erreala)</i> | | | |
| Kontzeptua | 2012 | 2013 | 2014 |
| NAFARROA⁽¹⁾ | | | |
| - Nekazaritza | 3,3 | 0,6 | 1,3 |
| - Industria | -3,8 | -1,2 | 3,1 |
| - Eraikuntza | -6,0 | -5,9 | -3,6 |
| - Zerbitzuak | 0,1 | -0,7 | 1,5 |
| - Guztira | -1,5 | -1,3 | 1,5 |
| ESPAINIA⁽¹⁾ | | | |
| - Nekazaritza | -12,8 | 15,6 | 3,3 |
| - Industria ⁽²⁾ | -3,8 | -1,8 | 1,5 |
| - Eraikuntza | -14,3 | -8,1 | -1,2 |
| - Zerbitzuak | 0,2 | -1,0 | 1,6 |
| - Guztira | -2,1 | -1,2 | 1,4 |

(1): Oinarrizko prezioetarako Balio Erantsi Gordina sektoreen kasuan, merkatu-prezioetarako BPGa guztizkoaren kasuan.

(2): Energia aparte utzita.

Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua.

Industriari dagozkion adierazleek 2014an izan duten bilakaeraren arabera, adierazle gehienek industria-sektorearen gorakada islatzen dute, lehenago adierazi dugun bezala. Zentzu horretan, Industria Produktzioaren Indizea hazkundearen bidera itzuli da (% 3,9 2014an eta -% 1,6 2013an), eta aurreikusitako eskaerak gora egin dute (erantzunen

saldoa 4 izan da, eta aurreko ekitaldian 1 izan zen). Nolanahi ere, industriaren enpleguak uzkurtzearen bidetik jarraitu du (-% 0,6), 2013an baino intentsitate txikiagoarekin izan bada ere (-% 1,9). Era berean, industria-giroak eta egungo eskaerek ere kopuru negatiboak ematen jarraitu dute, aurreko ekitaldian baino neurri txikiagoan bada ere.

| 29. taula | | Industria-sektorearen adierazleak | | |
|--|------|-----------------------------------|------|--|
| Kontzeptua | 2012 | (Urte arteko aldakuntza-tasa) | | |
| | | 2013 | 2014 | |
| Industria Produkzioaren Indizea (IPI) ⁽¹⁾ | -8,0 | -1,6 | 3,9 | |
| Industria-giroa ⁽²⁾ | -21 | -16 | -6 | |
| Egungo eskaerak ⁽²⁾ | -33 | -34 | -12 | |
| Aurreikusitako eskaerak ⁽²⁾ | -3 | 1 | 4 | |
| Industria enplegua | -3,0 | -1,9 | -0,6 | |

(1): Egutegiaren eragina zuzendutako datuak.
(2): Erantzunen saldoak.
Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua, EIN.

Eraikuntzari dagokionez, eraikuntzaren beherakada neurri txikiagoan nabarmendu den testuinguru batean, zementuaren barne-salmentak, lizitazio ofiziala eta hasitako etxebizitzak hazkundearen bidera itzuli dira (% 11,8, % 8,8 eta % 68,3 2014an, eta -% 23, -% 8,1 eta -% 65,4 aurreko ekitaldian, hurrenez hurren); amaitutako etxebizitzaren beherakada, berriz, areagotu egin da (-% 24,4 2014an eta -% 18,9 2013an), eta enplegu sektorialaren jaitziera-erritmoa arindu da (-% 2,1 2014an eta -% 21 aurreko ekitaldian, hurrenez hurren).

| 30. taula | | Eraikuntza-sektorearen adierazleak | | |
|--|--------------|------------------------------------|-------------|--|
| Kontzeptua | 2012 | (Urte arteko aldakuntza-tasa) | | |
| | | 2013 | 2014 | |
| Zementu-kontsumoa* | -27,0 | -23,0 | 11,8 | |
| Lizitazio ofiziala ⁽¹⁾ | -70,0 | -8,1 | 8,8 | |
| Hasitako etxebizitzak ⁽²⁾ | -61,4 | -65,4 | 68,3 | |
| Amaitutako etxebizitzak ⁽²⁾ | -25,5 | -18,9 | -24,4 | |
| Enplegua | -18,5 | -21,0 | -2,1 | |

(*): Oficemen-eko (Ipar Eremua: Aragoi, Nafarroa, EAE eta Errioxa) bazkideen zementu grisaren barneko salmentei dagokie.
(1): Seopan.
(2): Etxebizitza Ministerioa.
Iturria: Nafarroako Gobernua, EIN.

Zerbitzuei dagokienez, sektorea heterogeneoa da, eta horregatik portaera desberdinak ikusten ditugu aztertutako adierazleetan, bilakaera, oro har, positiboa izan bada ere. Aztertutako adierazleei dagokienez, aipatzekoa da aire trafikoko bidaiariak soilik egin dutela behera 2014an (-% 12,7), aurreko ekitaldian baino intentsitate txikiagoarekin izan bada ere (-% 16,2 2013an). Aldiz, hoteleko gaualdien eta ibilgailu astunen autobide-trafikoaren hazkundera areagotu da (% 8,7 eta % 2,9 2014an eta % 2,1 eta % 0,1 2013an,

hurrenez hurren), eta ibilgailu arinen autobide-trafikoak eta enplegu sektorialak oro har gora egin dute (% 0,8 eta % 4,8 2014an eta -% 3,7 eta -% 5,9 aurreko ekitaldian, hurrenez hurren).

| 31. taula | | Zerbitzu-sektorearen adierazleak | | |
|---|-------|--------------------------------------|-------|--|
| | | <i>(Urte arteko aldakuntza-tasa)</i> | | |
| Kontzeptua | 2012 | 2013 | 2014 | |
| Hoteletako gaualdiak | -3,3 | 2,1 | 8,7 | |
| Aire-trafiko bidaiariak | -20,3 | -16,2 | -12,7 | |
| Ibilgailu arinen trafikoa autobideetatik | -8,0 | -3,7 | 0,8 | |
| Ibilgailu astunen trafikoa autobideetatik | -9,8 | 0,1 | 2,9 | |
| Enplegua | -3,8 | -5,9 | 4,8 | |

Iturria: AENA, Nafarroako Estatistika Institutua, EIN.

3.2 ESKARIA

Barne-eskaria

Eskariaren ikuspegia kontuan izanik, Nafarroako barne-eskaria % 0,4 handitu da 2014. urtean, azken bost ekitaldietan atzerakadak izan ondoren (-% 3,7, -% 0,6, -% 1,6, -% 3,2 eta -% 2,3 2009an, 2010ean, 2011n, 2012an eta 2013an, hurrenez hurren). Gauzak horrela, Nafarroako BPG % 1,5 igo da 2014. urtean, aurreko ekitaldian erregistratu zen -% 1,3ko uzkurduraren ondoren, era horretan ekonomia-atzerapena atzean utziz.

Barne-eskariaren osagaiak aintzat hartzen baditugu, esan dezakegu kontsumo pribatua eta kontsumo publikoa handitu egin direla (% 1,2 2014an eta -% 1,3 2013an, eta % 0,5 2014an eta -% 3,7 2013an, hurrenez hurren), baina kasu honetan inbertsioak beherantz jarraitu du (-% 1,4), baina aurreko ekitaldian baino intentsitate askoz txikiagoarekin (-% 3,7 2013an).

Kontsumo-adierazleak eta inbertsio-adierazleak aintzat hartzen baditugu, ikusiko dugu automobilen eta industria-ibilgailuen matrikulazioen hazkundera areagotu egin dela (% 17,9 2014an; 2013an, aldiz, % 12%, eta % 11,1 2014an; 2013an, aldiz, % 10,4, hurrenez hurren). Bestalde, hitzarmenetan adostutako soldata-igoera aurreko urtean adostutakoa baino portzentajezko hiru hamarren txikiagoa izan da (% 0,48 2014an; 2013an, aldiz, % 0,78).

32. taula Kontsumo- eta inbertsio-adierazleak*(Urte arteko aldakuntza-tasa)*

| Kontzeptua | 2012 | 2013 | 2014 |
|--------------------------------------|-------|------|---------------------|
| Ibilgailuen matrikulazioa | -12,6 | 12,0 | 17,9 ⁽³⁾ |
| KP ⁽¹⁾ | 2,7 | 0,0 | -1,2 |
| Soldata-igoera ⁽²⁾ | 1,43 | 0,78 | 0,48 |
| Ibilgailu industrialen matrikulazioa | -30,3 | 10,4 | 11,1 ⁽³⁾ |

*(1): Aldakuntza-tasa abendutik abendura.**(2): Hitzarmenetan itundua.**(3): 2014. urtea. Behin-behineko datuak.**Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua, EIN eta Enplegu eta Gizarte Segurantzaren Ministerioa.***Kanpo-merkataritzea**

Kanpo-merkataritzaren merkataritzea-kide nagusien dinamismo ekonomikoa handiagoa denez, Nafarroako kanpo-sektorea aurreko ekitaldian baino indartsuago azaldu da, esportazioen aurrerapen-erritmoa bizkortu delako eta inportazioek ere gora egin dutelako.

33. taula Kanpo-merkataritzaren bilakaera Nafarroan*(M eurotan)*

| Kontzeptua | 2012 | 2013 | 2014* | % Δ 14/13 |
|----------------------|---------|---------|---------|-----------|
| ESPORTAZIOAK guztira | 7.237,0 | 7.448,2 | 8.099,5 | 8,7 |
| INPORTAZIOAK guztira | 4.325,2 | 3.918,6 | 4.081,3 | 4,2 |
| SALDOA GUZTIRA | 2.911,8 | 3.529,5 | 4.018,3 | 13,8 |

(): Behin-behineko datuak.**Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua.*

Esportazioak 8.099,5 milioi eurora iritsi dira, aurreko ekitaldian lortutako zifra baino % 8,7 handiagoa, eta inportazioak 4.081,3 milioi eurora iritsi dira, 2013an lortutako maila baino % 4,2 handiagoa. Horrela, Nafarroako balantza komertzialaren saldo positiboa handitu egin da 4.018,3 milioi euroraino (3.529,5 milioi euro aurreko ekitaldian), esportazioek inportazioen gainean duten estaldura-tasa % 198,5era handituz (% 190,1 2013an).

34. taula Nafarroako esportazioak eta inportazioak, herrien eta sektoreen arabera
(M eurotan)

| Kontzeptua | ESPORTAZIOAK | | | | | INPORTAZIOAK | | | | |
|--------------------------------------|----------------|----------------|----------------|--------------|--------------|----------------|----------------|----------------|--------------|--------------|
| | 2012 | 2013 | 2014* | % | % Δ 14/13 | 2012 | 2013 | 2014* | % | % Δ 14/13 |
| GUZTIRA (Guztizkoak) | 7.237,0 | 7.448,2 | 8.099,5 | 100,0 | 8,7 | 4.325,2 | 3.918,6 | 4.081,3 | 100,0 | 4,2 |
| HERRIEN ARABERA (Guztizkoak) | | | | | | | | | | |
| – Frantzia | 1.296,9 | 1.325,9 | 1.402,7 | 17,3 | 5,8 | 581,9 | 547,2 | 525,9 | 12,9 | -3,9 |
| – Alemania | 1.207,3 | 1.259,8 | 1.293,2 | 16,0 | 2,7 | 1.272,0 | 1.064,7 | 1.215,2 | 29,8 | 14,1 |
| – Italia | 584,4 | 467,9 | 487,2 | 6,0 | 4,1 | 279,9 | 264,2 | 244,5 | 6,0 | -7,5 |
| – Erresuma Batua | 475,5 | 653,6 | 605,1 | 7,5 | -7,4 | 230,8 | 225,6 | 158,9 | 3,9 | -29,6 |
| – Portugal | 278,7 | 283,6 | 359,3 | 4,4 | 26,7 | 223,1 | 226,0 | 193,0 | 4,7 | -14,6 |
| – EB-28 guztira | 5.325,7 | 5.323,9 | 5.677,1 | 70,1 | 6,6 | 3.543,8 | 3.163,9 | 3.270,5 | 80,1 | 3,4 |
| – Gainerako Europa | 482,5 | 539,5 | 546,6 | 6,7 | 1,3 | 119,1 | 121,7 | 123,3 | 3,0 | 1,3 |
| – Ameriketako Estatu Batuak | 231,9 | 185,5 | 329,0 | 4,1 | 77,4 | 64,4 | 59,8 | 34,1 | 0,8 | -43,0 |
| – Beste helmuga batzuk | 1.196,9 | 1.399,3 | 1.546,8 | 19,1 | 10,5 | 597,9 | 573,2 | 653,4 | 16,0 | 14,0 |
| SEKTOREEN ARABERA (Guztizkoak) | | | | | | | | | | |
| – Lehen sektorea | 376,5 | 405,6 | 442,7 | 5,5 | 9,1 | 288,3 | 314,8 | 321,5 | 7,9 | 2,1 |
| – Nekazaritzako elikagaien industria | 402,6 | 493,1 | 510,4 | 6,3 | 3,5 | 163,1 | 211,6 | 202,7 | 5,0 | -4,2 |
| – Industria kimikoa | 89,3 | 101,9 | 89,8 | 1,1 | -11,9 | 235,7 | 223,7 | 186,6 | 4,6 | -16,6 |
| – Mat. plastikoak, kautxua | 280,1 | 258,4 | 260,1 | 3,2 | 0,7 | 316,4 | 323,7 | 277,7 | 6,8 | -14,2 |
| – Metal komuneren manuf. | 686,2 | 643,5 | 683,3 | 8,4 | 6,2 | 467,4 | 460,1 | 477,7 | 11,7 | 3,8 |
| – Makinak, mat. elektrikoa | 1.605,9 | 1.649,3 | 1.983,7 | 24,5 | 20,3 | 970,3 | 918,4 | 946,6 | 23,2 | 3,1 |
| – Garraio-materiala | 3.283,1 | 3.381,9 | 3.612,2 | 44,6 | 6,8 | 1.159,9 | 900,1 | 1.170,4 | 28,7 | 30,0 |
| – Gainerakoak | 513,3 | 514,5 | 517,3 | 6,4 | 0,5 | 724,1 | 566,2 | 498,1 | 12,2 | -12,0 |

(): Behin-behineko datuak.*
Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua.

Europar Batasuna (EB-28) Nafarroako kanpo-merkataritzaren jatorri eta helmuga nagusia da, esportazioen % 70,1 eta inportazioen % 80,1 barnean hartuz. Herrien arabera, Frantzia (eta ondoren Alemania) da bezero nagusia, Nafarroako kanpo-salmenten % 17,3 barnean hartuz, eta bestalde, Alemania da (eta ondoren Frantzia) hornitzaile nagusia, kanpo-erosketen % 29,8 barnean hartuz.

Muga-zergen partidei dagokienez, garraio-materialari buruzkoa nabarmentzen da argi eta garbi, esportazioen % 44,6 eta inportazioen % 28,7 biltzen baitu, era horretan Nafarroako kanpo-merkataritzaren bilakaera globala neurri handi batean baldintzatuz.

3.3 PREZIOAK ETA SOLDATAK

Petrolioaren prezioak izan duen beheranzko joeraren ildotik (batez ere ekitaldiko bigarren seihilekoan), kontsumo-prezioen bilakaera beheranzkoa izan da 2014. urtean Nafarroan. Izan ere, KPlaren urte arteko aldakuntza negatiboa izan da Foru Erkidegoan 2014ko hilabete guztietan, eta oro har urte arteko beherakada handiagotarako joera argia izan du.

Gauzak horrela, 2014an inflazio-tasa metatua (abendutik abendura) negatiboa izan da Nafarroan: -% 1,2 (-% 0,7 EAEn); aitzitik, aurreko ekitaldian aldakuntza nulua izan zen (% 0,6 EAEn 2013an).

| 35. taula | | Prezioen bilakaera Nafarroan | | |
|---|--|--------------------------------------|-------------|-------------|
| | | <i>(Urte arteko aldakuntza-tasa)</i> | | |
| NAFARROA | | 2012 | 2013 | 2014 |
| KPI | | | | |
| Orokorra ⁽¹⁾ | | 2,6 | 1,2 | -0,5 |
| Orokorra ⁽²⁾ | | 2,7 | 0,0 | -1,2 |
| - Elik. eta alkoho. gab. edariak | | 3,2 | -0,4 | 0,4 |
| - Edari alkoholduak, tabakoa | | 6,2 | 4,8 | 0,2 |
| - Jantziak eta oinetakoak | | 0,3 | 0,2 | 0,3 |
| - Etxebizitza | | 5,7 | -1,2 | -1,9 |
| - Etxeko tresneria | | 2,9 | -0,7 | -0,8 |
| - Medikuntza | | 8,7 | 1,9 | 0,7 |
| - Garraioak | | 2,1 | 1,3 | -5,7 |
| - Komunikazioak | | -2,7 | -6,6 | -5,7 |
| - Aisia eta Kultura | | 0,9 | 0,1 | -1,5 |
| - Irakaskuntza | | 11,4 | 1,4 | 1,8 |
| - Hotelak eta jatetxeak | | 0,0 | 0,7 | 0,6 |
| - Beste batzuk | | 4,3 | -0,2 | 0,5 |
| Nekazariak Jasotako Prezioen Indizea | | | | |
| Orokorra | | 9,7 | 7,9 | -2,6 |
| - Nekazaritza-produktuak | | 7,6 | 13,9 | -2,8 |
| - Baso-produktuak | | 20,4 | -0,6 | 0,7 |
| - Animalia-produktuak | | 11,7 | 2,0 | -2,5 |

(1): Urteko batez besteko aldakuntza.

(2): Abendutik abendura.

Iturria: Nafarroako Estadistika Institutua eta EIN.

Ondasun-talde desberdinak kontuan hartuz, Nafarroako eremuan irakaskuntza izan da inflaziorik handiena izan duen taldea (% 1,8), eta ondoren medikuntza (% 0,7), hotelak eta jatetxeak (% 0,6), beste batzuk izenarekin katalogatuta dagoen taldea (% 0,5), elikadura eta alkoholik gabeko edariak (% 0,4), jantziak eta oinetakoak (% 0,3), edari alkoholduak eta tabakoa (% 0,2) daude; gainerako taldeek tasa negatiboak dituzte.

Nafarroako nekazariak jasotako prezioak kontuan hartuta, indize orokorrak izan duen erorketa (-2,6% eta aurreko ekitaldian % 7,9) gertatu da beren prezioetan tasa negatiboetara igaro direlako nekazaritza-produktuak (-% 2,8, eta aurreko ekitaldian % 13,9) eta animalia-produktuak (-% 2,5, eta aurreko ekitaldian % 2), eta baso-produktuen prezioak tasa positiboak izatera igaro dira (% 0,7, eta aurreko ekitaldian -% 0,6).

Lan-kostuak aintzat hartzen baditugu, ikusiko dugu kostu horiek igo egin direla 2014an Nafarroan, eta horrela zapuztu egin dira aurreko bi ekitaldietan izandako jaitsierak.

Zehazki, soldata-kostua ordu efektibo bakoitzeko % 0,5 igo da (-% 1,9 eta -% 0,5 2012an eta 2013an, hurrenez hurren) eta soldata-kostua langile eta hilabete bakoitzeko % 1,9 (-% 2,7 eta -% 0,3 2012an eta 2013an, hurrenez hurren).

| 36. taula | | Soldata-adierazleak | | |
|--|--------|---------------------|--------|--|
| Kontzeptua | 2012 | 2013 | 2014 | |
| Soldata-kostuak (Urte arteko aldak. tasa) | | | | |
| - Soldata-kostua ordu efektibo bakoitzeko | -1,9 | -0,5 | 0,5 | |
| - Soldata-kostua langile eta hilabete bakoitzeko | -2,7 | -0,3 | 1,9 | |
| Hitzarmenak | | | | |
| - Hitzarmen kopurua | 125 | 139 | 81 | |
| - Eraginpeko langileak | 97.165 | 66.909 | 33.124 | |
| - Adostutako soldata-igoera | 1,43 | 0,78 | 0,48 | |

Iturria: Lan kostuen hiruhileroko inkesta (EIN) eta Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioa

Azkenik, negoziazio kolektiboari dagokionez, aurreko ekitaldian baino gutxiago garatu dira; guztira 81 hitzarmen erregistratu dira (139 2013an) eta 33.124 pertsona hartu dituzte eraginpean (66.909 2013an), eta adostutako soldata-igoera % 0,48 izan da (% 0,78 2013an).

3.4 LAN-MERKATUA ETA DEMOGRAFIA

Eduki soziolaboraleko garrantzizko araudia Estatuan¹

Beheko taulan labor-labor azaldu dira 2014an Estatuan alor sozialaloralean onartutako arau nagusiak, mailaren eta oinarriko edukiaren arabera sailkatuta eta labor-labor aurkeztuta.

¹ Azpiepigrafe hau egiteko, EAEko Lan Harremanen Kontseiluaren "EAEko 2014ko egoera ekonomikoa eta lan-harremanak" txostena erabili dugu informazio-iturri gisa.

37. taula 2014an Estatuan onartutako arau soziolaboral garrantzitsuenak

| Maila | Oinarrizko edukia | Oharrak |
|--|---|--|
| 1/2014 Legea, otsailaren 28koa, lanaldi partzialean kontratatutako langileak babesteko eta premiazko beste neurri ekonomiko eta sozial batzuei buruzkoa. | Lanaldi partzialean kontratatutako pertsonen babes sozialeko erregimena aldatzen du. Langileen Estatutuaren 40., 41., 47., 51. eta 82.3 artikulua aldatzen ditu negoziazio-batzordearen osakerari dagokionez. Kaleratze kolektiboagatikozko prozedura arautzen duen erregelamenduari zati bat aldatzen du (1483/2012 ED). | Eduki korapilatsuko legea, hainbat xedapen heterogeneo biltzen baititu, eta, lan-eremuan, 11/2013 Errege Lege Dekretuaren edukia jasotzen du, Diputatuen Kongresuan lege-proiektu gisa baliozkotu eta ondoren izapidetu zena. Lege horrek eta haren aurrekari hurrenak (aipatutako Errege Lege Dekretua), lanaldi partzialean kontratatuek babes soziala eskuratzeko baldintzak hobetzeko 2013ko uztailaren 31ko akordioa garatzen dute, Estatuko solaskide sozialek eta Gobernuak sinatutakoa. |
| 18/2014 Legea, urriaren 15ekoa, hazkunderako, lehiakortasunerako eta efizientziarako premiazko neurri buruzkoa. | Gazte Bermearen Sistema Nazionala ezartzen du. Enplegua eta kontratazio mugagabea sustatzeko premiazko neurri buruzko 3/2014 Errege Lege Dekretuaren edukia aldatzen du, Gizarte Segurantzarekiko kotizazioetan tarifa finkoa ezarri zuena gutxienez hiru urteko iraupena duten kontratazio mugagabeetarako. | Eduki korapilatsuko legea, enpresen sustapen eta lehiakortasunaren eta enpresen finantziarioa eskuratzeko aukerak hobetzearen helburu globalaren testuinguruan, enplegarritasuna eta soldatuen okupazioa sustatzeko neurri espezifiko batzuk biltzen dituena, Estatuan Gazte Bermearen Sistema Nazionala garatzearekin batera. |
| 3/2014 Errege Lege Dekretua, enplegua eta kontratazio mugagabea sustatzeko premiazko neurri buruzkoa. | Tarifa finko bat ezartzen du gizarte-segurantzarekiko kotizazioei dagokionez, gutxienez hiru urte irauten duten kontratu mugagabeetarako. | Errege Lege Dekretu hori Diputatuen Kongresuan baliozkotua izan zen, 2014ko martxoaren 18an. Ondoren, alde aurretik aipatutako 18/2014 Legearen 120. artikulua haren zati bat aldatu zuen. |
| 16/2014 Errege Lege Dekretua, abenduaren 19koa, Enplegua Aktibatze Programari buruzkoa. | Aldi baterako prestazio ekonomiko bat ezartzen du erantzukizun familiarak dauzkaten iraupen luzeak langabeentzat. | Errege Lege Dekretu hori Diputatuen Kongresuan baliozkotu zen, 2015eko urtarrilaren 13an. Errege Lege Dekretu horren zuzeneko aurrekari beste Akordio bat da, estatuko solaskide sozialek eta Gobernuak 2014ko abenduaren 15ean sinatu zutena. |
| Irailaren 5eko 751/2014 Errege Dekretua. | 2014-2016 aldirako enplegua aktibatze Espainiako Estrategia onartzen du. | Alde aurretik aipatutako 18/2014 Legearen alderdi jakin batzuk garatzen ditu. Enpleguari buruzko 56/2003 legearen zati bat aldatu zuen azken lege horrek. 8/2014 Errege Dekretua da haren aurrekari hurrena gai horretan. |

Iturria: Geuk egina, EAEko Lan Harremanen Kontseiluaren "EAEko 2014ko egoera ekonomikoa eta lan-harremanak" txostenean oinarrituta.

Lan-merkatua Nafarroan

BPGaren hazkunde-tasa positiboetara itzultzearekin batera, Nafarroako lan-egoerak bilakaera positiboa izan du 2014an, enpleguak gora eta biztanleria langabeak behera egin duten neurrian. Era berean, Estatuan ere okupazioak gora egin du, eta langabeziak behera.

Zehazki, Nafarroako biztanleria aktiboa 311,5 milako pertsona izan da (-% 1 uzkurdu da urtetik urtera), eta haietatik 262,5 milako pertsona okupatuta zeuden eta 48,9 milako pertsona langabe, biztanleria okupatuak % 1,7 gora eta biztanleria langabeak -% 13,3 atzera egin dutelarik, hurrenez hurren.

Estatuan, biztanleria aktiboa neurri berean jaitsi da (-% 1) eta konparazio bat eginez, okupazioa gutxiago hazi da (% 1,2) eta langabezia gutxiago jaitsi da (-% 7,3).

Hala, Nafarroako jarduera-tasa % 60,2tik % 59,8ra jaitsi da 2013tik 2014ra bitarte. Gizonen artean tasak beheranzko bilakaera izan du (2013an % 66,7 izan zen eta 2014an % 65,6), eta emakumeen artean, aldiz, goranzkoa (% 53,8 2013an eta % 54,1 2014an). Gauzak horrela, bi sexuen arteko aldeak pixka bat behera egin du (ehuneko 11,5 puntu 2014an eta ehuneko 12,9 puntu 2013an, hurrenez hurren).

Era berean, Estatuan ere jarduera-tasak behera egin du (% 59,6 2014an eta % 60 2013an), bai gizonezkoen tasak (% 65,8 2014an eta % 66,4 2013an) bai emakumezkoen tasak (% 53,7 2014an eta % 53,9 2013an) beheranzko bilakaera izan dute, bi tasen arteko aldea murriztu delarik (ehuneko 12,1 puntu 2014an eta ehuneko 12,5 puntu 2013an, hurrenez hurren).

Arreta langabezian soilik jartzen badugu, Nafarroan eta Estatuan atzerakadak izan dira (-% 13,3 eta -% 7,3, hurrenez hurren), gizon langabeen (-% 11,8 eta -% 9, hurrenez hurren) eta emakume langabeen (-% 14,9 eta -% 5,3, hurrenez hurren) ehunekoek behera egin baitute, eta beraz langabezia-tasaren beherakada orokorra izan da. Zehazki, Nafarroako gizonen langabezia-tasa % 17,2tik % 15,5era jaitsi da 2013tik 2014ra bitarte (% 25,6tik % 23,6ra Estatuan), eta emakumeena % 18,9tik % 16ra (% 26,7tik % 25,4ra Estatuan), eta tasa orokorra Nafarroan % 15,7 izan da (% 17,9 2013an) eta % 24,4 Estatuan (% 26,1 2013an), azken hori izanik, Greziaren ondotik, bigarren langabezia-tasarik altuena EB-28ren esparruan.

38. taula Biztanleria aktiboa, enplegua eta langabezia

(urteko batez bestekoak, milakotan)

| Eremua | 2013 | | | 2014 | | | |
|----------|------------------------------|-----------------|-----------------|-----------------|-----------------|-----------------|-----------------|
| | Gizonak | Emakumeak | Guztira | Gizonak | Emakumeak | Guztira | |
| Nafarroa | Aktiboak izan daitezkeenak | 258,7 | 263,9 | 522,7 | 257,6 | 263,6 | 521,2 |
| | Aktiboak | 172,5 | 142,0 | 314,5 | 168,9 | 142,6 | 311,5 |
| | Okupatuak | 142,9 | 115,2 | 258,1 | 142,7 | 119,8 | 262,5 |
| | Langabeak | 29,6 | 26,8 | 56,4 | 26,1 | 22,8 | 48,9 |
| | Jarduera-tasa | 66,7 | 53,8 | 60,2 | 65,6 | 54,1 | 59,8 |
| | Langabezia tasa | 17,2 | 18,9 | 17,9 | 15,5 | 16,0 | 15,7 |
| | Erregistratutako langabezia* | 25,7 | 25,8 | 51,5 | 23,0 | 24,8 | 47,8 |
| | Guztira | 18.861,0 | 19.777,6 | 38.638,6 | 18.774,5 | 19.740,1 | 38.514,6 |
| Espainia | Aktiboak izan daitezkeenak | 12.521,4 | 10.668,8 | 23.190,1 | 12.359,1 | 10.595,4 | 22.954,6 |
| | Aktiboak | 9.315,8 | 7.823,2 | 17.139,0 | 9.442,7 | 7.901,5 | 17.344,2 |
| | Okupatuak | 3.205,6 | 2.845,5 | 6.051,1 | 2.916,5 | 2.693,9 | 5.610,4 |
| | Langabeak | 66,4 | 53,9 | 60,0 | 65,8 | 53,7 | 59,6 |
| | Jarduera-tasa | 25,6 | 26,7 | 26,1 | 23,6 | 25,4 | 24,4 |
| | Langabezia tasa | 2.294,7 | 2.406,6 | 4.701,3 | 2.112,5 | 2.335,2 | 4.447,7 |
| | Erregistratutako langabezia* | | | | | | |
| | Guztira | 18.861,0 | 19.777,6 | 38.638,6 | 18.774,5 | 19.740,1 | 38.514,6 |

(*): Abendua.

Iturria: EIN (BAI biztanleei buruzko oinarria 2011. 2015eko maiatzeko datuak) eta SPEE.

Behin honaino iritsita, aurten ere gogorarazteko modukoa da langabezia, SPEEn erregistratutako langabeziaren ikuspegitik ere azter daitekeela, eta kontuan hartzekoa da kasu jakin honetan aurkeztutako informazioa abenduari dagokiola, eta ez ekitaldi osoari. Ildo horretan, iturri horren arabera, 2014ko abenduan SPEEek Nafarroan dauzkan bulegoetan erregistratutako langabezia 47,8 milako pertsona izan da, eta horren arabera urtearteko beherakada $-7,2\%$ izan da. Estatuan, 2014ko abenduan erregistratutako langabezia $-5,4\%$ jaitsi da urtetik urtera, eta 4.447,7 milako pertsona zenbatu dira guztira.

Arreta berriz ere Biztanleria Aktiboari buruzko Inkestan jartzen badugu (urteko batez besteko datuak), adin-estratuen arabera langabezia-tasa aztertzean agerian geratzen dira taldeen artean dauden alde handiak, eta gazteenei dagokie tasarik handiena. Ildo horretan, 2014an langabezia-tasa 75% izan da Nafarroan 16 urtetik 19 urterako pertsonen artean, $39,1\%$ 20 urtetik 24 urterako pertsonen artean, $14,5\%$ 25 urtetik 54 urterako pertsonen artean, eta azkenik $9,6\%$ 55 urteko edo urte gehiagoko pertsonen artean.

39. taula Langabezia-tasa adin-estratuen arabera. Urteko batez bestekoak

| Eremua | Urtea | Langabezia-tasa adin-estratuen arabera. Urteko batez bestekoak (%) | | | | |
|----------|-------|--|-------|-------|----------------|---------|
| | | 16-19 | 20-24 | 25-54 | 55 eta gehiago | Guztira |
| Nafarroa | 2012 | 66,7 | 35,8 | 15,5 | 8,9 | 16,2 |
| | 2013 | 68,2 | 45,5 | 17,3 | 8,7 | 17,9 |
| | 2014 | 75,0 | 39,1 | 14,5 | 9,6 | 15,7 |
| Espainia | 2012 | 72,5 | 48,9 | 23,3 | 17,3 | 24,8 |
| | 2013 | 74,0 | 51,8 | 24,5 | 19,4 | 26,1 |
| | 2014 | 68,6 | 50,3 | 22,8 | 19,3 | 24,4 |

Iturria: EIN (BAI biztanleei buruzko oinarria. 2011. 2015eko maiatzeko datuak).

Urtearteko terminotan, Nafarroako langabezia-tasak gora egin du bai gazteenen artean (2013ko % 68,2tik 2014ko % 75era) bai zaharreneen artean (2013ko % 8,7tik 2014ko % 9,6ra), eta uzkuertzeko joera nabari da aldiz, 20 urtetik 24 urtera bitarteko pertsonen (2013an % 45,5 izatetik 2014an % 39,1 izatera) eta 25 urtetik 54 urtera bitartekoen (% 17,3tik % 14,5era) artean.

Estatu osoan ere gazteenak izan dira langabezia-tasa handiena izan dutenak (% 68,6), eta adin-talde guztiek uzkuertzeko bilakaera izan dute aurreko ekitaldiari dagokionez.

Nafarroako okupazioaren gorakada hori (% 1,7) emakumeen enpleguan izandako gorakadaren (% 4) ondorioz etorri da, gizonen artean enpleguak pixka bat behera egin duelako (-% 0,1). Sektorez sektoreko bilakaeraren arabera, 2014an okupazio-mailak zerbitzuetan soilik egin du gora (% 4,8), lehen sektorean (-% 16,6), eraikuntzan (-% 2,1) eta industrian (-% 0,6) behera egin duelako. Estatuan, zerbitzuetan eta industrian enplegu-bolumenak gora egin du 2014an (% 1,7 eta % 1, hurrenez hurren), eta eraikuntzan eta lehen sektorean, aldiz, uzkuertzeko joera nabari da (-% 3,5 eta -% 0,1, hurrenez hurren).

40. taula Enpleguaren bilakaera sektore ekonomikoen arabera. Urteko batezbestekoak

| Eremua | Urtea | Enpleguaren bilakaera sektore ekonomikoen arabera. Urteko batezbestekoak (m pertsonak) | | | |
|----------|-------|--|-----------|------------|------------|
| | | Lehen sektorea | Industria | Eraikuntza | Zerbitzuak |
| Nafarroa | 2012 | 9,5 | 68,6 | 18,1 | 171,4 |
| | 2013 | 15,1 | 67,3 | 14,3 | 161,3 |
| | 2014 | 12,6 | 66,9 | 14,0 | 169,0 |
| Espainia | 2012 | 743,4 | 2.483,7 | 1.161,3 | 13.244,2 |
| | 2013 | 736,6 | 2.355,5 | 1.029,5 | 13.017,5 |
| | 2014 | 735,8 | 2.379,9 | 993,5 | 13.234,9 |

Iturria: EIN (BAI biztanleei buruzko oinarria. 2011. 2015eko maiatzeko datuak). (EJSN-09).

SPEEn erregistratutako kontratuen kopuruak gora egin du 2014an, bai Nafarroan bai Estatu osoan. Hala, Nafarroan erregistratutako 293.979 kontratuen arabera, urtearteko aurrerapena % 14,9 izan da (% 18,8ko gorakada 2013an), eta Estatuan erregistratutako 16.727.089 kontratuek % 13,1eko gorakada dakarte berekin (% 3,9ko hazkundea 2013an).

Nabarmenezkoa da kontratazioak gora egin duela bi eremu geografikoetan, bai mugagabeak bai aldi baterakoak. Zehazki, kontratu mugagabeak % 25,7 hazi dira Nafarroan (% 19 Estatuan), eta aldi baterakoak berriz, % 14,3 (% 12,6 Estatuan).

Hala, kontratu mugagabeek guztizkoan duten parte-hartzea hazi egin da (% 5,3 2014an eta % 4,9 2013an Nafarroan; eta % 8,1 eta % 7,7 Estatuan); aldi baterakoen proportzioa, berriz, txikiagoa izan da (% 94,7 2014an eta % 95,1 2013an Nafarroan; eta % 91,9 eta % 92,3 Estatuan, hurrenez hurren).

41. taula SPEEren bulegoetan erregistratutako kontratuak

| Eremua | Urtea | Mugagabeak | | | Aldi baterakoak | | | Guztira | KONTRATUA K, GUZTIRA |
|----------|-------|---------------------|--------------|-----------|--------------------|------------------|-------------|------------|----------------------|
| | | Hasierako mugagabea | Konbertsioak | Guztira | Obra eta zerbitzua | Behin-behinekoak | Gainerakoak | | |
| Nafarroa | 2012 | 12.826 | 5.078 | 17.904 | 58.885 | 90.398 | 48.236 | 197.519 | 215.423 |
| | 2013 | 7.697 | 4.759 | 12.456 | 61.870 | 101.556 | 80.063 | 243.489 | 255.945 |
| | 2014 | 10.581 | 5.078 | 15.659 | 68.085 | 124.113 | 86.122 | 278.320 | 293.979 |
| Espainia | 2012 | 1.037.094 | 395.882 | 1.432.976 | 5.510.176 | 5.656.174 | 1.641.665 | 12.808.015 | 14.240.991 |
| | 2013 | 735.048 | 399.901 | 1.134.949 | 5.932.482 | 6.078.973 | 1.646.210 | 13.657.665 | 14.792.614 |
| | 2014 | 935.822 | 414.509 | 1.350.331 | 6.680.679 | 6.883.223 | 1.812.856 | 15.376.758 | 16.727.089 |

Iturria: SPEE.

Negoiazio kolektiboari dagokionez aipatzekoa da 2014an garapen txikiagoa izan duela aurreko ekitaldian baino, nola Nafarroan hala Estatu osoan, hitzarmen gutxiago negoziatu direlako, pertsona gutxiago ere eraginpean hartuta. Hala, Foru Erkidegoan jaitsierak -% 41,7 eta -% 50,5 izan dira, eta Estatuan -% 34,5 eta -% 33,7, hurrenez hurren, nahiz eta kontuan hartzekoa den 2013tik aurrera negoziazio kolektiboa uztailearen 7ko efektuaren eraginpean egon dela¹.

¹ Lan-erreformaren ondorioz, 2013ko uztailearen 7tik aurrera hitzarmen sektorial eta lurraldekoak indargabetu dira, baldin eta alderdiek aldeztu aurretik haien jarraipena adostu ez badute, eta horrela ultraktibitateari (mugaeguneratutako hitzarmenen luzapen automatikoa) amaiera eman zaio.

42. taula Hitzarmen kolektiboak eta grebak

| Eremua | Urtea | Hitzarmen kolektiboak | | | Grebak | | | |
|----------|-------|-----------------------|----------------------|---------------------------|---------|-----------------------------|----------------------------|-------------------------|
| | | Kopurua | Eraginpeko langileak | Adostutako soldata-igoera | Kopurua | Parte hartu duten langileak | Langileak greba bakoitzeko | Jardun gabeko lanaldiak |
| Nafarroa | 2012 | 125 | 97.165 | 1,43 | 66 | 27.947 | 423 | 45.141 |
| | 2013 | 139 | 66.909 | 0,78 | 104 | 24.262 | 233 | 48.753 |
| | 2014 | 81 | 33.124 | 0,48 | 52 | 2.977 | 57 | 12.269 |
| Espainia | 2012 | 4.376 | 10.099.019 | 1,16 | 878 | 323.871 | 369 | 1.290.114 |
| | 2013 | 4.136 | 9.097.889 | 0,53 | 994 | 448.024 | 451 | 1.098.480 |
| | 2014 | 2.709 | 6.033.332 | 0,59 | 777 | 217.047 | 279 | 620.568 |

Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioa. 2015eko ekainaren datuak.

Grebei dagokienez, 2014an behera egin dute oro har, greben kopuruan, eraginpeko langileen kopuruan eta jardun gabeko lanaldien kopuruan, bai Nafarroan bai Estatu osoan. Zehazki, greba kopurua $-\% 50$ jaitsi da Nafarroan eta $-\% 21,8$ Estatuan, hurrenez hurren. Eraginpeko langileen kopurua $-\% 87,7$ eta $-\% 51,6$, jaitsi da, eta jardun gabeko lanaldien kopurua $-\% 74,8$ eta $-\% 43,5$, hurrenez hurren.

Biztanleria

2013an Nafarroako biztanleria ezer gutxi aldatu da urtetik urtera (aldakuntza nulua), eta 644.477 biztanle zenbatu dira guztira. Estatuan, aldiz, biztanleria $-\% 0,3$ jaitsi da, eta 47.129.783 pertsona zenbatu dira.

Jaiotze kopuruari dagokionez, 2013an 6.075 jaiotze izan ziren Foru Erkidegoan, $\% 9,7$ gutxiago aurreko ekitaldian baino. Heriotzak, berriz, 5.323 izan dira, aurreko ekitaldian erregistratutakoa baino $\% 1$ gutxiago, eta hortaz saldo begetatiboa positiboa izan da, 752 pertsona, aurreko ekitaldian erregistratutako (1.355 pertsona) baino $\% 44,5$ txikiagoa.

Estatuan, heriotzetanjaiotzak termino erlatibotan (425.715) izandako atzerakada txikiagoa izan da ($-\% 6,4$), eta heriotzei (390.419) dagokien jaitsiera ($-\% 3,1$), aldiz, handiagoa. Horrenbestez, hazkunde begetatiboa 35.296 pertsonakoa izan da, hau da, $-\% 31,7$ ko jaitsiera izan da urtetik urtera.

43. taula Biztanleriaren mugimendu naturala.

| Eremua | Urtea | Biztanleria | Ezkontzak | Jaiotzak | Jaiotze-tasa (%) | Heriotzak | Heriotza-tasa (%) | Hazkunde begetatiboa |
|----------|-------|-------------|-----------|----------|------------------|-----------|-------------------|----------------------|
| Nafarroa | 2009 | 630.578 | 2.492 | 6.844 | 10,9 | 5.147 | 8,2 | 1.697 |
| | 2010 | 636.924 | 2.285 | 6.778 | 10,6 | 4.981 | 7,8 | 1.797 |
| | 2011 | 642.051 | 2.218 | 6.747 | 10,5 | 5.158 | 8,0 | 1.589 |
| | 2012 | 644.566 | 2.232 | 6.731 | 10,4 | 5.376 | 8,3 | 1.355 |
| | 2013 | 644.477 | 2.097 | 6.075 | 9,4 | 5.323 | 8,3 | 752 |
| Espainia | 2009 | 46.745.807 | 174.062 | 494.997 | 10,6 | 384.933 | 8,2 | 110.064 |
| | 2010 | 47.021.031 | 167.247 | 486.575 | 10,3 | 382.047 | 8,1 | 104.528 |
| | 2011 | 47.190.493 | 159.798 | 471.999 | 10,0 | 387.911 | 8,2 | 84.088 |
| | 2012 | 47.265.321 | 165.101 | 454.648 | 9,6 | 402.950 | 8,5 | 51.698 |
| | 2013 | 47.129.783 | 153.375 | 425.715 | 9,0 | 390.419 | 8,3 | 35.296 |

Iturria: Biztanleriaren mugimendu naturala (EIN). 2014ko abenduaren datuak.

2010ean eta 2011n atzemandako portaeraren ildo beretik, 2010ean eta 2011n ezkontza kopuruak behera egin du Nafarroan (-% 6), guztira 2.097 ezkontza zenbatu dira, Estatuan izandako beherakada erlatiboa handiagoa izanik (-% 7,1, 153.375 ezkontza guztira).

Azkenik, aipatzekoa da Nafarroan migrazio-saldoa negatiboa izan dela, -223 pertsona 2013an, eta duela urte batzuk hasitako balantze positiboen joera zapuztu egin dela. Horri dagokionez nabarmentzekoa da migrazio-saldo negatiboa 16 urtetik 64 urtera bitarteko adin-estratuak baldintzatu duela (-243 pertsona), gainerakoa adin-estratuetan migrazio-saldoa positiboa izan delako (15 pertsona gazteenen artean eta 5 pertsona zaharrenen artean, hurrenez hurren).

44. taula Migrazio-saldoak Nafarroan, adinen arabera

| Urtea | Adin-estratuak | | | Guztira |
|-------|----------------|-------|------|---------|
| | -16 | 16-64 | + 64 | |
| 2006 | -26 | 611 | 111 | 696 |
| 2007 | 193 | 1.859 | 42 | 2.094 |
| 2008 | 160 | 1.777 | 82 | 2.019 |
| 2009 | 176 | 1.376 | 122 | 1.674 |
| 2010 | 289 | 1.300 | 136 | 1.725 |
| 2011 | 172 | 768 | -18 | 922 |
| 2012 | 107 | 706 | -25 | 788 |
| 2013 | 15 | -243 | 5 | -223 |


Iturria: Migrazio-mugimenduak (EIN). 2014ko abenduaren datuak.

3.5 FINANTZA-SEKTOREA

Ikuspegi orokorra

2014. urtea nolabaiteko lasaitasunarekin itxiko da finantza-merkatuetan, jarduera suspertu egin delako, aldakortasuna gutxitu delako, eta egonkortasun-ereduetara itzuli garelako zor subiranoaren merkatuetako arrisku-primen erreferentzietan. Funtsezko adierazleen (BPGa,, inflazioa eta abar) bilakaeraren arabera, argi dago ekonomia gehienak, bai garatuak bai garapen-bidean edota asimilatuta daudenak, pixkana-pixkana krisitik ateratzen eta suspertzen ari direla. Arrisku-faktoreek Eurogunearen ahultasunarekin lotuta segitzen dute¹, bi hazkunde-ildo bereizita. Testuinguru horretan, hainbat adierazlek —enplegu-arrailkak eta defizit publikoaren helburuak betetzeak, besteak beste— kolokan jartzen dute hasitako suspertze-bidearen sendotasuna.

4. grafikoa Kanbio-tasa: Euroa versus Dolarra*




(*): Eguneko batez besteko balioen batezbestekoa.
Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Aldizkaria.

Nolanahi ere, 2014an EBZk moneta-politika aldatu du (LTRO, zorra erostea, erreferentziazko tasak murriztea, besteak beste), eta horrek funtsezko hobekuntza ekarri du merkatuen likidezian eta egonkortasunean, baita euroaren eta dolarraren arteko erlazioan ere, 2015eko lehen seihilekoan berdintasunerako bidea hartu duela

¹ Horri Greziako krisiaren kudeaketa erantsi behar zaio, 2015eko lehen seihilekoan lehertu zena, eta EB-28ren, euroko herrialdeen, EBZren eta NDFren konpromisoa eta Greziako Gobernuaren kudeaketa-ahalmena beharko dituen inpaktua arintzeko eta Eurogunearen hazkunde-itxaropenak ez zapuzteko.

kontuan hartuta. Gauzak horrela, eta kreditua eskuratzeko aukerak noiz hobetuko zain, Espainian, Portugalen eta Italian batez ere, euroaren eta dolarraren arteko erlazioaren doikuntza horrek Europako enpresa-jardueraren nazioarteko posizioa errazten du, eta, oro har, errentagarritasuna hobetzen du, bereziki energia-alorrean mendekoak diren herrialdeetan, Gainera, petrolio gordinaren prezio merkeak ere laguntzen du horretan, upela 60 dolarretik behera mantendu dela aintzat hartuta.

5. grafikoa Ibex-35 indizearen bilakaera
Hileko itxiera-balioaren gaineko urtearteko aldakuntza-tasa



Iturria: Espainiako Bankua eta Balore Merkatuaren Batzorde Nazionala.

Azken batean, eta arreta Espainian jarriz, 2014 trantsizio-urtea izan daiteke, aurreko bost urteetan aktiboen balioa gutxitzea, banku-erakundearen erreskatea eta birfundazioa, eta burtsaren eta Zor subiranoaren erreferentziazko prezioaren aldakortasuna izan direlako nagusi, besteak beste. Zentzu horretan, 2014ko hirugarren hiruhilekoan lehen aldiz, enpresek kreditua eskuratzeko hobekuntza nabaritu dute,¹ nahiz eta tamainan (kreditu-saldo bizia) beheranzko joerari eusten dion (urtearteko tasa, -% 4,6), zor pribatuaren desapalankamendu-prozesuari jarraiki. Finantziarioaren jomugaren arabera, produkzio-jarduerei (-% 3,7) eta etxebizitza erosi eta birgaitzeari (-% 4,1) lotutako saldo biziak behera egin du, eta bi segmentu horietan, lehendik dagoen zorraren amortizazioak nagusitasunari eusten dio emakida berrien aurretik. Hala eta guztiz ere, kontsumitzailearen portaerak hobera egin ahala, kontsumoarekiko kredituari dagokion saldoak hobera egin du² (% 9,1), hipoteka berrien emakidak bizitasuna berreskuratzearekin batera. Nolanahi ere, sistemaren berankortasun-ratioa handia da oraindik ere (% 12,6), baina zenbait segmentutan kontzentratuta, hala nola eraikuntza (% 33,7) edo higiezinak (% 36,2); zor partikularrek edo familiek, aldiz, portaera hobea izan dute (% 5,7).

¹ Euroguneko enpresei egindako inkesta. Espainiako Bankua. Europako Banku Zentralak koordinatua.

² Oso balio txikitik bada ere.

Azkenik, aipatzekoa da ekitaldian zehar agenteen aurrezte-posizioak pixkana-pixkana doitu direla, eta horrenbestez gordailuetako saldoa murriztu da oro har (2 bilioi euro, -% 3,3), eta zehazki agente egoiliarrei dagokienez (1,27 bilioi euro, -% 1,9); gainera, inbertsio-funtsen ondarea nabarmen suspertu da (0,198 bilioi euro, % 26,5) eta burtsa-merkatuen itxiera positiboa izan da (Ibex, % 5,3). Hau da, 2014 finantza-eszenatoki lasaiago batekin itxi da, neurri batean esku hartzeko politikek argi eta garbi merkatuen funtzionamendua izan dutelako jomugan, bestela esanda, likideziari, interes-tasa txikiei eta zorra erosteari eman dietelako lehentasuna, bigarren mailako merkatuen suspertzea bultzatuz, nola errentagarritasunean hala inbertitzailearentzako erakargarritasunean, eta zorroak birmoldatuz, posizio seguruagoen ordez alternatiba arriskugarrien alde eginez.

Kredituaren bilakaera Nafarroan

Esparru orokorra

2014 ixtean, Espainiako kreditu-erakundeen aktiboen balioak berriz ere behera egin du urtetik urtera (-% 3,7), baina nolana ere beherakada hori txikiagoa izan da aurreko ekitaldian erregistratutakoa (-% 11,6) baino, eta azken horrek joera-aldaketa ekarri zuen 2008tik 2012ra arte erregistratu izan zen mugimendu positiboarekiko (% 16,5). 2014an kredituak dira aktiboaren osagai nagusia (% 62) baina 2008an (% 80) baino neurri txikiagoan. 2008tik 2011ra bitarte, ekitaldi bakoitzaren itxieran zenbatekoak egonkor eutsi zion, baina hurrengo hirurtekoan (2011-2014) % 23,4 galdu du gutxi gorabehera. Kopuru horien arabera, partikular eta enpresen apalankamendua nabari da¹ erakundeen balantzean. Akzio eta partizipazioek (% 9), beste balore batzuek (% 16,9) eta sektorizatu gabeko aktiboek (% 12,1) osatzen dute kreditu-erakundeen gainerako aktiboa. Hiru kasuetan indarra irabazi dute krisia hasi zenez geroztik, baina 2014an bilakaera aldakorra izan dute (-% 6,7, -% 0,1 eta % 8,3, hurrenez hurren).

Aldez aurretik adierazi dugunez, sistemaren desapalankamendu-prozesuak aurrera jarraitzen du, eta horren arabera zor pribatua murriztu da. Bilakaera hau ezinbesteko argudio gisa erabili da finantza-sektorea onbideratzeko —kobraezinak xurgatuz— eta baita kreditu-fluxua suspertzeko abiapuntu gisa ere.

Kontuan hartzekoa da zorra, neurri handi batean, krisia hasi baino lehen sortu zela, eta beraz poliki-poliki ordainduko dela, mailegu-hartzaileek ordainketa-konpromisoetan aurrera egin ahala. Aitzitik, 2009az geroztik emandako zorroa—eskatzailen finantziazio-

¹ Honekin zuhur jokatu behar da, litekeena delako benetako desapalankamendua txikiagoa izatea, bilakaera horrek neurri batean zerikusia izan dezakeelako SAREBera egindako intsuldaketetatik eratorritako zorroen birmoldaketarekin.

premiak eta emakida-baldintzen eskakizunak aldatu dira—, dirudienez berriz ere dimentsionatu (zenbateko txikiagoak) eta irizpide murriztaileagoei jarraiki kudeatu dira.

| 45. taula | | Kreditu-erakundeen aktiboaren osaera | | | | |
|---|------------------|--------------------------------------|------------------|------------------|------------------|------------------|
| Kontzeptua | 2009 | 2010 | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 |
| Guztira | 3.238.236 | 3.251.535 | 3.400.435 | 3.422.612 | 3.025.756 | 2.912.796 |
| Kredituak | 2.385.126 | 2.386.643 | 2.357.167 | 2.229.670 | 1.926.174 | 1.805.239 |
| Akzioak eta partizipazioak | 184.051 | 180.477 | 250.831 | 257.501 | 280.357 | 261.536 |
| Baloreak, akz. eta partiz. aparte utzita. | 415.446 | 383.761 | 405.582 | 508.991 | 492.801 | 492.346 |
| Sektorizatu gabeko aktiboak | 253.613 | 300.652 | 386.854 | 426.449 | 326.424 | 353.676 |

(M eurotan)

Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Aldizkaria. Geuk egina.

Kreditu-saldo bizia 1,8 bilioi eurokoa da, eta azken zortzi urteetan izandako kopuru txikiena da. 2010etik aurrera atzerakadak izan dira urtetik urtera, eta 2013an eta 2014an erregistratutakoak nabarmendu beharra dago (-% 13,6 eta -% 6,3). Emaitza horrek agerian uzten du ordaindu gabeko zorraren amortizazioa handiagoa dela kreditu berrien emakida baino. Jomuga edo agenteen arabera, familientzako eta enpresentzako kreditua (eta, oro har, "bestelako sektore egoiliarrak" jomugan dituenak) guztizkoaren hiru laurden baino gehiago da (% 76,5); atzerritarrentzat edo ez-egoiliarrentzat emandakoa (% 9,4) berriz, kreditu-erakundeen artean emandakoa (% 8,6) baino gehiago da, eta azkenik Administrazioari emandakoa gutxienez (% 5,6).

Daukan garrantziaren arabera, partikularrentzako kredituak baldintzatu egiten du guztizko kreditu-saldoaren beheranzko joera, 2008tik aurrera % 26ko jaitsiera metatu duena. Nolanahi ere, profil horren bilakaerari begiratu behar zaio, bigarren hiru urteetan, 2011tik 2014ra bitarte alegia, bertan kontzentratzen delako metatutako atzerakadaren zati handiena (-% 23,4). Urtearteko jaitsiera handienak 2012an eta 2013an erregistratu ziren (-% 10 eta -% 9,7), eta 2014an tasa erdira murriztu zen (-% 4,7). Hortaz, 2014an aurreko ekitaldietako desapalankamendu-joerari eutsi zaio, baina litekeena da azken ekitaldi horretan lurzoru-balioa kreditu-saldo bizian lortzea, jarduera ekonomikoa suspertu ahala, agenteen finantziario-premien arabera eta erakundeek, behin balantzeak onbideratu ondoren, fluxu hori berrezartzeko duten ahalmenaren arabera.

| 46. taula | | Kreditu-erakundeak. Kreditua agenteen arabera | | | | |
|-------------------------------|------------------|---|------------------|------------------|------------------|------------------|
| Kontzeptua | 2009 | 2010 | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 |
| Guztira | 2.385.126 | 2.386.643 | 2.357.167 | 2.228.670 | 1.926.174 | 1.805.239 |
| Kreditu-sistema | 246.806 | 234.095 | 250.867 | 278.914 | 210.536 | 154.714 |
| AA.PP | 64.662 | 78.971 | 89.687 | 114.275 | 87.140 | 101.310 |
| Beste sektore egoiliar batzuk | 1.837.037 | 1.843.950 | 1.782.554 | 1.604.934 | 1.448.244 | 1.380.108 |
| Munduko gainerako eskualdeak | 236.621 | 229.627 | 234.059 | 231.546 | 180.254 | 169.107 |

(M eurotan)

Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Aldizkaria. Geuk egina.

Kanpo-sektoreari (ez-egoiliarak) emandako kredituak antzeko joera izan du; 2013an beherakada handia izan zen (-% 22,2), eta 2014an askoz ere txikiagoa (-% 6,2). Administrazio Publikoentzako kreditua, aldiz, hazi egin zen 2008tik 2012ra bitarte (% 115,9), 2013an atzera egin zuen (-% 23,7), eta 2014an berriz ere gora egin zuen (% 16,3). Azken batean, Administrazio Publikoen kreditu-zorpetzeak seiurtekoko erregistro handienetako bat lortu du 2014an (101.310 M€), urtetik urtera asko aldatu bada ere. Azkenik, banku arteko sistemaren barneko kreditua nabarmen uzkurto da 2013an eta 2014an (-% 24,5 eta -% 26,5), eta horrek -% 44,5eko beherakada metatua ekarri du azken bi urte hauetan.

Modalitateen arabeko kreditu-saldoak ere beheranzko joera erakutsi du. Benetako bermean oinarritutako figurak guztizko kreditu-saldoaren erditik gora dira (% 53,7), baina 2014an urtearteko beherakada apalagoa izan da aurreko bi urteetan baino (-% 6,2). Guztizko saldoaren beherakada hori gertatu da kredituen amortizazioa edo itzulketa handiagoa izan delako eta emakida berrien eritmoa eta zenbatekoa txikiagoak izan direlako.


Eperako beste kreditu batzuei esleitutako saldoa -kontsumorako kreditua multzo horretan integratuta- guztizkoaren % 27,3 da, eta hiru urtez jarraian behera egin ondoren 2014an saldoak gora egin du (% 2). Kreditu komertzialak ere portaera positiboa izan du (% 5,9), 2007tik 2013ra bitarte beherakada handia izan ondoren (-% 61,9). Bilakaera horrek aditzera ematen du jarduera ekonomikoak nolabait hobera egin duela, guztizkoari egiten dion ekarpena oraindik ere oso txikia bada ere (% 2,6). Azkenik, "beste mailegu batzuen" zenbatekoa % 11,1 jaitsi da 2014an, ekitaldiek aurrera egin ahala kuota irabazten ari diren arren (% 16,4).

47. taula Kreditu-erakundeak. Kreditua motaren arabera. Beste sektore egoiliar batzuk

| Kontzeptua | <i>(M eurotan)</i> | | | | | |
|--------------------------------|--------------------|------------------|------------------|------------------|------------------|------------------|
| | 2009 | 2010 | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 |
| Guztira | 1.837.037 | 1.843.950 | 1.782.554 | 1.604.934 | 1.448.244 | 1.380.108 |
| Kreditu komertziala | 55.263 | 54.219 | 49.937 | 40.523 | 34.570 | 36.606 |
| Benetako bermea duten zordunak | 1.115.828 | 1.101.064 | 1.032.823 | 900.991 | 790.398 | 741.055 |
| Eperako beste zordun batzuk | 493.839 | 509.396 | 490.485 | 434.521 | 368.969 | 376.262 |
| Beste mailegu batzuk | 172.107 | 179.271 | 209.309 | 228.899 | 254.307 | 226.185 |

Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Aldizkaria. Geuk egina.

6. grafikoa Kreditu-erakundeak. Kreditua motaren arabera. Beste sektore egoiliar batzuk (OSR)



Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Aldizkaria. Geuk egina.

48. taula Gordailu-erakundeak. Kreditua helburuaren arabera. Beste sektore egoiliar batzuk

| Kontzeptua | 2009 | 2010 | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 |
|-----------------------------------|------------------|------------------|------------------|------------------|------------------|------------------|
| Guztira | 1.776.533 | 1.782.291 | 1.715.037 | 1.537.748 | 1.392.384 | 1.328.194 |
| Produkzio-jarduerak | 964.440 | 975.510 | 929.832 | 788.412 | 690.631 | 665.342 |
| Etxebizitzak erosi eta birgaitzea | 646.142 | 654.253 | 643.556 | 620.580 | 592.278 | 568.242 |
| Kontsumo iraunkorreko ondasunak | 40.730 | 33.796 | 29.798 | 26.038 | 19.869 | 21.845 |
| Beste kreditu batzuk | 133.428 | 146.491 | 138.536 | 129.757 | 121.534 | 72.765 |


Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Aldizkaria. Geuk egina.

Gordailu-erakundeek kreditu pribatuaren zati handiena ematen dute Espainian (% 96,3), eta kreditu-erakundeen zati handiena dira. Haien emakida-bolumena osatzeko, kredituan bakarrik espezializatutako sektore txiki bat antolatu da. Gordailu-erakundeek emandako kreditua sektorez sektore aztertzean ikus daiteke aldez aurretik aipatutako beheranzko joera. 2014an, produkzio-jarduerari emandako kredituaren saldo bizia 665.342 milioi eurokoa da, eta erakunde horiek emandako kreditu guztiaren % 50 da, gutxi gorabehera. Denbora-ikuspegi zabalago batetik, 2008tik 2011ra bitarte zenbateko hori -% 4,2 jaitsi zen, 2011tik 2013ra bitarte -% 25,7ko beherakada metatu zen, eta 2014an jaitsiera arindu zen (-% 3,7), inflexio-puntu bat izan daitekeena produkzio-jardueretarako finantziazioa suspertzeari dagokionez¹.

¹ Europako Banku Zentralak kontsulta bat gidatu du enpresek, eta zehazkiago ETEek, kanpo-finantziazioa eskuratzeko dauzkaten aukerak aztertzeke. Sei hilean behingo inkesta da, eta Espainian Espainiako Bankuak egiten du. 2015eko otsailean argitaratu ziren 2014ko azken hiruhilekoko inkestaren emaitzak, eta, laburbilduz, Estatuko enpresek kreditua eskuratzeko dauzkaten aukerak hobera egin dutela ematen du aditzera. ETEei dagokienez ere ondorio bera ateratzen du, baina kasu horretan aipatzeak da abiapuntuak baldintza okerragoak zeuzkatela Euroguneko ETEek baino.

Etxebizitzak erostea eta birgaitzea da emandako kredituaren zati handi bat, eta etxekoen unitateen segmentura zuzenduta dago (% 42,8). Produkzio-xedearekin lotutako kreditu stockarekin konparatuta, segmentu horrek beherakada txikiagoa izan du, 2010ean hasi zena eta 2014an indarrean jarraitzen duena (-% 4,1). Kontsumo iraunkorreko ondasunei lotutako kredituaren zenbatekoa erdira baino gutxiagora murriztu da 2007 geroztik, beherakada handiena 2013an izanik (-% 23,7) eta 2014an nabarmen hobera eginez (% 9,9). Datu horrek adierazten du familien finantzatu beharreko kontsumoa suspertu dela nolabait. Azkenik, "beste kreditu batzuetan" erregistratutako kredituak saldo egonkorra izan du, baina 2014an behera egin du (-% 40,1), eta eskuragarri jarritako kreditu guztiaren % 5,5 ekarri du.

7. grafikoa Kreditu-erakundeak. Kreditua helburuaren arabera. Beste sektore egoiliar batzuk




Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Aldizkaria. Geuk egina.

Kredituaren bilakaera Nafarroan

2014an, gordailu-erakundeek Administrazio Publikoei eta agente pribatu egoiliarrei (OSR) emandako kredituak beheranzko joerari eutsi dio Nafarroan eta Estatuan (-% 10,3 eta -% 3,1, hurrenez hurren). OSRei esleitutako kreditu-saldoari bakarrik begiratzen badiegu, grafikoak zera erakusten digu, joera antzekoa dela bi eremuetan. Hazkunde handiena 2005ean izan zen, gutxi gorabehera, eta handik aurrera jaitsiera abiatu zen, baina oraindik positiboan 2009ra arte; hortik aurrera, kreditu-saldo bizia beherantz doitu da. 2014an Estatuak oro har suspertze aldera egin du, argi eta garbi, urtearteko tasa oraindik negatiboa bada ere; Nafarroak aldiz, beheranzko joeraren ildotik jarraitzen du bete-betean.

Administrazio Publikoentzako kredituari dagokionez, aipatzekoa da urtearteko aldakuntza-tasa oso aldakorak erregistratzen direla. Hortik abiatuta aipatzekoa da 2014an, Nafarroan agente hauei esleitutako kreditu-saldo biziak behera egin duela (-% 4,3), eta EAEn eta Espainian, aldiz, hazkundeak erregistratu direla (% 23,6 bi kasuetan).

8. grafikoa Gordailu-erakundeak. Beste sektore egoiliar batzuentzako kredituaren bilakaera



Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Aldizkaria. Geuk egina.

49. taula Gordailu-erakundeak. Kreditua agenteen eta eremuaren arabera

| Eremua | Urtea | (M eurotan) | | |
|---------------|-------|-------------|-----------|-----------|
| | | AA.PP. | OSR | GUZTIZKOA |
| EAE | 2012 | 4.277 | 75.062 | 79.339 |
| | 2013 | 4.862 | 68.376 | 73.238 |
| | 2014 | 6.008 | 63.168 | 69.176 |
| Nafarroa | 2012 | 846 | 20.207 | 21.053 |
| | 2013 | 751 | 18.589 | 19.340 |
| | 2014 | 719 | 16.678 | 17.397 |
| Euskal Herria | 2012 | 5.123 | 95.269 | 100.392 |
| | 2013 | 5.613 | 86.965 | 92.578 |
| | 2014 | 6.727 | 79.846 | 86.573 |
| Espainia | 2012 | 96.890 | 1.536.944 | 1.633.834 |
| | 2013 | 76.627 | 1.392.384 | 1.469.010 |
| | 2014 | 94.694 | 1.328.193 | 1.422.887 |

Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Aldizkaria. Geuk egina.

Beste adierazle batzuk: hipotekak eratzea eta ibilgailuak matrikulatzea

Familiek etxebizitza finantzatu nahi dute batez ere, baita kontsumo iraunkorreko ondasunak ere, automobila barne. 2014an kredituaren stockak izan duen bilakaerari

buruzko ikuspegia osatzeko, hipoteka¹ eraketari buruzko emaitzak aurkeztuko ditugu jarraian, ibilgailuen matrikulazioari buruzkoekin batera, bi kasuetan Nafarroari eta Estatuari dagokienez.

Estatuan, 2014an eratutako hipoteken bilakaeraren arabera urtearteko hazkundeak erregistratu dira kopuruan (% 1,6), guztizko balioan (% 3,8) eta batez besteko zenbatekoan (% 2,1), eta portaera positibo horiek lehen aldiz agertu dira krisia hasi zenez geroztik. Joera hau sendotzeko, eta beraz higiezinaren jarduera suspertu eta hipoteka-maileguren emakida bultzatzeko, enpleguaren hobekuntza ezinbestekoa izango da, bai kopuruan eta baita jarraitutasunean ere, familien inbertsio-erabakiak hartzeko, bereziki etxebizitza erosteari dagokionez.

| 50. taula Etxebizitzaren gaineko hipoteka berriak eratzea | | | | | | |
|--|---------------|---------------|---------------|---------------|---------------|---------------|
| Kontzeptua | 2009 | 2010 | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 |
| Espainia | | | | | | |
| Hipoteka kopurua | 650.889 | 607.535 | 408.461 | 273.873 | 199.703 | 202.954 |
| Zenbateko osoa (milioi €) | 76.677 | 71.041 | 45.716 | 28.329 | 19.973 | 20.728 |
| <i>Batez besteko zenbatekoa (milako €)</i> | <i>117,80</i> | <i>116,93</i> | <i>111,92</i> | <i>103,44</i> | <i>100,01</i> | <i>102,13</i> |
| EAE | | | | | | |
| Hipoteka kopurua | 27.447 | 30.230 | 23.065 | 16.920 | 12.146 | 11.462 |
| Zenbateko osoa (milioi €) | 3.960 | 4.421 | 3.355 | 2.251 | 1.464 | 1.362 |
| <i>Batez besteko zenbatekoa (milako €)</i> | <i>144,27</i> | <i>146,26</i> | <i>145,45</i> | <i>133,01</i> | <i>120,53</i> | <i>118,83</i> |
| Nafarroa | | | | | | |
| Hipoteka kopurua | 7.357 | 7.076 | 5.520 | 4.095 | 3.170 | 3.717 |
| Zenbateko osoa (milioi €) | 932 | 845 | 666 | 459 | 345 | 384 |
| <i>Batez besteko zenbatekoa (milako €)</i> | <i>126,68</i> | <i>119,42</i> | <i>120,65</i> | <i>112,09</i> | <i>108,83</i> | <i>103,31</i> |

Iturria: Hipotekei buruzko estatistika. EIN. Geuk egina.

Nafarroan, emandako hipoteken kopuruak (% 17,3) eta balioak (% 11,3) gora egin du 2013aren aldean, baina emaitza gisa hipotekaren batez besteko balioa % 5,1 txikiagoa izan da 2013an baino. Nafarroan aztertutako bosturtekoan izandako bilakaera ez da hain gogorra izan, eta orain goranzko joera zertxobait argiagoa da. Aurreko bost urteetan, emakidak % 59,2 jaitsi ziren. Hipoteka berrien estatuko zenbatekoan Nafarroako kuota % 1,8 da, bi hamarren gehiago aurreko urtean baino. 2009tik 2014ra bitarte, hipoteka bakoitzeko batez besteko zenbatekoaren jaitsiera handiagoa izan da Nafarroan (-% 18,5) Espainian (-% 13,3) baino. Espainiako batez besteko zenbatekoarekiko aldea murriztu da (103.310 euro eta 102.130 euro).

¹ Iturria: EIN. Estatuko Jabetzaren Erregistroek eskainitako informazioa, etxebizitza erosteko finantzia-zioa ez ezik, gainerako arrazoi guztiak ere barne. Fluxu-estatistika bat da (urteko hipoteka-jarduera); Espainiako Bankuak jasotako kreditu-informazioa, aldiz, posizio zordun horien stocka islatzen du.

51. taula Ibilgailuen matrikulazioaren bilakaera

| Kontzeptua | (Unitate kopurua) | | | | |
|------------|-------------------|---------|---------|---------|---------|
| | 2010 | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 |
| Nafarroa | 11.930 | 8.081 | 7.034 | 7.737 | 9.170 |
| EAE | 39.874 | 29.610 | 25.616 | 27.321 | 32.300 |
| Espainia | 982.015 | 808.059 | 699.589 | 722.689 | 855.308 |

Iturria: Anfac.

2014an Estatuko ibilgailuen matrikulazioak % 18,4 egin zuen gora, aurreko urteko % 10aren gainera. Gauzak horrela, kopuruak krisiaren aurreko mailetara hurbildu dira berriz ere: 2008tik 2012ra bitarte urteko matrikulazioak -% 18,9 jaitsi ziren batez beste urtetik urtera, baina beherakada 2009an kontzentratu zen (-% 41). Bestetik, EAEn eta Nafarroan matrikulazioaren beherakada leunagoa izan zen Estatuan baino, baina 2014an erregistratutako gorakadak (% 18,2 eta % 18,5) estatukoak (% 18,4) oso antzekoak dira.

Berankortasunaren bilakaera¹

2009tik 2013ra bitarte, erakundeek emandako eta dudazkotzat jotako kredituen tasa guztizkoaren % 5 izatetik % 13,8 izatera igaro zen. Berankortasunaren adierazle haui 2014an jaitsi da, lehen aldiz krisia hasi zenez geroztik, eta % 12,6 izan da. Alabaina, 2014an ziklo-aldaketa etorri da berankortasunaren bilakaeran, eta dudazko kredituen zati batek eragina izan du emaitza horretan, hain zuzen ere, behin SAREB Bankuak Berregituratsetik eratorritako Aktiboak Kudeatzeko Sozietateak bere gain hartu ondoren, erakundeen balantzetik kanpo geratu den zatiak.

52. taula Gordailu-erakundeak. Dudazkoen edo berankortasunaren guztizko tasaren bilakaera. Beste sektore egoiliar batzuk

| Urtea | K. Dudazkoak | Kredituak* | (M eurotan) |
|-------|--------------|------------|-----------------------------|
| | | | (Dudazkoak/Kredituak) x 100 |
| 2009 | 88.242 | 1.776.533 | 5,0 |
| 2010 | 102.520 | 1.782.291 | 5,7 |
| 2011 | 135.505 | 1.715.748 | 7,9 |
| 2012 | 162.601 | 1.537.748 | 10,6 |
| 2013 | 191.748 | 1.392.384 | 13,8 |
| 2014 | 167.743 | 1.328.194 | 12,6 |

(*): Beste sektore egoiliar batzuen esku utzitako funtsak.

Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Aldizkaria.

Produktzio-eremuan, berankortasun-tasa % 6,2tik % 20,9ra igo zen aldi kritikoan (2009-2013), eta 2014an zertxobait behera egin du eta % 18,9koa izanik. Higiezinak eta eraikuntza dira berankortasun-tasa handienak dauzkaten enpresa-jarduerak, eta krisi

¹ Autonomia-erkidegoen arabera bereizitako informazioak ez dugu.

osoan posizio horiei eutsi diete. Lehen a ia laukoiztu da (2009, % 10), 2014an % 36,2 izateraino. Bestetik, hirugarren mailako jarduerak, hala nola ostalaritzak (% 20,4) eta merkataritzak (% 15,5), berankortasun-tasa txikiagoak dituzte, baina gora egin dute nabarmen 2009tik aurrera. Hasiera batean industriak berankortasun-maila nabarmen txikiagoak zituen zerbitzu gehienek baino, baina 2009an hasitako goranzko joera (% 4,2) partekatu du 2014ra arte (% 13,9), tasa txikiagoetan badabil ere.

Azkenik, familientzako kreditu segmentuan berankortasun-tasa txikiagoa da. 2009tik 2014ra bitarte tasak % 3,4tik % 6,7 egin du gora, eta 2014an hamarren bat galdu du, % 5,7 izanik. Etxebizitza erosteak eta birgaitzeak garrantzi handia du familientzako kredituen gutzizkoan, baina berankortasuna handiagoa da partikularrei etxebizitzaz bestelako helburuetarako emandako kredituetan.

53. taula **Gordailu-erakundeak. Dudazkoen edo berankortasunaren tasaren bilakaera, kredituaren helburuen arabera. Beste sektore egoiliar batzuk**

| Kontzeptua | (M eurotan) | | | | | |
|--|-------------|------|------|------|------|------|
| | 2009 | 2010 | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 |
| Dudazkoen guztizkoa | 5,0 | 5,8 | 7,9 | 10,6 | 13,8 | 12,6 |
| Produkzio-jarduerak | 6,2 | 8,0 | 11,6 | 16,0 | 20,9 | 18,9 |
| Nekazaritza eta arrantza | 3,2 | 4,3 | 6,5 | 9,1 | 13,6 | 12,2 |
| Industria | 4,2 | 4,4 | 5,7 | 9,4 | 13,8 | 13,9 |
| Eraikuntza | 8,6 | 12,3 | 18,7 | 26,6 | 35,3 | 33,7 |
| Zerbitzuak | 6,3 | 8,1 | 12,0 | 16,3 | 21,0 | 18,9 |
| Higiezinaren jarduerak. | 10,0 | 14,0 | 21,5 | 29,1 | 38,0 | 36,2 |
| Finantzak (bankuz kanpokoak) | 0,6 | 0,8 | 1,4 | 2,2 | 3,3 | 2,4 |
| Merkataritza eta kon. | 5,0 | 5,6 | 7,2 | 10,7 | 15,2 | 15,5 |
| Garraioa eta bilteg. | 2,9 | 3,3 | 4,3 | 8,6 | 13,7 | 17,3 |
| Ostalaritza | 3,7 | 5,2 | 8,2 | 16,8 | 23,2 | 20,4 |
| Beste zerbitzu batzuk. | 3,2 | 4,0 | 5,4 | 8,9 | 13,3 | 12,2 |
| Beste helburu batzuk/ etxekoen unitateak | 3,4 | 2,9 | 3,4 | 4,7 | 6,7 | 6,6 |
| Etxebizitzak erosi eta birgaitzea | 2,8 | 2,3 | 2,8 | 3,8 | 5,8 | 5,7 |
| Beste batzuk. | 6,1 | 5,9 | 6,8 | 9,8 | 12,7 | 12,2 |
| Gainerakoak | 6,3 | 8,2 | 6,6 | 10,4 | 12,2 | 6,2 |

Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Aldizkaria. Geuk egina.

Dudazko kredituaren osaerari dagokionez, produkzio-xedeak % 68,2tik % 79,8ra igaro ziren 2009tik 2011ra bitarte, higiezinaren eta eraikuntzako enpresei lotutako kobraezinen igoeraren ondorioz, eta familiarren garrantzia % 30,1etik % 19,3ra jaitsi da. 2014an, proportzioa % 73 eta % 26,4 izan da, hurrenez hurren. Eta ikuspegi espezifikokoago batetik, 2014an dudazko kredituen banaketak erakusten digu heren batek (% 32,1) higiezinaren jarduerarekin zerikusia duela, atzerakada handia izanik 2011n % 46,7 izan ostean. Jarraian, partikularren etxebizitza erosketa (% 19,3), eraikuntza (% 9,5), industria (% 8,8), beste zerbitzu-jarduera batzuk (% 7,7), etxebizitzarakoak ez diren kreditu partikularrak (% 7,1), merkataritza (% 6,2) eta garraioa (% 3).

54. taula Gordailu-erakundeak. Dudazko kredituaren bilakaera helburuen arabera. Beste sektore egoiliar batzuk

| Kontzeptua | (M eurotan) | | | | | |
|--|-------------|---------|---------|---------|---------|---------|
| | 2009 | 2010 | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 |
| Dudazkoen guztizkoa | 88.242 | 102.520 | 135.505 | 162.601 | 191.748 | 167.473 |
| Produkzio-jarduerak | 60.202 | 77.831 | 108.096 | 126.032 | 143.511 | 122.314 |
| Nekazaritza eta arrantza | 740 | 980 | 1.395 | 1.830 | 2.477 | 2.145 |
| Industria | 6.010 | 6.364 | 7.659 | 11.628 | 14.846 | 14.802 |
| Eraikuntza | 10.869 | 13.683 | 17.814 | 19.521 | 20.315 | 15.960 |
| Zerbitzuak | 42.583 | 56.803 | 81.228 | 93.055 | 105.874 | 90.127 |
| Higiezin-jarduerak | 31.876 | 43.450 | 63.223 | 64.202 | 66.265 | 53.795 |
| Finantzak (bankuz kanpokoak) | 482 | 850 | 1.576 | 2.005 | 2.871 | 2.385 |
| Merkataritza eta kon. | 3.898 | 4.329 | 5.461 | 7.840 | 10.438 | 10.432 |
| Garraioa eta bilteg. | 1.063 | 1.349 | 1.730 | 3.431 | 4.761 | 4.968 |
| Ostalaritza | 1.240 | 1.875 | 2.843 | 5.608 | 7.094 | 5.686 |
| Beste zerbitzu batzuk. | 4.023 | 4.950 | 6.394 | 9.969 | 14.534 | 12.861 |
| Beste helburu batzuk/ etxeko unitateak | 26.562 | 23.232 | 26.200 | 34.544 | 46.530 | 44.197 |
| Etxebizitzak erosi eta birgaitzea | 17.939 | 15.255 | 17.799 | 23.807 | 34.080 | 32.313 |
| Beste batzuk. | 8.623 | 7.977 | 8.401 | 10.737 | 12.450 | 11.884 |
| Gainerakoak | 1.478 | 1.457 | 1.209 | 2.025 | 1.707 | 962 |

Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Aldizkaria. Geuk egina.

Gordailuen bilakaera Nafarroan.

Esparru orokorra

Kreditu-erakundeen gordailuetako saldoaren bilakaerak, agenteen erabilgarriaren (likidezia) eta aurrezkiaren posizioen zati bat islatzen du. Zenbait faktoreen konbinazioaren ondorioa da emaitza. besteak beste, agenteen aurrejoera (segurtasuna versus arriskua), finantza-figuren ordainsaria eta/edo unean-unean erabilgarri dauden aurrezki- eta inbertsio-produktuen eskaintzen baldintzak. Zer esanik ez, krisi-faktorea, familien eta enpresen errentek behera egin ahala aurrezteko aukerak urriagoak direlako eta metatutako aurrezkiak ere kolokan geratzen direlako. Gauzak horrela, eta Estatuarentzat oro har, kreditu-erakundeen gordailuetako saldoa 2 bilioi euro baino zertxobait gutxiago da, eta esan beharra dago kopuru hori 2009tik jaitsi dela eta 2014an ere halaxe egin duela (-% 3,3), 2013an erregistratutakoa (-% 10,1) baino kopuru txikiagoan bada ere.

Sektore pribatuko gordailuak (Beste sektore egoiliar batzuk) 1,29 bilioi dira guztira, eta behera egin dute aurreko ekitalditik (-% 1,9); hortaz, kreditu-erakundeen gordailu guztien % 64,5 dira, azken sei urteetan ehuneko hori indartu delarik. Bestetik, Beste sektore ez-egoiliar batzuen gordailuek behera egin dute urtetik urtera 2014. urtera arte. Urte

horretan hazi egin dira (% 4,5), eta gordailuen guztizkoan duten parte-hartzeak hobera egin du (% 14,8tik % 16ra).

55. taula Kreditu-erakundeak. Gordailuak kreditu-erakundeetan, agenteen arabera

| Kontzeptua | (M eurotan) | | | | | |
|---------------------------------|------------------|------------------|------------------|------------------|------------------|------------------|
| | 2009 | 2010 | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 |
| Guztira | 2.320.190 | 2.300.219 | 2.307.138 | 2.297.865 | 2.065.401 | 1.997.368 |
| • Kreditu-sistema | 304.979 | 269.668 | 372.668 | 572.928 | 381.293 | 311.533 |
| • AA.PP. | 81.805 | 79.080 | 69.717 | 69.183 | 63.485 | 76.150 |
| • Beste sektore egoiliar batzuk | 1.426.888 | 1.440.425 | 1.373.079 | 1.316.735 | 1.314.129 | 1.289.280 |
| • Beste ez-egoiliar batzuk | 506.518 | 511.046 | 491.675 | 339.019 | 306.493 | 320.404 |

Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Aldizkaria. Geuk egina.

Gordailuetako posizioen hirugarren osagaia kreditu-sistema da. 2012an izan zuen balio handiena (572.928 milioi euro), baina 2014an berriz ere behera egin du (-% 18,3), 2013an erregistratutako murrizketa handiari (-% 45,6) gaineratu beharrekoa; gordailu guztien % 15,6 da. Azkenik, Administrazio Publikoen gordailuetako saldoa aldakorragoa da, eta 2014an, bi urtez jarraian behera egin ondoren, gora egin du (% 19,9) eta guztizkoan duen posizioa hobetu (% 3,1etik % 3,8ra).

56. taula Gordailu-erakundeak. Gordailu motak. Beste sektore egoiliar batzuk


| Kontzeptua | (M euroak) | | | | | |
|----------------|------------------|------------------|------------------|------------------|------------------|------------------|
| | 2009 | 2010 | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 |
| Guztira | 1.190.538 | 1.216.702 | 1.170.396 | 1.147.690 | 1.155.977 | 1.138.434 |
| • Agerikoak | 262.735 | 261.766 | 269.711 | 265.027 | 281.967 | 328.852 |
| • Aurrezkikoak | 207.791 | 211.287 | 202.949 | 199.073 | 206.485 | 221.934 |
| • Eperakoak | 720.012 | 743.649 | 697.736 | 683.589 | 667.525 | 587.648 |

Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.

Gordailu-erakundeak kreditu-erakundeen nukleo nagusia dira. Multzo horretarako, etxekoen unitateen eta erakunde pribatu ez-finantzarioen segmentuaren gordailuetako saldoa 1,14 bilioi euro izan da 2014 amaitzean, 2013aren aldean beherakada txikia izanik (-% 1,5). Gordailu modalitateen artean, 2014an ageriko gordailuak epe finkorako gordailuei gailendu zaizkie, eta litekeena da interes-tasa txikiak eragina izatea erabaki horretan, ordainsarian oso diferentzial txikia ahalbidetzen duelako beste epe batzuen aldean. Hala, epe finkorako posizioek nagusi izaten jarraitzen duten arren (% 51,6), beheranzko bidea hasi dute. Aldiz, ageriko posizioei dagokien zenbatekoak gora egin du (% 48,4), aurrezki-kontuak edo ageriko kontu korranteak barne.

Gordailuen bilakaera Nafarroan.

2014an, Beste Sektore Egoiliar batzuen gordailuek atzera egin dute Nafarroan (-% 5,1); Estatuan, aldiz, gorakada txikia izan da (% 0,4), eta EAEn datua bien artean geratu da (-% 2,3). OSRek Administrazioen zati txikiaren aldean duten garrantzia kontuan hartuta, gordailuen guztizko datuak antzekoak izan dira (-% 4,4, % 1,4, -% 2,4, hurrenez hurren). Nafarroan gordailuek behera egin dute (-% 5,1 OSRetan, -% 4,4 guztizkoan), eta horrela aurreko urtean izandako gorakada (% 6,6 OSRetan, % 6,2 guztizkoan) arindu da neurri batean.

9. grafikoa Gordailu-erakundeak. Beste sektore egoiliar batzuen gordailuen bilakaera

Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Aldizkaria. Geuk egina.

Administrazioek Nafarroako gordailuetan duten proportzioa % 3,4 da (Beste Sektore Egoiliarrek % 96,6 dute); Espainian, berriz, gordailu publikoek garrantzi handiagoa dute: % 6,1. Administrazioaren gordailuen saldoak gora egin du 2014an lurralde guztietan, eta eremu horretan Nafarroa nabarmendu da (% 20,5), Estatuaren (% 18,9) eta EAEn (% 6,1) gainera. Horrela apurtu da saldo horrek Nafarroan hiru urtez jarraian izan duen beheranzko joera. Hala eta guztiz ere, Estatuaren % 0,7 baino ez da oraindik ere. Nafarroa, berriz, % 1,3 izan da Beste Sektore Egoiliar batzuen gordailuetan, % 1,3 gordailuen guztizkoan, % 1,4 biztanlerian eta % 1,7 BPGean.

57. taula Gordailu-erakundeak. Beste sektore egoiliar batzuen eta AAPPen gordailuak.

(Meuro)

| Eremua | Urtea | AA.PP. | OSR | GUZTIZKOA |
|---------------|-------|--------|-----------|-----------|
| EAE | 2012 | 2.533 | 69.414 | 71.947 |
| | 2013 | 2.660 | 71.068 | 73.728 |
| | 2014 | 2.822 | 69.448 | 72.270 |
| Nafarroa | 2012 | 472 | 15.077 | 15.549 |
| | 2013 | 440 | 16.078 | 16.518 |
| | 2014 | 530 | 15.257 | 15.787 |
| Euskal Herria | 2012 | 3.005 | 84.491 | 87.496 |
| | 2013 | 3.100 | 87.146 | 90.246 |
| | 2014 | 3.352 | 84.705 | 88.057 |
| Espainia | 2012 | 67.341 | 1.100.152 | 1.167.493 |
| | 2013 | 61.796 | 1.134.914 | 1.196.710 |
| | 2014 | 73.448 | 1.139.756 | 1.213.204 |

Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Aldizkari. Geuk egina.

Beste aurrezki-adierazle batzuk¹

Familien eta enpresen errenta eta hauek daukaten aurrezteko ahalmena funtsezkoak dira aurrezki-posizioetan. Eremu horretan, kontabilitate nazionaleko datuek (EIN) agerian uzten dute familia eta enpresen diru-sarrerek behera egin dutela, baina beherakada hau gastu eta inbertsioekin bat etorri da, seguruenik aurrezki-tasa eutsiz, planteamendu erabat zuhur bati jarraituta eutsiz.

58. taula Errenta gordin erabilgarria, BEG eta aurrezki gordina

(Meuro)

| Kontzeptua | 2009 | 2010 | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 |
|------------------------------|---------|---------|---------|---------|---------|---------|
| Etxekeko unitateak | | | | | | |
| • Erreta gordun erabilgarria | 844.185 | 822.360 | 832.460 | 802.461 | 798.258 | 807.654 |
| • Aurrezki gordina | 109.727 | 75.769 | 83.799 | 64.813 | 71.114 | 67.489 |
| • Aurrezki-tasa (%) | 13,0 | 9,2 | 10,1 | 8,1 | 8,9 | 8,4 |
| Soz. ez-finantzarioak | | | | | | |
| • BEG | 580.212 | 581.372 | 568.927 | 557.074 | 549.661 | 552.360 |
| • Aurrezki gordina | 128.030 | 155.488 | 137.857 | 143.791 | 162.963 | 151.248 |
| • Aurrezki-tasa (%) | 22,1 | 26,7 | 24,2 | 25,8 | 29,6 | 27,4 |

Iturria: Espainiako Kontabilitate Nazionala. Kontu ez-finantzarioak. Geuk egina.

2014an familien errenta gordin erabilgarriak gora egin du (% 1,1), baina hobekuntza hori txikiagoa izan da 2009tik 2013ra bitarte urtean batez beste izandako beherakada (-% 1,53) baino. Aurrezki-tasak beheranzko joera erakusten du, 2009an erregistratutako % 13tik gaur egungo % 8,4raino, azken hiru ekitaldien ildo beretik jarraituz. Bestetik, Balio

¹ Ez daukagu informazio hori autonomia-erkidegoen arabera sailkatuta.

Erantsi Gordina jarduera ekonomikoek aberastasuna sortzeko duten ahalmenaren adierazlea da; beheranzko joera izan du 2009-2010 biurtekotik aurrera, baina nolana ere 2014an emaitza positiboa izan da (% 0,5) eta litekeena da hazkundearen abiapuntua izatea. Aurrezki-tasak joera gorakorra segitzen du, 2007ko % 11,7tik egungo % 27,4raino igo baita. BEG izendatzailea uzurtu izanak eta suspertzeko itxaropen ezak eragina izan dute emaitza horretan; izan ere, itxaropen horiek inbertitzeko erabakiak atzeratzeko aukera emango lukete, enpresen aurrezki-tasaren hobekuntza erraztuz.


Interes-, kostu- eta ordainsari-tasen bilakaera

Azkenik, finantza-sektore eta -merkatuei buruzko kapitulu hau ixteko, aztertutako produktuen erreferentziazko eta kostu eta ordainsariko interes-tasen bilakaerari helduko diogu. Europako Banku Zentralak ezarritako erreferentziazko interes-tasa % 0,05 da 2014ko amaieratik, eta beraz aintzat hartutako interes-tasa guztiak doitu eta murriztu dira, bereziki etxekoen unitateen eta enpresen eperako gordailuekin zerikusia dutenak, horiek guztiak % 1.aren azpikoak izanik. Eta tarte txiki batean jarraituz zera ikusten dugu, ohikoa denez, ageriko gordailuetan enpresenek ordainsari handiagoa dutela etxekoen unitateenek baino; eperako gordailuetan, aldiz, egoera justu kontrakoa da. Enpresen gordailuek ordainsari handiagoa dute bi urtetik gorakoak direnean urtebetetik beherakoak direnean baino, eta hala eta guztiz ere, etxekoen unitateenen artean epe laburrerakoek saria izan zuten bi ekitalditan (2011 eta 2012).

Maileguen finantza-kostuak ere behera egin du, baina doikuntza hau neurri txikiagoan egin da. Kontsumo partikularrerako maileguak % 8 dira, gutxi gorabehera, etxebizitzarakoak (% 2,5) eta enpresetarakoak (% 2tik % 4ra dira, eskainitako bolumenaren arabera) baino nabarmen gaintetik. Enpresen zorpekoak direla-eta kobratutakoak ere moderatu dira, eta % 3 dira, gutxi gorabehera; kasu guztietan aurrezkiaren ordainsari-balioetatik oso urrun geratzen dira.

6. grafikoa Berriz finantzatzeko interes-tasaren bilakaera. Europako Banku Zentralera

(%)



Iturria: Europako Banku Zentrala.

59. taula Kreditu-erakundeak. Etxeko enitateetarako⁽²⁾ eta sozietate ez-finantzarioetarako eragiketa berrietan aplikatutako interes-tasak (TEDR)

(%)

| | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 |
|--|------|------|------|------|
| ETXEKOEN UNITATEETARAKO MAILEGU ETA KREDITUAK⁽²⁾ | | | | |
| – Etxebizitza ⁽¹⁾ | 3,58 | 2,81 | 2,99 | 2,56 |
| – Kontsumoa ⁽¹⁾⁽³⁾ | 8,57 | 7,76 | 8,90 | 7,96 |
| – Beste xede batzuk ⁽¹⁾ | 5,94 | 5,81 | 5,58 | 4,63 |
| SOZIETATE EZ-FINANTZARIOETARAKO MAILEGU ETA KREDITUAK | | | | |
| – Zorpekoak | 4,15 | 3,52 | 3,38 | 3,02 |
| – 1.000.000 € ⁽¹⁾ -rainoko kredituak ⁽¹⁾ | 5,02 | 4,93 | 4,83 | 3,87 |
| – 1.000.000 € ⁽¹⁾ -tik gorako kredituak | 3,36 | 2,72 | 2,73 | 1,98 |
| ETXEKOEN UNITATEEN GORDAILUAK⁽²⁾ | | | | |
| – Agerikoak | 0,28 | 0,21 | 0,22 | 0,17 |
| – Eperakoak ⁽¹⁾ | 2,79 | 2,83 | 1,50 | 0,64 |
| • gehienez urte 1erakoak | 2,73 | 2,97 | 1,23 | 0,59 |
| • 2 urtetik gorakoak | 2,64 | 1,96 | 1,85 | 0,83 |
| SOZIETATE EZ-FINANTZARIOEN GORDAILUAK | | | | |
| – Agerikoak | 0,61 | 0,37 | 0,35 | 0,31 |
| – Eperakoak ⁽¹⁾ | 2,13 | 2,08 | 1,30 | 0,50 |
| • gehienez urte 1erakoak | 2,10 | 2,05 | 1,27 | 0,50 |
| • 2 urtetik gorakoak | 2,41 | 2,24 | 1,37 | 0,50 |

(1): Batez besteko tasa haztatua produktu bakoitzari dagokionez, epearen arabera. Abenduaren 31n.

(2): Etxeko enitateak eta etxeko enitateen zerbitzurako irabazi asmorik gabeko erakundeak.

(3): 2010eko maiatzetik, kreditu-txartelen bitartez emandako kreditua sartzen da zutabe horretan.

TEDR tasa: Definizio mugatuko tasa efektiboa, hau da, UTB komisiorik gabe.

Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina.

4. NAFARROAKO ENPRESEN AZTERKETA EKONOMIKO-FINANTZARIOA

Jarraian, Nafarroako enpresen bilakaera ekonomiko-finantzarioa nolakoa izan den aztertuko dugu, baita enpleguak izan duen produktibitateari buruzko zenbait alderdi ere. Azterketa hori egiteko erabili dugun informazioa Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentralari eskatutako Nafarroako enpresei buruzko ustiapen espezifiko batetik atera dugu; izan ere, enpresa nafarrek urtero-urtero bidaltzen diote informazioa Zentralari. Kasu honetan, 2012ko eta 2013ko ekitaldietako datuak dira¹, guztira 120 enpresari buruzkoak.

4.1 JARDUERA: DIRU-SARRERAK, KOSTUAK ETA EMAITZAK

2012ko eta 2013ko laginetan errepikatzen diren Nafarroako 120 enpresen emaitzen kontu erantsia aztertuz gero, enpresen magnitude garrantzitsuenen bilakaeraren berri izan dezakegu diru-sarrerari, kostuei eta emaitzei dagokienez. Zehazki, enpresa horien guztizko fakturazioa 8.649.944 mila euro izan zen 2013. urtean, hau da, 2012an baino % 2,9 gutxiago.

| 60. taula | | Nafarroako enpresen emaitzen kontu erantsia | | | | |
|-------------------------------|-----------|---|-----------|-------|-----------------------------|--|
| Aldagaia | 2012 | | 2013 | | Aldakuntza-tasa %Δ 13/12 | |
| | m euro | % | m euro | % | | |
| Ustiapeneko diru-sarrerak | 8.911.166 | 100,0 | 8.649.944 | 100,0 | -2,9 | |
| Bitarteko kontsumoak | 6.773.842 | 76,0 | 6.612.071 | 76,4 | -2,4 | |
| Balio erantsi gordina | 2.137.324 | 24,0 | 2.037.873 | 23,6 | -4,7 | |
| Langile-gastuak | 1.188.907 | 13,3 | 1.180.742 | 13,7 | -0,7 | |
| Ustiap. emaitza ekon. gordina | 948.417 | 10,6 | 857.131 | 9,9 | -9,6 | |
| Amortizazioak eta hornidurak | 321.448 | 3,6 | 345.317 | 4,0 | 7,4 | |
| Ustiap. emaitza ekon. garbia | 626.969 | 7,0 | 511.814 | 5,9 | -18,4 | |
| Finantza-karga garbia | -91.960 | -1,0 | -80.904 | -0,9 | -12,0 | |
| Ohiko jardueren emaitza | 718.929 | 8,1 | 592.718 | 6,9 | -17,6 | |
| Ezohiko jardueren emaitza | -46.765 | -0,5 | -946.366 | -10,9 | 1923,7 | |
| Zerga aurreko emaitza | 672.164 | 7,5 | -353.648 | -4,1 | -152,6 | |
| Zergak | 159.807 | 1,8 | 129.450 | 1,5 | -19,0 | |
| Ekitaldiko emaitza garbia | 512.357 | 5,7 | -483.098 | -5,6 | -194,3 | |
| Cash-flow | 833.805 | 9,4 | -137.781 | -1,6 | -116,5 | |

Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala.

Kostuen egituraren (kostu-partidek zenbateko partaidetza duten fakturazioan) bilakaera aztertuta, bitarteko kontsumoen partaidetza zertxobait handitu dela ikus daiteke,

¹ Urte horretako datuak dira azkenak.

2013an fakturazioaren % 76,4 izan baitira (2012an % 76), baina nolnahi ere, termino absolututan jaitsiera txikia izan da (% -2,4). Balio erantsiak fakturazioan duen partaidetzak behera egin du apur bat 2013an, 2012ko % 24,0tik % 23,6ra.

Langile-gastuei dagokienez (2013an % 0,7 jaitsi dira termino nominaletan), diru-sarreretan duten partaidetzak gora egin du zertxobait (2013an % 13,7 eta 2012an % 13,3), amortizazioen garrantziaren kasuan bezalaxe (2013an % 4,0 eta 2012an % 3,6). Bestalde, 2013an finantza-karga garbiak jaitsiera handia izan duela nabarmendu behar dugu, diru-sarrera finantzarioak gastu finantzarioak baino handiagoak izan baitira: 80.904 milako euro gehiago (nahiz eta 2013ko fakturazioarekin alderatuta -% 0,9ko garrantzi murriztua izan duen, 2012an izandako -% 1,0arekin alderatuta); halaber, ezohiko emaitzak ere nabarmen murriztu dira, saldo negatiboa areagotu egin baitute (2013an fakturazioaren -% 10,9 dira, eta 2012an -% 0,5 ziren).

Lehen aipatu ditugun kostu-partiden bilakaeraren ondorioz, enpresen emaitzek beherantz egin dute aurreko ekitaldiarekin alderatuta. Ildo beretik, ustiapenaren emaitza garbia 2013ko fakturazioaren % 5,9 da (2012an % 7,0), eta zerga aurreko emaitzaren partaidetza (termino nominaletan % 152,6ko beherakada izan du), aldiz, -% 4,1era jaitsi da (2012an % 7,5).

Azken batean, fakturazioak behera nabarmen egin duen testuinguru honetan, Nafarroako enpresen emaitzak ere zertxobait murriztu dira, batik bat, langile-gastuen garrantzi erlatiboa handitu delako eta ezohiko emaitzak jaitsi direlako, bitarteko kontsumoei eutsi egin zaien arren eta finantza-kargak murrizketa handia izan duen arren.

4.2 INBERTSIOA-FINANTZAKETA

2012-2013 aldian aztertutako Nafarroako enpresen laginaren balantze erantsia aztertuz gero, enpresen magnitude adierazgarrienen bilakaera zer nolakoa izan den jakingo dugu egindako inbertsioei eta finantzaketari dagokienez. Inbertsioen kapituluari helduta, honako alderdi hauek nabarmenduko ditugu:

- 2013. urtean aktibo finkoak guztizko aktiboan duen partaidetza jaitsi egin da (2013an % 60,1 da, eta 2012an % 60,6 zen), termino nominaletan % 12,3ko beherakada izanik.
- Aktibo finkoaren garrantziaren jaitsiera hori ibilgetu finantzarioan gertatutako murrizketaren ondorio izan da (2012an % 34,9 izatetik 2013an % 32,0 izatera igaro da), ibilgetu materialaren partaidetza ez ezik, ibilgetu immaterialaren partaidetza ere

handitu egin baita; hain zuzen ere, ibilgetu materialaren kasuan (magnitute horrek ongi samar neurtzen du inbertsioaren bilakaera, ondasun finko eta ukigarrien ikusmolde klasikoan, eta termino nominaletan % 4,9ko jaitsiera izan du), 2013an % 20,5 osatzen du (2012an % 19,0 zen), eta ibilgetu immaterialaren kasuan, guztizko aktiboaren gaineko garrantzi erlatiboa 2012ko % 6,6tik 2013ko % 7,6ra igo da.

- Zirkulatzaille-premian egindako inbertsioari dagokionez, aktiboaren guztizkoan duen partaidetzak gora egin du (2013an % 39,9, eta 2012an % 39,4), baina termino nominaletan % 10,4ko jaitsiera izan du.
- Zirkulatzaille-premiak aktiboaren guztizkoan duen garrantziaren gorakada hori zordunen garrantziak gora egin duen testuinguruan gertatu da (2013an % 28,7 eta 2012an % 28,6, termino nominaletan % 11,2ko jaitsiera izanik), eta gorakada horrek eragina izan du, halaber, izakinen kasuan (2012an % 8,7 eta 2013an % 9,2); aitzitik, diruzaintzaren garrantziak behera egin du zertxobait (2013an % 2,1 eta 2012an % 2,2).

Finantzaletari buruzko alderdi garrantzitsuenei dagokienez, honako hauek aipatuko ditugu:

- Epe motzeko finantzaletaren (epe motzeko hartzekodunak) garrantzi erlatiboak gora egin du eta hornidurek, aldiz, behera, finantzaletara iraunkorraren (pasibo finkoa) garrantziak behera egin duen testuinguruan. Zehazki, epe motzeko finantzaletak pasiboaren guztizkoaren gainean duen garrantzia % 36,2 da 2013an (2012an % 32,9), eta finantzaletara iraunkorraren garrantzia, aldiz, % 61,8ra murriztu da (2012an % 65,1). Bestalde, horniduren garrantzia % 2,0 da (2012an % 2,1).
- Pasibo finkoaren garrantzi erlatiboaren murrizketa ondare garbiaren eta epe luzeko besteren baliabideen partaidetzak behera egin duten testuinguruan gertatu da; hain zuzen ere, ondare garbiaren kasuan, 2012ko % 46,2tik 2013ko % 45,2ra pasiboaren guztizkoari dagokionez, eta epe luzeko besteren baliabideen kasuan, 2012ko % 18,9tik 2013ko % 16,6ra.
- Halaber, epe motzeko finantzaletaren garrantzi erlatiboak gora egin du, kostua duten baliabideen eta kosturik gabeko baliabideen partaidetzak ere gora egin duela; hain zuzen ere, kostua duten baliabideen kasuan, 2012ko % 8,6tik % 11,2ra 2013an, eta kosturik gabekoen kasuan, % 24,3tik % 25,0ra 2012-2013 aldian.
- Azkenik, maniobra-funtsak (aktibo zirkulatzaillea ken epe motzeko hartzekodunak) % 49,0ko jaitsiera izan du termino nominaletan 2013. urtean, pasiboaren guztizkoan duen partaidetza % 3,8ra murriztuta (2012an % 6,5).

61. taula Nafarroako enpresen balantze erantsia

(m eurotan)

| Aldagaia | 2012 | | 2013 | | Aldakuntza-tasa %Δ 13/12 |
|---------------------------------|------------|-------|------------|-------|-----------------------------|
| | m euro | % | m euro | % | |
| AKTIBOA GUZTIRA | 12.073.501 | 100,0 | 10.683.080 | 100,0 | -11,5 |
| AKTIBO FINKOA | 7.312.741 | 60,6 | 6.415.872 | 60,1 | -12,3 |
| Ibilgetu immateriala | 797.716 | 6,6 | 808.034 | 7,6 | 1,3 |
| Ibilgetu materiala | 2.298.067 | 19,0 | 2.185.025 | 20,5 | -4,9 |
| Ibilgetu finantzarioa | 4.216.958 | 34,9 | 3.422.813 | 32,0 | -18,8 |
| ZIRKULATZAILE PREMIA | 4.760.760 | 39,4 | 4.267.208 | 39,9 | -10,4 |
| Izakinak | 1.047.028 | 8,7 | 980.633 | 9,2 | -6,3 |
| Zordunak | 3.453.181 | 28,6 | 3.067.210 | 28,7 | -11,2 |
| Diruzaintza | 260.551 | 2,2 | 219.365 | 2,1 | -15,8 |
| PASIBOA GUZTIRA | 12.073.501 | 100,0 | 10.683.080 | 100,0 | -11,5 |
| PASIBO FINKOA | 7.854.078 | 65,1 | 6.602.099 | 61,8 | -15,9 |
| Ondare garbia | 5.575.433 | 46,2 | 4.825.354 | 45,2 | -13,5 |
| Epe luzeko besteren baliabideak | 2.278.645 | 18,9 | 1.776.745 | 16,6 | -22,0 |
| EPE MOTZEKO HARTZEKODUNAK | 3.971.357 | 32,9 | 3.864.522 | 36,2 | -2,7 |
| - Kostua dutenak | 1.033.153 | 8,6 | 1.192.544 | 11,2 | 15,4 |
| - Kosturik gabekoak | 2.938.204 | 24,3 | 2.671.978 | 25,0 | -9,1 |
| HORNIDURAK | 248.066 | 2,1 | 216.459 | 2,0 | -12,7 |

Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala.

4.3 ERRENTAGARRITASUNA ETA LOTUTAKO MAGNITUDEAK

2013an, Nafarroako enpresen gure laginaren errentagarritasun ekonomikoak (zerga aurretik kalkulatuta) behera egin du aurreko ekitaldiarekin alderatuta. Zehazki, errentagarritasun hori -% 2,9 izan da 2013an, aurreko ekitaldian % 8,5 izan zela.

62. taula Nafarroako enpresen errentagarritasuna


| Ratioak (%) | 2009 | 2010 | 2011 | 2012 | 2013 |
|--|------|------|------|------|------|
| AKTIBO GARBIAREN ERRENT. (zerga aurretik) | 4,4 | 7,1 | 6,6 | 8,5 | -2,9 |
| Jasotako finant. interesak/Kostua duten besteren baliabideak | 3,6 | | 3,5 | 3,2 | 4,0 |
| BALIABIDE PROPIOEN ERRENT. (zerga aurretik) | 5,3 | 9,9 | 9,0 | 12,1 | -7,3 |
| Zorpetze-ratioa | 48,4 | 50,9 | 46,3 | 40,9 | 43,5 |
| Palanka-efektu finantzarioa* | 0,8 | 3,5 | 3,1 | 5,3 | -6,9 |

(): Errentagarritasun ekonomikoa - besteren finantzaketaren kostua*

Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala.

Era berean, finantza-errentagarritasunak (zerga aurretik kalkulatuta) ere behera egin du 2013an, -% 7,3 izan baita (2012an % 12,1). Hori horrela izanik, finantza-errentagarritasunaren beherakada errentagarritasun ekonomikoaren jaitsieraren ondorio izan da, zorraren kostuak zertxobait gora egin duelako (palanka-efektu finantzarioari dagokionez, 2013an jaitsiera nabarmena izan den testuinguruan).

10. grafikoa Nafarroako enpresen errentagarritasuna



Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala.

4.4 ENPLEGUAREN PRODUKTIBITEA

Aurreko ataletan egindako azterketa ekonomiko-finantzarioaren osagarri, jarraian, Nafarroako enpresetatik aztertu dugun laginean enpleguak izan duen produktibitatearekin lotutako zenbait alderdiri buruz mintzatuko gara.

| 63. taula | | Enpleguaren produktibitatea | | | | (m eurotan) |
|----------------------------------|------|-----------------------------|------|------|------|-------------|
| Ratioak | 2009 | 2010 | 2011 | 2012 | 2013 | |
| BEG/langile | 71,7 | 77,2 | 77,1 | 78,2 | 75,4 | |
| Enpleguaren batez besteko kostua | 43,2 | 42,2 | 43,0 | 43,5 | 43,7 | |

Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala.

Zehazki, langile bakoitzeko balio erantsia 75,4 milako euro izan da 2013an, aurreko ekitaldiarekin alderatuta % 3,6ko jaitsiera izan dela; enpleguaren batez besteko kostua, aldiz, 43,7 milako euro izan da, iazkoa baino % 0,5 handiagoa.

4.5 NAFARROAKO ENPRESEN DIAGNOSTIKO EKONOMIKO-FINANTZARIOA. SINTESIA

Aurreko atalean aipatutako informazioaren sintesi moduan, jarraian, Nafarroako enpresen 2013ko egoera ekonomiko-finantzarioarekin lotutako alderdi positiboak eta negatiboak aipatuko ditugu.

Alderdi positiboak dagokienez, honako hauek nabarmenduko ditugu:

- Finantza-kargak nabarmen egin du behera.
- Zordunen partida murriztu egin da, termino nominaletan.
- Epe motzeko hartzekodunen garrantzi erlatiboak gora egin du eta, termino nominaletan, gutxienez jaitsiera txikia izan da.
- Ibilgetu materialaren portzentajeazko garrantzia handitu egin da (baina, hala eta guztiz ere, termino nominaletan jaitsiera izan da).

Alderdi ez hain positiboak dagokienez, honako hauek aipatuko ditugu:

- Bitarteko kontsumoen portzentajeazko garrantziak zertxobait gora egin du, eta sortutako balio erantsiaren garrantziak, aldiz, behera.
- Zorraren kostua handitu egin da.
- Fakturazioan jaitsiera nabarmena gertatu da.
- Langile-gastuen garrantzi erlatiboak gora egin du.
- Ezohiko emaitzetan beherakada izan da.
- Emaitzak txarragoak dira, eta errentagarritasun finantzarioak ez ezik, ekonomikoak ere behera egin du.
- Kostua duten epe luzeko hartzekodunen garrantzi erlatiboak gora egin du (termino nominaletan igoera handia izan da).
- Maniobra-funtsa murriztu egin da (termino erlatibotan nahiz absolututan).

4.6 ESPAINIAKO ENPRESA EZ-FINANTZARIOEN ENPRESA-EMAITZAK.

Atal honetan, Espainiako enpresa ez-finantzarioek 2014an izandako emaitzen alderdi garrantzitsuenak azalduko ditugu labur-labur eta, horretarako, Espainiako Bankuaren Hiruhilekoko Balantzeen Zentralaren informazioa baliatuko dugu¹, eta informazio hori Estatu osokoa den arren, Nafarroako enpresek 2014ko ekitaldi honetan izan dituzten joeren gutxi gorabeherako egoera zein den jakin ahal izango dugu.

64. taula Emtzen kontua. Urte arteko bilakaera
(Enpresa berei dagozkien hazkunde-tasak, aurreko urteko aldi berarekiko)

| OINARRIAK | Hiruhilekoko Balantzeen Zentrala ^(*) | | |
|--|---|---------------------|---------------------|
| | I-IV 12/ I-IV 11 | I-IV 13/ I-IV 12 | I-IV 14/ I-IV 13 |
| Enpresa kopurua/Nazioko guztizko estaldura | % 833/12,2 | % 835/11,8 | % 800/12,6 |
| 1. Produkzioaren balioa (diru-laguntzak sartuta) | 0,2 | 2,9 | -0,7 |
| Negozio-zifra zenbateko garbia eta ustiapenaren bestelako diru-sarrerak | 2,5 | -3,4 | 1,4 |
| 2. Bitarteko kontsumoak (tributuak sartuta) | 2,0 | -2,3 | -1,1 |
| Erosketa garbiak | 2,1 | -5,0 | 0,3 |
| Beste ustiapen-gastu batzuk | 0,6 | 1,4 | -0,9 |
| S.1. BALIO ERANTSI GORDINA FAKTOREEN KOSTUAREKIKO (1-2) | -3,8 | -4,2 | 0,2 |
| 3. Langile-gastuak | -2,1 | -1,7 | 0,5 |
| S.2. USTIAPENAREN EMAITZA EKONOMIKO GORDINA (S.1.-3) | -5,3 | -6,5 | -0,1 |
| 4. Diru-sarrera finantzarioak | -10,4 | 13,9 | -21,5 |
| 5. Finantza-gastuak | -1,6 | -0,9 | -5,4 |
| 6. Amortizazioak eta ustiapen-hornidurak | 1,0 | -0,9 | -2,2 |
| S.3. OHIKO EMAITZA GARBIA (S.2 + 4 -5 -6) | -15,3 | -0,2 | -11,3 |
| 7. Besterentzen eta nariaduraren ondoriozko emaitzak | - | 34,1 | - |
| 8. Arrazoizko balioaren aldakuntzak eta gainerako emaitzak | 16,6 | -4,8 | 70,9 |
| 9. Mozkinen gaineko zergak | - | - | 27,2 |
| S.4. EKITALDIAREN EMAITZA (S.3 + 7 + 8 -9) | -88,7 | 159,0 | 170,2 |
| EKITALDIAREN EMAITZA / BEG (S.4 / S.1) | 2,4 | 11,1 | 28,3 |
| ERRENTAGARRITASUNAK | | | |
| E.1 Aktibo garbiaren ohiko errentagarritasuna (zerga aurretik) | 5,5 | 5,9 | 5,4 |
| E.2. Jasotako finantz. interesak, kostua duten besteren baliabideei dagokienez | 3,5 | 3,5 | 3,4 |
| E.3. Baliabide propioen ohiko errentagarritasuna (zerga aurretik) | 7,3 | 8,0 | 6,9 |
| E.4. Errentagarritasuna - finantza-kostua aldea (E.1. - E.2.) | 1,9 | 2,4 | 2,0 |

(*): Zutabe horietako datu guztiak hiruhilekoko datuen batez besteko haztatu moduan kalkulatu dira.
Iturria: Espainiako Bankua.

Zehazki, Hiruhilekoko Balantzeen Zentralarekin lankidetzan jarduten duten enpresek helarazitako informazioaren arabera, 2014. urtean jarduerak hobera egin zuen aurreko urtearekin alderatuta. Balio erantsi gordinak (BEG) apur bat gora egin du (% 0,2), eta aurreko ekitaldian % 4,2ko beherakada izan zen. Ez dugu ahaztu behar aldagai horren

¹ Espainiako 800 enpresa ez-finantzariok 2014ko lau hiruhilekokoei buruzko datuak bidali dituzte eta lagin horren emaitzak dira (lagina aldatu egiten da urtero, eta manufaktura-industriak du ordezkari txikiena); enpresa ez-finantzarioen sektorearen balio erantsi gordinaren % 12,6 osatzen dute enpresa horiek.

bilakaera baldintzatuta egon dela petrolioaren finantze sozietateetan izandako uzkurtze handiarekin. Azpisektore hori alde batera utzita, laginaren gainerakoaren kasuan BEGak % 0,9 egin du gora 2014an.

Langile-gastuak ere handitu egin dira 2014an (% 0,5, 2013an % 1,7 murriztu ostean). Partida horren dinamismo handiagoak enpleguaren bilakaera positiboagoa izan dela adierazten du, baina oraindik ere batez besteko plantilletan ez da gorakadarik izan; izan ere, plantilletan berriki murrizketa garrantzitsuak egin dituzten enpresa handiek garrantzi handia baitute laginaren osieran.

Produktzio-jardueraren eta langile-gastuen bilakaeraren ondorioz, emaitza ekonomiko gordina (EEG) ia ez da aldatu 2014an (2013an % 6,5eko jaitsiera izan zuen). Bestalde, diru-sarrera finantzarioetan % 21,5eko murrizketa izan da, baina bilakaera horretan eragin handia izan du jasotako dibidenduen portaerak. Eta horrekin batera, finantza-gastuak % 5,4 gutxitu dira, alde batetik, zor-mailak eta, bestetik, finantza-kostuak jaitsi direlako.

Diru-sarrera finantzarioen beherakada handiaren eraginez, ohiko emaitza garbia % 11,3 murriztu da 2014an (2013an -% 0,2). Ohiko etekinak murriztu direnez, errentagarritasun-ratioetan % 0,5eko jaitsierak izan dira, eta baliabide propioen kasuan, % 1etik gorako jaitsierak. Finantza-kostuen batez besteko kostua % 3,4ra murriztu da, baina aktibo garbiaren errentagarritasunean izandako jaitsiera handiagoaren ondorioz bi ratioen arteko diferentziala lau hamarren murriztu da (% 2).

Hala eta guztiz ere, ekitaldiaren emaitzak gora egin du nabarmen 2014an, diru-sarrera eta gastu atipikoen portaeraren ondorioz. 2013ko ekitaldiaren aldean, galerak txikiagoak izan dira, eta finantza-aktiboen salmenta-eragiketetan gainbalio garrantzitsuak ere sortu direnez, azken emaitzak nabarmen egin du gora 2014. urtean (% 170), baina kontuan izan behar dugu abiapuntuko maila inoiz izan den txikienetakoa dela. BEGaren gaineko portzentaje-zko terminoetan, etekina % 28,3 izan zen, 2013an lortutako % 11,1 baino nabarmen handiagoa.

2014



2. LEHEN SEKTOREA

1. IKUSPEGI OROKORRA

1.1 BILAKAERA ESTATU MAILAN

Datuen arabera, 2014an, Estatuko lehen sektorearen errenta maila eta oinarrizko prezioen ekoizpenaren maila krisiaren aurretik zuenaren oso antzekoa da. 2008 eta 2010 bitartean, nekazaritzaren arloko ekoizpenak % 10,7 egin zuen behera; hala ere, 2010-2012 urteetako gorakadak orekatu egin zituen galerak. 2013an % 5,2 hazi zen, eta 2000. urteetik ikusi gabeko maila erdietsi zuen. 2014an, ordea, hainbat atzerapauso eman ditu; izan ere, 2009tik lehen aldiz, nekazaritzako ekoizpen osoa murriztu egin da (-% 4,1), produktuen bolumen osoa % 2,8 hazi den arren, prezioak % 6,8 jaitsi direlako.

Hori ez da eragozpena nekazaritzaren sektorean (azpisektore gisa, arrantzaren sektorea edo erauzketa-jarduerak kanpo utzita) enpleguak ere behera egiteko; izan ere, nekazaritzako lanak gero eta teknifikatuago daude. Nekazaritzako Lan Unitateei dagokienez, 2014an % 2,1eko beherakada gertatu da; horrek esan nahi du 1990 urtetik % 36 jaitsi dela enplegua sektorean. Bitartean, prezio konstanteko Nekazaritzako Lan Unitateko errentak % 22 egin du gora, nahiz eta gorakada batez ere 1993. eta 1996. urteen artean gertatu izan den, eta ordudanik, gutxi gorabehera, maila berean mantendu den.

Nekazaritzaren ekoizpenak izandako beherakadaren erantzule nagusia adar nagusiak (barazkienak) izandako % 10,3ko beherakada da, adar hori lehen sektoreko ekoizpen osoaren % 58,2 baita (animalien ekoizpena % 37,8 da eta gainerako jarduerak eta zerbitzuak, berriz, % 4). Animalien ekoizpenaren kasuan, prezioen beherakada ez da hain nabarmena izan (-%1,9). Barazkien prezioen beherakada horri 2013an galdutako % 2,4 gehitu behar zaio, nahiz eta 2012an % 9 egin zuten gora.

2013an bezalaxe, bi adar nagusien balio ekonomikoek aurreko ekitaldian gertatutakoa orekatzen duten gorabeherak izan dituzte. Hala, gorabehera horiek kontrako zeinua izan dute bi adarren kasuan, 2012-2014 tartean: barazkien adarrean, gorabeherak -% 7,4, % 10,6 eta -% 4,1 izan dira azken hiru ekitaldietan; animalietan, berriz, % 0,8, -% 1,9 eta % 0,5. Adar bakoitzaren ekoizpen-metodoak berak azaltzen du zergatik diren urteko gorabeherak nabarmenagoak barazkien kasuan; izan ere, adar horretako ekoizpen-ziklo gehienak urtebetekoak dira; abeltzaintzaren kasuan, berriz, zikloak eta plangintzak luzeagoak dira.

Epe luzeko bilakaera aztertuz gero, ikusiko dugu, datu arruntak oinarri hartuta eta gorabeherak gora-behera, Espainiako urteko barazki-ekoizpena 2012ko mailan dagoela; abel-

tzaintzaren arloko ekoizpenean, berriz, jauzi kualitatiboa egon zen 2010 eta 2012 artean; izan ere, mendearen lehen hamarkadan 14.000 milioi izatetik gaur egun 16.000 milioi izatera igaro da.

Makromagnitudeen arteko beste adierazle garrantzitsu bat nekazaritza-errenta da, hau da, sektoreak bertako enpleguari eusteko duen marjina, gehi balizko irabaziak. 2014an, aurreko ekitaldian izandako ia gorakada osoa galdu du sektoreak (-% 7,5, 2013ko % 7,7ren aldean). Nekazaritza-errenta, prezio arruntetan neurtuta, 1997ko maila baino zertxobait altuago dago, baina sektorean lan egiten duten pertsonen kopuruak nabarmen egin du behera. 2003ko mailarik gorena 26.300 milioikoa izan zen; 2014an, berriz, 22.000 milioikoa da.

Nekazaritza-errentaren beherakadaren erantzulea, ekoizpen osoarekin gertatzen den bezala, nekazaritzako kategoria nagusietan prezioek behera egin izana da: lehenik, zerealaren kasuan, baina baita fruten eta barazkien kasuan ere. Aurreko ekitaldian, frutek izugarriko garrantzia izan zuten sektorearen susperraldian; aurtan, aldiz, olioaren salmentak gorakada handia izan du (% 127,5), baina hori ez da nahikoa izan aipatutako beste hiru kategoria nagusietan izandako beherakadei aurre egiteko.

65. taula Espainiako nekazaritzako sektoreko makromagnitudeak

(M eurotan)

| Kontzeptua | 2013 | 2014* | % Δ 2014/2013 | | |
|--|-------------------|-------------------|---------------|---------|----------|
| | Ekoizleen prezioa | Ekoizleen prezioa | Dirutan | Erreala | Prezioak |
| A.- Nekazaritzako ekoizpena | 44.271,40 | 42.456,27 | -4,1 | 2,8 | -6,8 |
| • Barazkien ekoizpena | 26.702,60 | 24.726,61 | -7,4 | 3,2 | -10,3 |
| • Animalien ekoizpena | 15.958,00 | 16.037,79 | 0,5 | 2,5 | -1,9 |
| • Zerbitzuen ekoizpena | 423,2 | 426,16 | 0,7 | 0,2 | 0,5 |
| • Bigarren mailako jarduerak, nekazaritzako sektorekoak ez diren jarduera banaezinak | 1.187,60 | 1.206,60 | 1,6 | 0,7 | 0,9 |
| B.- Bitarteko kontsumoak | 20.959,60 | 20.750,00 | -1,0 | 2,9 | -3,8 |
| C.- (A-B) Balio erantsi gordina | 23.311,80 | 21.679,97 | -7,0 | 2,8 | -9,4 |
| D.- Amortizazioak | 4.829,10 | 4.998,12 | 3,5 | -0,1 | 3,6 |
| E.- Beste diru-laguntza batzuk | 6.135,90 | 6.178,85 | 0,7 | - | - |
| F.- Beste zerga batzuk | 297,9 | 320,54 | 7,6 | - | - |
| G.- (C-D+E-F) Nekazaritza-errenta | 24.320,70 | 22.496,65 | -7,5 | - | - |

(): 2015eko urtarileko bigarren balioespena.*

Iturria: Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioa.

Barazkien ekoizpenari dagokionez, barazkiek lehenengo lekua berreskuratu dute salmentei dagokienez (nekazaritzako salmenten % 29,3), frutaren gainetik (% 28,3). Zerealak salmenten % 14,3 izan dira, eta atzetik dute olioia (% 11,1). Nabarmenezkoa da ekitaldi honetan olioak duen pisua 2013an zuenaren bikoitza baino handiagoa dela, nahiz eta prezioa gehien jaitsi den hirugarren kategoria izan (-%16,1), patataren (-% 51,5) eta ardoaren (-% 26,1) atzetik. 2014an barazkien kategoria guztiak prezioan beherakada jasan

dute, eta guztiek galdu dute balioa, olioak berak izan ezik, produktu horren bolumena % 171,4 hazi baita. Bolumenean beherakadarik handiena ardoak (-% 22,3) eta zerealek (-% 18,4) izan dute; gainerako produktuen zifrak egonkorragoak izan dira, eta igo den produktu bakarra patata izan da (% 12,3).

Abeltzaintzari dagokionez, gorabeherak ez dira hain nabarmenak izan; ondorioz, sektoreak nolabaiteko hazkunde globala izan du (% 0,5). Azpisektore honetako produktuen artean txerri-haragiak du balio handiena, sektorearen % 38,4 baitu (nahiz eta lehen aldiz behera egin duen 2009tik). Atzetik du esnea (% 19,7), txerri-haragiaren pisuaren erdiarekin. Azken produktu hau izan da balioan gorakadarik handiena jasan duena (% 12). Esnea eta hegazti-haragia (% 5,4) dira hazi diren produktu bakarrak, eta, hala, hegazti-haragia izan da balio handiena duen bigarren haragi mota, berriro ere behi-haragiari postua kenduz. Arrautzen irabazietan berriro ere galerak egon dira (-% 10,1), eta hori da bi digitudun portzenta-jezko gorabehera izan duen beste datu bakarra. Aipatzekoa da abeltzaintzaren sektoreak, nekazaritzarenak baino irabazi gutxiago dituen arren, bitarteko kostu handiagoak dituela; izan ere, pentsuak nekazaritzako produktuen kontsumoen ia erdia dira soilik (% 48,5).

Prezioei dagokienez, ez da gorabehera nabarmenik egon; dena den, aipatu behar da bi produktu nagusienak izan direla gorabeherarik handienak izan dituztenak: txerri-haragiak % 5,8 egin du behera; bitartean, esneak suspertzen jarraitu du (% 6,6).

1.2 BILAKAERA NAFARROAN

Sektorearen makromagnitudeak


Ekonomia gehien hazi zen urteetan, Nafarroako lehen sektoreak Foru Erkidegoko ekonomian zuen pisua galdu zuen, beste sektore batzuk baino motelago hazi baitzen. Hala ere, krisialdiaren urterik txarreanean, lehen sektorearen beherakada ez zen hain gordina izan (2009an lehen sektorea -% 0,5 jaitsi zen; ekonomia oro har, berriz, -% 1,8). 2008 eta 2011 artean, Balio Erantsi Gordinaren gaineko kuota % 3koa izan zen. Ordudanik, beste sektore batzuk baino hobeto suspertu da, nahiz eta hazkunde-ehunekoek urtez urte behera egin duten. 2014an, Foru Erkidegoko BEG gordinaren % 3an kokatu da; aurreko urtean, berriz, % 3,3 izan zena.

Sektorearen BEGa 550 milioi euro baino gehiagokoa da, eta 2014an % 1,6 egin du gora, 2013an baino zertxobait gutxiago (% 2), baita 2011. eta 2012. urteetan baino motelago ere; dena den, susperraldia sendotuz joan da. Bestalde, Espainiako nekazaritzako sektorearen BEGak gorabehera handiagoak izan ditu, Nekazaritza, Elikadura eta Ingurume-

neko Ministerioak argitaratutako makromagnitudeen arabera, eta 2013. urtera arte ez zen sektorea guztiz suspertu (% 9,4), hurrengo urtean, 2014an, berriro ere murriztu bazen ere (-%7). Nafarroako ekonomia osoaren aldean, nekazaritzako sektorearen bilakaera txarragoa izan da 2008ra arte, eta askoz hobea hortik aurrera. Zifra horiek erakusten dutenez, Nafarroako lehen sektorearen egoera egonkorra eta sendoa izan da krisi-garaian. Gainera, sektore horren azken urteotako bilakaera beste autonomia-erkidego batzuetakoa baino hobea izan da.

11. grafikoa Nekazaritzako ekoizleek jasotako prezioak

(2005 urtarrila = 100)



*Oharra: Urte bakoitzeko hileroko prezioen adierazleen batez bestekoa.
Iturria: Nafarroako Estadistika Institutua.*

Guztira, nekazaritzan, abeltzaintzan eta basogintzan jarduten duten pertsonen jasotako prezioek % 6,8 egin zuten behera 2014an: % 10,9 nekazaritzan, % 2,4 abeltzaintzan eta % 2,4 basogintzan. Prezioen indizeak % 23,6ko gorakada izan zuen 2010 eta 2012 artean; 2014an, berriz, beherakada egon da eta ondorioz, nolabait orekatu egin da gorakada hori.

Produktuak kategoriak aztertzen baditugu, ikusiko dugu Nafarroako nekazaritzaren adar osoan beherakadak egon direla eta urtez urteko aldakuntza % 10,9koa izan dela; horren buru fruta dugu (% 28,2), eta honako hauek ditu atzetik: bazka-laboreak (% 21,5), patata (% 19,3), fruitu lehorrak (% 18,5), industria-laboreak (%17,2), lekaleak (% 14,6), mahastiak eta ardoa (% 12), zerealak (% 8,5) eta barazkiak (% 6,4). Abeltzaintzan % 2,4ko beherakada egon da: txerri-haragia (-% 8,1), untxi-haragia (-% 6,6), ahuntz-haragia

(-% 6,2), hegazti-haragia (-%4,8) eta behi-haragia (-% 1,2). Prezioak garestitu egin dira, berriz, ardi-haragiaren (% 6), esnearen (% 3,3) eta arrautzen (% 1,5) kasuan.

Zenbatekoei dagokienez, nabarmentzekoak dira industria-laboreak, haien hazkundera are gehiago azkartu baitute (% 69,2 2014an). Lekaleek eten egin dute beheranzko joera eta % 30,4 hazi dira. Atzetik doazkio fruta-arbolak, % 24,3 hazi baitira eta haien goranzko erritmoa azkartu baitute. Berrero ere goranzko joera berreskuratu dute barazkiek (% 15,3) eta tuberkuluek (patatak) (% 5,7). Hazkundera, berriz, moteldu egin da zerealen kasuan (% 3,7) eta berdin mantendu da mahastietan (% 10,6). Olioak beherakada izan du (-% 13,8) eta horrekin orekatu egin da aurretik izandako gorakadaren ia erdia; olioarena izan da behera egin duen kategorია bakarra. Bazka-laboreak % 5,4 hazi dira. Tona kopuruari dagokionez, zerealak zenbateko osoaren % 39,4 izan dira, bazka-laboreak % 32, barazkiak % 16,8, fruta-arbolak % 4,9, industria-laboreak % 2,4 eta aipatu gabeko gainerrako kategoriak ez dira % 1era iristen.

Nekazaritzako elikagaien kanpo-merkataritza

| 66. taula Nekazaritzako elikagaien kanpo-merkataritza. Nafarroa | | | | |
|---|--------------|-------|--------------|-------|
| <i>(M eurotan)</i> | | | | |
| Muga-zergak, atalka | Esportazioak | | Inportazioak | |
| | 2013 | 2014 | 2013 | 2014 |
| Animalia biziak eta animalia-jatorriko produktuak | 137,1 | 136,3 | 139,4 | 148,2 |
| Landare-jatorriko produktuak, gantzak eta olioak | 268,4 | 306,5 | 175,4 | 173,2 |
| Elikagaien industrietako produktuak | 493,1 | 510,4 | 211,6 | 202,7 |
| Nekazaritzako Elikagaien sektorea | 898,6 | 953,2 | 526,4 | 524,2 |
| Esportazio eta inportazio guztiak kontuan hartuz nekazaritzako elikagaien sektorean duen parte-hartzea (ehunekotan) | 12,1 | 11,8 | 13,4 | 12,8 |

Iturria: Nafarroako Estadistika Institutua, Aduanen Zuzendaritza Orokorra oinarri hartuta.

Nafarroan, sektore honen merkataritza-balantza izan da krisialdian zehar gehien hobetu den aldagai ekonomikoetako bat; izan ere, hainbat faktoreren artean, Estatuko merkatuaren ahuleziak Nafarroako sektoreari eragin dio eta ekoizleak kanpoko merkatuei begira jarri dira.

Animalia jatorriko produktuei dagokienez, esportazioek % 0,6 egin dute behera, inportazioak % 6,3 igo dira eta esportazioen gaineko inportazioen estaldura-tasak 6 puntu egin ditu gora, % 92ra iritsi arte. Barazkiei dagokienez, esportazioak % 14,2 hazi dira; inportazioak, berriz % 1,3 jaitsi dira. Hala, estaldura % 153 izatetik % 177 izatera igaro da. Elikagaien industrian ere esportazioak % 3,5 igo dira eta inportazioak, berriz % 4,2 jaitsi; hala, estaldura % 233 izatetik % 251,8 izatera igaro da. Elikagaien sektore osoari dagokionez, esportazi-

oak % 6,1 igo dira eta inportazioak % 0,4 jaitsi dira. Hala, estaldura % 170,7tik % 181,8ra igo da eta Nafarroako Foru Erkidegoak % 81,8ko merkataritza-superabita lortu du.

Barazkien kategoriak aurrerapausoak eman zituen esportazioetan, % 29,9tik % 32,1 era igo baitziren; animalien esportazioak berriz, % 14,2 izan ziren, eta industrialak, berriz, % 53,5. Esportazioen kuotak % 28,3, % 33 eta % 38,7 dira, hurrenez hurren, eta animalienak pisu apur bat kentzen die industrialei.

Landun biztanleria

Nafarroan, azken hamarkadan eta batez ere, 2011n, lehen sektoreko enpleguaren beherakada Espainiako gainerako erkidegoetan baino nabarmenagoa izan da; beheranzko joera hori eten egin zen 2013an, baina berriro ere hasi da 2014an. Espainian, sektore honetako enplegua pixkanaka eta etengabe gutxitzen joan da; bitartean, Nafarroan, aldakortasuna askoz handiagoa izan da, batez ere krisialdiko azken ekitaldietan. Joera horren erantzulea sektorearen eta Nafarroa beraren txikitasuna izan liteke, baita erregistro kontuak eta jardueraren urtarokako izaera ere. 2013an, batez ere deigarria izan zen Nafarroan enpleguan egon zen gorakada (9.300 langiletik 18.400 langilera); 2014an, berriz, langile kopurua 14.700ra jaitsi zen. Datu horietatik honako hau ondoriozta daiteke: Nafarroan, ustiategi askotan, titularrak ez daude langile gisa erregistratuta, jabe gisa baizik; jabeek beste jarduerara batzuk izaten dituzte eta, edonola ere, ez dituzte nekazaritzako lanak urteko sasoi batzuetan baino egiten. Kasu askotan, langileak sasoiak kontratatzen dituzte, batez ere nekazaritzako kanpainetan lan egiteko. Kanpaina horiek, hainbat faktore direla eta, aurreratu edo atzeratu egin daitezke, eta aldaketa horiek adierazle horretan islatzen dira, urte bakoitzeko ekaineko Biztanleria Aktiboari buruzko Inkesta baino lehen edo ondoren.

| 67. taula Enplegua lehen sektorean Urteko batez bestekoak* | | |
|--|---------------------|----------|
| Urtea | <i>(m pertsona)</i> | |
| | Nafarroa | Espainia |
| 2005 | 13,6 | 1.000,7 |
| 2006 | 13,5 | 944,3 |
| 2007 | 12,9 | 925,5 |
| 2008 | 14,3 | 951,3 |
| 2009 | 14,0 | 986,6 |
| 2010 | 13,4 | 1.004,0 |
| 2011 | 9,3 | 978,1 |
| 2012 | 9,3 | 1.001,4 |
| 2013 | 18,4 | 1.022,2 |
| 2014 | 14,7 | 1.000,6 |

(*): Urte bakoitzeko ekaineko datuak adierazi dira, uste dugulako hil horretako datuak direla adierazgarrienak sektore horretako lanaren urtarokako izaera kontuan hartuta.

Iturria: Biztanleria Aktiboari buruzko Inkesta. EIN.

2. NEKAZARITZA AZPISEKTOREA

Krisi ekonomikoak Nafarroako nekazaritzan batez ere 2009an izan zuen eragina, eta prezioak asko jaitsi ziren. Baina, gerora, egoera konbentzionalagoa izan da; alegia, epe luzerako joera jarraituak markatzen ez dituzten ekoizpen eta prezioen gorabehera handiko egoera. Gorabehera horiek lotuta daude, alde batetik, laborantza-txandaketekin, gero eta globalizatuagoak diren eta kanpo-lehiaren eraginpean dauden merkataritza-estrategiekin eta prezioen aldakortasunarekin, eta bestetik, denboraldiz denboraldi, produktuaren prezioaren eta kalitatearen arabera, produktu batzuk beste batzuekin ordezkatzeko eskaintzaileek eta eskatzaileek duten malgutasunarekin. Gainera, aldi berean, beste alderdi batzuk ere hartu behar dira kontuan, besteak beste, klimatologia. Horrela, ohikoa da ikustea oso antzekoak diren bi produktuk erabat kontrakoak diren aldaketak izan ditzaketela urte berean eta, hurrengo urtean, aldaketa horiek konpentsa ditzaketela. Zerealen kasuan –laborantzarik zabalduena–, 2009an prezioak izugarri jaitsi ondoren, hurrengo bi ekitaldietan ekoizpen-hazkuntza handia izan zen; ondoren, aipatu merkatuko gorabehera normalizatuagoen dinamikan sartu zen. Hala ere, produktu batzuetan joerak ikusten dira epe luzera, baina normalean, ez dute eragiten produktu baten laborantza guztiz uztea edo garatzea.

Baina, azaldutakoa ez da oztopo izan da, 2014an ekoizpenen hazkuntzari dagokionez egoera nahiko homogeneoa izateko –horietako asko oso nabarmenak– eta prezioen beherakadari dagokionez produktu gehienetan.

2.1 EKOIZPENAK ETA AZALERAK

Nekazaritza mota eta modalitate handien analisisian ikusten da epe luzerako bi joera argi jarraitzen dituela: ureztatutako sailen laborantzak gorantz jarraitzen du eta, zur-laborantzak, berriz, beherantz. Hala ere, lehorreko labore handiek nagusi izaten jarraitzen dute eta 2014an, eutsi egin diote edo hazi egin dira, pixkanaka (% 0,2). Ureztatutako laboreak % 5,7 hazi dira eta, gaur egun, nekazaritza- lurren % 35 hartzen dute. Bestalde, %10,4 zur-laboreen sailak dira; nagusienak, berriz, belarki-laboreak. Inguruko beste lurralde batzuek inbertsio handiak egin dituzte fruta-arbolen, mahastien eta olibondoen laborantzan; horiek, giza eskulanari dagokienez, intentsiboagoak dira belarki-laboreak baino; alabaina, makineria gutxiago erabiltzen dute. Landutako azalera osoak hazten jarraitzen du, kasu honetan, % 1ean, 284,6 hektarea izan arte; beraz, Foru Erkidegoko lurralde osoaren % 27,4 hartzen du.

68. taula Lur landuen erabilera

| Kontzeptua | 2013 | | | 2014 | | | % Δ 14/13 | | |
|--------------------------|----------------------|--------------------------|--------------|----------------------|----------------|--------------|-----------------|----------------|------------|
| | Lehorreko laborantza | Ureztatu-tako laborantza | Guztira | Lehorreko laborantza | Sail ureztatua | Guztira | Lehorreko lurra | Sail ureztatua | Guztira |
| Belarki-laboreak | 171,7 | 77,3 | 249,0 | 172,3 | 82,6 | 254,9 | 0,3 | 6,9 | 2,4 |
| Zur-laboreak | 13,2 | 16,7 | 29,9 | 12,9 | 16,8 | 29,7 | -2,3 | 0,6 | -0,7 |
| Laboreak, guztira | 184,9 | 94,0 | 278,9 | 185,2 | 99,4 | 284,6 | 0,2 | 5,7 | 2,0 |

(m Ha)

Iturria: Nekazaritza-koiunturaren aldizkaria (2015eko maiatza). Nafarroako Gobernua.Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazio Departamentua.

Ekoiizpenak produktuen kategoria guztietan hazi dira, olibadiaren kasuan izan ezik. Horrek ekoiizpenaren % 13,8 galdu du, 2013an azpitalde guztietan aurrerapenik handiena eduki ondoren. Zerealek eta mahastiek bolumena galdu zuten 2010. eta 2012. urteen artean, baina suspertu egin ziren 2013tik aurrera. Zerealak iaz baino motelago hazi dira (% 3,7) eta mahastiak pixka bat indartsuago (% 10,6). Era berean, lekaleen susperraldi handiak (% 30,4) konpentsatu ditu soberan 2012-2013ko atzerakadak, eta 2010-2011n izandako gorakada errepikatu da.

69. taula Nafarroako nekazaritzako ekoiizpen nagusiak

| Kontzeptua | 2013 | 2014 | % Δ 14/13 |
|-----------------------|---------|---------|-----------|
| Zerealak | 946.730 | 981.540 | 3,7 |
| Lekaleak | 9.236 | 12.048 | 30,4 |
| Tuberkuluak (patatak) | 13.086 | 13.826 | 5,7 |
| Industria-laboreak | 35.876 | 60.698 | 69,2 |
| Bazka-laboreak | 756.246 | 796.757 | 5,4 |
| Barazkiak | 363.755 | 419.238 | 15,3 |
| Zur-laboreak | 185.882 | 207.750 | 11,8 |
| - Fruta-arbolak | 54.387 | 67.582 | 24,3 |
| - Mahastiak | 109.910 | 121.588 | 10,6 |
| - Olio olibadiak | 21.585 | 18.610 | -13,8 |


(Tm)

Iturria: Nekazaritza-koiunturaren aldizkaria (2015eko maiatza). Nafarroako Gobernua.Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazio Departamentua.

Industria-laboreen hazkuntza bizkortu egin da (% 69,2); beraz, ia laukoiztu egin dute tona-kopurua 4 urtetan. Patata % 5,7 hazi da eta, horrela, 2013ko beherakadaren herena konpentsatu du eta 2011-2012ko joera berreskuratu du. Fruta-arboleak hazkuntza izan dute bigarren urtez jarraian, eta haien hazkuntza-erritmoa 2013an % 11koa izatetik 2014an % 24,3koa izatera igaro da. Barazkiek eta ortuariak -oro har gorabehera txikiagoa izaten dute- % 15,3ko gorakadarekin, aurreko bi urteetan galdutako posizioak berreskuratu dituzte.

Grafikoan ikusten den bezala, Nafarroako nekazaritzako ekoizpenaren % 39,4 zerealei dagokie eta beste heren bat, gutxi gorabehera, bazka-laboreei. Horrenbestez, laborantzaren zati handi bat abeltzaintzaren sektorearen zerbitzura dago, eta horri "belardi naturala" ere gehitu behar zaio, labore ez dena, baina helburu bererako aprobetxatzen dena. Nafarroan, belardi natural horiek bazka-laborearen beraren bolumena baino ia % 50 gehiago dute (ia 1,4 milioi tona, bazka-laboreen 0,8 milioi tonaren aldean).

12. grafikoa Nekazaritza-ekoizpen nagusien bolumenaren banaketa, ehunekotan, 2014



Iturria: Nekazaritza-kojunturaren aldizkaria (2015eko maiatza). Nafarroako Gobernua. Landa Garapen, Ingarumen eta Toki Administrazio Departamentua.

Zerealen nekazaritzaren barruan, bigarren urtez garagarra da, tona kopuruari dagokionez, produkturik garrantzitsuen, gariaren aurretik, nahiz eta oso gutxiengatik, garagarra % 7,2 jaitsi baita eta garia % 11,8 igo baita, neurri batean elkar ordezkatzeko ohiko dinamikan. Azaleren aldaketek joera bera izan dute, baina aldaketa txikiagoa izan da (-% 1,3 eta % 2,1, hurrenez hurren).

Oloak suspertzen jarraitzen du (% 9,5), 2010-2012 urteetan asko jaitsi ondoren. Arroza-ren kasuan, konpentsatu egin da (% 46,5) 2013an galdutakoa. Laugarren urtez jarraian, aurrera egin dute artoak eta zekaleak, baina biak eritmo motelagoan (% 8,3 eta % 11,2) aurreko urteetan baino. Zekaleak gorabehera ugari izaten ditu, eta sarritan kontraste handia egoten da azaleraren datuaren eta tona-kopuruaren datuaren artean. Hori logikoagoa da labore oso zehatz eta minoritario baten kasuan, bigarren mailako baliabide baten testuinguruan, denbora laburrean ia laborantzarik ez izatetik nolabaiteko pisua izatera igaro baitaiteke; dena den, hedaduraren eta bolumenaren arteko desberdintasunaren oinarria izan daiteke datuak laborantza-zikloaren une desberdinetan jaso izana.

70. taula Zereal-aleen azalera eta ekoizpena

| Kontzeptua | 2013 | | 2014 | | % Δ 14/13 | |
|------------|-------------|---------------|-------------|---------------|-------------|---------------|
| | Azalera(ha) | Ekoizpena(Tm) | Azalera(ha) | Ekoizpena(Tm) | Azalera(ha) | Ekoizpena(Tm) |
| Garia | 70.714 | 304.963 | 72.233 | 341.100 | 2,1 | 11,8 |
| Garagarra | 95.787 | 376.963 | 94.510 | 349.672 | -1,3 | -7,2 |
| Oloa | 8.140 | 35.534 | 9.136 | 38.927 | 12,2 | 9,5 |
| Arroza | 2.102 | 8.441 | 1.829 | 12.364 | -13,0 | 46,5 |
| Artoa | 21.442 | 220.522 | 20.995 | 238.899 | -2,1 | 8,3 |
| Zekalea | 177 | 520 | 237 | 578 | 33,9 | 11,2 |

Iturria: Nekazaritza-koiunturaren aldizkaria (2015eko maiatza). Nafarroako Gobernu. Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazio Departamentua.

Lekaleen ekoizpenean antzeko gorabeherak eta ordezkapenak daude; horiek nabarmendu egiten dira, kategoría minoritarioa delako; halaber, kontrako joerak ikusten dira azalaren eta ekoizpenaren artean. Horrela, zalkea, 2010ean bolumena seikoiztu zuena, jaitsi egin zen 2011-2012 biurtekoan, eta 2013an lortutako hazkunde ia guztia galdu du 2014an (-% 17,5). Kontrastea dago, berriro, hektareen zabalkuntzaren eta tonen atzerapenaren artean, eta kasu honetan 2013ko ezaugarrien aurkakoak daude. Ordea, bi neurketa horiek pareko daude beste hiru produktutan: babak berreskuratu egin du lekale garrantzitsuenaren postua, % 87,7ko aurrerapen handiarekin; babarrun lehorrak ere gora egin du (% 52), eta ilarrak behera egin du, % 4,2.

71. taula Lekaleen azalera eta ekoizpena

| Kontzeptua | 2013 | | 2014 | | % Δ 14/13 | |
|------------------|-------------|---------------|-------------|---------------|-------------|---------------|
| | Azalera(ha) | Ekoizpena(Tm) | Azalera(ha) | Ekoizpena(Tm) | Azalera(ha) | Ekoizpena(Tm) |
| Babarrun lehorra | 309 | 794 | 436 | 1.207 | 41,1 | 52,0 |
| Baba lehorra | 1.279 | 3.134 | 2.284 | 5.882 | 78,6 | 87,7 |
| Ilar lehorra | 2.290 | 4.369 | 2.137 | 4.184 | -6,7 | -4,2 |
| Zalkea | 1.005 | 939 | 1.256 | 775 | 25,0 | -17,5 |

Iturria: Nekazaritza-koiunturaren aldizkaria (2015eko maiatza). Nafarroako Gobernu. Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazio Departamentua.

Patataren laborantzak ere hainbat fase izan ditu azken urteotan: 2007-2011 artean beherakada izan zuen eta berriro ere 2013an. 2014an azalera galdu du (-% 4,4), baina tona kopurua irabazi du (% 5,7). Aldagaien artean –denboraldien eta helmugen arabera zehazten dira–, azpimarratzekoa da nabarmen berreskuratzen dela aurreko urtean galdutako bolumena sasoi erdiko patatetan (% 30,9) eta hazitarako patatak atzera egin duela (-% 20,3). Horrela bada, lehenengo patata motaren nagusitasuna nabarmentzen da bolumenari dagokionez, eta moteldu egiten da bigarrena, hedadurari dagokionez.

72. taula Tuberkuluen azalera eta ekoizpena

| Kontzeptua | 2013 | | 2014 | | % Δ 14/13 | |
|-------------------------|--------------|----------------|--------------|----------------|--------------|----------------|
| | Azalera (ha) | Ekoizpena (Tm) | Azalera (ha) | Ekoizpena (Tm) | Azalera (ha) | Ekoizpena (Tm) |
| Sasoiaren erdiko patata | 200 | 5.678 | 216 | 7.433 | 8,0 | 30,9 |
| Patata berantiarra | 63 | 1.400 | 76 | 1.607 | 20,6 | 14,8 |
| Hazitarako patata | 299 | 6.008 | 245 | 4.786 | -18,1 | -20,3 |
| Patata | 562 | 13.086 | 537 | 13.826 | -4,4 | 5,7 |

Iturria: Nekazaritza-koiunturaren aldizkaria (2015eko maiatza). Nafarroako Gobernua.Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazio Departamentua.

Aurreko urteetan bezala, industria-laboreen artean, aldaketa handiak ikusten dira. Erremolatxak berriro izan du hazkuntza handia (% 148,7), aurreko urteko beheraldiaren ondoren, eta berriro ere izan da bere kategorian pisu gehien izan duen produktua, koltza ordezkatzuz, nahiz eta hori ere azkar hazten ari den (% 43,9). Ekilorea, bestalde, oso motel hazi da (% 2,7) eta garrantzia galtzen dute iragankorrakoak eta minoritarioak diren beste labore batzuen aurrean, besteak beste, sojaren eta batez ere, tabakoaren aurrean.

73. taula Industria-laboreen azalera eta ekoizpena

| Kontzeptua | 2013 | | 2014 | | % Δ 14/13 | |
|--------------------|--------------|----------------|--------------|----------------|--------------|----------------|
| | Azalera (ha) | Ekoizpena (Tm) | Azalera (ha) | Ekoizpena (Tm) | Azalera (ha) | Ekoizpena (Tm) |
| Azukre-erremolatxa | 115 | 12.525 | 289 | 31.146 | 151,3 | 148,7 |
| Ekilorea | 5.082 | 9.502 | 4.359 | 9.754 | -14,2 | 2,7 |
| Soja | 21 | 54 | 15 | 33 | -28,6 | -38,9 |
| Tabakoa | 26 | 81 | 9 | 29 | -65,4 | -64,2 |
| Koltza | 4.823 | 13.711 | 6.428 | 19.736 | 33,3 | 43,9 |

Iturria: Nekazaritza-koiunturaren aldizkaria (2015eko maiatza). Nafarroako Gobernua.Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazio Departamentua.

Bazka-laboreen artean, alpaparen eta belar onduaren eta antzekoen geldialdia antze-man da azken 4 urteotan; horiek berariaz landutako aldi baterako belardia osatzen dute, aurretik aipatutako erabat naturala den belar-bazka ez bezala ("belardi naturala"). Gana-duaren elikadurarako laboreek, arto, zalke eta ilarren ekoizpenaren barruan, alternatiba nagusi izaten jarraitzen dute, goraka baitoaz (artoa, labore nagusia, ia % 20 artoa); hala ere, Nafarroan, bazka-laboreen pisu osoaren erdia baino gutxiago da.

74. taula Bazka-laboreen azalera eta ekoizpena

| Kontzeptua | 2013 | | 2014 | | % Δ 14/13 | |
|------------------------|----------|------------|----------|------------|-----------|------------|
| | Aza.(ha) | Ekoiz.(Tm) | Aza.(ha) | Ekoiz.(Tm) | Aza.(ha) | Ekoiz.(Tm) |
| Bazka-artoa | 3.574 | 159.490 | 4.180 | 191.256 | 17,0 | 19,9 |
| Alpapa | 6.773 | 340.334 | 6.856 | 327.625 | 1,2 | -3,7 |
| Bazka-zalkea | 1.392 | 23.483 | 1.389 | 25.236 | -0,2 | 7,5 |
| Bazka-ilarra | 1.247 | 22.435 | 1.336 | 25.195 | 7,1 | 12,3 |
| Aldi baterako belardia | 5.071 | 210.504 | 5.220 | 227.445 | 2,9 | 8,0 |

Iturria: Nekazaritza-koiunturaren aldizkaria (2015eko maiatza). Nafarroako Gobernua.Landa Garapen, Ingarumen eta Toki Administrazio Departamentua.

Barazkien azpisektoreak 2014an aurreko bi urteetan jasandako atzerapena berreskuratu du; azalera % 12,9ko aurrerapena izan du eta tona kopuruan % 15,3koa; beraz, orain, 2011ko mailatik gora dago bi neurketa horietan: 19.230 hektarea eta 419.238 tona barazki. Hainbat produktu izan dira aurrerapen honetan, bakoitzak ekoizpenean duen pisuaren arabera. Herena baino gehiago tomateari dagokio (% 33,9), % 14,7 brokoliari eta, gainerakoen artean, piperrak baino ez du gainditzen % 5a (% 5,1).

Horietako lehenengoak eten egin du 4 urteko atzeraldia, % 12,2ko tona irabazi baititu. Hazkuntzak asko eta nabariak dira, eta horren buru dira baba berdea (% 78,5), alberjinia (% 78,1) eta tipula (% 74,7); azken horretan nabarmentzekoa da hektareako errendimendua, izan ere, azalera % 12,5 baino ez du egin gora. 2014an, bai baba, bai tipula nabarmen suspertu dira. Beste laborantza batzuk ere suspertu egin dira, baina ez baben eta tipulen mailan, haien hazkundera % 30 ingurukoa baita: ilarrak, piperrak, azaloreak eta zainzuriak; azken horretan, 2013ko beherakada osorik berreskuratu da. Ekoizpenaren beherakadak gutxi dira, romaneskoaren (brokoliaren eta azalorearen produktu hibridoa, % 32ko beherakada izan duena), berakatzaren (-% 17,7) eta erremolatxa gorriaren (-% 13,1) kasuan izan ezik -azukre-erremolatxaren kasuan, ordea, gorakada handia egon da-.

75. taula Barazkien azalera eta ekoizpena

| Kontzeptua | 2013 | | 2014 | | % Δ 14/13 | |
|--------------------|----------|------------|----------|------------|-----------|------------|
| | Aza.(ha) | Ekoiz.(Tm) | Aza.(ha) | Ekoiz.(Tm) | Aza.(ha) | Ekoiz.(Tm) |
| Aza | 112 | 3.024 | 109 | 2.923 | -2,7 | -3,3 |
| Zainzuria | 1.107 | 3.162 | 1.047 | 4.041 | -5,4 | 27,8 |
| Uraza | 550 | 14.000 | 587 | 15.872 | 6,7 | 13,4 |
| Eskarola | 239 | 7.285 | 249 | 7.352 | 4,2 | 0,9 |
| Espinaka | 780 | 17.193 | 759 | 16.170 | -2,7 | -6,0 |
| Zerba | 199 | 10.861 | 192 | 9.771 | -3,5 | -10,0 |
| Kardua | 301 | 13.318 | 310 | 13.855 | 3,0 | 4,0 |
| Borraja | 74 | 4.254 | 65 | 3.843 | -12,2 | -9,7 |
| Endibia | 52 | 1.557 | 60 | 1.706 | 15,4 | 9,6 |
| Kuiatxoa | 94 | 5.996 | 104 | 7.105 | 10,6 | 18,5 |
| Alberjinia | 89 | 4.183 | 127 | 7.448 | 42,7 | 78,1 |
| Tomatea | 1.625 | 122.086 | 1.815 | 136.949 | 11,7 | 12,2 |
| Piperra | 729 | 18.553 | 844 | 23.645 | 15,8 | 27,4 |
| Orburua | 900 | 13.505 | 968 | 14.324 | 7,6 | 6,1 |
| Azalorea | 1.046 | 17.137 | 1.182 | 21.807 | 13,0 | 27,3 |
| Brokolia | 4.451 | 53.591 | 5.077 | 63.480 | 14,1 | 18,5 |
| Romaneskoa | 117 | 1.510 | 84 | 1.027 | -28,2 | -32,0 |
| Berakatza | 26 | 265 | 21 | 218 | -19,2 | -17,7 |
| Tipula | 279 | 10.565 | 314 | 18.458 | 12,5 | 74,7 |
| Porrua | 61 | 1.977 | 56 | 1.838 | -8,2 | -7,0 |
| Erremolatxa gorria | 40 | 2.392 | 33 | 2.079 | -17,5 | -13,1 |
| Leka | 735 | 8.764 | 742 | 9.192 | 1,0 | 4,9 |
| Ilar berdea | 1.518 | 10.355 | 2.076 | 13.468 | 36,8 | 30,1 |
| Baba berdea | 1.015 | 2.251 | 1.466 | 4.019 | 44,4 | 78,5 |
| Arto gozoa | 890 | 15.971 | 943 | 18.648 | 6,0 | 16,8 |

Iturria: Nekazaritza-koiunturaren aldirkaria (2015eko maiatza). Nafarroako Gobernua.Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazio Departamentua.

2014an, berriro ere ikusi dira gorabehera handiak zur-laborantzan, nahiz eta zikloak luzeagoak izan, landareek balio-bizitza luzeagoa izan eta lursailaren erabileraren kudeaketa geldoagoa izan. Arboladun azalerek oso aldaketa gutxi dituzte, bai goranzkoak, bai beheranzkoak, baina jasotako tona-kopuruek indarrez egin dute aurrera, olibondoek eta elorri beltzenek izan ezik; azken horrek beheranzko joera garbia izan du berriro ere. Madaria da produkturik masiboena fruta-arbolen kategorian, eta % 31,9 egin du aurrera; sagarrek eta melokotoiek, ordea, pisu eta aurrerakuntza motelagoa izan dute (% 14,8 eta % 16,5). Aurrerakuntzarik handienak gereziondoek (% 69,4) eta almendrondoek (% 67,1) izan dituzte.

Mahastiari dagokionez, moteldu egin da Nafarroako Jatorrizko Deiturarako azaleraren murrizketa (2008. eta 2013. urteen artean hedaduraren herena baino gehiago galdu zuen), eta egonkorragoa da Errioxako Jatorrizko Deituraren laborantza (2014an egonkor mantentzen da eta Foru Erkidegoko laborantzaren % 37,8 ingurukoa da, bai azalerari dagokionez, bai ekoizpenari dagokionez). Nahiz eta hedaduraren galera txikiak izan, ekoizpena hazi egin da bi deitura horientzat: % 14 Errioxako Jatorrizko Deitura eta % 8,6 Nafarroakoan.

76. taula Zur-laborantzen azalera eta ekoizpena

| Kontzeptua | 2013 | | 2014 | | % Δ 14/13 | |
|-----------------------|----------|------------|----------|------------|-----------|------------|
| | Aza.(ha) | Ekoiz.(Tm) | Aza.(ha) | Ekoiz.(Tm) | Aza.(ha) | Ekoiz.(Tm) |
| Sagarrondoa | 575 | 15.340 | 572 | 17.603 | -0,5 | 14,8 |
| Madariondoa | 1.054 | 18.744 | 1.043 | 24.724 | -1,0 | 31,9 |
| Gereziondoa | 320 | 843 | 321 | 1.428 | 0,3 | 69,4 |
| Mertxikondoa | 519 | 14.882 | 509 | 17.336 | -1,9 | 16,5 |
| Brinoiondoa | 72 | 1.730 | 76 | 2.256 | 5,6 | 30,4 |
| Aranondoak | 94 | 315 | 97 | 373 | 3,2 | 18,4 |
| Elorri beltza | 140 | 493 | 131 | 453 | -6,4 | -8,1 |
| Almendrondoa | 3.516 | 2.040 | 3.429 | 3.409 | -2,5 | 67,1 |
| Errioxako Jatorrizko | | | | | | |
| Deiturako mahastiak | 6.756 | 40.348 | 6.726 | 45.985 | -0,4 | 14,0 |
| Nafarroako Jatorrizko | | | | | | |
| Deiturako mahastiak | 11.217 | 69.562 | 11.094 | 75.573 | -1,1 | 8,6 |
| Olio olibadiak | 5.645 | 21.585 | 5.711 | 121.558 | 1,2 | -13,8 |

Oharra: Ez ditu arbola sakabanatuak jasotzen.

Iturria: Nekazaritza-koiunturaren aldizkaria (2015eko maiatza). Nafarroako Gobernua. Landa Garapen, Ingu-
rumen eta Toki Administrazio Departamentua.

2.2 NEKAZARITZAKO PREZIOAK ETA EKOIZPENAREN BALIOA

Ekoizpenetan eta hedaduretan aldaketa handiak izaten dira urterik urtera, baina, oro har, handiagoak izaten dira prezioen gorabeherak. 2011n eta 2012an, oro har, balio-aldaketak positiboak izan ziren zerealetan eta negatiboak barazkietan; 2013an eta 2014an joerak aldatu egin dira. Hala ere, zereal nagusien prezioak iaz baino gutxiago jaitsi dira (-% 11,5 garia eta -% 3,8 garagarra); zertxobait gehiago jaitsi da artoa (-% 18,6); oro har, artoak balio osoaren galera handiena izan du, diru-sarrerak -% 95,4 jaitsi direlarik. Garia, diru kontuei dagokienez, maila berera bueltatu da.

Prezioaren beherakadarik handienak frutek izan dituzte (-% 35 inguru sagarrek eta mertxikek, hau da, amaierako balioaren laurdena galdu dute). Fruta nagusia, madaria, pixka bat gutxiago merkatu da (-% 28,4). Madaria eta sagarra asko garestitu ziren 2013an (% 76,7 eta % 56,3).

Ordea, uraza baino ez da nabarmenki merkatu, barazkien artean (-% 21,3). Piperra bila-
katu da baliorik handiena duen produktua, tomatearen gaintetik, ia herena egin baitu aurrera (% 32,2); hala ere, zainzuria gehiago indartu da (% 37,3). Bi kasu horietan, eta ilar berdearen kasuan (% 30,7), hazkundearen arrazoi nagusia da uzta handiagoa eduki izana eta ez prezioa garestitu izana. Patataren prezioak atzera egin du (-% 19,3), bai eta balio osoak ere (-% 14,8).

Era berean, ardo gorria da gehien garestitu den produktua (% 46,7), goranzko joerarekin jarraituz du, ardo beltzaren kasuan gertatzen ez den bezala (-% 4,3).

77. taula Nekazaritza-produktu nagusien prezio eta balioak, guztira

| Produktua | Nekazariak jasotako prezioak (euroak/100 kg.) | | | Ekoizpenaren balio zenbatetsia (m euro) | | |
|--------------------|---|--------|-----------|---|-----------|-----------|
| | 2013 | 2014 | % Δ 14/13 | 2013 | 2014 | % Δ 14/13 |
| Garia | 20,74 | 18,36 | -11,5 | 63.249,33 | 62.625,96 | -1,0 |
| Garagarra | 16,97 | 16,33 | -3,8 | 63.970,62 | 57.101,44 | -10,7 |
| Artoa | 21,60 | 17,58 | -18,6 | 47.632,75 | 2.173,59 | -95,4 |
| Patata | 25,75 | 20,77 | -19,3 | 3.369,65 | 2.871,66 | -14,8 |
| Zainzuria | 213,99 | 229,94 | 7,5 | 6.766,36 | 9.291,88 | 37,3 |
| Uraza | 62,62 | 49,30 | -21,3 | 8.766,80 | 7.824,90 | -10,7 |
| Espinaka | 50,96 | 48,72 | -4,4 | 8.761,55 | 7.878,02 | -10,1 |
| Tomatea | 10,74 | 11,03 | 2,7 | 13.112,04 | 15.105,47 | 15,2 |
| Piperra | 79,10 | 82,04 | 3,7 | 14.675,42 | 19.398,36 | 32,2 |
| Orburua | 43,39 | 46,61 | 7,4 | 5.859,82 | 6.676,42 | 13,9 |
| Ilar berdea | 25,36 | 25,48 | 0,5 | 2.626,03 | 3.431,65 | 30,7 |
| Sagarra | 34,71 | 22,53 | -35,1 | 5.324,51 | 3.965,96 | -25,5 |
| Madaria | 42,89 | 30,69 | -28,4 | 8.039,30 | 7.587,80 | -5,6 |
| Melokotoia | 38,64 | 25,20 | -34,8 | 5.750,40 | 4.368,67 | -24,0 |
| Ardo beltz berria* | 5,57 | 5,33 | -4,3 | -- | -- | -- |
| Ardo gorri berria* | 6,28 | 9,21 | 46,7 | -- | -- | -- |

(*): Prezioa eurotan/ Hgdo (ardo-hektolitro eta alkohol-graduak).

Iturria: Nekazaritza-koiunturaren aldizkaria (2014ko abendua). Nafarroako Gobernua.Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazio Departamentua.

2.3 NEKAZARITZA MAKINETAKO INBERTSIOA

Nekazaritzako makinaren erosketaren sektoreak izan dezakeen etorkizunaren beste adierazle bat da ere. 2014an, lehenengoz krisi-aldian, goranzko joera izan duten bi urte elkar-tzen dira, eta orain homogeneoki hedatzen dira aztertutako lau kategorietara. Balio gehieneko inbertsioak, traktoreenak, % 12,1eko hazkundea izan du aurten eskuratutakoan 2013an erosi zenaren aldean; gorakada hori urte hartan izandakoaren ia bera izan da. Aurrerapen nabariak daude, bestalde, makina autopropulsatuak, arrastaka ateratzeko makinetan eta atoietan.

78. taula Nafarroan inskribatutako nekazaritzako makinaren balioespena

| Kontzeptua | (m eurotan) | | |
|--|---------------|---------------|-------------|
| | 2013 | 2014 | % Δ 14/13 |
| Traktoreak | 13.477 | 15.112 | 12,1 |
| Motokultoreak eta autopropulsatuak | 4.481 | 5.318 | 18,7 |
| Atoiak | 1.049 | 1.240 | 18,2 |
| Arrastaka ateratzeko nekazaritzako makinak | 4.992 | 5.692 | 14,0 |
| Makinak, guztira | 23.999 | 27.362 | 14,0 |

Oharra: Makinen balioan ez dago BEZa barne.

Iturria: Nekazaritza-koiunturaren aldizkaria (2014ko abendua). Nafarroako Gobernua.Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazio Departamentua.

3. ABELTZAINZAREN AZPISEKTOREA

3.1 AZIENDA ERROLDA


Nafarroako azienda-errolaren beherako joera leheneratu egin da 2014an; izan ere, azienda ugariak, txerri-aziendak eta behi-aziendak, aurreko urteetan galdutako tokia berreskuratu dute: behi-azienda da ugariena 2006tik (nahiz eta aurrerapena % 3,3 baino ez izan) eta txerri-azienda handiena 2010etik (urtez urteko % 22ko aurrerapenarekin). Halaber, gora egin du ahuntz-azienda urriak (% 2,2); ardi-aziendak, berriz, atzerako joera jarraituari eutsi dio (-% 2,7); horrela, azienda ugariena izateari utzi dio berriro ere, eta txerri-aziendari utzi dio lekua. Ardi-aziendaren atzerakada Nafarroan % 29,1ekoa izan da azken 8 urteotan, Espainian aldi horretan gertatu den antzera (-% 30,5).

Espainian, behi-aziendak gorakada handiagoa izan du (% 6,7), lehenengoz, 2009tik. Txerri-aziendak gorakada leunagoa izan du Nafarroan baino (% 4,2); ardi-aziendak beherakada handiagoa izan du (-% 4,3) eta ahuntz-aziendak, aldiz, gorakada handiagoa izan du (% 3,6). Nafarroak Estatuan dituen kuotak ez dira mugitu (% 1,9 behi-azientetan, % 3,4 ardi-azientetan, % 0,5 ahuntz-azientetan), txerri-aziendaren kasuan izan ezik, % 1,8tik % 2,1era igo baita.

| 79. taula | | Azienda-errola (urte bakoitzeko azaroa) | | | | (unitateak) |
|---------------------|-------|---|------------|-----------|------------|-------------|
| Eremua | Urtea | Behiak | Ardiak | Ahuntzak | Txerriak | |
| Nafarroa | 2010 | 111.468 | 646.799 | 11.100 | 658.390 | |
| | 2011 | 111.403 | 562.400 | 10.859 | 478.781 | |
| | 2012 | 110.361 | 551.753 | 12.442 | 469.758 | |
| | 2013 | 110.425 | 542.319 | 12.435 | 447.849 | |
| | 2014 | 114.030 | 527.890 | 12.708 | 546.356 | |
| Espainia | 2010 | 6.075.081 | 18.551.642 | 2.903.779 | 25.704.039 | |
| | 2011 | 5.923.112 | 17.002.721 | 2.692.898 | 25.634.869 | |
| | 2012 | 5.812.606 | 16.339.373 | 2.637.336 | 25.250.377 | |
| | 2013 | 5.696.907 | 16.118.586 | 2.609.989 | 25.494.715 | |
| | 2014 | 6.078.733 | 15.431.804 | 2.704.229 | 26.567.578 | |
| % Nafarroa/Espainia | 2014 | 1,9 | 3,4 | 0,5 | 2,1 | |

Iturria: Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioa.

13. grafikoa Nafarroako azien portzentajezko banaketaren bilakaera



Iturria: Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioa.

3.2 ABELTZAINZAKO EKOIZPENA ETA EMAITZA EKONOMIKOAK

Esne-ekoizpena eta emaitza ekonomikoak

Behi-esnea Nafarroako esne-ekoizpenaren % 94,6 da; horrekin batera, ardi-esnea (% 5,2) eta ahuntz-esnea (% 0,2) ere ekoizten dira. Datuak konparatzeko erreferentzia gisa, azpimarratzekoa da 2011tik Nafarroak EAE gainditzen duela ekoiztutako bolumenari dagokionez, eta biek mantentzen dituztela kontrako joerak. 4 urtean, Nafarroan % 15,2ko gorakada izan da, eta, azken ekitaldian, % 6,9 igo da.

Nahiz eta 2012an izandako bat-bateko gorakadari eutsi ez dion, Nafarroako ardi-esneak gorako joera txikiari eutsi dio, eta 2014an % 2,6 hazi da. Kontrako joeran, berriz, azpimarratzekoa da 2011tik ahuntz-esnearen ekoizpenean egon den beherakada; beste % 5 egin du behera ekitaldi honetan.

| 80. taula | | Esne-ekoizpena | | |
|-----------|---------|----------------|---------|-----------|
| Urtea | Behia | Ardia | Ahuntza | (m litro) |
| | | | | Guztira |
| 2005 | 171.384 | 8.262 | 211 | 179.857 |
| 2006 | 172.052 | 8.783 | 170 | 181.005 |
| 2007 | 164.573 | 8.675 | 28 | 173.275 |
| 2008 | 175.423 | 8.786 | 318 | 184.527 |
| 2009 | 181.619 | 8.204 | 398 | 190.221 |
| 2010 | 182.096 | 8.820 | 407 | 191.323 |
| 2011 | 186.301 | 7.534 | 411 | 194.246 |
| 2012 | 191.507 | 10.365 | 399 | 202.271 |
| 2013 | 194.382 | 11.281 | 361 | 206.024 |
| 2014 | 208.408 | 11.570 | 343 | 220.321 |

Iturria: Nafarroako Gobernua. Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazio Saila.

INTIA-ITG institutuak Nafarroako esne-behien eta -ardien ustategien lagin baten jardura neurtzen du. 2014an, ardi-aziendaren kasuan ikusten da salmenten bidezko diru-sarrerek % 5,5 egin dutela gora. Gorakada gehiena marjina garbi gisa aprobetxatu ahal izan da (% 27,8 hazi da); izan ere, negozio honen kostuen kategoriak ez dira gehiegi aldatu 2013. urtearen aldean, eta oro har, aldaketak konpentsatu egin dira; gainera, sektorearentzako laguntzak pixka bat hazi dira.

Behi-aziendaren kasuan, saldutako produktu gordinak diru-sarreren % 12,1eko gorakada ekarri du; egoera antzekoa da ardi-aziendaren kasuan, kostu eta diru-laguntzei dagokiernez: Hala, hazkuntzaren zatirik handiena ustiapenen marjinarako geratu da (% 138,2 hazi da, 2013ko ekitaldiaren aldean). Azienda honetako langileko marjina garbiak ia hirukoiztu egiten du ardi-aziendarena.

81. taula INTIA-ITGk kudeatutako esne-behi eta -ardien ustiategien batez besteko emaitza ekonomikoak

| Kontzeptua | Esne-behiak | | Esne-ardiak | |
|--|-------------|---------|-------------|----------|
| | 2013 | 2014 | 2013 | 2014 |
| DATU TEKNIKO-EKONOMIKOAK | | | | |
| Ustiategien lagina | 61 | 60 | 29 | 28 |
| Langileak (GLU) | 2,4 | 2,46 | 1,7 | 1,7 |
| Ustiategiko behi/ardi kopurua | 98,8 | 102 | 397 | 403 |
| Azalera (Ha) | 40,6 | 47,23 | 24,6 | 25,8 |
| Ekoititako behi- eta ardi-esnea | 8813 | 9272 | 128 | 129 |
| Esnearen prezioa (euroak/1000 litro) | 360,6 | 371,96 | 1.457,97 | 1.482,76 |
| EKOIZPENA ETA EMAITZAK (euroak) | | | | |
| Produktu gordina (*) | 356.807 | 400231 | 87.866 | 92.709 |
| - Elikaturako gastuak | 165.539 | 159670 | 30.705 | 28.296 |
| - Gastu aldakorrak | 53.906 | 61568 | 8.257 | 9.271 |
| = Marjina gordina | 137.362 | 178992 | 48.904 | 55.143 |
| + Diru-laguntzak | 6.001 | 6.157 | 842 | 1.483 |
| - Gastu finkoak (*) | 110.438 | 114.865 | 32.653 | 34.362 |
| = Marjina garbia | 26.924 | 64.127 | 16.251 | 20.780 |
| EMAITZAK UNITATEKO (euroak) | | | | |
| Behiaren/ardiaren marjina garbia | 272,5 | 628,72 | 40,96 | 51,60 |
| GLUren marjina garbia | 15.357 | 37.032 | 11.053 | 13.680 |

(*): Zerbitzuengatik edo beste kontzeptu batzuegatiko diru-sarrerak produktu gordinean sartzen dira, eta eskulanarengatik gastuak, berriz, gastu finkoetan.

Iturria: INTIA-ITG, Nafarroako Nekazaritzako Elikagaien Industriako Teknologia eta Azpiegituren Institutua, BTK Saila (Berrikuntza, Teknologia eta Kudeaketa).

Haragiaren ekoizpena eta emaitza ekonomikoak

2014an, Nafarroako haragiaren ekoizpenean 2006tik erregistratu den gorako joera orokorrak jarraitu du, bai eta hegazti-sektoreari dagokionez ere –bolumen osoaren % 60,7 da jada–. Salbuespen bakarra 2010ekoa izan zen; orduan, kategoria horretan hazkuntza-aren inbertsioak eten egin ziren, txerri-aziendaren gorakada eten zen bezala. 2014an, hegazti-sektorearen gorakada geldoagoa izan da aurreko urteetan baino; % 1,9 tona abere gehiago hil dituzte. Haragiaren ekoizpen osoak gorako joera berreskuratu du, espezie guztiak kontuan hartuz (% 0,6); hori ez litzateke posible izango hegazti-sektorean aipatutako hazkuntzarik gabe. Beste espezie batzuek ere gorakadak izan dituzte (% 50,6 ahuntz-aztiandana, % 0,3 txerri-aztiandana, % 3 zaldi-aztiandana, % 4,6 untxi-aztiandana), baina zenbateko garbiak oso txikiak izan dira. Berrero ere atzera egin dutenak behi-haragia (-% 12,2) eta ardi-haragia (-% 3,6) izan dira.

Hegazti-haragiaren ekoizpenaren atzetik, pisu gehien duena txerriarena da (% 27,6) eta ondoren, baina urrutitik, behiarena (% 4,8), ardiarena (% 2,8), untxiarena (% 2,1), zaldia-rena (% 1,9) eta ahuntzarena (% 0,03).

82. taula Nafarroan hildako abereen pisua, kanalean

| Urtea | Behiak | Ardiak | Ahuntzak | Txerriak | Zaldia | Hegaztiak | Untxiak | Guztira |
|---------------------|---------|---------|----------|----------|---------|-----------|---------|-----------|
| 2010 | 8.315,5 | 3.743,4 | 37,7 | 39.748,6 | 1.699,3 | 61.572,1 | 2.391,2 | 117.507,7 |
| 2011 | 9.523,1 | 3.809,2 | 26,0 | 39.927,3 | 2.184,9 | 71.741,2 | 2.596,7 | 129.808,5 |
| 2012 | 7.467,5 | 3.388,4 | 24,5 | 39.781,1 | 2.649,5 | 76.740,4 | 2.684,7 | 132.736,2 |
| 2013 | 7.326,9 | 3.819,3 | 24,6 | 36.610,5 | 2.500,3 | 79.155,6 | 2.641,8 | 132.078,9 |
| 2014 | 6.435,4 | 3.681,9 | 37,0 | 36.720,5 | 2.574,1 | 80.687,0 | 2.763,8 | 132.899,7 |
| % Nafarroa/Espainia | 1,1 | 3,2 | 0,4 | 1,0 | 22,3 | 5,6 | 4,3 | 2,3 |

(Tm)


Iturria: Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioa.

Nabarmena izan da azken hamarkadan hiltegien jardueran egon den beherkada. Zaldi-haragiaren sarrera bitxia alde batera utzita, beste berritasun bat hegazti-ustiatuek izan duten garapena da; izan ere, sektore horrek industrializatzeko aukera gehiago ematen ditu eta errotazioa azkarragoa da, esate baterako "broiler" oilaskoen kasuan.

Nafarroak Estatuan duen pisua handiagoa da zaldi-haragian (%22,3) eta, ondoren, hegazti-haragian (% 5,6), untxiarenean (% 4,3), ardiarenean (% 3,2), behiarenean (% 1,1), txerriarenean (% 1) eta ahuntzarenean (% 0,4). 7 espezieen multzoan, kuota % 2,3koa da.

14. grafikoa Nafarroako abeltzaintza-ekoizpena

(Indizea 1999 = 100)



Iturria: Nekazaritza Elikadura eta Ingurumen Ministerioa.

83. taula ITGk kudeatutako haragi-behi eta -ardien ustategien batez besteko emaitza ekonomikoak

| Kontzeptua | Haragi-behiak | | Haragi-ardiak | |
|---|---------------|--------|---------------|--------|
| | 2013 | 2014 | 2013 | 2014 |
| EZAUGARRIAK | | | | |
| Ustategien lagina | 34 | 36 | 34 | 30 |
| Langileak (GLU) | 1,2 | 1,3 | 1,15 | 1,1 |
| Ustategiko behi/ardi kopurua | 69,6 | 67,6 | 701,0 | 684,0 |
| Azalera (Ha) | 35,6 | 35,1 | 42,6 | 41,7 |
| Ekowitzitako txahalki/arkume kg kopurua, behi/ardiko ⁽¹⁾ | 202 | 189,0 | 19,32 | 18,9 |
| Txahalki/arkume kiloko salmenta-prezioa | 4,00 | 4,10 | 4,01 | 3,97 |
| EKOIZPENA ETA EMAITZAK (euroak) | | | | |
| Produktu gordina ⁽²⁾ | 82.628 | 82.523 | 61.390 | 60.073 |
| - Elikadurako gastuak | 40.926 | 38.385 | 36.039 | 30.507 |
| - Gastu aldakorra | 12.865 | 12.101 | 7.488 | 7.891 |
| = Marjina gordina | 28.836 | 32.037 | 17.862 | 21.675 |
| + Diru-laguntzak | 15.725 | 18.304 | 4.295 | 4.314 |
| - Gastu finkoak | 31.856 | 31.261 | 21.795 | 20.183 |
| = Marjina garbia. | -3.020 | 776 | -3.933 | 1.493 |
| EMAITZAK UNITATEKO (euroak) | | | | |
| Marjina garbia behi/ardiko | -43,4 | 11,50 | -5,61 | 2,18 |
| Marjina garbia/GLU | -2.567 | 659 | -3.819 | 1.433 |

(1): Kilo haragi: kanalean prestatutako behien kilo kopurua. Ardi bizien kilo kopurua.

(2): INTIA-ITGren kasuan, diru-sarrera horiek (zerbitzuen edo beste batzuen bidezkoak) produktu gordinen sartuta daude.

Iturria: INTIA-ITG, Nafarroako Nekazaritzako Elikagaien Industriako Teknologia eta Azpiegituren Institutua, BTK Sailaren memoria (Berrikuntza, Teknologia eta Kudeaketa).

INTIA-ITGk behi-haragia eta ardi-haragia ekoizten duten eliteko ustategien emaitza ekonomikoak ere jasotzen ditu. 2014 ekitaldian, laginean ikusten da, 2013an bezala, batez besteko produktu gordinak behera egin duela zertxobait (-% 0,1). Positiboa da elikagaien gastuen beherakada (-% 6,2), baita gastu aldakorren (-% 5,9) eta finkoen beherakada ere (-% 1,9); horrek guztiak, jasotako diru-laguntzen gorakadarekin batera (% 16,4), marjina garbi positiboa ekarri du (776 €), 2013an erregistratutakoa baino askoz ere altuagoa (-3.020 €).

Nafarroako ardi-aziendaren negozioaren balantzea behi-aziendarenaren antzekoa da: 2013ko ekitaldiaren aldean batez besteko produktu gordinaren beherakada txikia du abiapuntu (-% 2,1), baina galera hori elikagaien gastuen (-% 15,4) eta gastu finkoen (-% 7,4) beherakadarekin orekatzen da. Horrela, ondoriozko marjina garbia aurreko urtekoa baino askoz ere positiboagoa da (1.493 €, 2014an eta -3.933 €, 2013an); beraz, ardi-ko eta giza lan-unitateko marjina garbiak ere positiboak dira, eta 2011ko balioetara bueltatzen dira.

84. taula ITGren kudeaketa tekniko-ekonomikoaren kontrolaren mende dauden txerri-ustiategien emaitzak

| Kontzeptua | Esne-txerrikumeen ekoizpena ⁽¹⁾ | | Ziklo itxia ⁽²⁾ | |
|--|--|---------|----------------------------|-----------|
| | 2013 | 2014 | 2013 | 2014 |
| EZAUGARRI TEKNIKO-EKONOMIKOAK | | | | |
| - Aztertutako ustiategi kopurua | 12 | 12 | 21 | 19 |
| - Ustiategi bakoitzeko txerri eme kopurua | 169,9 | 169,59 | 361,3 | 377,4 |
| - Txerri eme bakoitzeko saldutako esne-txerrikumeak | 21,8 | 23,53 | 0,7 | 1,1 |
| - Txerri eme bakoitzeko saldutako txerri gizendu kopurua | 0,34 | 0,21 | 18,9 | 20,7 |
| - Txerri eme bakoitzeko saldutako txerriak, guztira | 22,2 | 23,7 | 19,7 | 21,9 |
| - Saldutako esne-txerrikumeen batez besteko pisua (kg) | 17,0 | 17,6 | 8,6 | 11,5 |
| - Saldutako txerri lodituen batez besteko pisua (kg) | 122,5 | 110,0 | 109,1 | 109,1 |
| - Saldutako esne-txerrikumeak + txerri lodituak | 3.763 | 4.027 | 7.106 | 8.247 |
| - Esne-txerrien batez besteko prezioa (euro) | 39,6 | 40,7 | 31,7 | 34,0 |
| - Txerri-haragi kilo baten batez besteko prezioa (euro) | 1,33 | 1,21 | 1,3 | 1,2 |
| - GLU guztira | 0,9 | 0,9 | 2,6 | 2,8 |
| EMAITZA EKONOMIKOAK (euroak) | | | | |
| - Produktu gordina | 169.790 | 182.168 | 1.065.091 | 1.089.470 |
| • Gastu aldakorra | 121.771 | 112.536 | 757.339 | 761.161 |
| - Marjina gordina | 48.020 | 69.632 | 307.752 | 328.309 |
| • Gastu finkoak | 43.141 | 39.425 | 203.222 | 224.455 |
| - Marjina garbia | 4.879 | 30.206 | 104.530 | 103.855 |

(1): 2014an, 3 ustiategik ekoitzi zituzten 26,13 kg arteko esne-txerrikumeak; 9 ustiategik, berriz, esnea edateari utzi ziotenak, 6,69 kiloko txerrikumeak..

(2): Saltzen duten ekoizpen osoaren % 80 baino gehiago txerri loditua duten ustiategiak.

Iturria: INTIA-ITG, Nafarroako Nekazaritzako Elikagaien Industriako Teknologia eta Azpiegituren Institutua, BTK Sailaren memoria (Berrikuntza, Teknologia eta Kudeaketa).

Nafarroako txerri-ustiategietan, azken urteotan, askotariko emaitzak izan dira. 2014an, aurreko bi urteetan ez bezala, emaitzak askoz ere hobekak izan dira esne-txerrikumeak ekoizten dituzten ustiategietan (marjina gordinak % 45 egin du gora), ohikoagoak diren ziklo itxikoen aldean (% 6,7). Marjina garbia % 519,2 handiagoa izan da lehen ustiategi moten kasuan, 2013ko marjinaren aldean, gastu aldakorrek (-% 7,6) eta finkoek (-% 8,6) nabarmen egin dutelako behera. Ziklo itxiko ustiategien kasuan, marjina gordinaren gorakada ere nabarmendu behar da (% 6,7), baina hori ez da nahikoa izan gastu aldakorren (% 0,5) eta finkoen (% 10,4) gorakadari eusteko; beraz, marjina garbia 2013ko ekitaldikoa baino pixka bat baxuagoa da (-% 0,6).

3.3 ABELTZAINZAKO PRODUKTUEN PREZIOAK

Abeltzaintzako prezioetan, 2011n eta 2012an ez bezala, 2013an eta 2014an beherakadak izan dira nagusi. Batez ere haragiarengan izan dute eragina; behera egin du txerri-haragiak (% 7,6), untxiarenak (% 6,6), antxumearenak (% 6,2), oilaskoarenak (% 5,1), behi zaharrenak (% 3,3) eta arkumearenak (% 2); urtebeteko txahalaren prezioa, berriz, berdin mantendu da.

Produktuen artean, behi-esnea % 3,8 garestitu da eta ardi-esnea % 1,1 merkatu. Arrautzen prezioa 2012koa prezioen mailaren laurden bat beherago geratzen da eta artileak azken urteotako prezio berari eusten dio.

Ardiaren eta ahuntzaren produktuek beherakada txikiak izan zituzten, prezioari dagokionez, 2013an, eta gainerako haragiak gorakada txikien ekitaldietatik zetozen.

| 85. taula Animalia-produktuen prezioak. Urteko batez bestekoak | | | | |
|--|-----------------|-------------|-------------|------------------|
| | <i>(euroak)</i> | | | |
| Produktua | 2012 | 2013 | 2014 | % Δ 14/13 |
| Hornidurarako ganadua (100 kg/bizirik): | | | | |
| – Urtebeteko txahala | 206,49 | 209,59 | 209,61 | 0,0 |
| – Behi zaharra | 122,10 | 121,70 | 117,67 | -3,3 |
| – Esneko arkumea | 397,14 | 387,94 | 380,14 | -2,0 |
| – Axoa | 578,08 | 539,23 | 505,52 | -6,2 |
| – Txerri gizendua | 133,17 | 137,92 | 127,40 | -7,6 |
| – Granjako oilaskoak | 116,49 | 114,78 | 108,92 | -5,1 |
| – Untxiak | 179,98 | 191,62 | 178,89 | -6,6 |
| Abeltzaintzako produktuak: | | | | |
| – Behi-esnea (100 litro) | 31,84 | 32,03 | 33,25 | 3,8 |
| – Ardi-esnea (100 litro) | 98,60 | 95,08 | 94,08 | -1,1 |
| – Oiloaren arrautzak (100 dozena) | 157,33 | 115,29 | 116,98 | 1,5 |
| – Artilea (100 kg.) | 6,86 | 6,86 | 6,86 | 0,0 |

Iturria: Urte bakoitzeko abenduko Nekazaritza Koiunturaren Aldizkaria. Nafarroako Gobernua.

2014



3. INDUSTRIA

1. IKUSPEGI OROKORRA

1.1 JARDUERAREN BILAKAERA

Testuinguru orokorra argi eta garbi aldekoagoa izanik, 2014an Nafarroako industria-sektorearen jarduera pixka bat suspertu da, aurreko ekitaldian erregistratutako joera negatiboari aurre eginez.

Zehazki, industriaren balio erantsi gordina % 3.1 hazi zen Nafarroan 2014. urtean, aurreko ekitaldiko % 1,2ko beherakadari aurre eginez. Halaber, industria etengabe hazi da urtean zehar, eta azken hiruhilekoan moteltze arina erregistratu da (% 2,7, % 3,5, % 3,5 eta % 2,4 lehen hiruhilekotik laugarren hiruhilekora, hurrenez hurren). Zentzu horretan nabarmentzekoa da 2014an Nafarroako industria-jardueran izandako hazkundera argi eta garbi Estatuan erregistratutakoa (% 1,5) baino handiagoa izan dela.

| 86. taula | | Industriaren produkzio-jardueraren bilakaera | |
|-----------|-----------------|--|-----|
| Urtea | IPI* - Nafarroa | IPI* - Estatia | (%) |
| 2005 | 0,2 | 0,8 | |
| 2006 | 4,6 | 3,9 | |
| 2007 | 0,3 | 2,0 | |
| 2008 | 0,4 | -7,3 | |
| 2009 | -20,3 | -15,8 | |
| 2010 | 6,4 | 0,8 | |
| 2011 | -2,1 | -1,6 | |
| 2012 | -8,0 | -6,7 | |
| 2013 | -1,6 | -1,5 | |
| 2014 | 3,9 | 1,3 | |

(*): Egutegiaren eragina zuzendutako datuak.

Iturria: Nafarroako Gobernuaren Ekonomia eta Ogasun Departamentua (NEI) eta EIN.

Industria-jardueraren beste adierazle batzuei dagokienez, Nafarroako Estadistika Institutuaren arabera Industria Produkzioaren Indizea % 3,9 hazi da 2014an, 2013an erregistratutako % 1,6ko beherakadari aurre eginez, eta Estatuan ere hazkundera erregistratu da: % 1,3koa (-% 1,5 2013an).

87. taula Nafarroako Industria Produkzioaren Indizearen (IPI) bilakaera, ondasunen jomuga ekonomikoaren arabera

| Kontzeptua | 2012 | 2013 | 2014 |
|----------------------|-------|------|------|
| Bitarteko ondasunak | -6,7 | -4,6 | 10,0 |
| Ekipamendu-ondasunak | -10,3 | 3,3 | 3,4 |
| Kontsumo-ondasunak | -4,9 | -0,2 | 3,2 |
| Energia | -7,1 | -6,8 | -6,0 |

Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua.

Ondasun mota desberdinei dagokienez, 2014an hazkunde orokorrak ikusi dira, energiaren sektorean izan ezik, baina oro har indizeek hobera egin dute nabarmen 2013ko urtekoekin konparatuta. Nabarmentzekoa da bitarteko ondasunetan erregistratutako gorakada, 2013an balio negatiboak izatetik (-% 4,6) 2014an % 10,0 haztera igaro baita. Halaber, ekipamendu-ondasunen eta kontsumo-ondasunen produkzioak hobera egin du 2014an (% 3,4 eta % 3,2, hurrenez hurren, 2013ko % 3,3aren eta -% 0,2aren aldean). Bestetik, energiaren IPIak beheraka jarraitzen du (-% 6,0), baina pixka bat hobera egin du 2013. urtekoaren aldean (-% 6,8).

88. taula Industria Produkzioaren Indizearen bilakaera Nafarroan, jarduera-adarraren arabera

| Kontzeptua | 2012 | 2013 | 2014 |
|------------------------------------|-------|------|-------|
| Nekazaritzako elikagaien industria | -5,8 | -2,2 | 0,4 |
| Metalurgia eta produktu metalikoak | -6,2 | 0,6 | 11,1 |
| Papera, zura eta altzariak | -5,9 | -4,4 | -12,5 |
| Garraio-materiala | -14,2 | 2,0 | 6,1 |
| Hainbat manufaktura-industria | -3,9 | -3,4 | 6,1 |

Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua.

Industria Produkzioaren Indizea jarduera-adarren arabera aztertzen badugu, adar guztietan, zuraren, paperaren eta altzarien adarrean izan ezik, hobekuntza nabari da 2014an aurreko ekitaldian erregistratutako bilakaeraren aldean. Zehazki, Metalurgiaren eta produktu metalikoen adarrak % 11,1 egin du gora (% 0,6 2013an), eta Nekazaritza-elikagaien industrian ere gorakada izan da (% 0,4 2014an eta -% 2,2 2013an, hurrenez hurren). Garraio-materialean eta Hainbat manufaktura-industriatan, berriz, % 6,1eko hobekuntza nabari da (% 2,0 eta -% 3,4 2013an, hurrenez hurren). Nabarmentzekoa da, halaber, Paperaren, zuraren eta altzarien adarraren beheranzko bilakaera, balio negatiboekin eusten baitie (-% 12,5 2014an eta -% 4,4 2013an, hurrenez hurren).

1.2 ENPRESAK ETA ENPLEGUA

Gizarte Segurantzaren datuek adierazten dutenez, 2014an Nafarroako industria-jardueran erregistratutako hobekuntza islatu da, halaber, sektorean erregistratutako enpresa kopuruaren eta enplegu-sorkuntzaren bilakaeran, eta kasu batean zein bestean gorakada nabari da joan den ekitaldiaren aldean.

| 89. taula Industria-sektoreko langile eta enpresen kopuruaren bilakaera | | | | |
|---|----------|------|----------|------|
| Urtea | Enpresak | % Δ | Enplegua | % Δ |
| 2005 | 2.792 | -0,1 | 65.379 | -0,2 |
| 2006 | 2.761 | -1,1 | 65.593 | 0,3 |
| 2007 | 2.854 | 3,4 | 69.265 | 5,6 |
| 2008 | 2.861 | 0,2 | 69.704 | 0,6 |
| 2009 | 2.728 | -4,6 | 64.440 | -7,5 |
| 2010 | 2.654 | -2,7 | 62.760 | -2,6 |
| 2011 | 2.617 | -1,4 | 62.824 | 0,1 |
| 2012 | 2.539 | -3,0 | 59.026 | -6,0 |
| 2013 | 2.456 | -3,3 | 56.545 | -4,2 |
| 2014 | 2.460 | 0,2 | 57.348 | 1,4 |

Iturria: Nafarroako Ganbera, Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiaren datuetan oinarrituta.

Zehazki, Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiak eskainitako informazioaren arabera, industria-enpresen batez besteko kopurua 2.460 izan da 2014an, 2013an zenbatutakoa baino % 0,2 handiagoa, eta enpresa horiek 57.348 pertsonari eskaini diete enplegua 2014an, kopuru hori % 1,4 handiagoa izanik aurreko ekitaldian erregistratutakoa baino Hala eta guztiz ere, ElNen Biztanleria Aktiboaren Inkestaren arabera, Nafarroan industria-enpleguak pixka bat behera egin du 2014an: % 0,6.

2. INDUSTRIA-EGITURA

Jarraian, Nafarroako industria sektorea aztertuko dugu, Foru Erkidegoan garrantzi handieneko industria-sektoreak zeintzuk diren jakiteko. Horretarako, hasteko, enpleguaren eta balio erantsiaren berri izango dugu jarduera-azpisektorearen arabera, EIN Estatistikako Institutu Nazionalaren industria-inkestan bildutako informazioa aintzat hartuta (2013ko ekitaldiko datuak dira azkenak). Azterketa horren osagarri, Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganberak emandako informazioa aurkeztuko dugu: industria-arloko enpresen eta langileen kopurua enpresaren tamainaren arabera (Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorraren datuak), eta Nafarroako industria-enpresa nagusiak (kasu horretan, 2014ko ekitaldiko informazioa izango da).

2.1 JARDUERA-AZPISEKTORE GARRANTZITSUENAK IDENTIFIKATZEA

EINren industria-inkestako datuei erreparatuta, Nafarroako industrian guztira 60.790 langile zeuden 2013. urtean, eta 4.002,5 milioi euroko balio erantsia sortzen zuten (fakturazioa 16.680,9 milioi euro izan zen, eta bitarteko kontsumoak, aldiz, 12.678,3 milioi euro). Nafarroako industrian okupatutakoek Estatutako industria-enpleguaren guztizkoaren % 3,1 osatzen dute, eta fakturazioari dagokionez, parte-hartzearen ehunekoa zertxobait txikiagoa da (% 2,7).

Nafarroako industria sektorea (EJSN-2009 sailkapenaren arabera) nola banatzen den aztertuz gero, jarduera nagusiak honako hauek dira: Ibilgailu motordunen, atoiari eta erdi-atoiari fabrikazioa (guztizkoaren % 18,4); Elikagaien industria (% 15,8); Produktu metalikoen fabrikazioa, makineria eta ekipoen salbu (% 11,8); Makineriaren eta ekipoen fabrikazioa (% 8,1); eta Kautxu produktuen eta plastikoen fabrikazioa (% 6,0). Nafarroako industria-enpleguaren guztizkoaren % 60,1 sektore horietan metatzen da.

Parte-hartze garrantzitsua dute honako hauek ere: Material eta ekipo elektriko fabrikazioa (% 5,4), Metalurgia (% 4,5%), Paperaren industria (% 3,5), Metalikoak ez diren beste produktu mineral batzuen fabrikazioa (% 3,4), Makineria eta ekipoen konponketa eta instalazioa (% 3,0), Informatikako, elektronikako eta optikako produktuen fabrikazioa (% 2,5), Hondakinak bildu, tratatu eta deuseztatzea (% 2,2), eta Edariaren fabrikazioa (% 2,1); gainerako jardueren garrantzia % 2tik beherakoa da jada.

90. taula Enplegua eta sortutako Balio Erantsia Nafarroako industrian, jarduera-azpisektorearen arabera, 2013

(m eurotan)

| Sektorea (EJSN-2009) | Enplegua | Sarrerak | Kontsumoak | Balio Erantsia |
|--|---------------|-------------------|-------------------|------------------|
| Elikagaien industria | 9.576 | 2.772.757 | 2.219.816 | 552.941 |
| Edarien fabrikazioa | 1.277 | 407.970 | 307.435 | 100.535 |
| Ehunen industria | 772 | 76.927 | 58.054 | 18.873 |
| Janzkiak egitea | 239 | 33.813 | 20.112 | 13.701 |
| Larruaren eta oinetakoen industria | 248 | 26.545 | 20.424 | 6.121 |
| Egurraren eta artelazkiaren industria | 1.021 | 123.827 | 83.507 | 40.320 |
| Paperaren industria | 2.134 | 627.078 | 489.284 | 137.794 |
| Arte grafikoak eta grabatutako euskarrien erreprodukzioa | 871 | 97.316 | 59.737 | 37.579 |
| Industria kimikoa | 1.084 | 325.358 | 240.240 | 85.118 |
| Botiken fabrikazioa | 887 | 355.135 | 253.637 | 101.498 |
| Kautxu produktuen eta plastikoen fabrikazioa | 3.631 | 648.286 | 478.210 | 170.076 |
| Metalikoak ez diren beste prod. mineral batzuen fabrikazioa | 2.051 | 483.634 | 360.344 | 123.290 |
| Metalurgia | 2.717 | 924.715 | 584.074 | 340.641 |
| Prod. metalikoen fabr., makineria eta ekipoen salbu | 7.203 | 1.218.221 | 851.029 | 367.192 |
| Informatikako, elektronikako eta optikako produktuen fabrikazioa | 1.525 | 249.025 | 119.736 | 129.289 |
| Material eta ekipo elektriko fabrikazioa | 3.282 | 644.126 | 477.829 | 166.297 |
| Beste inon sailkatu gabeko mak. eta ekipoen fabrikazioa | 4.931 | 1.102.737 | 841.244 | 261.493 |
| Ibilgailu motordunen, atoiaren eta erdiatoiaren fabrikazioa | 11.171 | 4.668.171 | 3.848.748 | 819.423 |
| Beste garraio material baten fabrikazioa | 176 | 25.917 | 18.661 | 7.256 |
| Altzarien fabrikazioa | 1.041 | 105.790 | 79.408 | 26.382 |
| Manufakturako beste industria batzuk | 338 | 30.820 | 18.588 | 12.232 |
| Makineria eta ekipoen konponketa eta instalazioa | 1.823 | 164.300 | 73.503 | 90.797 |
| Energia elek., gasaren, lurrinaren eta aire girotuaren hornidura | 612 | 1.248.845 | 993.524 | 255.321 |
| Ura hartu, araztu eta banatzea | 478 | 73.698 | 36.825 | 36.873 |
| Hondakinak bildu, tratatu eta deuseztatzea | 1.363 | 208.824 | 127.164 | 81.660 |
| Gainerako jarduerak | 339 | 37.056 | 17.214 | 19.842 |
| Industria, guztira | 60.790 | 16.680.891 | 12.678.347 | 4.002.544 |

Iturria: EIN, Industria Inkesta.

Industriaren balio erantsia jarduera-sektorearen arabera nola banatzen den aztertuz gero, kasu honetan ere Ibilgailu motordunen, atoiaren eta erdiatoiaren fabrikazioa (guztizkoaren % 20,5); Elikagaien industria (% 13,8); Produktu metalikoen fabrikazioa, makineria eta ekipoen salbu (% 9,2); Metalurgia (% 8,5); eta Makineriaren eta ekipoen fabrikazioa (% 6,5) dira nagusi; izan ere, orokorrean hartuta, Nafarroako industriak sortutako balio erantsiaren guztizkoaren % 58,5 osatzen du.

Balio erantsiari dagokion azterketarekin jarraituta, parte-hartze garrantzitsua dute honako sektore hauek ere: Energia elektrikoaren, gasaren, lurrinaren eta aire girotuaren hornidurak (% 6,4); Kautxu produktuen eta plastikoen fabrikazioak (% 4,2); Material eta ekipo elektriko fabrikazioak (% 4,2); Paperaren industriak (% 3,4); Informatikako, elektronikako eta optikako produktuen fabrikazioak (% 3,2); eta Metalikoak ez diren beste produktu mineral batzuen fabrikazioak (% 3,1); aitzitik, gainerako jarduerak ez dute % 3a gainditzen.

91. taula Jarduera-adarrek industriaren balio erantsiaren eta enpleguaren guztizkoan duten parte-hartzea, 2013

| Sektorea (EJSN-2009) | % enplegua | Sektorea (EJSN-2009) | % B. Erantsia |
|--|--------------|--|---------------|
| Ibilgailu motordunen, atoi en eta erdiatoi en fabrikazioa | 18,4 | Ibilgailu motordunen, atoi en eta erdiatoi en fabrikazioa | 20,5 |
| Elikagai en industria | 15,8 | Elikagai en industria | 13,8 |
| Prod. metalik. fabr., makineria eta ekipoak salbu | 11,8 | Prod. metalik. fabr., makineria eta ekipoak salbu | 9,2 |
| Beste inon sailkatu gabeko mak. eta ekipo en fabr. | 8,1 | Metalurgia | 8,5 |
| | | Beste inon sailkatu gabeko makineria en eta ekipo en fabrikazioa | 6,5 |
| Kautxu produktuen eta plastikoen fabrikazioa | 6,0 | Energia elek., gasaren, lurrinaren eta aire girotuan horn. | 6,4 |
| Material eta ekipo elektriko fabrikazioa | 5,4 | Kautxu produktuen eta plastikoen fabrikazioa | 4,2 |
| Metalurgia | 4,5 | Material eta ekipo elektriko fabrikazioa | 4,2 |
| Paperaren industria | 3,5 | | |
| Metalikoak ez diren beste produktu mineral batzuen fabrikazioa | 3,4 | Paperaren industria | 3,4 |
| Makineria eta ekipo en konponketa eta instalazioa | 3,0 | Infor., elektronikako eta optikako produktuen fabr. | 3,2 |
| Informatikako, elektronikako eta optikako prod. fab. | 2,5 | Metalikoak ez diren beste prod. mineral batzuen fab. | 3,1 |
| Hondakinak bildu, tratatu eta deuseztatzea | 2,2 | Botiken fabrikazioa | 2,5 |
| Edarien fabrikazioa | 2,1 | Edarien fabrikazioa | 2,5 |
| Industria kimikoa | 1,8 | Makineria eta ekipo en konponketa eta instalazioa | 2,3 |
| Altzarien fabrikazioa | 1,7 | Industria kimikoa | 2,1 |
| Egurraren eta artelazkiaren industria | 1,7 | Hondakinak bildu, tratatu eta deuseztatzea | 2,0 |
| Botiken fabrikazioa | 1,5 | Egurraren eta artelazkiaren industria | 1,0 |
| Arte grafikoak eta grabatutako euskarrien erreproduktzioa | 1,4 | Arte grafikoak eta grabatutako euskarrien erreproduktzioa | 0,9 |
| Ehunen industria | 1,3 | Ura hartu, araztu eta banatzea | 0,9 |
| Energia elek., gasaren, lurrinaren eta aire girotua horn. | 1,0 | Altzarien fabrikazioa | 0,7 |
| Ura hartu, araztu eta banatzea | 0,8 | Gainerako jarduerak | 0,5 |
| Gainerako jarduerak | 0,6 | Ehunen industria | 0,5 |
| Manufakturako beste industria batzuk | 0,6 | Janzkiak egitea | 0,3 |
| Larruaren eta oinetako en industria | 0,4 | Manufakturako beste industria batzuk | 0,3 |
| Janzkiak egitea | 0,4 | Beste garraio-material baten fabrikazioa | 0,2 |
| Beste garraio material baten fabrikazioa | 0,3 | Larruaren eta oinetako en industria | 0,2 |
| Industria, guztira | 100,0 | Industria, guztira | 100,0 |


Iturria: EIN, Industria Inkesta eta geuk egina.

Gorago, enplegua eta balio erantsia sektorearen arabera nola banatzen ziren aztertu dugu; horri esker, Nafarroako industrian jarduera garrantzitsuenak zeintzuk diren jakin dezakegu. Ildo beretik, Nafarroako industria-jarduerari, oro har, ekarpen handiena egiten dieten jarduerak honako hauek dira: Ibilgailu motordunen, atoi en eta erdiatoi en fabrikazioa; Elikagai en industria; Produktu metalikoen fabrikazioa, makineria eta ekipoak salbu; Makineria en eta ekipo en fabrikazioa; eta Kautxu produktuen eta plastikoen fabrikazioa.

Eta jardueran hainbesteko garrantzirik ez duten arren, honako hauek ere nabarmenduko ditugu: Material eta ekipo elektriko fabrikazioa; Metalurgia; Energia elektrikoaren, gasaren, lurrinaren eta aire girotuaren hornidura; Paperaren industria; eta Material eta ekipo elektriko fabrikazioa.

15. grafikoa Jarduera-azpisektoreek Nafarroako industriaren enpleguaren eta balio erantsiaren guztizkoan duten parte-hartzea, 2013

(% Balio Erantsia)



- | | |
|--|--|
| 1 Elikagaien industria | 14 Prod. metalik. fabr., makineria eta ekipoak salbu |
| 2 Edarien fabrikazioa | 15 Infor., elektronikako eta optikako produktuen fabrikazioa |
| 3 Ehunen industria | 16 Material eta ekipo elektriko fabrikazioa |
| 4 Jantzikiak egitea | 17 Beste inon sailkatu gabeko makineriaren eta ekipoen fab. |
| 5 Larruaren eta oinetakoen industria | 18 Ibilgailu motordunen, atoen eta erdiatoien fabrikazioa |
| 6 Egurraren eta artelazkiaren industria | 19 Beste garraio material baten fabrikazioa |
| 7 Paperaren industria | 20 Altzarien fabrikazioa |
| 8 Arte grafikoak eta grabatutako euskarrien erreprod. | 21 Manufakturako beste industria batzuk |
| 9 Industria kimikoa | 22 Makineria eta ekipoen konponketa eta instalazioa |
| 10 Botiken fabrikazioa | 23 Energia elektr., gasaren, lurrinaren eta aire girotuaren horni. |
| 11 Kautxu produktuen eta plastikoen fabrikazioa | 24 Ura hartu, araztu eta banatzea |
| 12 Metalikoak ez diren beste produktu mineral batzuen fab. | 25 Hondakinak bildu, tratatu eta deuseztatzea |
| 13 Metalurgia | 26 Gainerako jarduerak |

Iturria: EIN, Industria Inkesta eta geuk egina.

2.2 ENPRESEN TAMAINA, AZPISEKTOREAREN ARABERA

Nafarroako industriaren jarduera garrantzitsuenak zeintzuk diren identifikatu dugunez, jarraian, enpresen eta langileen kopurua aztertuko dugu enpresaren tamainaren arabera; hartara, jarduera-sektore bakoitzeko enpresa-sarearen ezaugarriak zeintzuk diren hobeto jakingo dugu. Horrela, bada, Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganberak emandako informazioaren arabera, 2014. urtean guztira 2.460 enpresa daude Nafarroan, eta guztira 57.348 langile dituzte.

Industria-enpresa horietatik, gehien-gehienek honako azpisektore hauetan jarduten dute: Elikagaiak, edariak eta tabakoa (guztizkoaren % 22,7), eta Produktu metalikoen lehen eraldaketa eta fabrikazioa (% 22,3); bi sektore horietan metatzen da Nafarroako industria-enpresen guztizkoaren % 45.

Enpresa kopuruari dagokionez, ranking horretan atzerago agertzen dira honako azpisektore hauek: Makineria eta ekipo mekanikoak (% 6,4); Papera eta arte grafikoak (% 5,2); Makineria eta ekipoen konponketa eta instalazioa (% 5,0); Mineralen erauzketa eta haien eraldatuak (% 4,8); Egurraren eta artelazkiaren industria, altzariak izan ezik (% 4,7); Garraio-materiala (% 4,4); Altzarien fabrikazioa eta beste manufaktura-industria batzuk (% 4,1); Kautxu eta plastikoen manufaktura (% 4,1); eta Industria kimikoa (% 3,7). Gainerako jardueren parte-hartzea % 3tik beherakoa da.

92. taula Industria-enpresen kopurua tamainaren eta jarduera-sektorearen arabera, 2014

| SEKTOREA (EJSN-2009) | 1-5 lang. | 6-50 lang. | 51-100 lang. | 101-500 lang. | >500 lang. | Guztira | Indus osoaren %-a |
|--|--------------|------------|--------------|---------------|------------|--------------|-------------------|
| Elikagaiak, edariak eta tabakoa | 292 | 214 | 24 | 27 | 2 | 560 | 22,7 |
| Produktu metalikoak (lehen eraldaketa eta fabr.) | 274 | 242 | 19 | 12 | 1 | 548 | 22,3 |
| Makineria eta ekipo mekanikoak | 71 | 66 | 12 | 10 | 0 | 159 | 6,4 |
| Papera eta Arte Grafikoak | 77 | 41 | 3 | 8 | 0 | 129 | 5,2 |
| Makineria eta ekipoen konponketa eta instalazioa | 83 | 37 | 1 | 1 | 1 | 122 | 5,0 |
| Mineralen erauzketa eta haien eraldatuak | 56 | 55 | 1 | 7 | 0 | 118 | 4,8 |
| Egurra eta artelazkia, altzariak izan ezik | 68 | 47 | 1 | 0 | 0 | 117 | 4,7 |
| Garraio-materiala | 33 | 38 | 12 | 22 | 3 | 108 | 4,4 |
| Altzarien fabr.; beste manuf.-industria batzuk | 68 | 30 | 2 | 1 | 0 | 101 | 4,1 |
| Kautxu eta plastikoen manufaktura | 36 | 48 | 6 | 10 | 0 | 100 | 4,1 |
| Industria kimikoa | 54 | 30 | 4 | 2 | 1 | 91 | 3,7 |
| Ehunak, larrua eta oinetakoak | 43 | 22 | 3 | 1 | 0 | 67 | 2,7 |
| Ura hartu, araztu eta banatzea | 48 | 15 | 1 | 2 | 0 | 66 | 2,7 |
| Birziklatzea | 27 | 26 | 2 | 2 | 0 | 58 | 2,3 |
| Makineria eta ekipo elektrikoak | 26 | 18 | 7 | 4 | 1 | 56 | 2,3 |
| Energia elektrikoaren ekoizpena eta banaketa | 36 | 14 | 0 | 2 | 0 | 52 | 2,1 |
| Saneamendu publikoko jarduerak | 4 | 7 | 0 | 0 | 0 | 11 | 0,4 |
| Industria, guztira | 1.295 | 949 | 98 | 109 | 9 | 2.460 | 100,0 |

Iturria: Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera (Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra: 2014. urtean Erregimen Orokorrean afiliatutako enpresen batez besteko kopurua) eta geuk egina.

Nafarroako industria-enpresen langile kopuruari dagokionez, 2014. urtean enpresa horien guztizkoaren % 52,7k 6 langile baino gutxiago zituen, % 38,6k 6-50 langile zituen, % 4k 51-100 langile, % 4,4k 101-500 langile eta soilik % 0,4k (9 enpresa) 500 langile baino gehiago. Zifra horiei erreparatuta, Nafarroako industria-sarean ETEak dira nagusi, argi eta garbi.

Enpresen tamaina jarduera-sektorearen arabera aztertuz gero, enpresa handienak (500 enplegutik gora) honako sektore hauetan sartzen dira: Elikagaiak, edariak eta tabakoa; Produktu metalikoak (lehen eraldaketa eta fabrikazioa); Makineria eta ekipoen konponketa eta instalazioa; Makineria eta ekipo elektrikoa; Industria kimikoa; eta Garraio-materiala (funtsean, ibilgailu automobilen eta haien piezen eraikuntza). Azken sektore horren kasua nabarmendu nahi dugu; izan ere, ez ditu enpresa asko biltzen (enpresen guztizkoaren % 4,4ko kuota du), baina Nafarroako industria-jardueran bereziki garrantzitsua da, enpresa handiak dituelako.

Alderdi horiek agerian geratzen dira jarduerak enpleguaren guztizkoan duten parte-hartzeari eta enpresaren tamainaren araberako enplegu-banaketari erreparatuz gero; informazio horri esker, alde batetik, aurreko atalean erabili dugun informazioa (EINK emandakoa) kontrastatu eta berresten da eta, bestetik, enpresa-sarearen ezaugarriak hobeto ezagutzen dira.

Hartara, enpleguari ekarpen handia egiteaz gain, enpresa-sare aberatsa (enpresa kopuru handia) duten sektore garrantzitsuenak honako hauek dira: Elikagaiak, edariak eta tabakoa, eta Produktu metalikoak (lehen eraldaketa eta fabrikazioa).

93. taula Industriako langileen kopurua, enpresaren tamainaren eta jarduera-sektorearen arabera, 2014

| SEKTOREA (EJSN-2009) | 1-5 lang. | 6-50 lang. | 51-100 lang. | 101-500 lang. | >500 lang. | Guztira | Indus osoaren %-a |
|--|--------------|---------------|--------------|---------------|--------------|---------------|-------------------|
| Elikagaiak, edariak eta tabakoa | 688 | 3.604 | 1.619 | 4.819 | 1.269 | 11.999 | 20,9 |
| Garraio-materiala | 73 | 900 | 830 | 4.089 | 5.993 | 11.885 | 20,7 |
| Produktu metalikoak (lehen eraldaketa eta fabr.) | 650 | 4.193 | 1.403 | 2.543 | 258 | 9.048 | 15,8 |
| Makineria eta ekipo mekanikoak | 160 | 1.222 | 858 | 2.337 | 0 | 4.577 | 8,0 |
| Kautxu eta plastikoen manufakturak | 88 | 1.075 | 405 | 1.795 | 0 | 3.362 | 5,9 |
| Papera eta Arte Grafikoak | 176 | 704 | 231 | 1.687 | 0 | 2.797 | 4,9 |
| Makineria eta ekipo elektrikoak | 56 | 315 | 485 | 870 | 712 | 2.438 | 4,3 |
| Industria kimikoa | 107 | 520 | 279 | 544 | 616 | 2.065 | 3,6 |
| Mineralen erauzketa eta haien eraldatuak | 119 | 762 | 102 | 1.073 | 0 | 2.056 | 3,6 |
| Makineria eta ekipoen konponketa eta instalazioa | 189 | 520 | 77 | 151 | 699 | 1.635 | 2,9 |
| Birziklatzea | 72 | 406 | 148 | 506 | 85 | 1.217 | 2,1 |
| Altzarien fabr.; beste manuf.-industria batzuk | 137 | 467 | 132 | 242 | 0 | 978 | 1,7 |
| Egurra eta artelazkia, altzariak izan ezik | 180 | 639 | 75 | 0 | 0 | 895 | 1,6 |
| Ura hartu, araztu eta banatzea | 88 | 220 | 92 | 439 | 0 | 838 | 1,5 |
| Ehunak, larrua eta oinetakoak | 89 | 406 | 199 | 68 | 0 | 762 | 1,3 |
| Energia elektrikoaren ekoizpena eta banaketa | 63 | 215 | 0 | 439 | 0 | 717 | 1,3 |
| Saneamendu publikoko jarduerak | 10 | 70 | 0 | 0 | 0 | 80 | 0,1 |
| Industria, guztira | 2.944 | 16.237 | 6.934 | 21.602 | 9.632 | 57.348 | 100,0 |

Iturria: Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera (Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra: 2014. urtean Erregimen Orokorrean afiliatutako langileen batez besteko kopurua) eta geuk egina.

Bestalde, eta industria-enpleguaren guztizkoan parte-hartze handia izan duten jarduerak bezala, enpresa handi gutxi batzuek eragindako enplegua bada ere, ondorengo sektoreak nabarmentzen dira: Garraio-materiala, eta Makineria eta ekipo mekanikoak, Kautxu eta plastikoen manufakturak, eta hein txikiagoan, honako jarduera hauek: Papera eta arte grafikoak; Mineralen erauzketa eta haien eraldatuak, Makineria eta ekipo elektrikoak, eta Industria kimikoa.

Azkenik, enpleguari dagokionez parte-hartze txikiagoa dute honako sektore hauek: Makineria eta ekipoen konponketa eta instalazioa; Birziklatzea; Altzarien fabrikazioa eta beste manufaktura-industria batzuk; Egurraren eta artelazkiaren industria (enpresa-sare aberatsa du jarduera horrek, bosgarren azpisektorea izanik enpresa kopuruari dagokionez); Ura hartu, araztu eta banatzea; Ehunak, larrua eta oinetakoak; Energia elektrikoaren ekoizpena eta banaketa; eta Saneamendu publikoko jarduerak.

2.3 ENPRESA GARRANTZITSUENAK ETA ATZERRIKO KAPITALAREN PARTE-HARTZEA

Nafarroako industria-egitura aztertzeari buruzko kapitulu hau amaitzeko, Foru Erkidegoko industria-enpresa garrantzitsuenak zeintzuk diren aztertuko dugu labur-

labur, baita kapital multinazionalak Nafarroako enpresetan zer nolako sarpena izan duen ere (betiere Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganberaren Industria-enpresen direktorioan oinarrituta).

Enpresa garrantzitsuenei dagokienez, hurrengo koadroan, 2014. urtean 250 enplegu baino gehiago dituzten Nafarroako industria-enpresa nagusiak (29 enpresa) aipatuko ditugu, eta zein herritan dauden, enpleguaren zein estratatukoak diren eta zer jarduera egiten duten (EJSN-2009 sailkapenaren arabera) ere zehaztuko dugu.

Bukatzeko, kapital multinazionalak Nafarroako enpresetan izan duen sarpenari dagokionez, Nafarroan egin diren atzerriko inbertsioak elementu oso garrantzitsu izan direla nabarmendu behar dugu, azken urteotan industria-sektorea dinamizatzeko eta modernizatzeko (baina Erkidegotik kanpoko erabaki-zentroekiko mendetasun-maila handiagoa izatea dakar). Ildo horretan, gaur egun, Nafarroan kokatutako ehun industria-enpresa baino gehiagok kapital multinazionala dute, batez ere tamaina erdiko edo handiko enpresek, eta esportaziorako joera handia dute. Enpresa horiek honako azpisektore hauetakoak dira: garraio-materiala eta nekazaritzako elikagaien industria, baita beste azpisektore hauetakoak ere: Kautxua eta plastikoa, Metalurgia eta produktu metalikoak, Makineria eta ekipamendu mekanikoa, Industria kimikoa, Papera eta arte grafikoak, Makineria eta ekipamendu elektrikoa, eta Metalikoak ez diren produktu mineralak.

Testuinguru horretan, eta Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganberak Merkataritza eta Inbertsio Zuzendaritza Nagusiaren datuen arabera emandako informazioan oinarrituta, 2014ko ekitaldian 16.917,3 milako euro atzeritar inbertitu dira Nafarroako industrian (2013an 1.177,7 milako euro izan ziren); kapital hori, batik bat, Suitzatik, Frantziatik, Mexikotik, Alemaniatik, Portugaldik eta Panamatik iritsi da, eta honako sektore hauetara, bereziki, bideratu da: Edarian fabrikazioa eta Kautxu produktuen eta plastikoen fabrikazioa.

94. taula Nafarroako industria-entrepresa nagusiak, 2014

| Enpresa | Udalerria | Enplegu Estratua | Jarduera |
|--|--------------|------------------|--|
| Acciona Energía | Sarriguren | > 500 | Aurreko epigrafeetan zehaztu gabeko energia-produkzioa, itsasaldiek eragindako energia, eguzki-energia eta abar barnean hartuta. |
| Cementos Portland Valderrivas S.A. | Iruñea | > 500 | Zementu artifizialen fabrikazioa |
| Dana Automoción S.A. | Iruñea | > 500 | Ibilgailu automobiletarako osagaiak |
| Delphi Packard España S.L. | Iruñea | > 500 | Erabilerarako eta ekipamendurako material elektrikoaren fabrikazioa |
| Fagor Ederlan Tafalla S.C. | Tafalla | > 500 | Burdinazko eta altzairuzko piezen galdaketa |
| Gamesa Eólica S.L. | Sarriguren | > 500 | Beste inon sailkatu gabeko bestelako makina eta ekipo mekanikoen eraikuntza |
| Gamesa Innovation and Technology S.L. | Sarriguren | > 500 | Beste inon sailkatu gabeko bestelako makina eta ekipo mekanikoen eraikuntza |
| Jangarria S.L. | Antsoain | > 500 | Beste inon sailkatu gabeko bestelako elikagaiak egitea |
| KYB Suspensions Europe S.A. | Asiain | > 500 | Turismo-automobilak |
| Laboratorios Cinfa s.a. | Uharte | > 500 | Farmaziako espezialitateen eta bestelako produktuen fabrikazioa |
| SAS Autosystemtechnik S.A. | Aratzuri | > 500 | Ibilgailu automobilak eta haien motorrak egin eta muntatzea |
| Trw Automotive España S.L. | Iruñea | > 500 | Turismo-automobilak |
| Vega Mayor S.L. | Milagro | + de 500 | Fruta eta bestelako barazki-produktuen garbiketa, sailkapena eta ontziratzea |
| Viscofan S.A. | Iruñea | > 500 | Beste inon sailkatu gabeko bestelako elikagaiak egitea |
| Volkswagen Navarra s.a. | Aratzuri | > 500 | Ibilgailu automobilak eta haien motorrak egin eta muntatzea |
| Acciona Windpower S.A. | Sarriguren | 251- 500 | Motor eta turbinak (garraiorako direnak izan ezik) egitea |
| Dynamobel S.A. | Azkoien | 251- 500 | Metalezko altzarien fabrikazioa |
| Editorial Aranzadi S.A. | Zizur Txikia | 251- 500 | Liburuen argitalpena |
| Gelagri Industrial S.L.U. | Milagro | 251- 500 | Barazkien zuku eta kontserben fabrikazioa |
| Iberfruta Muerza S.A. | Azagra | 251- 500 | Barazkien zuku eta kontserben fabrikazioa |
| Industrias Alimentarias de Navarra S.A. | Alesbes | 251- 500 | Barazki-kontserbak |
| KYB Steering Spain S.A. | Orkoien | 251- 500 | Ibilgailu automobiletarako ekipo, osagai, osagarri eta ordezeko piezen fabrikazioa |
| M. Torres Diseños Industriales S.A. | Dorre | 251- 500 | Metalak lantzeko makinaren eraikuntza |
| Manufacturas del Aluminio Pamplona Sector Automoción | Orkoien | 251- 500 | Burdinazkoak ez diren metalezko eta haien aleazioen piezen galdaketa |
| Navarra de Componentes Electrónicos S.A. | Tutera | 251- 500 | Kontadore eta elektrizitatea neurtzeko, kontrolatzeko eta egiaztatzeko gailuen fabrikazioa |
| Tecnoconfort S.A. | Iruñea | 251- 500 | Ibilgailu automobiletarako bestelako ekipo, osagai, osagarri eta ordezeko pieza (ekipo elektrikoa izan ezik) |
| Timac Agro España S.A. | Orkoien | 251- 500 | Ongarrien fabrikazioa |
| Ultracongelados de la Ribera S.L. | Martzilla | 251- 500 | Arrainen eta bestelako itsas produktuen kontserben fabrikazioa |
| Zalain Transformados S.L. | Lesaka | 251- 500 | Altzairuzko hodien fabrikazioa |

Iturria: Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera. Camerdata datu-basea.

3. SIDERURGIA

3.1 IKUSPEGI OROKORRA

2014. urtearen ezaugarri nagusietako bat ziurgabetasuna izan da munduko ekonomia guztientzat; hala ere, esan daiteke urte ona izan dela munduko siderurgiaren sektorearentzat. Aipatu beharra dago altzairua ezinbesteko materiala dela gizarteek bizirik irauteko eta aurrera egiteko. Material hori gai da gaur egungo erronkei, baita etorkizunekoiei ere, aurre egiteko; izan ere, etengabe eraldatu da aurkeztu zaizkion erronkei erantzuteko, hala nola abiadura handiko trenbideak, eraikin altuak, automobilen diseinuak jasan duen iraultza, energia berriztagarriak, ur sakonetarako tresneria... Etorkizunari begira, sektore honek duen desfiorik garrantzitsuena ingurumenari loturik dago; izan ere, gero eta garrantzi handiagoa ematen zaio “zero hondakin” helburuari, baita materialak berrehabiltzeari eta birziklatzeari ere.

Horiek horrela, altzairuaren ekoizpen gordina guztira 1.665 milioi tonakoa izan zen 2014an. Kontsumoari dagokionez, World Steel Associationen azken datuen arabera, 1.537 milioi tona altzairu kontsumitu ziren. Beraz, hala ekoizpenak nola kontsumoak gora egin dute azken urtean: % 1 eta % 0,6, hurrenez hurren.

Herrialde bakoitzeko altzairu-ekoizpena aztertuz gero, hau antzemango dugu: datuak 2013an izandakoen antzekoak diren arren, bilakaera ez da berdina izan herrialde guztietan. Zehazki, aztertutako ekoizle nagusien artetik, Italiaren (-% 1,3) eta Espainiaren (-% 0,6) altzairu-ekoizpenak behera egin du, eta, 2014an, 23,7 milioi tona eta 14,2 milioi tona ekoitzi zituzten, hurrenez hurren. Bere aldetik, Txinaren, munduko altzairu-ekoizle handienaren datuak ez dira ia aldatu 2013ko datuekin alderatuz (% 0,1); 2014an 823 milioi tona altzairu ekoitzi ditu. Beste merkatu batzuek berriz, handitu egin dute beren ekoizpena. Hori da Frantziaren kasua (16 milioi tona), baita Indiarena (83 milioi tona), Erresuma Batuarena (12 milioi tona), AEBrena eta Kanadarena (101 milioi tona) eta EB-28ko herrialdeena (169 milioi tona) ere; batez beste, % 1,5 eta % 3 handitu dute ekoizpena herrialde horiek azken urtean. Bestalde, Alemaniaren ekoizpena (43 milioi tona) eta Japoniarena (111 milioi tona) oso gutxi handitu dira.


95. taula Altzairu-ekoizpen gordina

| Herrialdea | 2013 | | | 2014 | | |
|------------------------|----------------|------------|--------------|--------------|------------|--------------|
| | MTm | Δ % | % | MTm | Δ % | % |
| AEB eta Kanada | 99,2 | -3,0 | 6,0 | 100,9 | 1,7 | 6,1 |
| Japonia | 110,6 | 3,1 | 6,7 | 110,7 | 0,1 | 6,6 |
| Txina | 822,0 | 16,0 | 49,8 | 822,7 | 0,1 | 49,4 |
| India | 81,3 | 6,0 | 4,9 | 83,3 | 2,5 | 5,0 |
| Alemania | 42,6 | -0,1 | 2,6 | 42,9 | 0,7 | 2,6 |
| Italia | 24,1 | -11,6 | 1,5 | 23,7 | -1,3 | 1,4 |
| Frantzia | 15,7 | 0,5 | 1,0 | 16,1 | 2,9 | 1,0 |
| Erresuma Batua | 11,9 | 20,7 | 0,7 | 12,1 | 1,8 | 0,7 |
| Espainia | 14,3 | 4,6 | 0,9 | 14,2 | -0,6 | 0,9 |
| EB-28 | 166,3 | -1,8 | 10,1 | 169,2 | 1,7 | 10,2 |
| Mundua, guztira | 1.649,0 | 5,7 | 100,0 | 1.665 | 1,0 | 100,0 |

Iturria: World Steel Association (lehen, IISI).

Bilakaera horren eraginez, merkatuaren banaketa 2013koaren oso antzekoa da. Hala, ekonomia garatuek, EB-28 herrialdeek, Ipar Amerikak eta Japoniak munduko altzairuaren % 23 ekoitzi dute 2014an; goraka ari diren herrialdeek, berriz, munduko altzairu guztiaren % 54 ekoitzi dute. Era berean, gainerako herrialde ekoizleek antzeko parte-hartzeak izan dituzte merkatuan, aldaketa handiegirik gabe.

16. grafikoa Munduko altzairu-ekoizpena



Iturria: World Steel Association.

Munduko siderurgia-produktuen kontsumoan ere nabari daiteke hobekuntza (% 0,6), nahiz eta hobekuntza hori ekoizpenean ikusitakoa baino txikiagoa den; gainera, kontsumoaren bilakaera ez da berdina izan herrialde guztietan: Txinako merkatua (-% 3,3) eta Frantziakoa (-% 0,8) murriztu egin dira; gainerako herrialdeetan, berriz, gora egin du siderurgia-produktuen kontsumoak.

Kontsumoa Erresuma Batuan (% 13) eta AEBn eta Kanadan (% 11) handitu da gehien azken urtean; baita EB-28 herrialdeetan (% 5), Espainian (% 4), Japonian (% 4) eta Alemanian (% 3) ere. Ekoizpenarekin gertatzen den bezala, altzairu-kontsumoaren kuotak konstante mantendu dira 2014an; ez da aldaketa handirik egon aurreko urteetako kuotei dagokienez.

| 96. taula | | Siderurgia-produktuen kontsumoa | | | | |
|------------------------|----------------|---------------------------------|--------------|----------------|------------|--------------|
| Herrialdea | 2013 | | | 2014 | | |
| | MTm | Δ % | % | MTm | Δ % | % |
| AEB eta Kanada | 109,8 | -1,8 | 7,2 | 122,1 | 11,2 | 7,9 |
| Japonia | 65,2 | 2,0 | 4,3 | 67,5 | 3,5 | 4,4 |
| Txina | 735,1 | 11,4 | 48,1 | 710,8 | -3,3 | 46,2 |
| India | 73,7 | 1,8 | 4,8 | 75,3 | 2,2 | 4,9 |
| Alemania | 38,0 | 1,3 | 2,5 | 39,2 | 3,2 | 2,5 |
| Italia | 22,0 | 2,3 | 1,4 | 22,1 | 0,5 | 1,4 |
| Frantzia | 12,6 | 0,0 | 0,8 | 12,5 | -0,8 | 0,8 |
| Erresuma Batua | 8,5 | 1,2 | 0,6 | 9,6 | 12,9 | 0,6 |
| Espainia | 10,4 | -1,0 | 0,7 | 10,8 | 3,8 | 0,7 |
| EB-28 | 140,4 | 0,9 | 9,2 | 146,8 | 4,6 | 9,5 |
| Mundua, guztira | 1.528,4 | 6,2 | 100,0 | 1.537,3 | 0,6 | 100,0 |

Iturria: World Steel Association.

3.2 SIDERURGIA ESPAINIAN

Herrialdeak jasan duen krisialdi ekonomiko larriak eragina izan du sektore guztietan, baita siderurgiaren sektorearen ere; ondorioz, sektore honek urte gogorak bizi izan ditu orain arte. Alabaina, badirudi 2014an hobekuntza txiki bat egon dela. Hobekuntza hori ez da sektoreko adierazle makroekonomiko guztietan islatzen, eta emaitzak oso urrun daude 2008ko emaitza baikorretatik; hala ere, aldaketa nabaritu egin daiteke magnitude batzuetan. Altzairuaren ekoizpenak eta esportazioek 2013ko maila berean jarraitzen dute; siderurgia-produktuen inportazioek, berriz, % 10 egin dute gora eta, altzairuaren ageriko kontsumoak, % 7.

97. taula Espainiako siderurgia-sektorearen magnitude nagusiak*

(mila Tm)


| Urtea | Ekoizpena | Esportazioak | Inportazioak | Kontsumo atzemangarria |
|-------|-----------|--------------|--------------|------------------------|
| 2007 | 18.999 | 7.804 | 15.038 | 23.401 |
| 2008 | 18.640 | 9.249 | 11.649 | 18.095 |
| 2009 | 14.362 | 8.115 | 6.921 | 11.945 |
| 2010 | 16.342 | 9.696 | 8.689 | 13.344 |
| 2011 | 15.556 | 9.875 | 8.870 | 12.975 |
| 2012 | 13.639 | 9.803 | 7.802 | 10.625 |
| 2013 | 14.252 | 9.875 | 7.605 | 10.702 |
| 2014 | 14.249 | 9.876 | 8.335 | 11.478 |

(*): Ekoizpenak eta kontsumo atzemangarriak erreferentzia egiten diote altzairu gordinari; kanpoko komertzioaren datuek berriz, siderurgia-produktu guztiei egiten diete erreferentzia.

Iturria: Unesid.

Termino absolutuetan, Espainian 2014an 14.249 mila tona altzairu ekoitzi ziren, 2006an baino nabarmen gutxiago (urte hartan 18.401 mila tona ekoitzi ziren), baita 2007an (18.999 mila tona) eta 2008an (18.640 mila tona) baino askoz gutxiago ere. Hiru urte horietan ekoitzi zen inoizko altzairurik gehien. Era berean, siderurgia-produktuen inportazioak eta altzairuaren kontsumo atzemangarria (8.335 eta 11.478 mila tona, hurrenez hurren) oso urrun daude urte haietan erregistratutako datuetatik. 14.232 mila tona inportatu ziren 2006an, eta, 15.038 mila tona, berriz 2007an. Kontsumo atzemangarriari dagokionez, 2006an 23.641 mila tonakoa izan zen; 2007an, berriz, 23.401 mila tonakoa.

17. grafikoa Espainiako siderurgia-sektorearen magnitude nagusiak



Iturria: Unesid.

Enpleguari dagokionez, 2011. urtetik aurrera, siderurgiaren sektoreko enpresek hainbat neurri hartu behar izan dituzte lanpostuak egokitzeko; izan ere, beharrezkoa zen haien kostuak eskaeran egon den beherakadara egokitzea. Hartutako neurri gehienak aldi baterakoak izan dira; dena den, beste neurri batzuk behin betikoak dira. Horiek horrela, 2014 ez da urte erraza izan siderurgiaren sektoreko lanpostuei dagokionez eta, laugarren urtez segidan, lanpostuak galdu dira, nahiz eta enpleguaren beherakada motelduz joan den azken urtean. Zehazki, 2014an, 22.859 langile aritu dira sektore honetan lanean, hau da, aurreko urtean baino % 1,6 gutxiago (termino absolutuetan, 375 pertsona gutxiago).

Bukatzeko, inportatutako lehengai garrantzitsuenen bilakaerari buruzko datu erlatiboek erakusten digute harriatz kokegarrian egon den beheraka (-%35) handiagoa izan dela material horren prezioak islatzen duena baino (-% 19). Alderantziz gertatzen da burdina-
ren eta pelleten kasuan: prezioa kontsumoa baino gehiago jaitsi da (-% 9 eta -% 27). Bestalde, txatarraren kontsumoaren eta prezioaren portaera antzekoak dira (+ % 0,1 eta % 4).

| Urtea | 98. taula Inportatutako lehengaiak | | | | | |
|---------------|------------------------------------|-------------------|----------------------|-------------------|------------------|-------------------|
| | Harriatz kokegarria | | Burdina eta pelletak | | Txatarra | |
| | Kontsumoa (m Tm) | Prezioa (euro/Tm) | Kontsumoa (m Tm) | Prezioa (euro/Tm) | Kontsumoa (m Tm) | Prezioa (euro/Tm) |
| 2005 | 3.571 | 94 | 6.248 | 39 | 6.975 | 237 |
| 2006 | 3.623 | 107 | 5.511 | 45 | 7.437 | 274 |
| 2007 | 3.682 | 91 | 5.719 | 48 | 6.317 | 344 |
| 2008 | 3.371 | 147 | 6.328 | 69 | 7.408 | 342 |
| 2009 | 2.058 | 133 | 3.951 | 62 | 4.654 | 211 |
| 2010 | 2.984 | 161 | 6.707 | 87 | 6.186 | 311 |
| 2011 | 2.610 | 215 | 5.373 | 129 | 5.271 | 390 |
| 2012 | 2.492 | 176 | 5.220 | 100 | 4.747 | 375 |
| 2013 | 2.528 | 129 | 6.259 | 103 | 4.925 | 318 |
| 2014 | 1.632 | 105 | 5.699 | 75 | 4.928 | 330 |
| % Hazk. 13-14 | -35,4 | -18,6 | -8,9 | -27,2 | 0,1 | 3,8 |

Iturria: Unesid.

Une honetan bizi duen egoera zaila gainditzeko, siderurgiaren sektoreak honako erronka hauei egin beharko die aurre datozen urteetan: kalitatezko lanpostu iraunkorrak sortzea eta, aldi berean, lehiakortasun maila altua lortzea, sektoreko enpresek esportatzen, eraberritzen, merkatuak irabazten, aberastasuna sortzen eta lana ematen jarraitu ahal izan dezaten. Horretarako, Siderurgiaren Sektoreko Enpresen Batasunak (UNESID) sektorearen jardura oinarri hauen gainean eraikitzea proposatu du:

Lehenik eta behin, giza kapitala; izan ere, sektorean lanean ari diren pertsonak dira lehiakortasunaren gakoa, gaitasun teknologikoan, kudeaketan eta eraberritzeko gaitasunean oinarritzen den lehiakortasuna, hain zuzen ere. Bestalde, eraberritzeko gaitasuna lehiakortasunaren ardatzetako bat izan behar da, industria-proiektuek denboran iraun ahal izan dezaten.

Era berean, garrantzitsua da hornikuntza eta prezio lehiakorrak bermatuko dituen energia-politika baten alde lan egitea, baita ahaleginak egitea ere finantzaketa eskuragarri egon dadin eta merkatu nazionalaren murrizketari aurre egin ahal izateko kanpoko merkatuetan sar gaitezkeela bermatuko duen merkataritza-politika bat izan dezagun. Bestalde, ezinbestekoa da azpiegiturretan egin beharreko inbertsioak ondo planifikatzea, baita hainbat neurri martxan jartzea ere, ekonomia sustatzeko eta aberastasuna lortzeko.

4. NEKAZARITZAKO ELIKAGAIEN INDUSTRIA

4.1 NAZIOARTEKO EGOERA

Europar Batasuneko Nekazaritzako Elikagaien Industrien Konfederazioak (CIAA) emandako azken informazioaren arabera, eremu horretako produkzioak goranzko joera izan du 2014. urtean, eta hiruhilekoen arteko hazkunde positiboak izan dira ekitaldi osoan (hirugarren hiruhilekoan izandako geldialdia salbuetsita). Hortaz, 2013ko ekitaldian izandakoa baino igoera sendoagoa izan da, eta Europar Batasunak bizi duen egoera ekonomikoaren hobekuntza islatu du.

99. taula Europar Batasuneko nekazaritzako elikagaien industriak izan duen produkzioaren bilakaera

| Urtea | Aldia | % Δ |
|-------|------------------|-------|
| 2013 | I. hiruhilekoa | 0,19 |
| | II. hiruhilekoa | -0,66 |
| | III. hiruhilekoa | 0,60 |
| | IV. hiruhilekoa | 0,38 |
| 2014 | I. hiruhilekoa | 0,62 |
| | II. hiruhilekoa | 1,03 |
| | III. hiruhilekoa | -0,24 |
| | IV. hiruhilekoa | 0,43 |

Iturria: CIAA.

Egitura-alderdiari dagokionez, adierazi beharra dago nekazaritzako elikagaien industria oso garrantzitsua dela Europar Batasuneko sare ekonomikoan eta estatu kide gehienetan. Izan ere, EBko industria-sektore nagusia da gaur egun. Ildo horretan, eskuragarri dagoen azken informazioaren arabera, sektoreak 1.048 bilioi euro fakturatu zituen EB-25ean 2012. urtean, hau da, Europako Erkidegoko manufaktura-industriako guztizkoaren % 14,6 (eta % 15,5 eta % 12,5 sortutako enpleguari eta balio erantsiari dagokienez, hurrenez hurren). Produkzio hori 4,24 milioi langile zituzten 286.000 enpresatan sortu zen. Sektore tradizionala da, eta enpresa txiki eta ertainak dira nagusi (2012. urtean, 250 langile baino gutxiagoko enpresak guztien % 99,1 ziren, eta sektoreko fakturazioaren % 51,6 eta enpleguaren % 63,4 biltzen zuten). Herrialdeei dagokienez, produktore nagusiak Alemania, Frantzia, Italia, Erresuma Batua eta Espainia dira; 2012. urtean, fakturazioaren % 66,4 egin zen herrialde horietan.

4.2 SEKTOREA ESPAINIAN

Estatistikako Institutu Nazionalak (EIN) landutako Industria Produkzioaren Indizea (IPI) kontuan hartuta, Espainiako elikagaien industriari lotutako jarduerak gora egin du 2014an, eta Espainiako industria osokoa baino askoz bilakaera hobea izan du. Zehazki, elikagaien sektoreko IPIak % 3,7ko igoera izan du 2014an (-% 0,9 2013an). Estatu osoan, berriz, % 1,3ko igoera izan da (% 1,5eko beherakada izan zen 2013an).

| 100. taula Industria Produkzioaren Indizearen (IPI) bilakaera | | |
|---|-------------|---------------------|
| Urtea | Elikagaiak* | Industria, guztira* |
| 2010 | 1,9 | 0,8 |
| 2011 | 0,7 | -1,6 |
| 2012 | -3,1 | -6,7 |
| 2013 | -0,9 | -1,5 |
| 2014 | 3,7 | 1,3 |

(*): Egutegi-ondorioak zuzenduta dituzten datuak.
Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala.

Testuinguru horretan, eta Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioak 2013. urteari buruz emandako informazioaren arabera, nekazaritzako elikagaien sektorea nagusi da oraindik Estatuko industria-jarduera osoan, eta 91.450 milioi euro fakturatu ditu (zifra hori industriako fakturazio guztiaren % 20,6 da). Sarea 28.372 enpresak osatzen dute, eta 355.321 langile daude enpresa horietan (industriako langile guztien % 18,2, hain zuzen ere). EB osoan gertatzen den bezala, oso atomizazio-maila handia du ezaugarri bereizgarri sare horrek (2013. urtean, enpresen % 96,6k 50 langile baino gutxiago zituen). Hala ere, sektorean dauden enpresa handiek produkzioaren % 70 inguru biltzen dute, aurreratuenak izan ohi dira teknologikoki, eta mundu-eskalan dihardute (atzerriko kapitalaren indar handiarekin). Enpresa txiki eta ertainek, berriz, eskala geografiko txikiagoetan dihardute. Nolanahi ere, elikagaien eta edarien industriak industria osoko balio erantsiaren % 15,3 biltzen du.

Enpresa-mugimendu nagusiei dagokienez, elikagai ez-galkorren sektorearen kasuan hiru talde handi izan dira nagusi 2014. urtearen lehen erdialdean. Horietako bat —Deoleo— CVCren esku geratu da azkenean, eta horrek ondorioak izan ditu bi akziodun nagusietan: Dcoop (Hojiblanca lehen) eta Ebro Foods. Alde batetik, Dcoop enpresak olioaren sektorean zein beste batzuetan kooperatiba-oinarriko operadore berriak biltzeko planei heldu die berriz. Eta, bestetik, Ebro Foods enpresak olio-enpresako eta beste enpresa batzuetako (hala nola Alemaniako Birkel enpresako) kapitala uztea erabaki du, baina Italiako merkatuan sartu da eta Garofalo enpresa eskuratu du (enpresa hori gero eta sartuago dago Espainiako merkatuan, eta Premium segmentura bideratu da).

Nazioarteko esparruan, albisterik azpimarragarriena Master Blenders enpresak eta Mondelez kafe-enpresak bat egin izana da. Enpresa berriak Jabobs Douwe Egberts izena hartu du, eta Espainiako eta munduko bigarren kafe-operadore bihurtzeko asmoa iragarri du. Azpimarratu beharreko beste eragiketa bat Nutrexa bi taldetan bereizi izana da. Enpresa akziodunen hirugarren belaunaldira eskualdatzeak dakarren arazoa konpontzeko egin da bereizketa. Alde batetik, beraz, kakaoaren deribatuetan diharduen enpresa geratu da, eta, bestetik, taldeak elikagaien sektorean zituen gainerako negozioetara bideratutako enpresa. Halaber, garapen-bidean dauden herrialdeetako kapitala iristen ari dela ikusi da. Ildo horretan, Espainiak funtsezko zeregina betetzen du Europan sartzeko leku gisa. Horixe gertatu da Mexikoko Gruma (Mexifoods) enpresarekin.

Elikagai galkorren sektoreari dagokionez, elikagaien industriako produktu galkorren adarraren atomizazioak eta kapital tradizionalak atzerrikoaren gainean duen nagusitasunak beren horretan jarraitzen badute ere, Mexikoko Sigma enpresak eta Txinako Shanghai enpresak Campofrío erosi izanak berretsi egin du garapen-bidean dauden konpainiek Espainian inbertitzeko joera.

Horiez gain, eragiketarik azpimarragarrienen artean daude Nutreco enpresaren hegazti-negozioa Espainian saldu izana eta hainbat berregituratze-prozesu, hala nola Pescanova enpresakoa eta Sevillako instalazioak itxi dituzten Danone eta Lactalis enpresetakoak. Esnekien eremuan, halaber, irabiakiak produzitzeko erabiltzen zituen instalazioak ixtea eta produkzioa kategoría horretako partnerrari (Calidad Pascual enpresari) lagatzea erabaki du Nutrexa enpresak.

4.3 SEKTOREA NAFARROAN

Nekazaritzako elikagaien industriak garrantzi handia izan du beti Nafarroako ekonomian, eta Foru Komunitateko industriaren barruko azpisektore nagusietako bat dela esan daiteke. Zehazki, EINek 2013. urteari buruz emandako datuen arabera, nekazaritzako elikagaien industriak (elikagaiak eta edariak) industriako enplegu guztien % 15,8 sortzen du (bigarrena da sailkapenean, motordun ibilgailuen sektorearen atzetik -% 18,4-), baita industriako balio erantsi gordin guztiaren % 13,8 ere (kasu horretan ere bigarrena da sailkapenean, motordun ibilgailuen sektorearen atzetik -% 20,5-).

101. taula Nafarroako nekazaritzako elikagaien industriaren egitura, 2014

| Tamaina | Enpresak (%) | Enplegua (%) |
|----------------|--------------|--------------|
| 1-5 langile | 52,2 | 5,7 |
| 6-50 langile | 38,3 | 30,0 |
| 51-100 langile | 4,3 | 13,5 |
| >100 langile | 5,2 | 50,7 |
| Guztira | 100,0 | 100,0 |

Iturria: Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia.

Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganberak emandako informazioari dagokionez, 2014. urtean guztira 11.999 langile biltzen dituzten 560 enpresak jardun dute Nafarroako nekazaritzako elikagaien industriaren sektorean. Enpresa horiek langile kopuruaren arabera duten tamainari buruzko analisiaren arabera, enpresa-sarean ETEak dira nagusi oraindik ere. Ildo horretan, enpresen % 52,2k 6 langile baino gutxiago ditu (sektoreko enplegu guztien % 5,7), % 38,3k 6-50 langile (enpleguaren % 30,0 sortzen du), eta % 9,5ek baino ez ditu 50 langile baino gehiago (sektoreko enpleguen % 64,2).

Sektoreko enpresa nagusiei dagokienez, 100 langiletik gorako plantilla duten enpresak agertzen dira ondorengo koadroan (17 enpresa guztira), eta kokatuta dauden udalerria, egiten duten jarduera eta sortzen dituzten enpleguen estratua daude adierazita. Enpresa horietatik, 2k baino ez dituzte 500 langile baino gehiago. Jarduera nagusia landare-kontserben fabrikazioa da.

102. taula Nafarroako nekazaritzako elikagaien industriako enpresa nagusiak, 2014

| Enpresa | Udalerría | Enplegu- estrátua | Jarduera nagusia |
|--|-------------|----------------------|---|
| Vega Mayor SL | MILAGRO | 500etik gora | Fruten eta beste landare-produktu batzuen garbiketa, sailkapena eta ontziratzea |
| Viscofan SA | IRUÑEA | 500etik gora | Beste inon sailkatu gabeko beste elikadura-produktu batzuen elaborazioa |
| Iberfruta Muerza SA | AZAGRA | 251-500 | Landare-zuku eta landare-kontserben fabrikazioa |
| Industrias alimentarias de Navarra SA | ALESBES | 251-500 | Landare-kontserbak |
| Ultracongelados de la Ribera SL | MARTZILLA | 251-500 | Arrain-kontserben eta beste itsas produktu batzuen fabrikazioa |
| Gelagri industrial SLU | MILAGRO | 251-500 | Landare-zuku eta landare-kontserben fabrikazioa |
| Industrias Cárnicas Navarras SA | IRUNBERRI | 251-500 | Mota orotako haragi-produktuen fabrikazioa |
| Agrozumos SA | LEKUNBERRI | 101-250 | Estraktuak, zukuak eta beste landare-prestakin batzuk |
| Congelados de Navarra SA | ARGUEDAS | 101-250 | Landare-kontserbak |
| Alimentos y derivados Navarra SA | FUSTIÑANA | 101-250 | Landare-zuku eta landare-kontserben fabrikazioa |
| Alimenco SA | MILAGRO | 101-250 | Landare-kontserbak |
| Ultracongelados Virto SA | AZAGRA | 101-250 | Landare-kontserbak |
| Conservas Hijos de Manuel Sánchez Basarte SA | ALESBES | 101-250 | Landare-kontserbak |
| Producciones vegetales diferenciadas SL | VALTIERRA | 101-250 | Fruten eta beste landare-produktu batzuen garbiketa, sailkapena eta ontziratzea |
| Lácteros de Navarra SL | IRUÑEA | 101-250 | Energia termoelektriko konbentzionalaren produkzioa |
| Aperitivos y Extrusionados SA | RIBAFORADA | 101-250 | Beste inon sailkatu gabeko beste elikadura-produktu batzuen elaborazioa |
| Bodegas Julian Chivite SL | CINTRUENIGO | 101-250 | Ardoen elaborazioa eta ontzea |

Iturria: Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera. Camerdata datu-basea.

Kapital multinazionalari dagokionez, gogorarazi beharra dago, lehenik eta behin, Nafarroan egindako atzerriko inbertsioak faktore garrantzitsua izan direla industria-sektorearen dinamizazioan eta modernizazioan (Komunitatetik kanpoko erabakiguneekeko mendekotasun handiagoa ekarri badu ere). Inbertsio horien bolumena garraio-materialaren azpisektorean bildu da nagusiki. Aurreko urteetan, nekazaritzako elikagaien industriak atzerriko inbertsioa jaso zuen, baina ez da gauza bera gertatu 2014. urtean. Nafarroako Industria eta Merkataritza Ganberak 2014. urteari buruz eskuragarri duen informazioaren arabera, 2014ko ekitaldian ez da atzerriko inbertsiorik egin nekazaritzako elikagaien industrian (3.100 euro 2012. urtean eta 9.000 euro 2011. urtean).

Industria-egituraren ezaugarri nagusiak aztertu ondoren, Nafarroako nekazaritzako elikagaien industriaren jarduera-aldagai nagusien azken bilakaera aztertuko dugu ondoren.

Enpresen kopuruari eta enpresa horietan sortutako enpleguei dagokienez, 2014. urtean % 1,1eko beherakada izan da sektorean diharduten enpresen kopuruan (-% 2,2 2013. urtean), eta % 5,1eko igoera enpleguan (-% 3,0 2013. urtean). Horrela, beraz, enpresa horien batez besteko langile kopurua 20,9 izan da 2014an (20,2 aurreko urtean).

| 103. taula Nafarroako nekazaritzako elikagaien industriako enpresa eta langile kopuruaren bilakaera | | | | | |
|--|-----------------|------------|-----------------|------------|-----------------------------------|
| Urtea | Enpresak | % Δ | Enplegua | % Δ | Batez besteko langile kop. |
| 2005 | 591 | 1,7 | 11.152 | 5,6 | 18,9 |
| 2006 | 586 | -0,8 | 11.515 | 3,2 | 19,7 |
| 2007 | 582 | -0,7 | 12.412 | 7,8 | 21,3 |
| 2008 | 587 | 0,9 | 12.424 | 0,1 | 21,2 |
| 2009 | 596 | 1,5 | 11.979 | -3,6 | 20,1 |
| 2010 | 585 | -1,8 | 11.896 | -0,7 | 20,3 |
| 2011 | 577 | -1,4 | 11.897 | 0,0 | 20,6 |
| 2012 | 579 | 0,3 | 11.773 | -1,0 | 20,3 |
| 2013 | 566 | -2,2 | 11.419 | -3,0 | 20,2 |
| 2014 | 560 | -1,1 | 11.999 | 5,1 | 20,9 |

Iturria: Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia.

Jardueraren bilakaeraren adierazle gisa Nafarroako nekazaritzako elikagaien industriaren Industria Produkzioaren Indizea (IPI) erabiltzen da, eta % 0,4ko igoera izan du 2014an (-% 2,2 aurreko urtean). Dena dela, Nafarroako industria osoan izandakoa baino nabarmen txikiagoa izan da igoera hori (IPIak % 3,9ko igoera izan du Nafarroako industrian).

| 104. taula Industria Produkzioaren Indizearen (IPI) bilakaera | | |
|--|---------------------------------|----------------------------|
| Urtea | Nekazaritzako elikagaiak | Industria, guztira* |
| 2007 | -6,3 | 0,3 |
| 2008 | 6,8 | 0,4 |
| 2009 | -0,3 | -20,3 |
| 2010 | -6,3 | 6,4 |
| 2011 | 4,1 | -2,1 |
| 2012 | -5,8 | -8,0 |
| 2013 | -2,2 | -1,6 |
| 2014 | 0,4 | 3,9 |

(): Egutegi-ondorioak zuzenduta dituzten datuak.
Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua.*

Sektorearen kanpoko merkataritzak Nafarroan izan duen bilakaerari dagokionez, esportazioak 510,4 milioi eurora iritsi dira 2014an, eta, beraz, % 3,5eko igoera izan da aurreko ekitaldiarekin alderatuta. Inportazioek, bestalde, % 4,2ko beherakada izan dute 2014an, eta 202,7 milioi eurora iritsi dira. Kanpoko merkataritzaren bilakaera horrek

superabita eragin du sektorearen merkataritza-balantzan. Zehazki, 307,7 milioi eurora iritsi da 2014an, eta, beraz, aurreko urtekoa baino nabarmen handiagoa izan da (281,5 milioi euro aurreko urtean). Era berean, estaldura-tasa % 251,8ra igo da (% 233,0 2013an).

105. taula Nafarroako nekazaritzako elikagaien kanpoko merkataritzaren bilakaera
(M euro)

| Urtea | Esportazioak | % Δ | Inportazioak | % Δ | Merkataritza-balantza | Estaldura-tasa |
|-------|--------------|------|--------------|-------|-----------------------|----------------|
| 2005 | 220,3 | 8,5 | 169,1 | -4,8 | 51,2 | 130,3 |
| 2006 | 250,0 | 13,5 | 166,7 | -1,4 | 83,3 | 150,0 |
| 2007 | 283,6 | 13,4 | 183,6 | 10,1 | 100,0 | 154,4 |
| 2008 | 327,1 | 15,3 | 174,1 | -5,2 | 153,0 | 187,9 |
| 2009 | 303,0 | -7,4 | 147,0 | -15,6 | 156,0 | 206,1 |
| 2010 | 334,1 | 10,3 | 140,1 | -4,7 | 194,0 | 238,5 |
| 2011 | 395,3 | 18,3 | 142,4 | 1,6 | 252,9 | 277,6 |
| 2012 | 402,6 | 1,8 | 163,1 | 14,5 | 239,5 | 246,8 |
| 2013 | 493,1 | 22,5 | 211,6 | 29,8 | 281,5 | 233,0 |
| 2014 | 510,4 | 3,5 | 202,7 | -4,2 | 307,7 | 251,8 |

Iturria: Aduanen Zuzendaritza Nagusia.

Nafarroako jarduera sektorialaren analisiarekin amaitzeko, eta aurreko txostenetan bezalaxe, jardueraren emaitzak emango ditugu orain, 17 enpresako lagin batean oinarrituta, Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentralak emandako informazioaren arabera. Enpresa horiek 602.690 milako euro fakturatu zituzten 2013. urtean guztira, hau da, aurreko ekitaldian baino % 0,4 gutxiago.

106. taula Nafarroako nekazaritzako elikagaien industriako 17 enpresako lagin baten emaitzen kontu erantsia

| Kontzeptua | 2012 | | 2013 | | % Δ 13/12 |
|-------------------------------|---------|-------|---------|-------|-----------|
| | m euro | % | m euro | % | |
| Ustiapenaren diru-sarrerak | 605.033 | 100,0 | 602.690 | 100,0 | -0,4 |
| Kontsumo ertainak | 462.328 | 76,4 | 462.340 | 76,7 | 0,0 |
| Balio erantsi gordina | 142.705 | 23,6 | 140.350 | 23,3 | -1,7 |
| Langile-gastuak | 73.460 | 12,1 | 73.091 | 12,1 | -0,5 |
| Ustiap. emaitza ekon. gordina | 69.245 | 11,4 | 67.259 | 11,2 | -2,9 |
| Amortizazioak eta hornidurak | 32.821 | 5,4 | 34.321 | 5,7 | 4,6 |
| Ustiap. emaitza ekon. garbia | 36.424 | 6,0 | 32.938 | 5,5 | -9,6 |
| Finantza-karga | -6.227 | -1,0 | -7.473 | -1,2 | 20,0 |
| Ohiko jardueren emaitza | 42.651 | 7,0 | 40.411 | 6,7 | -5,3 |
| Ezohiko jardueren emaitza | -29 | 0,0 | -3.741 | -0,6 | 12.800,0 |
| Zergen aurreko emaitza | 42.622 | 7,0 | 36.670 | 6,1 | -14,0 |
| Zergak | 5.167 | 0,9 | 5.956 | 1,0 | 15,3 |
| Ekitaldiko emaitza garbia | 37.455 | 6,2 | 30.714 | 5,1 | -18,0 |
| Cash-flowa | 70.276 | 11,6 | 65.035 | 10,8 | -7,5 |

Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala.

Kostuen egituraren (hots, kostu-partidek fakturazioan duten proportzioaren) bilakaerari buruzko analisiak agerian utzi duenez, kontsumo ertainen proportzioak behera egin du

zertxobait, eta % 76,7ra iritsi zen 2013an (% 76,4ra 2012an). Bilakaera horri lotuta, balio erantsiaren proportzioak ere behera egin du, eta % 23,3ra iritsi da 2013an (% 23,6ra 2012an).

Langile-gastuei dagokienez, diru-sarrerekiko proportzioak ez du aldaketarik izan (% 12,1). Amortizazio eta horniduren proportzioak, berriz, gora egin du zertxobait (% 5,7 izan zen 2013an, eta % 5,4 2012an). Bestalde, finantza-kargak % 20ko igoera izan du, eta fakturazioaren -% 1,2 izan da 2013an (-% 1,0 2012an).

Arestian adierazitako kostu-partiden bilakaeraren ondorioz, emaitzek behera egin dute zertxobait termino erlatiboetan. Zehazki, ohiko jardueren emaitza % 7,0tik % 6,7ra jaitsi da 2012tik 2013ra bitarte. Gauza bera gertatu da zergen aurreko emaitzaren proportzioarekin (% 7,0 2012an eta %6,1 2013an). Azkenik, cash-flowaren diru-sarrerekiko proportzioak ere behera egin du (% 10,8 2013an eta % 11,6 2012an).

107. taula Nafarroako nekazaritzako elikagaien industriako 17 enpresako laginaren errentagarritasuna

| RATIOAKS | 2011 | 2012 | 2013 |
|---|------|------|------|
| AKTIBO GARBIAREN ERRENT. (zergen aurretik) | 10,3 | 9,4 | 8,2 |
| Jasotako finantzaketaren interesak/Kostua duten kanpoko baliabideak | 2,6 | 3,4 | 3,5 |
| BALIAB. PROPIOEN ERRENT. (zergen aurretik) | 14,2 | 13,0 | 10,4 |
| Zorpetze-ratioa | 33,3 | 37,2 | 30,8 |
| Finantza-apalankamendua* | 7,7 | 6,0 | 4,8 |

(*): Errentagarritasun ekonomikoa – kostua (kanpoko finantzaketa).

Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala.

Jardueraren beherakada-esparru horretan, erabilitako enpresa-laginaren errentagarritasun ekonomikoak zein finantza-errentagarritasunak (zergen aurretik) behera egin dutela egiazta daiteke. Ildo horretan, errentagarritasun ekonomikoa % 8,2 izan da 2013an (% 9,4 2012an), eta finantza-errentagarritasuna, berriz, % 10,4ra iritsi da (% 13,0 2012an). Hori guztia zorraren kostuaren igoera txiki baten testuinguruan gertatu da (% 3,4 2012an eta % 3,5 2013an).

5. AUTOMOZIOA

2013. urtearen erdialdean inflexio-puntu bat egon zen automozio-industriaren bilakaeran. Bost urtez krisiaren oldarre aurre egiten ibili ondoren, bazirudien sektorearen jardura suspertzen ari zela nazioartean. 2014. urtean joera hori berretsi da, ekitaldia ixterako 89.747.430 ibilgailu ekoitzi direlako munduan, aurreko ekitaldian baino % 2,6 gehiago. Hala ere, fabrikatzaile handi guztiek ez diote jokabide-eredu berari jarraitzen. Batzuek aurreko urteetako aurreikuspenak gainditu dituzte nabarmen, baina beste batzuk behin betiko suspertu ezinean dabilta. Europan, nolana ere, joera orokorra hazkundera izan da, eta Espainia dago berraktibazio horren buruan. Estatu Batuetako hiru fabrikatzaile handiek, hau da, General Motorsek, Fordrek eta Chryslerrek, orain urte batzuetako egoera ekonomiko zaila atzean utzi dute, antza. Gogora ekartzekoa da orain bost urte Estatu Batuetako Gobernuak GM eta Chrysler erreskatatu behar izan zituela, altxor publikoaren 9.300 milioi dolarren truke. Txinari dagokionez, goraka segitzen du etengabe bere ibilbide geldiezinean, krisiari aurre eginez.

5.1 NAZIOARTEKO EGOERA

Hortaz, 2014ak sektoreari nolabaiteko itxaropena ekarri diola esan dezakegu. Ekoizpenari dagokionez, 2013ko erregistroak hobetu dituzten herrialdeak gehiago dira ekitaldia negatiboan itxi dutenak baino. Azterketari hasiera emateko, binomio garrantzitsua hartuko dugu aintzat, hau da, Asiak eta Ozeaniak osatutakoa, 47,3 milioi ibilgailu ekoizteaz gain jardueran % 3,4ko hazkundera izan baitu, eta, horrenbestez, mundu osoko ibilgailuen ekoizpenaren % 53 bereganatu du. Txinak, eremuko ekoizpenaren erreferentzia denak, munduko ekoizpenaren % 26 bereganatu du, hau da, 23,7 milioi ibilgailu, eta abiada bizian jarraitzen du aurrera begira. Asiako beste bi herrialdek ere bultzada ematen diote eremuko industria-jarduerari; batetik, Japoniak, 2014an 9,7 milioi ibilgailu ekoitzi baitzituen, eta, bestetik, Hego Koreak, 4,5 milioiko ekoizpenarekin, biak ere ezer gutxi aldatu direlarik 2013ari dagokionez.

Jarraian, NAFTAko herrialdeek eta Hego Amerikak osatutako blokeak guztizkoaren % 24ko parte-hartzea du, gutxi gorabehera, eta horrenbestez Amerikak, 21,3 milioi ibilgailurekin, aurreko ekitaldiko balioei eutsi die ia-ia. Urtez urteko aldakuntza txiki hori (% 0,7) Hego Amerikako herrialdeen bilakaeraren (-% 16,5) ondorio da, Estatu Batuek eta batez ere Mexikok askoz ere joera biziagoa erakutsi dutelako. Estatu Batuetako fabriketan 11,7 milioi ibilgailu ekoitzi dira, % 5,4ko igoerarekin; Mexikon, berriz, 3,4 milioi ibilgailu ekoitzi dira, eta igoera % 10,2 izan da.

Afrikaren presentzia askoz txikiagoa da mundu mailan (% 0,8); hala ere, balioak % 11,3 hazi dira 2013ren aldean. Bilakaera positibo horren erantzule dira Maroko (% 38,5 hazi da) eta Hego Afrika (ekoizpenak % 3,7 egin du gora, eta Afrikan automozioaren sektorean ekoizpen osoaren % 80 dagokio).

Guztira 20.382.459 ibilgailuko ekoizpena izaki, Europako zenbakiek % 2,3 egin dute hobera, Europako fabrikatzaile gehienen industria-jarduerak gora egin duelako, eta aipatzekoa da bilakaerarik onena Espainian erregistratu dela. Herrialdez herrialdeko datuetan sakonduz, Europako fabrikatzaile handi guztiek ekoizpen-jarduera mantendu edo hobetu dute 2014. urtean. Jarduera handiena duenetik abiatuta, Alemaniak % 3,3ko hazkundera izan du, eta 5,9 milioi unitate ekoitzi ditu guztira. Espainia izan da ekoizpen-gaitasun handiena izan duen bigarren herrialdea, 2014ko ekitaldia ixterako 2.402.978 unitate fabrikatu dituelako, eta taldearen portaerarik onena izan duelako, % 11,1eko igoerarekin. Frantzia % 4,4 hazi da, eta Erresuma Batua oso gutxi, % 0,1 bakarrik. Guztira, 1,8 milioi eta 1,6 milioi unitate produzitu dituzte, hurrenez hurren. Azkenik, Europako ekoizle handien panela osatzeko, Txekiar Errepublikak (1,2 milioi unitateko ekoizpena), Italia (697.864) eta Belgika (516.832) ditugu. Hiru horien portaera ez da oso homogenea izan (% 10,4, % 6 eta % 2,6). Egia bada ere EB-28k % 4,5eko igoera positiboa izan duela, oraindik ere urrun dago krisiaren aurreko balioetatik.

Munduko ekoizleen sailkapenari dagokionez, Txina dago buruan, pisuarengatik batik bat, eta jarraian, dezente atzerago, Estatu Batuak eta Japonia. Munduko sailkapenean ondoen kokatutako hirukoteak, Txinak (% 26,4ko parte-hartzea), Estatu Batuek (% 13) eta Japoniak (% 10,9) osatutakoak, munduan fabrikatzen diren ibilgailuen erdia ekoizten du. Laugarren tokian, Alemania; % 6,6ko barneratzea du, eta Europako lehen herrialdea da zerrendan. Hego Koreak eta Indiak aurreko ekitaldiko ekoizpen-mailei eusten diete ia-ia, nazioarteko ekoizpenaren % 5arekin eta % 4,3arekin, hurrenez hurren, eta bosgarrena eta seigarrena dira zerrendan. Ondoren, Latinoamerikako bi herrialde sartu dira munduko "Top-10" zerrendan, Mexiko eta Brasil. Ekoizpenari dagokionez hurbil badabilta ere (% 3,7ko eta % 3,5eko pisu espezifikoak dute, hurrenez hurren), oso bilakaera desberdinak izan dituzte. Lehenak, aldez aurretik adierazi dugunez, nabarmen hobetu ditu 2013ko erregistroak (% 10,2); Brasilek ez, ordea, bi digituko beherakada (-% 15,3) izan duela kontuan hartzen badugu. Espainiak eta Kanadak antzeko garrantzia dute (% 2,7 gutxi gorabehera), eta munduko 10 ibilgailu-ekoizle nagusien zerrendako azken bi kideak dira.

Matrikulazioei dagokienez aipatzekoa da 2014an goranzko mugimenduak izan direla nagusi, baina esan beharra dago gorakada arinak izan direla gehienetan, eta guztizko

kopurua 88,2 milioi unitate izan da. Beste behin ere Txina dago nazioarteko panoramaren buruan, guztira 23,5 milioi ibilgailu matrikulatu dituelako (% 6,9ko igoera 2014an), eta ekoizpen- eta matrikulazio-ataletan antzeko emaitzak eskaini dituelako. Estatu Batuetan 16,8 milioi ibilgailu matrikulatu dira, eta Asiako erraldoiaren antzeko bilakaera izan du herrialdeak (% 6). Tamainaren arabera, garrantzia handiko hurrengo herrialdea Japonia da. Bertan, 2014an, 5,6 milioi matrikulazio egin ziren, 2013an baino % 3,5 gehiago. Haren atzetik, Brasilek, Alemaniak eta Indiak osatzen duten blokea dator; guztiek 3 milioi inguruko matrikulazioa izan dute, baina bilakaerak desberdinak izan dira (Brasilek % 7,1 egin du behera, eta Indiak % 2,0; Alemaniak, berriz, % 3 egin du gora). Erresuma Batuak, Errusiak eta Frantziak osatutako hirukoteari buruz antzeko zerbait esan daiteke. Europako bi herrialdeek aurreko ekitaldiko adierazleak igo edo mantendu dituzte, hau da, Erresuma Batuak 2,8 milioi ibilgailu matrikulatu ditu (% 9,5eko igoera), eta Frantziak, berriz, 2,2 milioi ibilgailu (% 0,2). Errusian, aldiz, matrikulazioek % 15,1 egin dute behera, eta 2,5 milioi ibilgailu matrikulatu dira guztira. Jarraian, beste hainbat herrialde ditugu, Italia besteak beste. Haien testuingurua askotarikoa da: Kanadako bi milioitik Australiako milioira bitarteko balioetan daude, eta bereziki nabarmentzekoa da Iranen matrikulazioek % 60ko gorakada izan dutela. Espainia, 987.281 matrikulazioekin, talde horren atzean kokatuko litzateke, eta % 20ko igoera nabarmena izan du 2014an, taldeko bilakaerarik onena izanik Iranekin batera.

Zalantzarik gabe, eta ekoizle handiak gogoz ahalegindu badira ere, guztiak ere oso urrun daude Asiako erraldoiak ekoizpenaren mapan lortu duen sekulako jardunetik, haren jarduera Amerikako edo Europako guztizko balioen gainetik kokatu baita. Etorkizunari begira, sektoreko adituen arabera, turismoen ekoizpenak 100 milioi unitateko muga gaindituko du 2017. urtean, nagusiki Txinaren eta Estatu Batuen bultzadari esker. Hurrengo ekitaldirako ere aurreikuspenak baikorrak dira, merkatu gehienetan salmentek gora egingo dutela uste baita, eta adierazleak, pixkanaka, krisiaren aurreko balioetara hurbilduko direlarik.

108. taula Ibilgailuen ekoizpena eta matrikulazioa

| HERRIALDEA | Kontzeptua | 2013 | 2014 | (unitateak) % Δ 14/13 |
|--------------------------|---------------|------------|------------|--------------------------|
| Alemania | Ekoizpena | 5.718.222 | 5.907.548 | 3,3 |
| | Matrikulazioa | 3.257.718 | 3.356.718 | 3,0 |
| Frantzia | Ekoizpena | 1.740.000 | 1.817.000 | 4,4 |
| | Matrikulazioa | 2.207.373 | 2.210.927 | 0,2 |
| Espainia | Ekoizpena | 2.163.338 | 2.402.978 | 11,1 |
| | Matrikulazioa | 822.950 | 987.281 | 20,0 |
| Erresuma Batua | Ekoizpena | 1.597.872 | 1.598.879 | 0,1 |
| | Matrikulazioa | 2.595.713 | 2.843.025 | 9,5 |
| Italia | Ekoizpena | 658.206 | 697.864 | 6,0 |
| | Matrikulazioa | 1.420.814 | 1.492.642 | 5,1 |
| Belgika. | Ekoizpena | 503.504 | 516.832 | 2,6 |
| | Matrikulazioa | 547.139 | 544.113 | -0,6 |
| EB-15 | Ekoizpena | 12.815.768 | 13.401.716 | 4,6 |
| | Matrikulazioa | 12.659.230 | 13.339.458 | 5,4 |
| Txekiar Errepu- blika | Ekoizpena | 1.132.931 | 1.251.220 | 10,4 |
| | Matrikulazioa | 185.939 | 215.594 | 15,9 |
| EB-28 | Ekoizpena | 16.240.989 | 16.976.883 | 4,5 |
| | Matrikulazioa | 13.603.840 | 14.406.254 | 5,9 |
| Errusia | Ekoizpena | 2.184.266 | 1.886.646 | -13,6 |
| | Matrikulazioa | 2.998.650 | 2.545.666 | -15,1 |
| Estatu Batuak | Ekoizpena | 11.066.432 | 11.660.699 | 5,4 |
| | Matrikulazioa | 15.883.443 | 16.841.973 | 6,0 |
| Mexiko | Ekoizpena | 3.054.849 | 3.365.306 | 10,2 |
| | Matrikulazioa | 1.100.542 | 1.176.305 | 6,9 |
| Brasil | Ekoizpena | 3.712.380 | 3.146.118 | -15,3 |
| | Matrikulazioa | 3.767.370 | 3.498.012 | -7,1 |
| Kanada | Ekoizpena | 2.379.834 | 2.393.890 | 0,6 |
| | Matrikulazioa | 1.780.523 | 1.889.437 | 6,1 |
| Japonia | Ekoizpena | 9.630.181 | 9.774.558 | 1,5 |
| | Matrikulazioa | 5.375.513 | 5.562.887 | 3,5 |
| India | Ekoizpena | 3.898.425 | 3.840.160 | -1,5 |
| | Matrikulazioa | 3.241.302 | 3.176.763 | -2,0 |
| Thailandia | Ekoizpena | 2.457.057 | 1.880.007 | -23,5 |
| | Matrikulazioa | 1.330.672 | 881.832 | -33,7 |
| Hego Korea | Ekoizpena | 4.521.429 | 4.524.932 | 0,1 |
| | Matrikulazioa | 1.543.564 | 1.661.868 | 7,7 |
| Txina | Ekoizpena | 22.116.825 | 23.722.890 | 7,3 |
| | Matrikulazioa | 21.984.079 | 23.491.893 | 6,9 |

Iturria: ANFAC eta OICA.

5.2 SEKTOREA ESPAINIAN

Automozio-industria sektore estrategikoa da Estatuko ekonomiarentzat. Guztira 17 fabrika daude lurralde osoan, BPGan % 7,3ko parte-hartzea dauka (osagaiak barne), eta biztanleria aktiboaren % 8,7 bereganatzen du (zuzeneko eta zeharkako enplegua). Hor-taz, sektorea garrantzizko zutabea da Estatuko ekonomia suspertzeko prozesuan. Gai-nera, 2014an enplegua sortu du, eta inbertsioak indartu ditu. Horren adierazgarri dugu Estatuko fabriketan 2 milioi eurotik gorako inbertsioa egin dela, ekoizpen-prozesuak optimizatzeko eta fabrikak iritsiko diren modelo berrietara egokitzeko. Estatuko ekoiz-pen-jardueran 13 modelo berri sartu dira, eta horrek 8 urterako lana bermatzen du. Na-barmentzekoak dira Renault Captur, Citroën Cactus eta Ford Mondeo Hybrid modelook, berritzaileak direlako eta Estatuan soilik fabrikatzen direlako.

2014. urtean Estatuko fabriketan 2,4 milioi ibilgailu ekoitzi dira, aurreko ekitaldian baino % 11,1 gehiago, eta azken bost urteetako daturik onena da hori. Horren arabera, dirudi-enez krisia indarra galtzen ari da, eta beraz hurrengo urteetarako aurreikuspenak hobekak dira, 2017an 3 milioi ibilgailu baino gehiago ekoiztea espero delako. Ekitaldi honetan zen-bait faktorek bultzatu dute ekoizpena. Lehenak, sektorea suspertzeko ardatzak, espor-tazioen bilakaerarekin du zerikusia, eta aipatzekoa da 2014an esportazioen hazkundea areagotu dela, urtez urte % 9,2 hazi baita, 2 milioi ibilgailuko ekoizpena gaituz. Aldeko portaera horri erantsi behar zaio barne-merkatuaren jardunak hobera egin duela; izan ere, beste behin, PIVE (Ibilgailu Eraginkorretarako Pizgarrien Plana) baten eskutik, matri-kulazioak nabarmen egin baitu gora. Izan ere, ANFACen aurreikuspenen arabera, 2015eko maiatzean onartutako PIVE Plan berriak (8. edizioa) 3.400 milioi euroko inpaktua edukiko luke Estatuko ekonomian, batez ere beste sektore batzuk bultzatzeko ahalmen handia duelako. Gobernuak, bultzada horrez gain, beste neurri bat ere hartu du kontsumo pribatua dinamizatzeko: PIMA Aireia Plana, furgoneta eta ibilgailu komertzialak berritze-koa. Horri gaineratu behar zaio esportazioek ongi jardun dutela, gure mugetatik kanpo 2 milioi ibilgailutik gora saldu direlako guztira, eta gainera turismoek osatutako segmentu nagusiak izan du bilakaerarik onena.

109. taula Espainiako automobil-industriaren ekoizpena, matrikulazioa eta kanpo-merkataritza

(unitateak)

| Azpisektorea | Ekoizpena | | | Esportazioak | | | Matrikulazioak | | |
|----------------------------|------------------|------------------|-------------|------------------|------------------|------------|------------------------|------------------------|-------------|
| | 2013 | 2014 | %Δ | 2013 | 2014 | %Δ | 2013 | 2014 | %Δ |
| Turismoak | 1.719.700 | 1.871.985 | 8,9 | 1.493.731 | 1.631.744 | 9,2 | 722.689 ^(*) | 855.308 ^(*) | 18,4 |
| Lur orotakoak | 34.968 | 26.357 | -24,6 | 34.430 | 25.509 | -25,9 | -- ^(*) | -- ^(*) | |
| Komer. arinak eta furgoiak | 354.983 | 446.847 | 25,9 | 304.950 | 331.672 | 8,8 | 85.384 | 113.782 | 33,3 |
| Ibilgailu industrialak | 53.687 | 57.789 | 7,6 | 46.863 | 50.968 | 8,8 | 13.158 | 16.214 | 23,2 |
| Autobusak | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | | 1.719 | 1.977 | 15,0 |
| Guztira | 2.163.338 | 2.402.978 | 11,1 | 1.879.974 | 2.039.893 | 8,5 | 822.950 | 987.281 | 20,0 |

(*): Lur orotako matrikulazioak ere hartu dira turismoen matrikulazio kopuruaren barruan.

Iturria: ANFAC.

Ibilgailu mota desberdinak aztertzean, eta ekoizpenarekin hasita, aipatzekoa da turismoak ekoizpen-jardueraren % 78 direla, aurreko ekitaldian baino % 8,9 gehiago. Komertzial arinak eta furgoiak datoz jarraian ekoiztiko unitateei dagokienez (guztizkoaren % 19), baina kasu honetan askoz ere bilakaera biziagoa izan dute, 2014an ekoizpena nabarmen igo baitute (% 25,9). Ibilgailu industrialak % 2 barneratu dira, eta % 7,6 hazi dira, guztira. Aurten ere, lur orotakoak dira ekoizpenean behera egin duten bakarrak (-% 24,6).

Esportazioaren ikuspegitik azterketa hori antzekoa da, nolabait, ekoizpen-atalari dagokionez, komertzial arinak eta furgoiak alde batera utzita, azken segmentu horretan hazkunde askoz ere txikiagoa izan delako kanporako salmentetan ekoizpen-eremuan baino (% 8,8 eta % 25,9, hurrenez hurren). Turismoak % 9,2 hazi dira esportazio-jarduerari dagokionez; komertzial arin eta furgoiak, berriz, ibilgailu industrialek bezala, % 8,8ko gorakada izan dute. Nabarmenezkoa da esportazioek zeresan handia dutela industrian oro har eta ibilgailu industrial eta lur orotakoetan bereziki, haien salmenten % 88 eta % 97 gure mugetatik kanpo egiten direlako, hurrenez hurren.

Matrikulazioei dagokienez, 2014an gorakada nabaria izan dute. Zehazki, % 20 igo dira eta, hala, nabarmen gainditu da 2013ko maila (987.281 milioi unitate ekoitzi dira aurtengo ekitaldian). Azpimarratzekoa da Gobernuak erosteko emandako laguntza ekonomikoek zeresan handia izan dutela barne-merkatuaren bilakaera egoki horretan, politika horiek, logikoa denez, ibilgailuen parkea berritzeko lagungarri direlako, azken datuen arabera parke hori oso zaharkituta dagoela aintzat hartuta.

Matrikulazioekin jarraituz, eta marka bakoitzaren bilakaerari dagokionez, Estatuan lan egiten duten fabrikatzaile nagusiek, oro har, matrikulazio kopuruan gorakada izan dute 2014an. Hasteko, Volkswagen taldeak (Seat eta Volkswagen enpresek osatzen dute)

bere lidergoa sendotu du eta 144.883 unitate matrikulatu ditu; horrek islatu egiten du salmentetan izan duen % 15,6ko gorakada; beraz, talde horrena da % 17ko merkatu-kuota. Beste talde bat, Peugeotek eta Citroënek osatutako frantziar jatorrikoa, kasu honetan, % 13,7 barneratu da, eta 117.197 turismo matrikulatu ditu, aurreko ekitaldian baino % 6,1 gehiago. Jarraian, Opel, Renault eta Ford sendotu egin dira, antzeko merkatu-kuotak (% 7tik % 8ra bitarte) eta salmenta-hazkunde nabariak (% 20,6, % 15,8 eta % 20,7, hurrenez hurren) erregistratu dituzte. Gainerako markek dagoeneko presentzia txikiagoa dute merkatuan, % 5aren azpitik. Testuinguru horretan, nabarmen-tzekoa da KIAk izandako bilakaera, % 41,4 hazi baita eta Estatuko sailkapenean go-ranzko bidea hartu baitu. Behin hori esan ondoren, eta aipatutako marketan hainbat ta-mainatako goranzko mugimenduak erregistratu diren arren, argi geratu da merkatuaren banaketa aurreko ekitaldikoaren oso antzekoa izan dela.

110. taula Turismoen matrikulazioa marken arabera

| Markak | 2013 | 2014 | (unitateak) %Δ |
|-------------------------------|----------------|----------------|-------------------|
| Volkswagen | 65.906 | 76.958 | 16,8 |
| Seat | 59.395 | 67.894 | 14,3 |
| Seat Volkswagen taldea | 125.301 | 144.883 | 15,6 |
| Peugeot | 60.150 | 62.570 | 4,0 |
| Citroën | 50.319 | 54.614 | 8,5 |
| PSA Taldea (*) | 110.469 | 117.197 | 6,1 |
| Opel | 55.284 | 66.700 | 20,6 |
| Renault | 56.156 | 65.043 | 15,8 |
| Ford | 48.729 | 58.818 | 20,7 |
| Toyota | 36.827 | 41.242 | 12,0 |
| Nissan | 34.928 | 39.858 | 14,1 |
| Audi | 34.472 | 37.658 | 9,2 |
| Dacia | 29.724 | 36.485 | 22,7 |
| Hyundai | 30.267 | 35.054 | 15,8 |
| KIA | 22.241 | 31.452 | 41,4 |
| Mercedes | 28.010 | 30.157 | 7,7 |
| B.M.W | 28.089 | 29.357 | 4,5 |
| Gainerako markak | 82.192 | 121.404 | 47,7 |
| Guztira | 722.689 | 855.308 | 18,4 |

(*): Peugeot eta Citroën.

Iturria: DGT eta ANFAC.

Kanpo-merkataritzari buruzko informazioa aztertuko dugu jarraian. 2014an ere, Estatuko ekoizpenaren zati handiena esportaziora bideratu da. Jakinaenez, automozio-industriak ingurune global batean dihardu, eta esportazioak funtsezkoak izan dira krisi-garaian eskariari eusteko. Espainian, ibilgailu-fabrikatzaileek jokabide-eredu hori partekatzen dute. Izan ere, ehun herrialde baino gehiagotara esportatzen dituzte produktuak, eta, ahal dela, eros-ahalmen handiena duten herrialdeetan saltzen dute. Alabaina, kanporako fluxu komertzialak zehatz-mehatz aztertuz gero, eta sektorea nahikoa irekia izan

arren, oraindik ere EB da Estatuko produktuen hartzaile nagusia. Industriak merkatu berriak bilatzeko egiten dituen ahaleginak gorabehera, geografikoki hurbilen dauden herrialdeetan bizitasun komertzial handiagoa atzematen da. Behin hori argitu ondoren, fabrikatzaile nazionalen bezero nagusiak honako hauek dira, garrantzitsuenetik hasita: Frantzia (esportazioen % 26,8), Alemania (% 14,7), Erresuma Batua (% 13,6) eta Italia (% 7,8). Laukote horri hurrengo bi herrialdeak eranstean badizkiogu, Turkia (% 3,8) eta Belgika (% 2,9), alegia, Europako sei herrialde horiek esportatutako 10 ibilgailutik 7 erosten dituztela ohartuko gara. Munduko mapa hori osatzen dute Aljeriak (% 2,6ko pisu espezifikoa du, eta duela gutxi hasi da Estatuko industriarekin harreman komertzialetan), AEBek (% 2,6), Herbehereek (% 2,1) eta Austriak (% 1,8), besteak beste. 10 herrialde horiek 1.601.794 unitate jasotzen dituzte Estatuko fabriketatik, guztizkoaren % 80 gutxi gorabehera.

111. taula Ibilgailuen esportazio nazionalen jomugako herrialde nagusiak

| Herrialdea | 2013 | 2014 | (unitateak) %Δ |
|--------------------------------------|------------------|------------------|-------------------|
| Frantzia | 516.948 | 546.083 | 5,6 |
| Alemania | 281.708 | 299.855 | 6,4 |
| Erresuma Batua | 243.714 | 277.885 | 14,0 |
| Italia | 147.969 | 158.368 | 7,0 |
| Turkia | 98.819 | 77.872 | -21,2 |
| Belgika | 59.348 | 59.059 | -0,5 |
| Aljeria | 83.206 | 52.644 | -36,7 |
| Amerikako Estatu Batuak | 20.849 | 52.113 | 150,0 |
| Herbehereak | 35.763 | 41.840 | 17,0 |
| Austria | 38.966 | 36.075 | -7,4 |
| 10 herrialde nagusiak guztira | 1.527.290 | 1.601.794 | 4,9 |
| Gainerakoak | 352.684 | 438.339 | 24,3 |
| Esportazioak guztira | 1.879.974 | 2.040.133 | 8,5 |

Iturria: ANFAC.

Balantza komertzialari dagokionez, automobilaren sektoreak 16.063 milioi euroko superabita izan du 2014an (28.974 milioiko esportazioen eta 12.912 milioiko inportazioen arteko emaitza). Ibilgailu moten arabera eta turismoekin hasita, 2014an esportazioak 23.249 milioi euro izan dira, % 10,4 gehiago 2013an baino. Inportazioek, berriz, % 32,6 hobetu dituzte aurreko ekitaldiko balioak, eta 11.185 milioi euro izan dira guztira. Hala eta guztiz ere, 2014. urtea 12.064 milioi euroko saldo positiboarekin itxi da, 2013an baino % 4,4 gutxiago, ezbairik gabe, inportazioen bultzadaren ondorioz. Kamioek ere gorakada eragin dute, hala esportazioen balioei dagokienez (% 13,1) nola inportazioei dagokienez (% 35,8), eta 3.794 milioi euroko merkataritza-saldo positiboa lortu dute (2013an baino % 5,7 gehiago). Maila askoz txikiagoan mugitzen dira ibilgailu bereziak eta autobusak; lehenengoek murrizketak izan dituzte bai esportazioetan bai inportazioetan eta bigarrenek, berriz, esportazioen balioan beherakada izan dute, inportazioarenak gora egin duen

bitartean; horri esker, merkataritza-balantzan superabita izatea lortu dute (87 milioi euro lehenengoaren kasuan eta 118 milioi bigarrenaren kasuan).

112. taula Automozio-sektorearen esportazioak eta inportazioak

(milioi euro)

| Ibilgailuak | Esportazioak eta entregak Europar Batasunaren barruan | | | Inportazioak eta erosketak uropar Batasunaren barruan | | | Esportazioen eta inporta- zioen arteko saldoa | | |
|--------------------|---|---------------|-------------|--|---------------|-------------|--|---------------|-------------|
| | 2013 | 2014 | %Δ | 2013 | 2014 | %Δ | 2013 | 2014 | %Δ |
| Turismoak | 21.055 | 23.249 | 10,4 | 8.437 | 11.185 | 32,6 | 12.618 | 12.064 | -4,4 |
| Kamioiak | 4.762 | 5.387 | 13,1 | 1.173 | 1.593 | 35,8 | 3.588 | 3.794 | 5,7 |
| Ibilgailu bereziak | 143 | 127 | -11,5 | 58 | 40 | -31,4 | 85 | 87 | 2,3 |
| Autobusak | 280 | 212 | -24,4 | 85 | 94 | 11,1 | 196 | 118 | -39,8 |
| Guztira | 26.240 | 28.974 | 10,4 | 9.753 | 12.912 | 32,4 | 16.487 | 16.063 | -2,6 |

Iturria: Aduanen Zuzendaritza Nagusia.

Behin automobilgintza-industriaren magnitude nagusiak aztertu ondoren, behar-beharrezkoa da industria hornitzaileari erreparatzea, automozio-sektorea Estatuko ekonomiarako sektore estrategikoa izatea bultzatzen duen neurrian. 2014an, osagai eta osagarrien industriaren sektoreko kopuru handiek aditzera eman dutenez, industriaren jardunak oso bilakaera positiboa izan du, atal guztietan hobera egin duelako, eta horrek agerian jartzen du enpresen lehiakortasun handia. Fakturazioari dagokionez, ekitaldia 29.732 milioi euroekin itxi da, hau da, urtez urteko aldakuntza % 6,1ekoa izan da 2013ren aldean. Enpleguak ere antzeko bilakaera izan du, eta azken bi urteetako goranzko joerari eutsi dio (196.582 pertsona, aurreko urtean baino % 3 gehiago).

Gainerako adierazle guztietan ere goranzko joera hori nabari da nolabait, eta tamaina desberdineko igoerak izan dira. Jauzi kuantitatiborik handiena inbertsioen atalean nabari da. Inbertsioak 1.811 milioi euro izan dira, fakturazioaren % 6,1 izanik, 2013an baino % 19 gehiago. Halaber, I+G+Bko inbertsioak bultzada esanguratsua jaso du, 904 milioi euro guztira, hau da, aurreko ekitaldian administratutako balioak baino % 15,3 gehiago. Termino komertzialetan ere igoera nabari da, bai esportazioetan, bai, bereziki, etxeko salmentetan. Esportazioetan gorakada % 3,6 izan da, merkatu nazionalean erregistratutako % 9,9aren aldean. Haatik, azpimarratzekoa da kanpo-jarduera askoz ere indartsuagoa izan dela, 17.602 milioi euroko balioa sortu duelako, Espainiako merkatuaren 12.121 milioien aldean. Etxeko eremuan ere automobilgintzarako salmentak dira bilakaera onena izan dutenak (% 13,4), guztizkoaren % 65 izanik. Ordezko piezen merkatuaren balioek hobera egin dute zertxobait (% 3,9ko igoera).

113. taula Espainiako automoziorako ekipa eta osagaien industriaren kopuru nagusiak

| KONTZEPTUA | (M eurotan) | | |
|------------------------------|-------------|---------|----------|
| | 2013 | 2014 | %Δ 14/13 |
| Fakturazioa | 28.019 | 29.723 | 6,1 |
| Salmentak merkatu nazionalen | 11.030 | 12.121 | 9,9 |
| - Jatorrizko ekipoa | 6.906 | 7.833 | 13,4 |
| - Ordezko piezak | 4.124 | 4.287 | 3,9 |
| Esportazioak | 16.988 | 17.602 | 3,6 |
| Inbertsioak | 1.521 | 1.811 | 19,0 |
| I+G+Bko inbertsioak: | 785 | 904 | 15,3 |
| Enplegua (langile kopurua) | 190.949 | 196.582 | 3,0 |

Iturria: Sernauto.

Etorkizunari begira, industria osagarriaren bilakaera, logikoa denez, automobilgintzaren mende dago. Dirudienez, talde multinazional handiek fabrikatzaile nazionalen alde egiten jarraitzen dute, eta horren arabera sektorea hazi egingo da etorkizunean, ekoizpen-kate osoaren mesedetan, eta batez ere ekoizpen-prozesuetan presentzia handiena duten osagai-fabrikatzaileen mesedetan. Ezagunak dira sektorearen lehiakortasun handia, bizitasuna eta aldaketetara egokitzeko azkartasuna, eta horri guztiari esker sektoreak gero eta protagonismo handiagoa hartu du ekoizpen-prozesuetan, ibilgailuaren balioaren % 75 izanik.

Hori argi utzi ondoren, eta kapitulu hau nolabait ixteko, automozio-sektorearen etorkizunari buruzko azken informazioek baikor izateko arrazoiak ematen dizkigute nolabait. Batetik, fabrika nazionalak inbertsioak sendotu dira eta 143 modelo berri esleitu dira, eta bestetik merkatuak goraka hasi dira, etxeko merkatua barne, Gobernuaren pizgarri-planek bultzatuta bada ere. Sektorea suspertzeko bidean dago, hiru urtean 3 milioi unitate produzitzeko helburuarekin. ANFAC patronalak planteamendu hori egin du bere 3 Milioiko Plana estrategiaren barruan, bezero digitalak bilatzeko eta, besteak beste, logistika, energia eta kanpo-merkataritza garatzeko. ANFACek sektorearen lehiakortasuna handitzeko argitaratutako informazioaren arabera garrantzitsua da, batetik, ekoizpen- eta logistika-sistemak berregokitzea eta lehengaiak eta energia arazoizko kostuetan eskuratzeko aukerak ziurtatzea, eta, bestetik, talentu handieneko profesionalak ekartzeta eta prestatzea, eta negozio- eta lankidetzaren berriak aurkitzea balio-kate osoan, erregulazio koherente eta kostu eraginkor batekin.

5.3 SEKTOREA NAFARROAN

Nafarroaren ekonomiaren egitura industria sektoreak garrantzia handia du, eta, sektore horren barruan, automobilgintzaren industriaren garrantzia erlatiboa nabarmena da, argi eta garbi. Nafarroak automozioiko osagaiak eta osagarriak ekoizten dituzten hainbat enpresa ditu, guztiak ere Volkswagen enpresaren inguruan jarduten dutenak, enpresa hori baita Nafarroako sektoreko burua. Egia da sektorea ez dela Volkswagen eta haren hornitzaileen jarduerara mugatzen; hala ere, Landabeneko fabrikaren ekoizpen-erritmoa baliagarria, neurri batean, sektorearen jarduera neurtzeko. Hau esanik, 2014an, Nafarroako fabrikek ekoizpen bolumen handiagoarekin eta irabazi handiagoekin itxi dute urtea; gainera, matrizeak inbertsio garrantzitsuak egingo dituela adierazi du. Hori kontuan hartuz, sektorearen ekonomia-aurreikuspenak nahiko baikorrak izan litezke, sektoreak Volkswagen Nafarroaren antzeko bilakaera izaten badu behintzat, eta posible izan daiteke azken urteotako baino profil dinamikoagoa izatea etorkizunean.

| 114. taula Enpleguaren eta enpresa kopuruaren bilakaera ^(*) | | | | | |
|--|---------------|---------------|---------------|---------------|---------------|
| Kontzeptua | 2010 | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 |
| Automozio-enpresen kopurua | 103 | 104 | 105 | 103 | 108 |
| Automozioiko enplegua | 12.529 | 13.160 | 11.752 | 11.604 | 11.929 |
| Industriako enplegua guztira | 66.690 | 66.702 | 62.817 | 60.264 | 61.086 |
| % enplegua automozioaren sektorean/enplegua industria sektorean | 18,8 | 19,7 | 18,7 | 19,3 | 19,5 |

(*): *Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren datuak. Garraio-materialen enpresak. Iturria: Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera.*

Sektoreko enpleguari eta enpresa kopuruari buruzko datuak hurbiletik aztertuz, bistakoa da bai batak eta bai besteak gorakada izan dutela 2014ko ekitaldian. Enplegua suspertu egin da, azken bi urteetako galeren ondoren, eta sektoreko langile kopurua 11.929 pertsonara iritsi da. Enpleguaren gorakada hori (% 2,8) enpresa kopuruaren gorakadaren ondorio zuzena da; izan ere, 2014an enpresen erroldak gora egin du eta ekitaldi horretan 108 enpresa egon dira erroldatuta automozioaren sektorean, aurreko urtean baino 5 gehiago. Gauzak horrela, automozioiko enplegua industriaren sektore osoko enpleguaren % 19,5 da; ondorioz, automozioaren industriak paper garrantzitsua du Nafarroako ekonomiaren bilakaerari dagokionez.

115. taula Ibilgailu automobilen eta haien ordezeko piezen eraikuntza: enpresen egitura eta enpresa kopurua⁽¹⁾

| Enplegu-estratuak | Enpresa kopurua | Enplegua |
|-------------------|-----------------|-----------------------------|
| ≤ 5 | 33 | 73 |
| 6-50 | 38 | 900 |
| 51-100 | 12 | 830 |
| 101-500 | 22 | 4.089 |
| >500 | 3 | 5.993 |
| GUZTIRA | 108 | 11.929⁽²⁾ |

(1): Informazioa Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean afiliatutako enpresen eta langileen batez bestekoari dagokio, Garraio-materialen enpresak.

(2): Enpleguaren zenbateko osoa zein den jakiteko, 11.929 landunei 45 langile autonomo gehitu behar zaizkie.

Iturria: Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera.

Sektoreko enpresa-egiturak nolako bilakaera izan duen aztertuko dugu orain. Enpresa-sare hori 108 enpresak osatzen dute (2013an 103 ziren); haietako 83k 100 langile baino gutxiago dituzte; 22k 101 eta 500 langile artean dituzte, eta 3 enpresak 500 langile baino gehiago dituzte. Hala, aurrerago ere esan denez, 2014an 5 enpresa berri sartu ziren enpresa-errodan eta horrek batez ere eragina izan zuen beheko enplegu mailetan. Zehatzago esateko, 4 dira 5 langile baino gutxiago dituzten enpresa berriak (guztira 33 enpresak dute 5 langile baino gutxiago). Hurrengo tartean, 6 eta 50 langile artean dituzten enpresen taldean, hain zuzen ere, aurreko ekitaldian baino enpresa bat gehiago dago 2014an (38; 2013an, berriz, 37). 51 eta 100 langile bitarteko enpresen taldeari dagokionez, kide bat galdu du sektorean (13 izatetik 12 izatera igaro da) eta hurrengo taldeak, berriz, (101 eta 500 langile artean) kide bat irabazi du (guztira 21 enpresa izatetik 22 izatera igaro da). Bukatzeko, enpresa handiagoei dagokienez (500 langile baino gehiago) ez da aldaketarik egon 2013ko datuen aldean, eta berriro ere 3 enpresak osatu dute talde hori.

116. taula Automozioaren sektoreko Nafarroako enpresa nagusiak, 2014an

| Enpresa | Enplegua | Udalerria |
|--|----------------------|-----------|
| Volkswagen Navarra S.A. | 4.274 ^(*) | Iruñea |
| Dana Automoción, S.A. | 500 baino gehiago | Iruñea |
| SAS Autosystemtechnik S.A. | 500 baino gehiago | Arazuri |
| TRW Automotive España, S.L. | 500 baino gehiago | Iruñea |
| KYB Suspensions Europe, S.A. | 500 baino gehiago | Asiain |
| Tecnoconfort S.A. | 251 eta 500 artean | Iruñea |
| KYB Steering Spain, S.A. | 251 eta 500 artean | Orkoien |
| Faurecia Emcon Technologies Spain, S.L. | 101 eta 250 artean | Orkoien |
| Industrias Cousin Frères, S.L. | 101 eta 250 artean | Burlata |
| Asientos Esteban S.L. | 101 eta 250 artean | Iruñea |
| Grupo Antolin Navarra, S.A. | 101 eta 250 artean | Arazuri |
| Mecanizados Industria Auxiliar, S.A. | 101 eta 250 artean | Iruñea |
| TI Automotive Pamplona, S.A. | 101 eta 250 artean | Aizoain |
| Alcala Industrial, S.A. | 101 eta 250 artean | Eskirotz |
| Sigma Brakes, S.A. | 101 eta 250 artean | Tutera |
| Suministros y servicios unificados de carrocería | 101 eta 250 artean | Altsasua |
| Maier Navarra, S.L. | 101 eta 250 artean | Iraizotz |
| Karosseriewerke Dresden España, S.A. | 101 eta 250 artean | Orkoien |

(*): Volkswagen Nafarroaren 2014ko memoria.

Iturria: Geuk egina, Nafarroako Enpresen Enpresa Direktorioko informazioa eta Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganberaren informazioa erabiliz.

Nafarroako automozioaren sektorean hainbat automozio-enpresa hornitzaile daude. Enpresa horietako asko nazioarteko talde handietan sartuta daude, eta haietariko asko Nafarroan bertan daude, Volkswagen Nafarroak duen erakarpen-indarraren eraginez. Langile gehienak (4.274) Landabeneko fabrikaren mende daude; hala ere, erantsita doan koadroan ikus daitekeenez, enpresa hornitzaileek sortu dituzten lehenengo eta bigarren mailako lanpostuak ere oso esanguratsuak izan dira.

117. taula Kanpo-merkataritzaren bilakaera. Ibilgailu automobilak, osagaiak eta osagarriak*

| Kontzeptua | (M eurotan) | | | | |
|-------------------------------|-------------|---------|---------|---------|---------|
| | 2010 | 2011 | 2012 | 2013 | 2014** |
| Automozioiko esportazioak (1) | 3.423,3 | 3.819,5 | 3.274,4 | 3.369,8 | 3.592,1 |
| Esportazioak guztira (2) | 7.402,3 | 8.302,4 | 7.237,0 | 7.448,1 | 8.099,5 |
| (1)/(2) | 46,2 | 46,0 | 45,2 | 45,2 | 44,3 |
| Automozioiko inportazioak | 1.152,2 | 1.764,7 | 1.159,1 | 900,1 | 1.170,4 |

(*): Muga-zergen 87. kapitulua: Ibilgailu automobilak, traktoreak, zikloak eta lurreko gainerako ibilgailuak, baita haien osagaiak eta osagarriak ere.

(**): Aurreikuspenak.

Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua.

Aztertu dezagun orain kanpo-merkataritzaren egoera, 2014an ibilgailu automobilen, traktoreen, zikloen eta bestelako ibilgailuen sektoreari buruz argitaratutako informazioa oinarri hartuta. Berrito ere, esportazioek gora egin dute, aurten 2013an baino nabarmen gehiago (% 6,6 aurten; % 2,9 2013an); hala ere, gorakada hori Nafarroako esportazio guztiena (% 8,7) baino motelagoa izan da. Gauzak horrela, automozioaren industriak espor-

tazio gehien biltzen dituen sektorea izaten jarraitzen badu ere (osoaren % 44,3 dagokio sektore honi), ehuneko bi puntu galdu ditu aurreko bi urteetako mailari dagokionez. Inportazioei begira, berriz, muga-zergen kapitulu nagusia, berriro ere, automozioarena da. Gorakada nabarmena izan du, % 30koa, hain zuzen ere, eta osoaren % 28,7 izatea lortu du.

Nafarroako esportazioen helmuga aztertuta, argi gelditzen da produktuak batez ere Europar Batasunera (EB-28) bideratuta daudela, herrialde horietara baita esportatzen denaren % 70. Herrialdeka, Frantzia, Alemania, Erresuma Batua eta Italia dira Nafarroako produktu gehien jasotzen dituztenak. Esportazioen mapa hori errepikatu egiten da automozioaren sektorean, eta aipatutako herrialdeei Turkia gehitzen zaie, Nafarroako industriarekin fluxurik handiena duten bost herrialdeen taldean. Osagaien eta osagarrien azpisektoreari dagokionez, aldaketak egon dira sailkapenaren goiko aldean; izan ere, Alemaniak, Frantziak eta Erresuma Batuak goian egoten jarraitzen duten arren, Hego Afrikak eta Txekiak ere indarra hartu dute.

118. taula Volkswagen Nafarroa, S.A. enpresaren jarduera-magnitude nagusiak

| Kontzeptua | 2012 | 2013 | 2014 | (M eurotan) |
|--------------------------------|---------|---------|---------|-------------|
| | | | | % Δ 14/13 |
| Ekoizpen-jarduera | | | | |
| Ekoizpena (ibilgailuak) | 287.287 | 289.589 | 305.700 | 5,6 |
| Langileak (abendua 31n) | 4.386 | 4.491 | 4.274 | -4,8 |
| Diru-sarrerak | 2.651,1 | 2.654,2 | 2.931,9 | 10,5 |
| Emitza, zergak eta gero | 44,2 | 50,2 | 52,9 | 5,4 |
| Cash-Flow gordina | 115,1 | 117,9 | 119,7 | 1,5 |
| Inbertsioak | 57,7 | 74,1 | 33,7 | -55,6 |

Iturria: Volkswagen Nafarroa S.A.

Jarraian, Landabeneko fabrikaren ekitaldiko zifrak aztertuko ditugu. Lehen begiratuan argi gelditzen da enpresaren jarduera suspertu egin dela. Ekoizpenari dagokionez, 2014ko ekitaldia oso positiboa izan da Volkswagen Nafarroarentzat; izan ere, jarduera % 5,6 igo da eta 300.000 unitateko muga gainditzea lortu du, bi urtez azpitik egon ondoren. Era berean, diru-sarrerak ere gorakada izan dute 2013aren aldean (% 10,5), eta, ekitaldi amaieran, diru-sarrerak 2.931,9 milioi eurokoak izan ziren. Hala ere, enpleguaren bilakaera bestelakoa izan da; hala, % 4,8 egin du behera aurreko ekitaldiko balioen aldean. Zehatzago esateko, 2014an, Nafarroako fabrikak 4.274 langile zituen; horietatik % 70 langile zuzenak dira, eta horiek izan dute beherakadarik handiena (-% 6,3). Bestalde, inbertsioak 33,7 milioi eurokoak izan dira, hau da, % 55,6 murriztu dira, eta 2011ko balioetara itzuli dira.

Dena den, badirudi egoera aldatu egin litekeela. Badirudi Landabeneko fabrikak horretarako aukerak dituela etorkizunari begira. Enpresako iturrien esanetan, Volkswagen Tal-



deak 4.200 milioi euroko inbertsioa egitea aurreikusi du Estatuan dituen bi fabriketan (Martorelleko Seat fabrikak eta Nafarroako Volkswagenen), 2015 eta 2019 artean: Hala eginez gero, historiako industria-inbertsiorik handiena izango litzateke. Ziurrenik, inbertsio handi horrek eragin positiboa izango du hala industria laguntzaileetan nola enpleguan. Bestalde, Polo VW250 PA berriak arrakasta handia izango duela espero da, eta horrek 2014ko ekoizpen maila mantentzen edo hobetzen lagundu dezake. Laburbilduz, badirudi Landabeneko fabrikak laster berreskura dezakeela azken 30 urteetan ia etengabe ezaugarri izan duen goranzko joera. Hori hala bada, emaitza on horiek benetan eragin positiboa izango dute Nafarroako ekonomia osoan.

6. PAPERA

6.1 NAZIOARTEKO EGOERA

Paper eta Ore Fabrikatzaileen Elkarte Nazionalak (ASPAPEL) Europako Papergintza Industriako Konfederazioaren (CEPI) datuak oinarri hartuta emandako informazioaren arabera, 2014an paper- eta kartoi-ekoizpena 90.949 mila tonakoa izan da. Horrek esan nahi du urtetik urtera -% 0,2 gutxitu dela eta, beraz, 2011n hasi zen beheranzko joerak berdin jarraitzen duela. Hala ere, aipatzekoa da ekoizpenaren beheranzko erritmoa moteldu egin dela azken hiru ekitaldietan.

119. taula Paper- eta kartoi-ekoizpena (CEPIkideak)

| Urtea | m Tm | % Δ |
|-------|--------|-------|
| 2009 | 88.588 | -10,7 |
| 2010 | 96.614 | 9,1 |
| 2011 | 93.557 | -3,2 |
| 2012 | 92.081 | -1,6 |
| 2013 | 91.128 | -1,0 |
| 2014 | 90.949 | -0,2 |

Iturria: Paper eta Ore Fabrikatzaileen Elkarte Nazionala, CEPIren (Europako Papergintza Industriako Konfederazioaren) datuak kontuan hartuz.

Paper-ekoizpenaren eskualdeko banaketari begira eta kontuan izanik datu hauek 2013. urteari dagozkio, aipatzekoa da CEPIko kide diren herrialdeek mundu osoan ekoizten den paperaren % 22,7 ekoizten dutela, Asiak, munduan paper gehien ekoizten duen kontinenteak, baino nabarmen gutxiago (% 45,3), baina Ipar Amerikak baino zertxobait gehiago (mundu osoko paperaren % 21,1 ekoizten du).

2014ko ekitaldiko datuetara mugatzen bagara, CEPIri dagokionez, hala inportazioek nola paper-kontsumoak gora egin dute (% 7,9 eta % 0,9, hurrenez hurren); esportazioek, berriz, behera egin dute (-%2,5). Zehazki, 5.177 mila tona inportatu dira, eta gorakada hori orokorra izan da; izan ere, salbuespen bakarra Latinoamerikatik iritsitako inportazioak izan dira (-% 7,2 gutxitu dira). Munduko gainerako eskualdeetatik heldutako inportazioak % 16,8 igo dira; Europako gainerako herrialdeetakoak, berriz, % 11,6; Asiakoak, % 7,5, eta Ipar Amerikakoak % 4,6. Bestalde, 77.080 mila tona paper kontsumitu dira. Esportazioei dagokienez, berriz, 19.164 mila tona esportatu dira, eta kasu guztietan egin dute behera: Latinoamerika, -% 4,8; Europako gainerako herrialdeak, -%3,2; Ipar Amerika, -% 2,2; Asia, -%1,4; munduko gainerako eskualdeak, -% 1,2.

Hori guztia kontuan hartuz, CEPIko kide diren herrialdeetan, paperaren balantza komertzialaren saldoa positiboa izan zen 2014an (13.987 mila tona), aurreko ekitaldian baino % 5,8 txikiagoa (2013an, 14.849 mila tonako superabita lortu zen).

120. taula Paper- eta kartoi-ekoizpena, herrialdeka

| Herrialdea | <i>(m tona)</i> | |
|--------------------------|-----------------|--------------|
| | 2013* | % s/Guztira |
| Alemania | 22.393 | 5,6 |
| Austria | 4.837 | 1,2 |
| Belgika | 1.982 | 0,5 |
| Bulgaria | 247 | 0,1 |
| Danimarka | 61 | 0,0 |
| Espainia | 6.182 | 1,5 |
| Finlandia | 10.592 | 2,6 |
| Frantzia | 8.043 | 2,0 |
| Grezia | 317 | 0,1 |
| Hungaria | 705 | 0,2 |
| Italia | 8.645 | 2,2 |
| Holanda | 2.792 | 0,7 |
| Polonia | 4.064 | 1,0 |
| Portugal | 2.210 | 0,5 |
| ErresumaBatua | 4.561 | 1,1 |
| Txekiar Errepublika | 610 | 0,2 |
| Eslovakia | 759 | 0,2 |
| Suedia | 10.782 | 2,7 |
| Norvegia | 1.079 | 0,3 |
| Suitza | 1.214 | 0,3 |
| Brasil | 10.444 | 2,6 |
| Kanada | 11.127 | 2,8 |
| Txina | 104.691 | 26,0 |
| Estatu Batuak | 73.752 | 18,3 |
| India | 10.595 | 2,6 |
| Japonia | 26.241 | 6,5 |
| Errusia | 7.727 | 1,9 |
| Mundua, guztira** | 402.062 | 100,0 |

(): Herrialdeka egindako banaketaren kasuan, 2013ko datuak baino ez daude eskuragarri.*

*(**): Geure balioespena, CEPIren (Europako Papergintza Industriako Konfederazioaren) datuak oinarri hartuta.*

Iturria: Paper eta Ore Fabrikatzaileen Elkarte Nazionala.

Ore-ekoizpenari dagokionez, 2014an, CEPIko kide diren herrialdeek 36.545 mila tona ekoitzi zituzten; hau da, 2013an baino % 1,9 gutxiago. Ore-ekoizpenaren eskualdekako banaketari begira, eta kontuan izanik datu hauek 2013. urteari dagozkiola, aipatzekoa da CEPIko kide diren herrialdeek mundu osoan ekoizten den orearen % 20,4 hartzen dutela, Ipar Amerikak baino nabarmen gutxiago (% 37,2) eta gutxi gorabehera Asiak bezainbeste (munduko ekoizpen osoaren % 22,5).

121. taula Ore-ekoizpena, herrialdeka

| Herrialdea | 2013* | (m tona) % s/Guztira |
|--------------------------|----------------|-------------------------|
| Alemania | 2.610 | 1,4 |
| Austria | 1.556 | 0,9 |
| Belgika | 501 | 0,3 |
| Bulgaria | 203 | 0,1 |
| Danimarka | 0 | 0,0 |
| Espania | 1.977 | 1,1 |
| Finlandia | 10.375 | 5,7 |
| Frantzia | 1.699 | 0,9 |
| Grezia | 0 | 0,0 |
| Hungaria | 0 | 0,0 |
| Italia | 410 | 0,2 |
| Holanda | 94 | 0,1 |
| Polonia | 1.077 | 0,6 |
| Portugal | 2.479 | 1,4 |
| Erresuma Batua | 190 | 0,1 |
| Txekiar Errepublika | 454 | 0,2 |
| Eslovakia | 610 | 0,3 |
| Suedia | 11.721 | 6,4 |
| Norvegia | 926 | 0,5 |
| Suitza | 175 | 0,1 |
| Brasil | 14.985 | 8,2 |
| Kanada | 17.254 | 9,4 |
| Txina | 9.494 | 5,2 |
| Estatu Batuak | 49.412 | 27,1 |
| India | 1.735 | 0,9 |
| Japonia | 8.768 | 4,8 |
| Errusia | 6.935 | 3,8 |
| Mundua, guztira** | 182.662 | 100,0 |

(*):Herrialdeka egindako banaketaren kasuan, 2013ko datuak baino ez daude eskuragarri.

(**):Geure balioespina, CEPIren (Europako Papergintza Industriako Konfederazioaren) datuak oinarri hartuta.

Iturria:Paper eta Ore Fabrikatzaileen Elkarte Nazionala.

6.2 SEKTOREA ESPAINIAN

Paper eta Ore Fabrikatzaileen Elkarte Nazionalaren (ASPAPPEL) arabera, 2014an 6.035,7 mila tona paper eta kartoi ekoizti ziren estatuan; hau da, urtez urteko -% 2,4eko atzerakada egon da. Joera hori bat dator CEPIko kide diren gainerako herrialdeetan egon den beherakada txikiarekin.

Sektoreko gainerako adierazleak kontuan hartzen baditugu, ikusiko dugu hala inportazioak (3.136,7 mila tona) nola paperaren kontsumo atzemangarria (6.257,4 mila tona) igo egin direla (% 6,3 eta % 2,8, hurrenez hurren); esportazioek (2.915 mila tona), berriz, behera egin dute (-% 4,3). Hori guztia kontuan hartuz, paperaren balantza komertzialaren saldoa negatiboa izan zen 2014an (- 221,6 mila tona), 2013an lortu zen 96,6 mila tonako superabitarekin alderatuta.


122. taula Paperaren eta kartoiaren ekoizpena eta kontsumoa.Espainia, guztira

(m Tm)

| Urtea | Ekoizpena | Inportazioak | Esportazioak | Kontsumo atzemangarria |
|-------|-----------|--------------|--------------|------------------------|
| 2005 | 5.696,9 | 3.779,1 | 2.087,1 | 7.388,9 |
| 2006 | 6.353,3 | 4.312,2 | 2.797,5 | 7.868,0 |
| 2007 | 6.713,3 | 3.763,3 | 2.769,6 | 7.707,1 |
| 2008 | 6.414,3 | 3.815,9 | 2.964,6 | 7.265,6 |
| 2009 | 5.679,2 | 3.323,2 | 2.809,8 | 6.192,4 |
| 2010 | 6.193,4 | 3.316,9 | 3.062,4 | 6.447,9 |
| 2011 | 6.202,6 | 3.180,4 | 2.955,3 | 6.427,7 |
| 2012 | 6.176,7 | 2.938,2 | 2.957,0 | 6.157,9 |
| 2013 | 6.181,5 | 2.950,8 | 3.047,4 | 6.084,9 |
| 2014 | 6.035,7 | 3.136,7 | 2.915,1 | 6.257,4 |

Iturria:Paper eta OreFabrikatzaileen Elkarte Nazionala.

18. grafikoa Paperaren sektoreko aldagai nagusien bilakaera Espainian



Iturria:Paper eta OreFabrikatzaileen Elkarte Nazionala.

Kanpoko eragiketen jatorriari eta helburuari dagokionez, Europar Batasuna da, oraindik ere, Espainiaren merkataritza-kide nagusia; izan ere, inportazioen % 86,7 berari dagokio, baita esportazioen % 61 ere. Zehazki, Frantzia eta Finlandia dira kanpoko erosketa gehien egiten dituztenak (% 18,8 eta % 17,3 hurrenez hurren); kanpoko salmenta gehien, berriz, Portugalen (% 20,2) eta Frantzian (% 19,4) egiten dira.

Bestelako paperek eta paper iztukatuak izan ezik, horien ekoizpena handitu egin baita (% 6,9 eta % 2,8, hurrenez hurren), gainerako paper motek ekoizpenari eutsi diote. Era horretan, ontzien eta bilgarrien ekoizpena -% 8,4 erori da; prentsarako, inprimitzeko eta idazteko paperaren ekoizpena -% 5,9 erori da; paper higieniko-sanitarioarena, berriz -%3,9; bukatzeko, uhin-kartoa egiteko erabiltzen zena, -% 0,7 jaitsi da.

123. taula Ekoizpena eta kontsumoa, paper motaren arabera

(m Tm)

| Mota | Ekoizpena | | Inportazioak | | Esportazioak | | Kontsumo atzemangarria | |
|--|----------------|--------------|----------------|--------------|----------------|--------------|------------------------|--------------|
| | 2014 | % Δ 14/13 | 2014 | % Δ 14/13 | 2014 | % Δ 14/13 | 2014 | % Δ 14/13 |
| Prentsarako, inprimatzeko eta idazteko | 1.409,7 | -5,9 | 1.302,9 | 5,4 | 1.232,5 | -5,2 | 1.480,0 | 3,3 |
| Higienikoak eta sanitarioak | 679,0 | -3,9 | 148,4 | 9,2 | 175,3 | 1,4 | 652,1 | -2,6 |
| Uhin-kartoa egiteko | 2.833,9 | -0,7 | 884,9 | 7,8 | 966,0 | -4,4 | 2.752,8 | 3,3 |
| – Uhinak egiteko | 1.214,5 | -1,4 | 298,8 | -1,2 | 403,6 | -3,4 | 1.109,7 | -0,6 |
| – Test Liner eta KraftLiner | 1.192,7 | 3,8 | 554,2 | 11,9 | 487,4 | 0,8 | 1.259,5 | 8,4 |
| – Bikoak eta larrua | 426,8 | -9,5 | 31,9 | 37,1 | 75,1 | -31,1 | 383,7 | -0,6 |
| Kartoi iztukatua | 279,0 | 2,8 | 469,1 | 4,4 | 142,6 | 7,9 | 605,5 | 2,9 |
| Beste ontzi eta bilgarri batzuk | 462,3 | -8,4 | 263,3 | 7,7 | 341,9 | -11,5 | 383,6 | 5,7 |
| Beste paper batzuk | 371,9 | 6,9 | 68,2 | 6,2 | 56,7 | 24,5 | 383,4 | 4,6 |
| Papera eta kartoa, guztira | 6.035,7 | -2,4 | 3.136,7 | 6,3 | 2.915,1 | -4,3 | 6.257,4 | 2,8 |

Iturria: Paper eta Ore Fabrikatzaileen Elkarte Nazionala.

Paper-orearen azpisektorea dela eta, joera errepikatu egiten da; papera eta kartoiaren kasuan bezala, paper-orearen ekoizpena -%5,7 jaitsi zen 2014an (1.863,3 mila tona ekoi-tzi ziren). Era berean, hala paper-orearen inportazioak nola esportazioak, baita kontsumo atzemangarria ere (1.047,6; 1.097,8 eta 1813,1 mila tona, hurrenez hurren) jaitsi egin da (-% 9,8 inportazioei eta esportazioei dagokienez, eta -% 5,6 kontsumoari dagokionez).

Hori guztia kontuan hartuz, paper-orearen balantza komertzialak superabita izan zuen 2014an; izan ere, 50,2 mila tonako saldo positiboa lortu zuen. Zenbateko hori aurreko ekitaldian lortutakoa baino zertxobait txikiagoa da (2013an, 55,2 mila tonako superabita izan zuen). Estaldura tasa, berriz, % 104,8koa da (aurreko ekitaldiko berbera).

Ore motaren arabera banakatutako datuak aztertuz gero, ikusten da ore mekanikoa eta kimikoa direla sektore honen nukleoa, bai produkzioari dagokionez, bai esportazioei/inportazioei dagokienez, baita kontsumo atzemangarriari dagokionez ere; izan ere ore mota horrek bilakaera negatiboa izan du partida guztietan. Beraz, hala ore mekanikoaren eta kimikoaren inportazioak (995,6 mila tona) nola esportazioak (1.079,4 mila tona), baita ekoizpena (1.838,2 mila tona, 2014an ekoi-tzitako ore guztiaren % 98,7) eta kontsumo atzemangarria ere (1.754,4 mila tona), jaitsi egin dira (-%10,4, -%10,1, -% 6 eta -% 6, hurrenez hurren).

Berreskuratutako paperari dagokionez, 2014an 5.052,9 mila tona kontsumitu dira; horrek esan nahi du urtez urteko bolumena -% 1,8 jaitsi dela.

124. taula Ekoizpena eta kontsumoa ore motaren arabera

(m Tm)

| Mota | Ekoizpena | | Inportazioak | | Esportazioak | | Kontsumo atzemangarria | |
|---------------------------------------|-----------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|------------------------|--------------|
| | 2014 | % Δ 14/13 | 2014 | % Δ 14/13 | 2014 | % Δ 14/13 | 2014 | % Δ 14/13 |
| Ore mekanikoa eta kimikoa | 1.838,2 | -6,0 | 995,6 | -10,4 | 1.079,4 | -10,1 | 1.754,4 | -6,0 |
| Erdikimikoa eta beste batzuk | 25,2 | 16,7 | 52,0 | 3,7 | 18,4 | 15,6 | 58,7 | 5,4 |
| Ore berriak, guztira | 1.863,3 | -5,7 | 1.047,6 | -9,8 | 1.097,8 | -9,8 | 1.813,1 | -5,6 |
| Paper zaharra (bilketa atzemangarria) | 4.439,3 | 4,1 | 1.505,2 | -2,6 | 891,6 | 33,9 | 5.052,9 | -1,8 |

Iturria: Paper eta Ore Fabrikatzaileen Elkarte Nazionala

Aurreko txostenetan egindako lanari jarraipena emanez, jarraian berreskuratutako paperaren erabilera aztertuko dugu, honako adierazle hauek kontuan hartuz: bilketa-tasa atzemangarria (paper zaharren ekoizpena/paper- eta kartoi-kontsumoa): % 70,9 2014an eta % 70,1 2013an; erabilera-tasa (paper zahar kontsumoa/paper- eta kartoi-ekoizpena): % 83,7 2014an eta % 83,2 2013an; birziklatze-tasa (paper zahar kontsumoa/paper- eta kartoi-kontsumoa): % 80,8 2014an eta % 84,6 2013an.

Nazioarteari begira, aipatzekoa da Espainiako paperaren sektoreak CEPIko kide diren gainerako herrialdeek baino bilakaera okerragoa izan duela, paperaren eta kartoiaren esportazioei dagokionez zein ekoizpenari dagokionez. Hala, 2014an, estatu mailako paper- eta kartoi-ekoizpenak -% 2,4ko murrizketa izan du; bitartean, CEPIko gainerako herrialdeetan, ekoizpena -% 0,2 baino ez da jaitsi. Esportazioetan, berriz, Espainiak -% 4,3 gutxiago esportatu du (papera eta kartoiak); CEPIko gainerako herrialdeen esportazioak, ordea, -% 2,5 jaitsi dira.

Bukatzeko, esan beharra dago Espainian egin den elektrizitate-sistemaren erreformak kalte handiak eragin dizkiola estatuko paperaren sektorearen lehiakortasunari; ondorioz, neurri handi batean, merkatu nazionalean zuen kuota galdu du eta esportazioek atzerakada jasan dute.

6.3 SEKTOREA NAFARROAN

Estatu mailan eta CEPIko kide diren herrialdeetan paperaren eta kartoiaren ekoizpenak behera egin du (-% 2,4 eta % -0,2). Nafarroan joera ere antzekoa izan da: papergintzaren

sektoreak -% 1,8 murriztu du paperaren eta kartoiaren ekoizpena 2014an eta, guztira, 494,3 mila tona ekoitzi dira. Horrela, Nafarroako papergintza-sektoreak ekoizpenari dagokionez estatuan duen garrantzi erlatiboa ez da ia aldatu (% 8,2, 2014an eta % 8,1, 2013an).

125. taula Paper- eta ore-ekoizpena Nafarroan

| Kontzeptua | (m Tm) | | | |
|-------------------------------------|--------------|--------------|--------------|-------------|
| | 2012 | 2013 | 2014 | % Δ14/13 |
| Paper higienikoa eta sanitarioa | 146,2 | 173,5 | 155,0 | -10,7 |
| Biltzeko papera eta beste batzuk | 357,0 | 330,2 | 339,3 | 2,8 |
| Papera eta kartoiak, guztira | 503,3 | 503,3 | 494,3 | -1,8 |
| Orea, guztira | 80,9 | 80,9 | 84,0 | 3,8 |

Iturria: Paper eta Ore Fabrikatzaileen Elkarte Nazionala

Oreari dagokionez, Nafarroan izan den ekoizpenaren gorakadak (% 3,8) argi eta garbi hobetzen du Estatuan eta CEPIko herrialdeetan bizi duten atzerakada (-% 5,7 eta -% 1,9, hurrenez hurren). Hori horrela, Nafarroan 84 mila tona ore ekoitzi dira 2014an. Horrek esan nahi du urtez urteko bolumena % 3,8 igo dela eta, ondorioz, Nafarroan ekoiztiko ore 2013an estatuan ekoitzi zen ore guztiaren % 4,1 izatetik 2014an % 4,5 izatera igaro dela.

Arreta kanpoko merkataritzan jarriz gero, eta kontuan hartuz kasu honetan azterketak diruari buruzko datuak ematen dizkigula, ikus daiteke 2014an Nafarroako paper- eta kartoi-esportazioek ia ez dutela behera egin (-% 0,1) eta inportazioek, berriz, -% 38 egin dutela behera. Zehazki, sektore horren kanpoko salmentek 236.240 mila euro lortu dituzte; kanpoko erosketak, berriz, 81.930 mila eurokoak izan dira, guztira. Hori horrela, merkataritza-superabita 154.310 mila eurora igo da (104.230 mila euro, 2013an), eta estaldura-tasa % 288,3koa izan da (% 178,8, 2013an).

126. taula Nafarroako paperaren eta orearen kanpo-merkataritzaren bilakaera

| Urtea | Esportazioak | | Inportazioak | | Balantza komertziala | Estaldura-tasa |
|-------|--------------|-------|--------------|-------|----------------------|----------------|
| | | % Δ | | % Δ | | |
| 2010 | 159.120 | -13,3 | 123.600 | 32,2 | 35.520 | 128,7 |
| 2011 | 227.990 | 43,3 | 142.770 | 15,5 | 85.220 | 159,7 |
| 2012 | 256.760 | 12,6 | 127.530 | -10,7 | 129.230 | 201,3 |
| 2013 | 236.450 | -7,9 | 132.220 | 3,7 | 104.230 | 178,8 |
| 2014* | 236.240 | -0,1 | 81.930 | -38,0 | 154.310 | 288,3 |

(*): Behin-behineko datuak.

Iturria: Nafarroako Estadistika Institutua, Aduanen Zuzendaritza Orokorra oinarri hartuta.

Sektorearen beraren nondik norakoak aztertu ondoren, Nafarroako enpresen egoera aztertzeko unea iritsi da. Horretarako, txosten hau egin zen unean sektore horretan lanean ari ziren enpresei buruzko informazioa erabiliko da.

Testuinguru horretan, gogorarazi behar da, lehenengo eta behin, autonomia-erkidegoan hiru paper-fabrika handi hauek daudela: Sarriopapel y Celulosa, SA, Smurfit Kappa Navarra, SA eta Georgia Pacific. Enpresa handi horiekin batera, enpresa txikiago batzuek ere badihardute, besteak beste, Papeleradel Ebro, Newark San Andrés, Bertako, Papertech, Papelesel Carmen, Ibertissue eta Videcart enpresek.

127. taula Paper-sektoreko enpresa nagusiak Nafarroan

| Enpresak | Lekua | Jarduera |
|------------------------------|----------------------------|--|
| Sarriopapel y Celulosa, S.A. | Leitza, Amorebieta, Uranga | Inprimatzeko eta idazteko papera, eta ore |
| Smurfit Kappa Navarra | Zangoza, Cordovilla | Orea, kraft papera, uhin-kartoiak eta zakuak |
| Georgia Pacific, SPRL | Allo | Tisu papera |
| Papeleradel Ebro | Viana | Papergintza eta bilgarrigintza |
| Newark San Andrés | Atarrabia | Papergintza eta kartoigintza |
| Bertako, S.L. | Huarte | Paperaren eta uhin-kartoiaren fabrikazioa |
| Papertech, S.L. | Tutera | Orearen, paperaren eta uhin-kartoiaren fabrik. |
| Papeles el Carmen, S.A. | Alzuza | Paperezko eta kartoizko artikuluen fabrikazioa |
| Ibertissue, S.L. | Buñuel | Paperezko eta kartoizko artikuluen fabrikazioa |
| Videcart, S.A. | Ibiriku | Papergintza eta kartoigintza |

Iturria: Nafarroako memoriak eta ganbera.

Sarriopapel y Celulosa, SA enpresak (Leitza, Uranga), inprimatzeko eta idazteko papera-aren azpi-sektorean jarduten du, eta Lecta taldeko kidea da. Zehatzago esateko, Torraspapel, SA eta Sarriopapel y Celulosa SA, % 100eko partaidetzarekin, fusionatu egin ziren 2014ko abenduan, eta fusio hori urte hasieran sartu zen indarrean. Sarriopapel y Celulosa, SAK fusiora Leitzaeko ekoizpen zentroa gehitu zuen; bertan paper berezi hauek fabrikatzen dira: autokopiatzailea, distira handikoa, metalizatuak eta termikoak. Haren jardura estuki loturik dago Torraspapel, SA enpresarekin (Torraspapel, SAK ekoizten du beharrezkoak diren euskarrien % 75, eta hirugarrenei eginiko salmenten % 100 Torraspapel, SA enpresaren merkataritza-egituraren eta haren filialen bidez egiten dira).

Smurfit Kappa Navarrari dagokionez, gogoratu behar da Nafarroko papergintza-aren sektoreko enpresarik garrantzitsuenetarikoa dela (101-250 langiledun enpresen estratuan). Hauek dira, besteak beste, enpresaren jardura eremuak: ore fabrikatzea eta horrekin Kraft-liner, Test-liner, zakuatarako Kraft papera eta biltzeko Kraft (Zangozako fabrika) egitea eta uhin-kartoiak fabrikatzea eta horrekin paketatze-kaxak egitea (Cordovillako fabrika).

7. ERAIKUNTZA

Eraikuntzaren sektorea krisialdiak gehien eragin dion sektoreetako bat izan da azken urte hauetan. Oraindik ere egoera larrian badago ere, badirudi 2014an argi pixka bat ikusten ari dela, magnitude sektorial nagusietakoren bat zertxobait hobetu delako. Susperraldi ekonomiko hasiberriak ahalbidetu du urte arteko goranzko aldakuntzaren bat sortzea (lizitazio ofizialaren kasua, esaterako) edo, bestela, azken bost urte hauetan kalte handiak pairatzen ari ziren sektore-adierazle batzuen jaitsiera geldiaraztea. Sektore-narriadura hori argi eta garbi ikusten da egiaztatzen denean sektoreak BPGari 2008an egin zion ekarpena % 10 inguru zela eta 2014an, aldiz, ia erdia dela (% 5,1). Era berean, egia da hasierako balioak (2008) gehiegizko hazkundearen isla zirela, ekonomiaren oinarriko urteetan eraikuntzak izandako hazkunde esponontziala kontuan hartuta. Dena dela, 2014. urtea jardueraren suspertze xume bat izanda itxi da. Susperraldia izan da, alde batetik, sektore publikoak izandako jardunarengatik aurrekontu-doikuntzak jaisten hasi delako, eta, bestetik, finantza-sektorea onbideratuago dagoelako eta hipoteka-kredituak emateko prestutasun handiagoa duelako.

128. taula Eraikuntza-sektorearen adierazle batzuen bilakaera

(% Δ)

| Kontzeptua | Nafarroa | | Espainia | |
|---------------------------------|----------|-------|----------|---------|
| | 2013 | 2014 | 2013 | 2014 |
| Enplegua | -20,4 | -2,8 | -11,4 | -3,5 |
| Zementuaren barne-salmentak (*) | -23,0 | 11,8 | -20,9 | 0,2 |
| Amaitutako etxebizitzak | -18,9 | -24,4 | -55,0 | -16,3 |
| Hasitako etxebizitzak | -65,4 | 68,3 | -31,4 | -- (**) |
| Lizitazio ofiziala | -8,0 | 8,8 | 23,3 | 42,6 |

(*): Oficemeneko enpresa elkartuek Ipar Eremuan (Aragoi, Nafarroa, EAE eta Errioxa) egindako zementu grisaren barne-salmentak dira.

(**): Txosten hau egin denean ez dago hasitako etxebizitza libreei buruzko daturik.

Iturria: INE, Seopan eta Oficemen.

Nafarroan, sektoreko adierazle esanguratsuenetako batzuek izandako bilakaeraren bidez baieztatu daiteke sektorea garrantzia hartzen hasi dela. Nahiz eta abiapuntuko balioak oso baxuak diren, aztertutako bost adierazleetatik hiruk hobekuntza erakusten dute. Beraz, 2014an, hasitako etxebizitzaren gorakada esanguratsua (% 68,3) ikusten da Foru Erkidegoan, eta, horrekin batera, zementuaren barne-salmenten goranzko joera urterik urtera (% 11,8); lizitazio ofizialak ere gora egin du (% 8,8). Testuinguru horretan, beste beharakada bat egon da amaitutako etxebizitzetan (-% 24,4) eta, nahiz eta behearakada moteldu egin den 2013aren aldean, enpleguak jarraitzen du azken urteotan be-reizgarri izan duen beheranzko joera izaten (-% 2,8).

Zehatzago esateko, joera hobea duten adierazleekin hasteko, urteotan lehenengoz ikusi da Nafarroan hasitako etxebizitzaren gorakada. Oraindik oso urrun gaude krisialdiaren aurreko balioetatik, baina 2014an goranzko joera antzeman da, atal honetan oso nabarmena (% 68,3); joera horrek, gainera, Estaturako oro har erregistratutako bilakaerarekin alderatzen bada (% 0,2), optimismoa eragiten du sektorearen etorkizunaren inguruan. Horretan ere eragina du zementuaren barne-salmentei dagokien adierazleak, joera bera baitu, baina motelagoa (urtez urteko gorakada % 11,8koa). Lizitazio ofiziala dela eta, Nafarroak 2012ko balioetara egin du atzera, 2014an % 8,8ko gorakada izan baitu, proportzio bereko murrizketa eduki ondoren 2013an. Horrek ez du esan nahi norabide-aldaketa egon denik inbertsio-jarduera publikoan, Estatuan argi gertatzen ari den bezala, kontuan hartuta 2013an lizitazioaren gorakada % 23,3koa izan zela eta % 42,6koa 2014an, murrizketak izan diren urte batzuen ondoren.

Hori guztia kontuan hartuta, adierazle guztiek ez dute suspertze-egoera islatzen. Enpleguaren atalean ez da izan goranzko mugimendurik. Nahiz eta administratutako balioak, zalantzarik gabe, garrantzi gutxiagokoak diren krisialdiaren aurreko urteetakoak baino, azpimarratu behar da zifren hondatzea, behintzat, intentsitatea galtzen doala. 2013an enplegua % 20,4 jaitsi zen; 2014an, zifra hori % 2,8ra jaitsi da, Estatu osorako erregistratutako bilakaeratik oso hurbil (-% 3,5). Hori kontuan hartuta, badirudi amaitutako etxebizitzetan ez dela lortu nahi den joera-aldaketa. Bai Nafarroan, bai Estatuan, ekitaldia negatiboan ixten da, ohikoa den bezala. Foru Erkidegoaren kasuan, amaitutako etxebizitzaren aurreko ekitaldiko mailek % 24,4 egin dute behera, eta Estatuan % 16,3ko atzera-pena egon da.

Analisiarekin jarraitzeko eta lizitazio ofizialeko datuetan sakontzeko, 2014an Nafarroan lizitatutako kopuru osoa 101,3 milioi eurokoa da, 2012ko balioaren oso antzekoa. Estatu osorako, kopurua 13.077,6 milioi euro da, 2014an lizitazio ofizialaren gorakada sendoaren ondorioz. Datuak hurbiletik ezagutzean ikusten da, nahiz eta Estatuan oro har inbertsioaren banaketa organo lizitatzailaren arabera mantentzen den, ez dela gauza bera gertatzen Foru Erkidegoan. 2013ko ekitaldian autonomiako organoaren berriazko pisua % 55,5ekoa zen eta, 2014an, lizitatutako guztizkoaren herena izan da. Aldaketa horrek erabateko eragina du tokiko administrazioaren joeran; pisua irabazten du azken ekitaldian, eta guztizkoaren % 58 dagokio (% 36,4, 2013an), eta Administrazio Zentralak balio antzekoagoak ditu bi ekitaldietan (% 12, 2014an eta % 8,1, 2013an). Estaturako, 2014ko panorama lizitatzailak ez du aldaketa handirik 2013arekin alderatuz. Gehien barneratzen den agente inbertitzailea organo zentrala izaten jarraitzen du (% 48), eta, Nafarroaren kasuan, inbertsioaren gainerakoa nahiko modu orekatuan banatzen da administrazio erkidearen (% 21) eta tokikoaren (% 31) artean.

129. taula Administrazio zentralaren, autonomikoaren eta tokikoaren arteko lizitazio ofizialaren banaketa

(M eurotan)

| Eremua | 2013 | | | | 2014 | | | |
|----------|----------|--------------|---------|---------|----------|--------------|---------|----------|
| | Zentrala | Autonomi-koa | Tokikoa | Guztira | Zentrala | Autonomi-koa | Tokikoa | Guztira |
| Nafarroa | 7,5 | 51,7 | 33,9 | 93,1 | 12,6 | 30,3 | 58,5 | 101,3 |
| Espainia | 4.006,5 | 2.469,3 | 2.696,2 | 9.172,0 | 6.274,4 | 2.760,7 | 4.042,5 | 13.077,6 |

Iturria: Seopan.

Analisia obra motara mugatuta, Nafarroan obra zibilaren esparruan -% 81eko pisu bereziarekin- antzematen dira urte arteko aldaketarik onenak, eta ekitaldia jarduera inbertitzailearen % 35,4ko gorakadarekin ixten da. Horretan eragina dute, zalantzarik gabe, obra hidraulikoek; % 85,8ko gorakadarekin, taldean esleipenik handiena dute (39,4 milioi euro). Halaber, neurri txikiagoan bada ere, garraioen sektoreak egoki egiten du aurrera, eta berriz ere jartzen da inbertsioaren hartzaille nagusien artean, % 37,2ko gorakadarekin eta 23,5 milioi euroko esleipenarekin. Urbanizazioek, ordea, % 13,7ko beherakada agertzen dute horniduran; 2014an, guztira, 18,1 milioi euro mobilizatu dituzte, ingurumenari dagozkion 0,7 milioietatik oso urrun; azken horrek erabat jaitsi zituen balioak 2014an (-% 30,4). Eraikuntzaren eremuan, zuzkidurako 19,6 milioi euro guztira izanik, lizitatutako bolumenek kontrakzio esanguratsua islatzen dute (-% 40,2). Horren ardurdun dira bai Gizarte-ekipamenduak, bai Etxebizitzak, hain zuzen, duela urte batzuk, Garraioekin batera, inbertsioaren hartzaille nagusi izan zirenak; izan ere, beherakadak izan dituzte (% 59,6koa eta % 84,8koa) eta krisialdiaren aurreko balioetatik oso urrun daude. Etxegintzaren gainerakoan, hazkunde esponentziala egon da (% 144,9) 2014an; hala ere, parte-hartzea askoz ere txikiagoa izan da, eta ez du alderantzikatzen Eraikuntzaren azpiatalaren beheranzko joera.

Estatuan, Nafarroan ez bezala, obra mota guztietako gorakadak ezartzen dira, Obra Hidraulikoetan izan ezik, non desbideratze negatiboa izan duten (-% 15,6). Azpiatal bakoitzaren berariazko pisua dela eta, banaketa Nafarroako banaketaren oso antzekoa da; lizitatutako guztizkoaren % 25,2 Etxegintzaren azpiatalak du (% 52,5eko gorakadarekin) eta % 74,8 Obra Zibilak (% 39,8ko gorakadarekin). Obra motaren arabera esleipena dela eta, lizitazioen egoera nazionalean, zalantzarik gabe, Garraioen atala da nagusi; bertan, beste urtebetez, bolumen lizitatu nagusia batzen da (% 48,7 2014an eta % 39,3 2013an). Gainerako partidak -% 10etik gora-, alde batetik, Urbanizazioak (% 11,8) eta Hidraulikoak (% 12,3) dira, eta, bestetik, Gizarte-ekipamendua (% 13,4) eta Gainerako etxegintza (% 9,3). Mapa lizitatzaillearekin amaitzeko, Gainerako etxegintza (% 9,3), Etxebizitzak (% 2,5) eta, azkenik, Ingurumena (% 2) ditugu.

130. taula Lizitazio ofiziala obra motaren arabera (2014)

| Obra mota | Nafarroa | | | Espainia | | |
|----------------------------|--------------|--------------|--------------|-----------------|-------------|--------------|
| | M euro | Δ % 14/13 | % | M euro | Δ % 14/13 | % |
| Etxebizitzak | 0,6 | -84,8 | 0,6 | 327,6 | 36,4 | 2,5 |
| Gizarte-ekipamendua | 10,3 | -59,6 | 10,2 | 1.754,3 | 19,6 | 13,4 |
| Gainerako etxegintza | 8,7 | 144,9 | 8,6 | 1.210,2 | 159,2 | 9,3 |
| Gutzizko etxegintza | 19,6 | -40,2 | 19,4 | 3.292,1 | 51,5 | 25,2 |
| Garraioak | 23,5 | 37,2 | 23,2 | 6.370,1 | 76,7 | 48,7 |
| Urbanizazioak | 18,1 | -13,7 | 17,9 | 1.546,7 | 19,0 | 11,8 |
| Hidraulikoak | 39,4 | 85,8 | 38,9 | 1.613,9 | -15,6 | 12,3 |
| Ingurumena | 0,7 | -30,4 | 0,7 | 254,9 | 41,0 | 2,0 |
| Obra Zibila guztira | 81,7 | 35,4 | 80,6 | 9.785,6 | 39,8 | 74,8 |
| GUZTIRA | 101,3 | 8,8 | 100,0 | 13.077,7 | 42,6 | 100,0 |

Iturria: Seopan.

Hasitako eta amaitutako etxebizitzak bilakaera aztertzeko, eta aurreko urteko txostenean bezala, estatu mailako informazioan gorabeherak daude, eta ezin zaio jarraipenik eman hasitako etxebizitza libreei buruzko datuari. Hori kontuan hartuta, 2014an, Nafarroan, bi egoera daude. Lehenengo eta behin, hasitako etxebizitzari buruzkoak suspertzeko sintomak ditu; hasitako etxebizitzak kopurua % 68,3 hazten da, eta 1.042 unitateetan egin du gora. Horretan etxebizitza babestuek eragin aktiboa izan dute; % 188ko gorakada dakarte eta 406 unitateetara iritsi dira; halaber, etxebizitza libreen aldeko joera ere ekarri dute –goranzko joera du, baina motelago (% 33), eta kopuru handiagoa ekarri du, 636-. Estatuan hasitako etxebizitza babestuen bolumena ere jaitsi egin da (-% 16), baina aurreko urtebikoan egondako atzerapenetatik urrun (-% 62 eta -% 49).

Amaitutako etxebizitzak direla eta, argi dago joera beheranzkoa dela bi lurraldeetan. Nafarroan, bai babestuek (-% 19,4), bai libreek (-% 32,7) eredu berari jarraitzen diote, eta ekitaldia amaitutako 1.756 etxebizitzarekin ixten da (-% 24,4). Nazio mailan ere murritzetak egon dira amaitutako etxebizitza kopuruan, bai libreen partidan (-% 18,5), bai babestuei dagokien partidan (-% 10,6), eta baterako saldoa, amaieran, 50.272 etxebizitzakoa izan da, 2013an baino % 16,3 gutxiago.

131. taula **Hasitako eta amaitutako etxebizitzak**

(etxebizitza kopurua)

| Eremua | Kontzeptua | Hasitako etxebizitzak | | | | Amaitutako etxebizitzak | | | |
|----------|------------|-----------------------|--------|--------|---------------------|-------------------------|--------|--------|---------------------|
| | | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 ^(*) | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 ^(*) |
| Nafarroa | Babestuak | 3.143 | 902 | 141 | 406 | 2.658 | 1.398 | 1.446 | 1.165 |
| | Libreak | 1.501 | 889 | 478 | 636 | 1.189 | 1.467 | 878 | 591 |
| Espainia | Babestuak | 34.296 | 17.480 | 6.489 | 5.463 | 58.308 | 53.332 | 16.831 | 15.046 |
| | Libreak | 51.956 | 34.580 | 29.232 | ---** | 121.043 | 80.083 | 43.230 | 35.226 |

(*): Behin-behineko datuak.

(**): Txosten hau egin denean ez dago hasitako etxebizitza libreei buruzko daturik.

Iturria: Sustapen Departamentua. Nafarroako Gobernua eta EIN.

Eraikuntzaren kapituluarekin amaitzeko, jarraian, sektore horretan lanean ari diren herritarren bilakaera aurkeztuko da. Aurretik azaldu bezala, enpleguak balioak jaisten jarraitzen du, baina aurreko urteetan baino erritmo motelagoan. Nafarroan % 2,8 murriztu da lanean ari diren herritarren kopurua (-% 20,6 2013an eta -% 19,4 2012an). Nazio mailan, antzeko egoera dago, urtez urteko kontrako aldaketarekin (-% 3,5), baina aurreko biurtekoan baino motelagoa; izan ere, orduan, % 11,4ko eta % 17,6ko beherakadak egon ziren.

132. taula **Eraikuntzan lanean ari diren herritarrak**

(m pertsona)

| Eremua | 2012 | 2013 | 2014 | % Δ 14/13 |
|----------|---------|---------|-------|-----------|
| Nafarroa | 18,1 | 14,4 | 14,0 | -2,8 |
| Espainia | 1.147,6 | 1.016,2 | 993,5 | -3,5 |

Iturria: EIN. Biztanleria aktiboari buruzko inkesta (2005eko oinarria).

Hori guztia kontuan hartuta, badirudi oraindik ere pixka bat prekarioa dela Nafarroako sektorearen egoera. Helburu den suspertze ekonomikoa ez da oraindik magnitude sektorial nagusietan islatzen, baina horietako batzuetan antzematen da Foru Erkidegoko eraikuntza-jardueraren bultzada txikia.

8. NAFARROAKO ENPRESA-SAREAREN AZTERKETA

8.1 SARRERA

2013ko ekitaldiari dagokion txostenean egindako lanari jarraipena emateko, kapitulu honen helburua da Nafarroako eta Estatu osoko enpresa-sarearen bilakaerari eta egiturari buruzko konparazio-azterketa bat egitea denbora-ikuspegi zabal batetik (2008-2014 aldia), ekonomia-sektoreak eta soldatakoen geruzak kontuan hartuta. Ildo horretan, azterketaren homogeneotasuna handiagoa izateko, EINren Enpresen Direktorio Nagusia (DIRCE¹) erabiliko da informazio-iturri bakar gisa.

8.2 BILAKAERA OROKORRA


Krisialdi ekonomikoaren eraginaren ondorioz, enpresa aktiboen guztizko kopurua etengabe jaisten ari da 2009az geroztik Nafarroan eta Estatu osoan; salbuespen bakarra Nafarroa izanik, 2014an zertxobait gora egin duelako.

Nafarroako enpresa aktiboen kopurua 2008an 43.847 izatetik 2014an 41.582 izatera igaro da; dinamika horrek erakusten du -% 5,2ko jaitsiera metatua izan dela, nahiz eta 2014an % 1,8ra igo den. Estatu osoaren kasuan, kopuru hori 2008an 3.422.239 izatetik 2014an 3.119.310 izatera igaro da; horrek esan nahi du -% 8,9ko jaitsiera metatua izan dela. Beraz, jaitsiera metatua, termino erlatibotan, txikiagoa izan da Nafarroan.

Hala eta guztiz ere, adierazi behar dugu bi geografia-eremuetan, urte arteko jaitsieren intentsitatea desberdina izan dela aintzat hartutako aldiak; era berean, ikusi da alde nabarmenak daudela eremu bakoitzean izandako urte arteko jaitsiera-erritmo desberdinen artean.

¹ Enpresen Direktorio Nagusiak (DIRCE) Espainiako enpresa guztiak eta enpresa horien tokiko unitateak –lurralde nazionalean kokatuta daudenak– biltzen ditu informazio-sistema bakar batean, eta horri esker, ekonomiari buruzko inkestak laginketa bidez egin daitezke.


19. grafikoa Enpresa kopuruaren bilakaera



Iturria: Enpresen Direktorio Nagusia (EIN).

Hortaz, Nafarroaren kasuan, enpresa kopuruari dagokionez, urte arteko jaitsiera handiena 2010ean izan zen (-% 2,2), nahiz eta 2014an % 1,8 igo den; aitzitik, estatureremuan 2009. eta 2010. urteetan gertatu zen urte arteko jaitsiera handiena (-% 1,9 bi kasuetan) eta txikiena 2014an (-% 0,9).


20. grafikoa Enpresa kopuruaren urte arteko aldakuntza



Iturria: Enpresen Direktorio Nagusia (EIN).

Bilakaera horren arabera, enpresa kopuruak estatuko guztizkoan duen garrantzia zertxobait igo da Nafarroan (guztizkoaren % 1,33 2014an; 2008an, aldiz, % 1,28).

21. grafikoa Garrantziaren bilakaera estatuko guztizkoaren gain (Estatua=100)



Iturria: Enpresen Direktorio Nagusia (EIN).


8.3 SEKTORE EKONOMIKOAK

Sektore ekonomikoei erreparatzen badiegu, eta kontuan hartzen badugu 2008-2014 aldirako lehendabizi erantsitako azterketa egin zaiela lau sektoreri (industria, eraikuntza, merkataritza eta gainerako zerbitzuak), adierazi behar dugu Nafarroan eta Estatu osoan enpresa kopuruak behera egin duela ia orokorrean, gainerako zerbitzuen kasuan izan ezik, bi geografia-eremu horietan gora egin baitu.

Enpresa kopuruari dagokionez, Nafarroan eta Estatu osoan eraikuntzak jaitsiera handienak ditu oinarrizko urtearekin (2008) alderatzen badugu; aitzitik, gainerako zerbitzuen kasuan gora egin du. Eraikuntzan jarduten duten enpresen kopurua $-25,9\%$ jaitsi da Nafarroan (6.146 2014an; 2008an, aldiz, 8.297) eta $-34,4\%$ Estatu osoan (408.089 2014an; 2008an, aldiz, 622.096).

Bi geografia-eremu horietan, eraikuntzaren ondoren industria eta merkataritza daude enpresa kopuruaren jaitsieraren intentsitatea handiagoa izateari dagokionez (gainerako zerbitzuek zertxobait gora egin dute).

22. grafikoa Enpresen bilakaera sektore ekonomikoaren arabera (2008ko indize-kopuruak=100)



Iturria: Enpresen Direktorio Nagusia (EIN).

Azterketa soilik 2008ko eta 2014ko ekitaldietan ardatzen badugu, eta Ekonomia Jardueren Sailkapen Nazionala (EJSN-2009) aintzat hartzen badugu, ikusiko dugu bi geografia-eremuetan honako arlo hauetan jarduten duten enpresak direla ugarienak 2008an eta 2014an: handizkako merkataritzan eta txikizkako merkataritzan jarduten

dutenak eta ibilgailu motordunen eta motoen konponketan jarduten dutenak. Ildo horretan, Nafarroan, 2014an, jarduera horretan jarduten duten 9.692 enpresak autonomia-erkidegoko guztizkoaren % 23,3 dira (guztizkoaren % 22,6 2008an), partaidetza Estatu osoari dagokiona baino zertxobait txikiagoa izan da (Estatuko guztizkoaren % 24,3 2014an; 2008an, aldiz, % 24).

133. taula Enpresak ekonomia-sekzioaren arabera. 2008-2014 konparazioa

| | Nafarroa | | Estatua | |
|--|---------------|---------------|------------------|------------------|
| | 2008 | 2014 | 2008 | 2014 |
| Guztira | 43.847 | 41.582 | 3.422.239 | 3.119.310 |
| Erauzketa Industriak | 31 | 36 | 2.974 | 2.481 |
| Manufaktura Industria | 3.733 | 3.128 | 229.222 | 176.726 |
| Energia elektrikoaren, gasaren, lurrunaren eta aire girotuaren hornikuntza | 259 | 549 | 8.688 | 14.826 |
| Ur-hornidura, saneamendu-jarduerak, hondakinen eta deskontaminazioaren kudeaketa | 67 | 145 | 5.567 | 6.802 |
| Eraikuntza | 8.297 | 6.146 | 622.096 | 408.089 |
| Handizkako eta txikizkako merkataritza; Ibilgailu motordunen eta motoen konponketa | 9.912 | 9.692 | 821.075 | 758.483 |
| Garraioa eta biltegiatzea | 3.837 | 3.303 | 239.326 | 196.828 |
| Ostalaritza | 3.271 | 3.456 | 289.218 | 276.674 |
| Informazioa eta Komunikazioak | 430 | 525 | 48.818 | 56.100 |
| Finantza- eta aseguru-jarduerak | 759 | 760 | 67.113 | 69.674 |
| Higiezin-jarduerak | 1.111 | 1.206 | 117.627 | 137.245 |
| Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak | 5.218 | 4.800 | 413.092 | 367.153 |
| Administrazio-jarduerak eta zerbitzu osagarriak | 1.847 | 2.114 | 137.067 | 173.439 |
| Hezkuntza. | 871 | 922 | 68.570 | 84.917 |
| Osasun-jarduerak eta gizarte-zerbitzuetakoak | 1.132 | 1.425 | 124.442 | 142.136 |
| Arte-, jolas- eta entretenimendu-jarduerak | 861 | 988 | 70.551 | 78.187 |
| Bestelako zerbitzuak | 2.211 | 2.387 | 156.793 | 169.550 |

Iturria: Enpresen Direktorio Nagusia (EIN).

Handizkako eta txikizkako merkataritzaren eta ibilgailu motordunen eta motoen konponketaren ondoren, honako hauek azaltzen dira, ordena honetan, Nafarroan eta Estatu osoan: eraikuntza eta jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak. Nafarroako eremuan, eraikuntzak 6.146 enpresa bildu ditu 2014an, autonomia-erkidegoko guztizkoaren % 14,8 (% 18,9 2008an), partaidetza hori jarduera horrek Estatu osoan izandakoa baino handiagoa da (% 13,1; % 18,2 2008an). Bestalde, jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak 4.800 enpresa biltzen dituzte Nafarroan 2014an, autonomia-erkidegoko guztizkoaren % 11,5 (% 11,9 2008an), kuota hori adar horrek Estatu osoan lortutakoa baino zertxobait txikiagoa da (% 11,8 2014an; % 12,1 2008an).

8.4 SOLDATAKOEN GERUZAK


Ekonomia-sektoreei eskainitako azpiepigrafean egin dugun bezalaxe, jarraian 2008-2014 aldia aztertuko dugu lehendabizi, soldatakoen geruzen agregazioa handiagoa izan dela aintzat hartuta, eta ondoren, 2008ko eta 2014ko aldietan soilik jarriko dugu arreta, geruza horien desagregazioa handiagoa izan dela kontuan hartuta.

2008-2014ko aldiari dagokionez, soldatako bat edo bi dituzten Nafarroako enpresak kenduta, enpresa kopurua soldatakoen geruza guztietara jaisten da, orokorrean, aztertutako bi geografia-eremuetan.

Nafarroan eta Estatu osoan, 10-19 soldatako dituzten enpresetan daude jaitsiera handienak oinarritzko urtearekin (2008) alderatzen badugu. Izan ere, 10-19 soldatako dituzten enpresen kopurua -% 29,4 jaitsi da Nafarroan (1.133 2014an; 2008an, aldiz, 1.605) eta -% 36,4 Estatuan (70.226 2014an; 2008an, aldiz, 110.369).

Aztertutako bi geografia-eremuetan, bigarren atzerakada handiena hogeit hamar soldatako edo gehiago dituzten enpresei dagokie.

23. grafikoa Enpresen bilakaera soldatakoen tartearen arabera (2008ko indizekopuruak=100)



Iturria: Enpresen Direktorio Nagusia (EIN).

Azterketa soilik 2008ko eta 2014ko ekitaldietara mugatzen badugu, eta soldatakoen geruzen desagregazio handiagoa egiten badugu, ikusiko dugu soldatakorik ez duten enpresak direla ugarienak bi geografia-eremuetan 2008an eta 2014an. Ildo horretan, Nafarroan, 2014an, jarduera horretan jarduten duten 22.235 enpresak autonomia-erkidegoko guztizkoaren % 53,5 dira (guztizkoaren % 52,7 2008an), kuota hori Estatu osoari dagokionaren antzekoa izan da (Estatuko guztizkoaren % 53,6 2014an; 2008an, aldiz, % 51,3).

134. taula Enpresak soldatakoen geruzen arabera. 2008-2014 konparazioa

| | Nafarroa | | Estatua | |
|----------------------------|---------------|---------------|------------------|------------------|
| | 2008 | 2014 | 2008 | 2014 |
| Guztira | 43.847 | 41.582 | 3.422.239 | 3.119.310 |
| Soldatakorik gabe | 23.086 | 22.235 | 1.754.374 | 1.672.483 |
| 1-2 soldatako | 11.260 | 11.565 | 958.711 | 921.000 |
| 3-5 soldatako | 4.184 | 3.851 | 345.848 | 284.612 |
| 6-9 soldatako | 2.110 | 1.666 | 160.460 | 110.819 |
| 10-19 soldatako | 1.605 | 1.133 | 110.369 | 70.226 |
| 20-49 soldatako | 1.000 | 703 | 61.709 | 38.157 |
| 50-99 soldatako | 311 | 210 | 16.242 | 11.223 |
| 100-199 soldatako | 166 | 117 | 8.061 | 5.753 |
| 200-499 soldatako | 88 | 76 | 4.511 | 3.346 |
| 500-999 soldatako | 22 | 14 | 1.117 | 942 |
| 1000-4999 soldatako | 15 | 12 | 725 | 646 |
| 5000 soldatako edo gehiago | 0 | 0 | 112 | 103 |

Iturria: Enpresen Direktorio Nagusia (EIN)

Soldatakorik gabeko enpresen ondoren, honako hauek azaltzen dira ordena honetan Nafarroan eta Estatu osoan: soldatako bat edo bi dituzten enpresak eta hirutik bostera bitarteko soldatako dituztenak. Nafarroaren kasuan, bat edo bi soldatako dituzten 11.565 enpresak autonomia-erkidegoko guztizkoen % 27,8 dira (% 25,7 2008an), Estatu osoan soldatakoen geruza horri dagokion garrantzi erlatiboa baino txikiagoa da (% 29,5; % 28 2008an). Bestalde, EAEn 2014an hirutik bostera bitarteko soldatakoak dituzten 3.851 enpresak autonomia-erkidegoko guztizkoaren % 9,3 dira (% 9,5 2008an); partaidetza hori soldatakoen geruza horrek Estatu osoan lortutakoa baino zertxobait handiagoa da (% 9,1 2014an; % 10,1 2008an).

2014



4. ZERBITZUAK

1. IKUSPEGI OROKORRA

Txosten honen aurreko kapitulu batzuetan esan bezala, 2014an munduko ekonomiak aurreko bi ekitaldietan izandako hedatze-erritmoari eutsi dio, ekonomia garatuetan izandako hazkuntzaren areagotze txikiari esker eta garapen bidean dauden merkatuetan egon den hazkundearen lasaitzearen aurrean.

Testuinguru horretan, Espainiako ekonomiak % 1,4 egin du gora 2014an, 2012an eta 2013an izan zituen -% 2,1eko eta -% 1,2ko murrizketen ondoren (hurrenez hurren); kanpoko sektoreak portzentajezko zortzi hamarren kendu dizkio barneko eskaerak hazkuntza globalari eginiko portzentajezko 2,2 puntuko ekarpen positiboari.

135. taula Zerbitzuen sektorearen bilakaera

| Kontzeptua | <i>(aldakuntza-tasa)</i> | | | | | |
|--------------------------------------|--------------------------|----------|----------|----------|----------|----------|
| | 2012 | | 2013 | | 2014 | |
| | Nafarroa | Espainia | Nafarroa | Espainia | Nafarroa | Espainia |
| Errepide bidezko garraioa (salgaiak) | -15,1 | -14,0 | -3,0 | -7,5 | -14,8 | 3,0 |
| Aire bidezko garraioa (salgaiak) | -64,9 | -3,1 | -76,7 | -1,9 | 196,4 | 7,2 |
| Aire bidezko garraioa (bidaiariak) | -20,3 | -5,0 | -16,2 | -3,5 | -12,7 | 4,6 |

Iturria: Geuk egina, iturri estatistiko batzuen inguruan.

Era berean, Nafarroa hazkuntza-egoerara itzuli da 2014an, eta Foru Erkidegoaren dinamismoa Estatukoa baino handiagoa da (% 1,5 Foru Erkidegoan; % 1,4 Estatuan,). Hirugarren sektorea aztertuta, oro har, % 1,5 hedatu da Nafarroan eta % 1,6 estatu mailan; bi kasu horietan, igo egin da, aurreko ekitaldiaren aldean (-% 0,7 eta -% 1, 2013an, hurrenez hurren).

Nahiz eta sektorearen heterogeneotasunak haren analisi agregatua egitea zailtzen duen, enplegua adierazlerik egonkorrenetako bat da. Horren harira, nabarmentzekoa da okupazioa hirugarren sektorean % 4,8 hazi dela Nafarroan (% 1,7 Estatu osoan).

2. HEZKUNTZA

Nafarroako Foru Komunitatean, unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzako ikasleen kopuruak % 0,5eko beherakada txikia izan du azken ikasturtean. Zehazki, 106.453 matrikulazio izan ziren 2013/2014 ikasturtean, eta 105.908 matrikulazio 2014/2015 ikasturtean. Bilakaera negatibo horren funtsezko arrazoia Lanbide Heziketan erregistratutako matrikulazioen portaera izan da, % 13,1eko beherakada izan baitute. Beste arrazoi bat, hain garrantzitsua ez bada ere, Haur Hezkuntzako matrikulazioetan izandako beherakada txikia izan da (-% 1,9). Gainerako irakaskuntza-mailetan, berriz, matrikulatutako ikasleen kopuruak gora egin du. Zehazkiago, Lehen Hezkuntzan % 1,6ko gorakada izan da ikasleen kopuruan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan (DBH) % 1,1, eta LOGSE Batxilergoan % 0,7. Nolanahi ere, gorakada horiek ez dute konpentsatu unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzako beste bi mailetan izandako beherakada.

Unibertsitate-eremuari dagokionez, Nafarroako hezkuntza-eskaintza osatzen duten bi unibertsitateei buruzko datuek agerian utzi dute indarrean dirauela azken urteotako joera, eta, beraz, behera egin du ikasleen kopuruak. 2014/2015 ikasturtean, % 3 gutxiago matrikulatu dira unibertsitatean. Balio absolututan adierazita, 453 ikasle gutxiagok egin dituzte ikasketak Nafarroako Unibertsitatean eta Nafarroako Unibertsitate Publikoan. Horrela, beraz, 14.694 ikasle matrikulatu dira guztira 2014/2015 ikasturtean, eta era orekatu samarrean banatu dira bi unibertsitateen artean.

2.1 UNIBERTSITATEAZ KANPOKO IKASLE KOPURUAREN BILAKAERA

Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH)

Hainbat urtetan goranzko balioak agertu ondoren, 2014/2015 ikasturtean behera egin du Haur Hezkuntzako ikasleen kopuruak. Ikasturte horretan kontabilizatutako matrikulazioak 24.634 izan dira, hau da, % 1,9 gutxiago. Irakaskuntza-maila horretan ohikoa denez, ikastetxe publikoek biltzen dituzte ikasle gehienak (% 67,3). Sare pribatuko ikasleen proportzioa askoz txikiagoa da (% 32,7). Bilakaera kontuan hartuta, berriz, sare publikoan gertatu da matrikulazioen beherakadarik handiena, bi kasuetan txikia izan bada ere (-% 2,3 sare publikoan eta -% 1,1 pribatuan).

Nafarroako eskola-mapan ditugun hizkuntza-ereduen analisisan sakonduta, ikasleen banaketa aurreko ikasturtekoaren ia berdina izan da 2014/2015 ikasturtean. Horrela, beraz, X ereduak (euskararik gabeko hezkuntza) ikasleen % 40,5 bildu du, eta A ereduak (hezkuntza gaztelaniaz, eta euskara irakasgai gisa) eta D ereduak (hezkuntza euskaraz,

eta gaztelania irakasgai gisa) antzeko pisu erlatiboa izan dute (% 31,6 eta % 26,4, hurrenez hurren). Azkenik, B ereduak (irakaskuntza elebiduna) oso ikasle gutxi bildu ditu (% 1,5). Euskalduntze-tasari dagokionez (B ereduak gehi D ereduak), % 27,9ra iritsi da irakaskuntza-maila honetan.

136. taula Ikasle kopuruaren bilakaera, ikastetxe motaren arabera. Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta DBH

| Kontzeptua | 12/13 ikasturtea | 13/14 ikasturtea | 14/15 ikasturtea | Δ % (aurreko ikasturtearekiko) |
|-----------------|------------------|------------------|------------------|--------------------------------|
| HAUR HEZKUNTZA | 22.394 | 25.108 | 24.634 | -1,9 |
| – Publikoa | 14.470 | 16.958 | 16.575 | -2,3 |
| – Pribatua | 7.924 | 8.150 | 8.059 | -1,1 |
| LEHEN HEZKUNTZA | 39.592 | 39.831 | 40.468 | 1,6 |
| – Publikoa | 25.153 | 25.069 | 25.505 | 1,7 |
| – Pribatua | 14.439 | 14.762 | 14.963 | 1,4 |
| DBH | 24.689 | 25.250 | 25.536 | 1,1 |
| – Publikoa | 15.122 | 15.301 | 15.378 | 0,5 |
| – Pribatua | 9.567 | 9.949 | 10.158 | 2,1 |

Iturria: Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza eta Kultura Departamentua.

Lehen Hezkuntzako ikasleen kopuruaren bilakaerari dagokionez, adierazi beharra dago maila horrek biltzen dituela ikasle gehien, eta 2014/2015 ikasturtean matrikulazioek % 1,6ko igoera izan dutela. Hortaz, 637 ikasle gehiago izan dira ikasturtean, eta guztizko kopurua 40.468 ikaslerara iritsi da. Igoera hori ikastetxe publikoetako matrikulazioetan zein ikastetxe pribatuetako matrikulazioetan gertatu da, eta antzeko neurrian gainera (% 1,7 eta % 1,4, hurrenez hurren). Horrela, beraz, irakaskuntza publikoaren pisu erlatiboa sare pribatuarena baino handiagoa da oraindik (Lehen Hezkuntzako 10 ikasletik 6 biltzen ditu irakaskuntza publikoak).

Hizkuntza-ereduei dagokienez, ia ez dago alderik aurreko ikasturtearekin. X ereduak izan da nagusi berriz ere, eta portzentajezko 0,7 puntuko igoera izan du aurreko ikasturtearekin alderatuta. Zehazki, ikasleen % 52 biltzen du. Horren atzetik, D ereduak % 27,1eko proportziora iritsi da, eta A ereduak, berriz, % 20,5era. Hortaz, bi eredu horiek biltzen dituzte gainerako ia ikasle guztiak, B ereduaren proportzioa % 0,4 baino ez baita izan. Horrela, beraz, euskalduntze-tasa antzekoa izan da (% 27,5).

137. taula Euskalduntze-maila. Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta DBH

| Kontzeptua | A | B | D | X | Guztira (%) |
|--------------------|------|-----|------|------|-------------|
| HAUR HEZKUNTZA | | | | | |
| – 14/15 ikasturtea | 31,6 | 1,5 | 26,4 | 40,5 | 100 |
| LEHEN HEZKUNTZA | | | | | |
| – 14/15 ikasturtea | 20,5 | 0,4 | 27,1 | 52,0 | 100 |
| DBH | | | | | |
| – 14/15 ikasturtea | 9,8 | 0,2 | 25,0 | 65,0 | 100 |

A: Hezkuntza gaztelaniaz, eta euskara irakasgai gisa.

B: Irakaskuntza elebiduna.

D: Hezkuntza euskaraz, eta gaztelania irakasgai gisa.


X: Euskararik gabeko hezkuntza.

Iturria: Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza eta Kultura Departamentua.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako (DBH) ikasle kopuruaren bilakaerari dagokionez, berriz ere gorakada bat izan da, baina aurreko ikasturtekoa baino txikixeagoa. Guztira, maila horretan matrikulatutako ikasleak % 1,1 gehiago izan dira (25.536 ikasle guztira). 2014/2015 ikasturtean, matrikulazioetan izandako igoera handiagoa izan da sare pribatuan. Izan ere, ikasle kopuruak % 2,1eko igoera izan du ikastetxe pribatuetan, eta % 0,5eko igoera sare publikoko ikastetxeetan. Dena dela, irakaskuntza pribatuaren bilakaera hobea izan bada ere, DBHko ikasleen % 60k ikastetxe publikoak aukeratu ditu ikasketak egiteko.

Informazioa hizkuntza-ereduaren arabera bereiziz gero, hizkuntza-mapan X eredu nagusi dela ikus daiteke argi eta garbi. Izan ere, ikasleen % 65ek eredu hori aukeratu du 2014/2015 ikasturtean. Horren atzetik, eta alde handiarekin, D ereduak ikasleen % 25 bildu du, eta portzentajezko 0,7 puntuko igoera izan du aurreko ikasturtearekin alderatuta. A ereduak, berriz, proportzio berean egin du behera, eta ikasleen % 9,8 bildu du. Azkenik, B ereduaren proportzioa ia ezdeusa izan da (% 0,2). Edonola ere, euskalduntze-maila % 25,2ra iritsi da, eta, beraz, aldaketa gutxi izan dira aurreko ikasturtearekin alderatuta.

Emandako datuak kontuan hartuta eta laburpen gisa, adierazi beharra dago Haur Hezkuntzak % 1,9ko beherakada izan badu ere, oinarritzko irakaskuntza-mailetan (Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan eta DBHn) matrikulazioek hobekuntza txiki bat izan dutela (% 0,5). Horrela, beraz, Nafarroako Foru Komunitatean 90.638 ikasle matrikulatu dira hiru maila horietan, hau da, 2013/2014 ikasturtean baino 449 ikasle gehiago.

24. grafikoa Unibertsitateaz kanpoko ikasleen matrikulazioen bilakaera Nafarroan⁽¹⁾

(1): Ez dago 2006-2007 ikasturteari buruzko informaziorik.

(2): BBB-UBI eta IEE 98/99 ikasturtean desagertu ziren, eta LH, berriz, 99/00 ikasturtean.

Iturria: Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza eta Kultura Departamentua.

Irakaskuntza ertainak

Irakaskuntza ertainei buruzko informazioa aztertuz, eta Lanbide Heziketako ikasleei dagokienez, matrikulazioek beherakada handia izan dute 2014/2015 ikasturtean (-% 13,1), eta 6.954 ikaslera iritsi da ikasleen errolda. Beheranzko aldaketa ikastetxe pribatuetan zein publikoetan gertatu bada ere, azken horien portaerak eragin du zifra orokorren beherakada. Eremu publikoan, % 16,3ko beherakada izan du ikasleen kopuruak. Sare publikoan, berriz, beherakada askoz txikiagoa izan da (% 1a gainditu gabe). Datu horiek ez datoz bat aurreko ikasturtean gertatutakoarekin, orduan sare publikoan izan baitzen askoz handiagoa beherakada (-% 18,9 sare pribatuan eta -% 2,3 publikoan). Lanbide Heziketako ikasle gehienak (-% 77) sare publikoan bildura daudenez gero, eremu publikoan gertatzen den mugimendu orok neurri handian baldintzatzen ditu emaitza orokorrak, aztergai dugun kasuan bezalaxe.

Hizkuntza-ereduei dagokienez, ez da aldaketa handirik izan aurreko urtean gertatutakoarekin. X eredia da oraindik nagusi eskola-mapan (ikasleen % 97,6 biltzen du), eta D eredia % 2,4ra baino ez da iritsi. Oraingoan, B eredurik ez dagoenez gero, euskalduntze-maila % 2,4 horretan geratu da.

138. taula Ikasle kopuruaren bilakaera, ikastetxe motaren arabera. Heziketa Zikloak eta LOGSE Batxilergoa

| Kontzeptua | 12/13 ikasturtea | 13/14 ikasturtea | 14/15 ikasturtea | Δ % (aurreko ikasturtearekiko) |
|-------------------|------------------|------------------|------------------|--------------------------------|
| HEZIKETA ZIKLOAK | 8.534 | 8.004 | 6.954 | -13,1 |
| – Publikoa | 6.524 | 6.374 | 5.334 | -16,3 |
| – Pribatua | 2.010 | 1.630 | 1.620 | -0,6 |
| LOGSE BATXILERGOA | 8.474 | 8.260 | 8.316 | 0,7 |
| – Publikoa | 5.521 | 5.256 | 5.297 | 0,8 |
| – Pribatua | 2.953 | 3.004 | 3.019 | 0,5 |

Iturria: Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza eta Kultura Departamentua.

LOGSE Batxilergoko datuei dagokienez, 2013/2014 ikasturtean ez bezala, ikasle kopuruak gora egin du ikasturte honetan (% 0,7). Ikasleen guztizko kopurua 8.316 izan da, hau da, aurreko ikasturtean baino 56 gehiago, eta antzeko bilakaera izan dute bi sareek. Zehazki, sare publikoak bildu ditu ikasle gehienak (guztien % 63,7) eta % 0,8ko igoera izan du; sare pribatuak, berriz, ikasleen % 36,3 bildu du eta % 0,5eko igoera izan du.

Hizkuntza-mapari dagokionez, X eredia izan da nagusi berriz ere (ikasleen % 70,7 bildu du). Horren atzetik, D ereduko ikasleak % 25 izan dira, eta A eredukoak, berriz, % 4,3 baino ez. Azpimarratu beharreko beste alderdi bat, berriz ere, B ereduko hezkuntza-eskaintzarik eza izan da. Hortaz, euskalduntze-tasa % 25 horretan geratu da.

139. taula Euskalduntze-maila. Heziketa Zikloak eta LOGSE Batxilergoa

| Kontzeptua | A | B | D | X | Guztira (%) |
|--------------------|-----|-----|------|------|-------------|
| HEZIKETA ZIKLOAK | | | | | |
| – 14/15 ikasturtea | 0,0 | 0,0 | 2,4 | 97,6 | 100,0 |
| LOGSE BATXILERGOA | | | | | |
| – 14/15 ikasturtea | 4,3 | 0,0 | 25,0 | 70,7 | 100,0 |

Iturria: Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza eta Kultura Departamentua.

Ondorio gisa, Irakaskuntza Ertainetan ikasleen kopuruak % 6,1eko beherakada izan duela ikus daiteke. Hortaz, aurreko ikasturteko joerak bere horretan jarraitu du (% 4,4ko beherakada izan zen aurreko ikasturtean). Ikasturte honetan, beraz, 15.270 ikasle izan dira, hau da, 994 gutxiago. Adierazi beharra dago beherakadak Heziketa Zikloetan baino ez direla gertatu (-% 13,7). Batxilergoko ikasleen kopuruak % 0,7ko igoera txikia izan du aurreko ikasturtearekin alderatuta, baina ez da nahikoa izan beherakada orokorra konpentsatzeko.

2.2 UNIBERTSITATEKO IKASLE KOPURUAREN BILAKAERA

Bi unibertsitate daude Nafarroako lurraldean. Lehena publikoa da (Nafarroako Unibertsitate Publikoa), eta bigarrena pribatua (Nafarroako Unibertsitatea). Bien artean, 14.694 ikasle bildu dituzte, hau da, aurreko ikasturtean baino % 3 gutxiago, eta beherakada bi unibertsitateetan gertatu da. Nafarroako Unibertsitate Publikoan, 7.000 ikasle matrikulatu dira, eta Nafarroako Unibertsitatean, berriz, 7.694.

Irakasleei dagokienez, Nafarroako Unibertsitatean 776 irakaslek jardun dute (% 87,6k Nafarroako campusean eta % 12,4k Gipuzkoako campusean). Hortaz, % 1,8ko igoera izan da (14 irakasle gehiago). Nafarroako Unibertsitate Publikoaren kasuan, plantilla 856 irakaslek osatu dute, hau da, aurreko ikasturtean baino 3 gutxiagok. Hortaz, % 0,3ko beherakada izan da 2013/2014 ikasturtearekin alderatuta.

Unibertsitate bakoitza aztertuko dugu ondoren, eta daturik azpimarragarrienak emango ditugu:

| 140. taula Nafarroako Unibertsitateko ikasleen banaketa | | | | |
|---|------------------|---------------------------------|--------------|--------------------------|
| Lurralde Historikoa | 13/14 ikasturtea | 14/15 ikasturtea ⁽¹⁾ | % | Δ% (aurreko urtearekiko) |
| NAFARROA | 6.674 | 6.622 | 100,0 | -0,8 |
| Zuzenbidea | 450 | 416 | 6,3 | -7,6 |
| Medikuntza | 1.228 | 1.243 | 18,8 | 1,2 |
| Filosofia eta Letrak | 694 | 335 | 5,1 | -51,7 |
| Informazioaren Zientziak | 798 | 770 | 11,6 | -3,5 |
| Hezkuntza eta Psikologia ⁽²⁾ | -- | 433 | 6,5 | -- |
| Zientziak | 533 | 541 | 8,2 | 1,5 |
| Farmazia | 667 | 664 | 10,0 | -0,4 |
| Arkitektura | 675 | 568 | 8,6 | -15,9 |
| Teologia | 147 | 138 | 2,1 | -6,1 |
| Ekonomia eta Enpresa Zientziak | 919 | 942 | 14,2 | 2,5 |
| Idazkaritza eta Administrazioa | 52 | 95 | 1,4 | 82,7 |
| Erizaintza | 511 | 477 | 7,2 | -6,7 |
| GIPUZKOA | 1.278 | 1.072 | 100,0 | -16,1 |
| Industria Ingeniaritza | 1.139 | 989 | 92,3 | -13,2 |
| Idazkaritza eta Administrazioa | 139 | 83 | 7,7 | -40,3 |
| GUZTIRA | 7.952 | 7.694 | 100,0 | -3,2 |

(1): Gainera, doktoregoko 881 ikasle eta masterreko 714 ikasle daude Nafarroan eta Gipuzkoan.

(2): Titulazio hori 14/15 ikasturtean hasi da eskaintzen.

Iturria: Nafarroako Unibertsitatea.

Nafarroako Unibertsitateko matrikulazioei dagokienez, % 3,2ko gutxiago izan dira ikasturte honetan (258 ikasle gutxiago). Nolanahi ere, 7.694 ikaslerekin amaitu da ikasturtea. Beherakada bi campusetan gertatu da, baina askoz handiagoa izan da Gipuzkoan, 206 ikasle gutxiago izan baitira bertan. Gipuzkoako campusean eskaintzen

den Idazkaritza eta Administrazio graduan % 40,3ko beherakada izan da, 2013/2014 ikasturtean Nafarroako campusean unibertsitate-gradu hori sartu izanagatik beharbada. Izan ere, Nafarroako campusean % 82,7ko gorakada izan da aurreko ikasturtearekin alderatuta. Gipuzkoako campuseko gainerako hezkuntza-eskaintza Industria Ingeniaritzara mugatu da. Gradu horretan, ikasle ugari daude (989), baina behera egin du nabarmen ikasle kopuruak (% 13,2).

Nafarroako campusean, Idazkaritza eta Administrazio Fakultateaz gain, hiru fakultatek baino ez dute gora egin ikasleen kopuruan: Medikuntza Fakultateak (% 1,2ko igoera), Zientzia Fakultateak (% 1,5eko igoera) eta Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultateak (% 2,5ko igoera). Fakultate horiek, gainera, proportzio esanguratsuak dituzte guztizko ikasle kopuruan (% 18,8, % 8,2 eta % 14,2, hurrenez hurren). Azpimarratu beharra dago eskaintzan izan den beritasun bat, Hezkuntza eta Psikologiako gradua, alegia. Ikasturte honetan, 433 ikasle matrikulatu dira karrera horretan. Azpimarratu beharra dago, halaber, Filosofia eta Letren Fakultateak izan duen portaera. Izan ere, aurreko ikasturtean baino 359 ikasle gutxiago matrikulatu dira fakultate horretan, eta ikasleriaren erdia geratu da (-%51,7). Eta joera bera izan dute Arkitektura Fakultateak (-% 15,9), Zuzenbide Fakultateak (-% 7,6), Teologia Fakultateak (-% 6,1) eta Erizaintza Fakultateak (-% 6,7). Nolanahi ere, azken hiru fakultate horiek batuta ere, ez dira ikasleen guztizko kopuruaren % 15,6ra iristen.

141. taula Nafarroako Unibertsitate Publikoko (NUP) ikasleen banaketa ⁽¹⁾

| Fakultateak eta Unibertsitate Eskolak | 13/14 ikasturtea | 14/15 ikasturtea ⁽³⁾ | % | Δ% (aurreko urtearekiko) |
|--|------------------|---------------------------------|--------------|--------------------------|
| Nekazaritza Ingeniariei GMET | 457 | 465 | 6,6 | 1,8 |
| Telekomunikazio eta Industria Ingeniariei GMET | 2.351 | 2.137 | 30,5 | -9,1 |
| Osasun Ikasketen UE | 581 | 613 | 8,8 | 5,5 |
| Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea | 1.427 | 1.314 | 18,8 | -7,9 |
| Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea | 1.696 | 1.743 | 24,9 | 2,8 |
| Zientzia Juridikoen Fakultatea | 551 | 557 | 8,0 | 1,1 |
| Ekonomia eta Enpresa Zientzien/Zientzia Juridikoen F. ⁽²⁾ | 132 | 171 | 2,4 | 29,5 |
| GUZTIRA | 7.195 | 7.000 | 100,0 | -2,7 |

(1): 14/15 ikasturtea – Behin-behineko datuak.

(2): Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako eta Zuzenbideko gradu bikoitzean matrikulatutako ikasleak biltzen ditu.

(3): Gainera, doktoregoko 445 ikasle eta masterreko 737 ikasle daude.

Iturria: Nafarroako Unibertsitate Publikoa.

2014/2015 ikasturtean, Nafarroako Unibertsitate Publikoak (NUP) 7.000 ikasle izan ditu, hau da, % 2,7 gutxiago. Nolanahi ere, fakultate bakoitzaren ikuspegitik, bilakaerak ez dira oso uniformeak izan. Balio negatiboak agertu dituztenak Telekomunikazio eta Industria Ingeniariei Goi Mailako Eskola Teknikoa (-% 9,1) eta Ekonomia eta Enpresa Zientzien

Fakultatea (-% 7,9) izan dira. Dena dela, bi horiek ikasleen % 49,3 bildu dute, eta ehuneko hori nahikoa da Unibertsitateko emaitza orokorra baldintzatzeko. Gainera, kontuan hartu behar da gainerako fakultateetan aldaketa txikiak izan direla. Zehazki, % 1,8ko igoera izan da Nekazaritza Ingeniarien Goi Mailako Eskola Teknikoan, % 5,5eko igoera Osasun Ikasketen Unibertsitate Eskolan, % 2,8ko igoera Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatean, eta % 1,1eko igoera Zientzia Juridikoen Fakultatean. Ekonomia eta Enpresa Zientzien/Zientzia Juridikoen Fakultateak igoera esanguratsua izan badu ere (% 29,5), proportzio txikia du ikasleen guztizko kopuruan eta, beraz, ez du aldaketa esanguratsurik eragin emaitzetan.

3. GARRAIOA

3.1 ERREPIDE BIDEZKO GARRAIOA

Kapituluari hasiera emateko, errepide bidezko garraioari buruz jardungo dugu. Nafarroako Foru Erkidegoan azken urteotako joera eten egin da, eta, 2014an, jardueran hobekuntza txikia ikusi da. Lehenengo eta behin, automobil-parkeak direla eta, Trafikoko Zuzendaritza Nagusiak (DGT) emandako datuen arabera, bi urtez beherakada txikiak izan ondoren (-% 0,1 2012an eta -% 0,9 2013an), 2014an goranzko aldakuntza txikia antzemana da, % 0,1ekoa, eta parkea, guztira, 432.180 ibilgailura iritsi da (iaz baino 276 gehiago). Horrela, bada, eta gorakada txikia kontuan hartuta, estatuan, Nafarroak du, oraindik ere, automobil-parkearen % 1,4.

Automobil-parkearen datuetan sakonduz, autoek hartzen dute oraindik parkearen gehiena (% 69,3); urtez urteko bilakaera goranzkoa da, baina aldakuntza ia ez da antzematen (% 0,2). Pisu erlatiboari dagokionez, hurrengo partida kamioiei dagokie. Kamioiak banaketa osoaren % 18 dira aurten, 2013an baino % 1,7 gutxiago. Bestalde, motozikletek (% 7,2) taldeko bilakaerarik onena dute, aurreko ekitaldiko balioak % 2,7 hobetu baitituzte. Azkenik, presentzia gutxiago daukate autobusek eta industria-traktoreek (% 0,2 eta % 0,9, hurrenez hurren). Produktu horiek, % 3ko eta % 3,7ko murrizketak izan dituzte, hurrenez hurren.

142. taula Nafarroako automobil-parkea

(unitateak)

| Urtea | Kamioiak | Autobusak | Autoak | Motozikletak | Industria-trakt. | Beste batzuk | Guztira | % Δ |
|-------|----------|-----------|---------|--------------|------------------|--------------|---------|------|
| 2005 | 73.582 | 872 | 269.531 | 18.830 | 4.546 | 15.003 | 382.364 | 3,2 |
| 2006 | 76.408 | 893 | 273.940 | 21.220 | 4.272 | 15.848 | 392.481 | 2,6 |
| 2007 | 80.847 | 923 | 286.394 | 23.740 | 4.695 | 17.221 | 413.820 | 5,4 |
| 2008 | 81.997 | 936 | 291.838 | 25.832 | 4.739 | 17.819 | 423.161 | 2,3 |
| 2009 | 82.087 | 950 | 294.293 | 27.206 | 4.510 | 17.916 | 426.962 | 0,9 |
| 2010 | 82.425 | 934 | 297.770 | 28.499 | 4.282 | 18.064 | 431.974 | 1,2 |
| 2011 | 81.745 | 932 | 301.238 | 29.700 | 4.290 | 18.268 | 436.173 | 1,0 |
| 2012 | 80.765 | 903 | 301.600 | 30.121 | 4.178 | 18.165 | 435.732 | -0,1 |
| 2013 | 79.249 | 842 | 299.058 | 30.406 | 4.198 | 18.151 | 431.904 | -0,9 |
| 2014 | 77.899 | 817 | 299.536 | 31.224 | 4.043 | 18.661 | 432.180 | 0,1 |

Iturria: Trafikoko Zuzendaritza Nagusia.

Foru Erkidegoko kamioien, industria-traktoreen eta autobusen matrikulazio garbiari dagokionez, aurreko ekitaldiko eredu berari eutsi zaio; 1530 unitate galdu dira 2014an, eta, 2013an, 1557. Estatuari dagokionez, matrikulazio horien bilakaerak ez dio eredu berari jarraitu. Estatu mailan, matrikulazio garbiari dagokionez, egoerak okerrera egin badu ere,

zifrak asko aldentzen dira aurreko urtean gertatutakotik; matrikulazioek 44.723 unitate behera egin badute ere, beherakada hori 2013ko beherakadaren (-102.747) erdia baino gutxiago da. Joera hori argia da autobusetan: matrikulazio kopuruak behera egin badu ere, beherakada motelagoa izan da, eta 2013an 1.235 ibilgailu gutxiago izatetik 2014an 93 gutxiago izatera igaro da.

143. taula Kamioi, industria-traktore eta autobusen matrikulazio garbia

(unitateak)

| Urtea | Kamioiak eta industria-traktoreak | | Autobusak | | Guztira | |
|-------|-----------------------------------|----------|-----------|----------|----------|----------|
| | Nafarroa | Espainia | Nafarroa | Espainia | Nafarroa | Espainia |
| 2005 | 3.324 | 237.374 | -18 | 1.291 | 3.190 | 247.492 |
| 2006 | 2.552 | 182.917 | 21 | 38 | 2.573 | 182.955 |
| 2007 | 4.862 | 320.747 | 30 | 2.753 | 4.892 | 323.500 |
| 2008 | 1.192 | 52.302 | 13 | 1.157 | 1.207 | 53.459 |
| 2009 | -139 | -62.641 | 14 | 467 | -125 | -62.174 |
| 2010 | 110 | -39.478 | -16 | -218 | 94 | -39.696 |
| 2011 | -672 | -46.715 | -2 | -87 | -674 | -46.802 |
| 2012 | -1.092 | -85.065 | -29 | -1.231 | -1.121 | -86.296 |
| 2013 | -1.496 | -101.512 | -61 | -1.235 | -1.557 | -102.747 |
| 2014 | -1.505 | -44.630 | -25 | -93 | -1.530 | -44.723 |

(*): Parkearen urtearteko aldakuntza.

Iturria: Trafikoko Zuzendaritza Nagusia.

Motorizazio-indizeak direla eta, 1000 biztanleko ibilgailuen tasari dagokionez, goranzko joera antzeman da, bai Nafarroako Foru Erkidegoan, bai estatu mailan. Nafarroak askoz ere profil dinamikoagoa du adierazle honetan; Estatuarenak baino tasa altuagoa du, eta aurreko ekitaldiko erregistroa hobetu du. Beraz, estatuan, ratioa 666 ibilgailutan dago (662tan, 2013. urtean), eta, Nafarroan, berriz, 679 ibilgailutan (676tan, 2013. urtean). Bestalde, auto bakoitzeko biztanle kopurua neurtzen duen adierazleari dagokionez, indarrean jarraitzen dute aurreko ekitaldiko balioek, alegia, 2,1 bai Estaturako, bai Foru Erkidegorako.

| 144. taula Motorizazio-indizeak | | | | |
|---------------------------------|-------------------------|----------|---------------|----------|
| Urtea | Ibilgailu/1000 biztanle | | Biztanle/auto | |
| | Nafarroa | Espainia | Nafarroa | Espainia |
| 2005 | 624 | 599 | 2,3 | 2,3 |
| 2006 | 652 | 638 | 2,2 | 2,2 |
| 2007 | 683 | 671 | 2,1 | 2,0 |
| 2008 | 682 | 670 | 2,1 | 2,1 |
| 2009 | 677 | 660 | 2,1 | 2,1 |
| 2010 | 678 | 661 | 2,1 | 2,1 |
| 2011 | 679 | 663 | 2,1 | 2,1 |
| 2012 | 676 | 660 | 2,1 | 2,1 |
| 2013 | 676 | 662 | 2,1 | 2,1 |
| 2014 | 679 | 666 | 2,1 | 2,1 |

Iturria: Trafikoko Zuzendaritza Nagusia eta geuk egina.

Ibilgailuen autobideko trafikoari buruzko informazioa kontuan hartuta, azken bosturtekoan jarduerak behera egin zuen; hala ere, 2014an, joera horren kontrara, gorakada egon da, %1,2koa, hain zuzen ere. Beraz, Nafarroan, ibilgailuen autobideko trafikoa egunean 17.391 ibilgailukoa da, krisialdiaren aurreko balioetatik oso urrun. Ekitaldi honetan, jardueraren gorakada horren arduradunak, batez ere, ibilgailu astunak izan dira: urtez urte % 2,9ko aldakuntza izan dute. Ibilgailu arinek, berriz, -jardueran nagusi dira (% 80,3)- ia ez dute aldakuntzarik izan (% 0,8).

| 145. taula Autobideko ibilgailuen trafikoa, Nafarroan* | | | | | | |
|--|------------------|------|-------------------|-------|----------------------|------|
| Urtea | Ibilgailu arinak | % Δ | Ibilgailu astunak | % Δ | Ibilgailuak, guztira | % Δ |
| 2005 | 14.269 | 3,9 | 4.190 | 1,3 | 18.459 | 3,3 |
| 2006 | 14.922 | 4,6 | 4.298 | 2,6 | 19.220 | 4,1 |
| 2007 | 15.367 | 3,0 | 4.384 | 2,0 | 19.751 | 2,8 |
| 2008 | 16.010 | 4,2 | 4.271 | -2,6 | 20.281 | 2,7 |
| 2009 | 15.954 | -0,3 | 3.703 | -13,3 | 19.657 | -3,1 |
| 2010 | 15.902 | -0,3 | 3.698 | -0,1 | 19.600 | -0,3 |
| 2011 | 15.633 | -1,7 | 3.686 | -0,3 | 19.319 | -1,4 |
| 2012 | 14.388 | -8,0 | 3.326 | -9,8 | 17.714 | -8,3 |
| 2013 | 13.850 | -3,7 | 3.330 | 0,1 | 17.180 | -3,0 |
| 2014 | 13.963 | 0,8 | 3.428 | 2,9 | 17.391 | 1,2 |

(*): Eguneko ibilgailuen batezbestekoa.
Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua.

Nafarroan errepide bidezko garraioaren atalarekin amaitzeko, jatorria edota helmuga Nafarroan duten salgaiei buruzko informazioa aurkeztuko dugu.

Errepideko Salgaien Garraioari buruzko Inkesta Iraunkorra¹ argitaratutako datuei jarraiki, Nafarroan aurreko ekitaldiko joerari eusten zaio, baina beherakada askoz ere nabarmenagoa izan da. Beraz, Foru Erkidegoan, salgaien garraioak beherakada handia izan du (-% 14,8) aurreko ekitaldikoa baino askoz ere nabarmenagoa (-% 2,9), eta, urtearen amaierarako, 28.504 mila tona baino gehiago garraiatu dira. Ordea, estatu mailan, egoera askoz ere hobea izan da: gorantz egin du salgaien garraioak (% 3), eta 2013ko joera hobetu egin da (orduko hartan, jardueraren abiadura moteldu egin zen % 7,5ean).

Datuetan sakontzeko, Nafarroan, aurreko ekitaldian bezala, eskualde barruko garraioak izan du bilakaerarik txarrena, izan ere, jarduerak okerrera egin du (% 26). Eskualde arteko garraioak ere joera bera izan du, baina askoz ere leunago, eta salgaien trafikoa % 7,9 baino ez da. Hala ere, egoera erabat aldatu da estatu mailako ikuspegitik, izan ere, jarduerak gora egin du (% 3), batez ere eskualde barruko garraioak sustatuta, zeinek % 4,2 egin duen gora. Eskualde arteko garraioa, aldiz, ez da ia aldatu.

146. taula Garraiatutako salgaiak.Jatorriko eta/edo helmugako eskualde barruko eta eskualde arteko garraioa*

(m Tm)

| Eremua | Nafarroa | | | Espainia | | |
|---------------------------|---------------|---------------|--------------|----------------|----------------|------------|
| | 2013 | 2014 | % Δ | 2013 | 2014 | % Δ |
| Eskualde barruko garraioa | 12.625 | 9.338 | -26,0 | 606.811 | 632.384 | 4,2 |
| Eskualde arteko garraioa | 20.812 | 19.166 | -7,9 | 265.049 | 265.780 | 0,3 |
| Guztira | 33.437 | 28.504 | -14,8 | 871.860 | 898.164 | 3,0 |

()*: Zifrak urte bakoitzeko osotasunari dagozkio.

Iturria:Sustapen Ministerioaren Estatistika Aldizkaria.

3.2 AIRE BIDEZKO GARRAIOA

Garraioari buruzko kapitulua amaitzeko, jarraian, Noingo aireportuko zifra handiak aztertuko ditugu. Hasteko, datuek erakusten dute 2014ko ekitaldian okerrera egiten duela Nafarroako aireportuaren egoera ahulak, jardueran izan duen okerrerezko joeraren ondorioz. Zehatzago esateko, aireontzi kopurua berriro ere murriztu da (%11,6); dena den, zati batean, azken urteotako beheranzko joera eten egin da (-% 23,5 2012an eta -% 28,7 2013an). Dinamika bera du bidaiarien kopuruaren joerak; izan ere, behera egin du, baina aurreko ekitaldian baino motelago(-% 12,7 2014an eta -% 16,2 2013an). Azkenik, beste

¹ Ikuspuntu metodologikotik, inkesta Trenbide eta Errepide bidezko Garraioaren Zuzendaritza Nagusiak errepideko garraiorako baimendutako ibilgailu astunen kolektiboari zuzenduta dago; ibilgailu horien karga erabilgarriko edukierak 3,5 Tm-tik gorakoa izan behar du eta gehieneko pisu baimenduak, 6 Tm-tik gorakoa.

aldean daude salgaiak, nabarmen hazi baita haien garraioa (% 196,4); hala ere, horrek ez die ekarpen askorik egiten aireportuko emaitza orokorrei, kontuan hartuta emaitza osoan duen parte-hartzea oso txikia dela (8,3 tona).

| Urtea | Aireontziak | | | Bidaiariak (m) | | | Salgaiak TM | | |
|-------|-------------|-------|--------------|----------------|-------|--------------|------------------------|-------|--------------|
| | Guztira | % Δ | % s/Espainia | Guztira | % Δ | % s/Espainia | Guztira | % Δ | % s/Espainia |
| 2008 | 9.672 | -8,0 | 0,47 | 427,5 | -13,2 | 0,21 | 52,9 | 11,4 | 0,01 |
| 2009 | 7.416 | -23,3 | 0,41 | 327,0 | -23,5 | 0,18 | 44,6 | -15,7 | 0,01 |
| 2010 | 6.973 | -6,0 | 0,38 | 284,4 | -13,0 | 0,15 | 42,6 | -4,5 | 0,01 |
| 2011 | 6.484 | -7,0 | 0,35 | 230,5 | -19,0 | 0,11 | 34,2 | -19,7 | 0,005 |
| 2012 | 4.963 | -23,5 | 0,29 | 183,9 | -20,3 | 0,10 | 12,0 | -64,9 | 0,002 |
| 2013 | 3.540 | -28,7 | 0,23 | 153,9 | -16,2 | 0,08 | 2,8 | -76,7 | 0,0004 |
| 2014 | 3.131 | -11,6 | 0,19 | 134,3 | -12,7 | 0,07 | 8,3 | 196,4 | 0,001 |

Iturria: Abiazio Zibileko Zuzendaritza Nagusia.

Jardueraren izaera kontuan hartuta, Noingo aireportuaren jarduera nazio barrukoa da, batez ere, eta ez hainbeste nazioartekoa. Aireontzien trafikoari dagokionez, bai eta bidaiariari dagokionez ere, nazio mailako hegaldiak hegaldi guztien % 91,1 eta % 97 dira, hurrenez hurren. Salgaien atalean, berriz, egoera kontrakoa da: nazioarteko trafikoak da nagusi (% 98,8).

Analisi hori bera bilakaeraren ikuspegitik eginez gero, analisiak aztertzen dituen hiru adierazleetan barneko trafikoak behera egin duela ikusten da. Alegia, % 12,7 aireontzien trafikoari dagokionez eta % 12,5 bidaiarien garraioan. Salgaien atalean, beherakada hain da nabarmena, non barneko trafikoa ia desagertu egin den (0,1 tona garraiatu dira, urtez urteko -% 88,9ko aldakuntzaren ondorioz). Nazioarteko eremuan aldagai horien jarduerari dagokionez, partiden arabera hainbat joera ditugu. Nahiz eta aireontziek % 1,8ko gorakada txikia erakutsi duten, bidaiarien kopuruak beherakada nabarmena izan du (-% 20); salgaiak, bestalde, gorakada nabarmena izan dute, % 331,6koa.

148. taula Iruñeko aireportuko aire bidezko garraioa, jatorriaren arabera

| Urtea | Aireontziak | | | Bidaiariak (m) | | | Salgaiak (Tm) | | |
|-------|-------------|---------------|---------------|----------------|---------------|---------------|---------------|---------------|---------------|
| | Guztira | Barrual-dekoa | Nazioarte-koa | Guztira | Barrual-dekoa | Nazioarte-koa | Guztira | Barrual-dekoa | Nazioarte-koa |
| 2008 | 9.672 | 8.825 | 847 | 427,5 | 413,4 | 14,1 | 52,9 | 36,5 | 16,4 |
| 2009 | 7.416 | 6.703 | 713 | 327,0 | 317,7 | 9,3 | 44,6 | 35,8 | 8,8 |
| 2010 | 6.973 | 6.218 | 755 | 284,4 | 273,8 | 10,6 | 42,6 | 28,6 | 14,0 |
| 2011 | 6.484 | 6.131 | 353 | 230,5 | 222,5 | 8,0 | 34,2 | 7,0 | 27,2 |
| 2012 | 4.963 | 4.805 | 158 | 183,6 | 180,1 | 3,5 | 12,0 | 5,2 | 6,8 |
| 2013 | 3.540 | 3.267 | 273 | 153,9 | 148,9 | 5,0 | 2,8 | 0,9 | 1,9 |
| 2014 | 3.131 | 2.853 | 278 | 134,3 | 130,3 | 4,0 | 8,3 | 0,1 | 8,2 |

Iturria: Abiazio Zibileko Zuzendaritza Nagusia.

Azkenik, kapitulua ixteko, 2014ko aerodromoko gertakaririk nabarmenenak jasotzen dira. Noingo aireportuak, dagoeneko, linea bakarra du, Nafarroako hiriburua Madrilekin lotzen duena. Berritasun gisa, udan beste ibilbide bat estreinatu zen, Nafarroako hiriburua Menorcaekin lotzen duena, eta Air Nostrum konpainiak udan zehar Palmarako eta Teneriferako hegaldiak eskaintzen jarraitu zuen. Era berean, aireportuko zifra handiak oso onak ez badira ere, aerodromoko arduradunak itxaropentsu daude aerodromoaren etorkizunari dagokionez.